SAGARDOAREN KULTURA BIDASOAN

KOLDO ORTEGA

1. argitaraldia, 2026
© Argitaratzailea: ARMA PLAZA Fundazioa, 2026
© Testuak: Koldo Ortega (koordinazioa), Asier Agirresarobe,
Atocha de Alós, Xabier Alberdi, Imanol Amestoy,
Valentín de Céspedes, Luis del Barrio Pascal Mitxelena,
Lourdes Odriozola, Oihana Rekalde eta Josu Tellabide, 2026
© Azala: Matias Guilló, 2026
© Argazkiak: Matías Guilló eta Josetxo Riofrío
Zuzenketa ortotipografikoa: Miriam Villares
Itzulpena: LUMA

Esker onak: Pía Alkain, Sagrario Arrizabalaga, Miren Ayerbe,
María Jesús Berrotaran, Xabier Castro, Jesús Cuenca, Ana Galdos,
Xabier Gojenola, Matias Guilló, Juan Pablo Huércanos,
Mikel Jauregi Berrotaran, Xabier Kerexeta, Juan Carlos Mora,
Xabier Sagarzazu eta Juanma Sarasola

ISBN: 978-84-09-83117-3
Lege gordailua: LG D 839-2026
Eskubide guztiak babestuta. Ezin da obra osorik edo zati batean
erreproduzitu, ezta sistema informatiko batean sartu ere, ez eta
edozein modutan edo edozein bitartekoren bidez (elektronikoa,
mekanikoa, fotokopia, grabazioa edo beste batzuk) transmititu,
copyrightaren titularren aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.
Eskubide horiek urratzea jabetza intelektualaren aurkako delitua
izan daiteke

Argitaratzailea ez da egileak liburu honetan emandako kontzeptuen
eta iritzien erantzule

SAGARDOAREN KULTURA BIDASOAN

Sagardoa kultura bihurtu zuten
Bidasoaldeko pertsona guztiei

Dolarea (Omenaldia dolareari edo Aintzako dolarea), Remigio Mendiburu. 1965.
Argazkilaria: Kruz. Mendiburu familiaren artxiboa.

AURKIBIDEA

HITZAURREA 5
Igor Enparan Araneta

SARRERA 7
Koldo Ortega

1. KULTURA-BIDASOA-SAGARDOA 9
Koldo Ortega
1.1. Bidasoa 11
1.2. Sagardoa 18

2. SAGARDOA LURREAN 21
Koldo Ortega
2.1. Sagarraren kultura mitikoa 21
2.2. Jatorrien bila 23

3. SAGARDOA ETA SAGARRA EUSKAL HERRIAN: NAZIOARTEKO LOTURAK 27
Pascal Mitxelena
3.1. Aldez aurreko ohar batzuk 27
3.2. Nola ikusi gaituzten antzinako egileek 27
3.3. Euskaldunen presentzia Amerikako kontinentean 1492 baino lehen 32

4. SAGARDOA EUSKAL HERRIAN 35
Koldo Ortega
4.1. Nola eta noiz iritsi zen sagarra Euskal Herrira 35
4.2. Ardoaren eta sagardoaren artean 36
4.3. Sagarra 37
4.4. Lehen testu historikoak 39
4.5. Sagardoari buruz aukeratutako testuak 39
4.6. Dolare baserriak Gipuzkoan 42

5. SAGARDOA ETA ITSASOA 45
5.1. Sagardoa eta Itsasoa 45
Lourdes Odriozola Oyarbide

5.2. Sagardoa Euskal Marineleen babesle 47
Koldo Ortega

6. EMAKUMEA ETA SAGARDOA 51
Koldo Ortega
6.1. Erakusketa: Emakume ekintzaileak sagardogintzan 51
6.2. Emakumeek idatzitako testu historikoak 53

7. SAGARDOA EGITEKO SAGARRA GIPUZKOAN 57
Pascal Mitxelena eta Koldo Ortega

7.1. Foru sagardoa 58
7.2. Mutina Oiartzunen sagardoa medio 58
7.3. Sagardoaren defentsa epikoa 59
7.4. Sagardoa Gipuzkoan duela 1000 urte 60
7.5. Oraina-etorkizuna 61

8. SAGARDOA BIDASOAN 67
Xabier Alberdi Lonbide

8.1. Sagardoaren kultura Bidasoan 67

9. NAFARROAKO DOLAREAK BIDASOAN 71
Asier Agirresarobe, Luis del Barrio eta Josu Tellabide

9.1. Dolareen zerrenda 71
9.2. Leku-eder baserria Beran 80
9.3. Txotx bat lehengo erara Gamioxarrea baserrian 80

10. DOLAREAK IRUNEN 83
Koldo Ortega

10.1. Datu historikoak 83
10.2. Sagardotegien zerrendak 86
10.2.1. Migeltxo Martiarena 86
10.2.2. Juanma Sarasola 87
10.2.3. Antonio Aranburu Peluaga 95
10.3. Desfilea Euskal Jiran 102
10.4. Errepublikako sagardoa 103
10.5. Beraungo dolareak 103
10.6. Mihuraren aurkako borroka 105
10.7. Antzinako dolarea San Martzialen: Aginaga baserria (Meaka) 107
10.8. Aranburu baserria: iraganeko etorkizuna. Aranburu leinuari eta etxeari buruzko iruzkinak 108
Valentín de Céspedes eta Atocha de Alós
10.9. Sagarrek proiektua 115
Oihana Recalde

11. DOLAREAK HENDAIAN 119
Imanol Amestoy

11.1. Sagastia Abbadiako eremuan 119
11.2. Kupela sagardotegia 120

12. SAGARDOA HONDARRIBIAN 123
Koldo Ortega

12.1. Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Maria 123
12.2. Hipotesi arkeologikoa 125
12.3. *Txakolina*/sagardoa binomioa 126
12.4. Datu historikoak Aro Modernoan 128
12.5. Felipe V.aren ordenantza (1701) 131
12.6. Hondarribiko antzinako dolareak 133
Asier Agirresarobe eta Josu Tellabide
12.6.1. Dolarea Erromeronea baserrian 134
12.6.2. Dolarea San Antonio etxean 137
12.7. Sagardogileak eta sagardotegiak XIX. mendeko Hondarribian 138
12.8. Sagardogintza: 1900-2026 141
12.8.1. Sagarrak, sagastiak, dolareak eta sagardotegiak (Maximo Sagarzazu) 144
12.8.2. Sagardotegien zerrenda (Florentino Portu) 146
12.8.3. Sagardoa egiteko lantegia Hondarribian 148
12.8.4. Serafin Sagarzazu Sagarzazu 148
12.8.5. Kamio-txiki baserria 150
12.8.6. Zigarroa baserria 151
12.8.7. Beko-errota eta Ardoka sagardotegiak 152
12.8.8. Zoriona etxea 153
12.8.9. Higeralde sagarlekua 153
12.8.10. Sagar mintegia Hondarribian 154

13. OROITZAPENAK, TESTIGANTZAK, BITXIKIERIAK ETA ANEKDOTAK 157
Koldo Ortega

13.1. Luis Mariano: abeslari sagardotegietan 157
13.2. *Apuru* galdua 159
13.3. *Zizarra* hitzaren etimologia 159
13.4. Hilezkortasunaren sagardoa 161
13.5. Sagardo salmenta 162
13.6. Bi bitxikeria 167
13.7. Sagardotegia eta bere katedradunak 168
13.8. Sagardoari buruzko istorio biziak 170
13.9. Euskal sagardoa New York Times egunkarian goraipatua 170
13.10. Asturiasko sagardoari buruzko katedra Oviedoko Unibertsitatean 171
13.11. Gipuzkoako sagardoaren nazioarteko aitortza 171

14. SAGARDOA GAUR EGUN: OLA SAGARDOTEGIAREN ZILARREZKO EZTEIAK 175
Koldo Ortega
14.1. Gaur egungo sagar barietateak Olan 176
14.2. Ola sagardotegia: denbora eta espazioa 178
14.3. Giza faktorea 179
14.3.1. Iñaki Bengoetxea Aizpiolea 179
14.3.2. Xabier Sagarzazuk egindako elkarrizketa 180
14.3.3. Mañu de la Puentek egindako elkarrizketa 181
14.3.4. Asier Perez-Karkamok egindako elkarrizketa 181
14.4. Ola: sagardotegi bizia 184
14.4.1. Ola: Euskal sagardoa 184
14.4.2. Iragana gaur egun 186
14.4.3. Sagardoaren eguna (2023ko urriak 1) 186
14.4.4. *Txotx* denboraldiaren irekiera (2024ko urtarrilak 21) 187
14.5. Sagardoa, bertsolariak eta Ama Guadalupekoa trainerua 188
14.6. Ola, 25 urte: iragana eta etorkizuna orain 190

15. KONTSULTATUTAKO ITURRIAK 197
Koldo Ortega
15.1. Idatzizkoak: liburuak, egunkariak eta aldizkariak 197
15.2. Digitalak 200
15.3. Artxiboetakoak 201
15.4. Dokumentu gehigarria 201
15.5. Sagardoaren kulturarekin lotutako piezen katalogoa Gordailuan (Irun) 210
Asier Agirresarobe

Sagardotegiyak

Gipuzkoa'ko mendi ta ibarrak
dira txit ikusgarriak,
apaingarritzat bizkar gañetan
azalduaz basarriak,
soro askotan lorez beteak
uda-berrin sagastiak,
gero udaran sagar jario
daudelaz ugoitz guziok.

Sagarra degu Euskalerrian
zugaitzetan maiteena,
ortik bai dator erari goxo
geienak maite deguna,
neurriz eranda barrena pill-pill
alaiki jartzen deguna,
gure eztarria legor badago
auxe bai dala gauz ona.

Ondarribi'n ta, emen Irun'en
gu gazte giñan orduan,
Kupeltegiak ugari nun nai
neskatx bat kupen onduan,
sagardo garbi txinpart jario
artuaz bere eskuan...
irri-far goxoz eskeintzen zuten
pozik eraten genduan.

Kea jario txoko batean
arrai prexkuak erretzen,
su bazterrean txanda begira
askotan giñan egoten,
jan ta eranaz alai jarririk
gero bertzuak kantatzen...
gaurko gazteak, geienak beintzat
zine'ra zaizkigu juaten.

Bi edo iru sagardotegi
besterik ez da gaur emen
ta Ondarribi'n orain artian
ez dira asi zabaltzen,
agintariak ez badigute
errextasunik ematen,
oso bildur naiz oitura zar au
laixter galduko ote den.

Juan Baxurko Ansola

HITZAURREA

Sagardoa ez da soilik edari huts bat. Kultura da, memoria da eta komunitatea da. Horixe bera sentitu dut, berriz ere, Koldo Ortegaren eskuetatik eta begiradatik sortutako liburu hau irakutzean. Aspalditik ezagutzen dut egilea, eta horrexegatik esan dezaket liburu hau ez dela ausaz ondu: dedikazio luzearen, behaketaren, ikerketaren, ezin konta ahala elkarrizketaren emaitza da, eta, batez ere, lurraldearen, jendearen eta Bidasoa ibaiaren bi ertzak historikoki josi duen sagardoaren kulturaren aurreko maitasunaren emaitza.

Liburu hau ez da sagardoari buruzko datu teknikoen bilketa soil bat. Kultura baten kronika da. Historia, giza balioa eta Bidasoko sagardoaren nortasun kolektiboa uztartzen dituen kontakizuna da. Zorrozki erabili dira agiriak eta iturriak, baina betiere bizitako esperientzia oinarri hartuta, pertsonen hitzetatik eta partekatutako memoriatik abiatuta. Horretan datza, nire iritziz, obra honen indargune handietako bat.

Koldo Ortegak subjektu gisa tratatzen du sagardoa, ez aztergai huts gisa. Sagardoa lanaren fruitua da, baina, aldi berean, aisialdiaren, gizarte harremanen eta kulturaren transmisioaren ardatza. Sagastitik kupelera, kupeletik mahaira eta mahaitik komunitatera doan ibilbide hori ezin hobe dago jasota liburuan barna. Gainera, hala espezialisten nola sagardoaren munduarekin estu lotuta dauden pertsonen kolaborazioari esker burutu ahal izan da lan hau. Horien ekarpenek aberastu egin dute edukia, eta sagardoaren munduaren aurrean duten ikuspegia jaso da. Askotariko begirada eta ikuspegi horiek ekarpen plurala, zorrotza eta gure kulturan guztiz errotua bihurtzen dute lan hau.

Bidasoa, ibaiaz gain, muga eta zubia izan da historian barrena. Ibaiertzetako herriak batu ditu, eta sakonki markatu ditu herriotako bizimoduak. Hondarribia, Irun, Hendaia, Bera eta inguruko herriak ezin uler daitezke sagarrik eta sagardorik gabe. Liburu honek argi eta garbi eta behar bezala dokumentatuta uzten du agerian lotura hori.

Hondarribiak leku garrantzitsua hartzen du liburuan. Zehatz deskribatzen dira sagardoak gure hirian izan duen presentzia historikoa, duen sinbolismo erlijiosoa, dolare zaharrak, industriaren aztarnak eta gaur egungo OLA sagardotegiaren nondik norakoak. OLA ez da sagardotegi huts bat: iraganaren eta etorkizunaren arteko zubia da, sagarrak burdinaren lekua hartu duen tokia, lanaren eta eraldaketaren oinarria galdu gabe.

Era berean, sagardoaren dimentsio sozialari, sinbolikoari eta kulturalari heltzen dio liburuak. Txalapartarekin duen loturak, artearen eta bertsolaritzaren eginkizunak eta hainbestetan ikusezin bihurtutako emakumearen presentzia historikoak beren tokia dute hemen. Gainera, erantzuteko geratzen dira bizi ditugun garaiotan ezinbestean egin beharreko galdera batzuk, hala nola genero ikuspegia eta sagardotegietako turistifikazioaren eragina.

Liburu hau ez da oroimen ariketa bat. Orainalditik etorkizunari begira egiten den irakurketa da. Izan ere, memoriaren bidez baizik ezin dugu ulertu zer garen eta norantz jo nahi dugun. Liburua hau lagungarria duzu inola ere: balioa ematen die gure sustraiei, gure ondareari, eta ondare sendoa eta garrantzitsua eskaintzen die belaunaldi berriei.

Niretzat ohorea da hitzaurre hau sinatzea. Ohorea jendaurrean aitortu ahal izateagatik Koldo Ortegak egindako lana, eta ohorea Bidasoko kulturaren zati baliotsu honen lekuko izateagatik. Merezi zuen tratamendua izan du obra honek: zorroztasun akademikoa, sentiberatasun kulturala eta gizatasun sakona.

Irakurleak hemen ez du informazioa bakarrik aurkituko. Memoria aurkituko du, emozioa eta, une askotan, bere buruaren isla. Sagardo zurrutada on batek bezala, hasiera-hasieratik freskatzen duen irakurketa da, arrasto sakona eta iraunkorra uzten duena.

Igor Enparan Araneta,
Hondarribiko Alkatea eta
ARMA PLAZA Fundazioko Patronatuburua

SARRERA

Egile honek, bokazioz eta formazioz historialaria, Bidasoaren bokalean bizi dena, sagarraren islarekin topo egin zuen ibaiaren uretan. Tentazioan erori eta ikerketa historikoaren xede den hirutasun bihurtu zituen sagarra, sagardoa eta Bidasoa.

Historia historia poliedriko gisa kontatzeko, ondo finkatuta eta oinarri sendoekin, historia kontatzeko moduak askotarikoak direla jakinda, kolaboratzaile fidagarrietara jo du egileak, liburua osatzeko eta ontzeko beharrezko ekarpenen bila. Hori dela eta, egilea baino koordinatzaileagoa izan dela esan behar dugu.

Liburuaren funtsa ekarpen horien kohesioan, artikulazioan eta akoplamenduan oinarritzen da. Ekarpen horiek metodologia akademiko batetik abiatuta egin dira, orri oineko oharrekin, eta beste kasu batzuetan, berriz, irakurketa arintze aldera, testuan elkartzen dira aipuak eta dokumentuak, betiere liburuaren iturrietan aipatzen direnak.

Esku artean duzun liburuak, irakurle interesatu hori, liburu korala eta polifonikoa izan nahi du. Hots, koruan egindako liburua, zein-aren askotariko soinuak sagardoaren kulturaren zerbitzura jartzen baitira Bidasoaren inguruan.

Egileak susmoa du historia «zientifikoak» aldatu dezakeela gaur egun dugun begirada, eta badaki Bidasoan sagardoaren kultura ondare bizia dela, belaunaldiz belaunaldi ehundua, non tradizioa, paisaia eta pertsonak modu banaezinean elkartzen diren. Horregatik, lan honek ez zukeen forma hau hartuko hainbat egile eta adituren laguntza baliotsurik gabe. Haien ezagutzak, ikerketak eta ikuspuntuak oso lagungarriak izan dira orrialde hauek aberasteko, eta sakontasuna eta zorroztasuna eman dizkiete hemen aztertzen diren alderdiei.

Liburuko kredituen orrian edo lege orrialdean dago jasota testu egileen zerrenda, egindako ekarpenak liburuko aurkibidean jasota daudela, baita esku hartu duten kolaboratzaileena ere. Guztiei eskertzen dizkiegu egindako ekarpen idatziak eta artistikoak, hala margolanen nola argazkien bidez egindakoak.

Jarritako material guztiak teknikoei aurkeztu zaizkie, eta zuzendu eta bereizi egin dituzte orain esku artean duzu liburua diseinatu arte. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu liburuan agertzen diren babesleei.

Horien guztien arteko lankidetzak, agian baten bat falta bada ere, liburua era berean sinergetikoa izatea ekarri du, hau da, bakoi-tzak bere energia erabili du, besteenarekin batera, dakizkienak sagardoaren kulturaren zerbitzura jartzeko. Liburu hau, neurri handi batean, haiena ere bada.

Hala ere, funtsezko elementu bat falta da burura eramateko hainbeste lagunen ekarpena eskatu duen liburuko sarrera honetan: zu zeu, irakurle adiskidea, zeuk irakurtzeko ahaleginak egin ditudan liburu honen parte ere bai baitzara. Egin dezagun guztiok bat!

Koldo Ortega

KULTURA BIDASOA SAGARDOA

Euskal Herriko sagardoaren munduan sartzea euskal kultura bizia eta bizitutakoa elikatzen duten sustrai sotilenetako batean sakontzea da. Hala ere, Euskal Herriaren barruan, Bidasoko Herriari erreparatuko diogu liburu honetan, Bidasoa ibaiko urek bustitako entitate geografikoari eta gizatiarrari.

«Colere» (landu) aditz latindarretik eratorritako hitza da *kultura*. Hori bai, kultura hitzaren definizio ugarien artean, liburu honetan sagarraren laborantza aztertuko dugu, gure arbasoen egiten jakiteari esker, kultura bihurtuta. Sagardoaren kultura horrek, izadiaren osagarri, Bidaso aldeko eguneroko bizitzaren zatia osatzen zuen aspaldian eta luzaroan, eta baita, hein apalagoan bada ere, gaur egun ere gure artean. Sagardotegi haietan, hots, sentsazioen eta emozioen historia biltzen duten leku haietan, sagardoaren kultura zer izan zen azaltzen eta gogorarazten du liburuak.

Sagardo zurrupadak bizitza zurrupadak ziren gure arbasoentzat, euskal musika tresna enblematikoaren –*txalaparta*– soinuaren inguruan modu magikoan biltzen zirenentzat.

Ba al zenekien *txalapartaren* jatorria estu lotuta dagoela sagardoaren kulturarekin? Fernando Galvanoren arabera, Jorge Oteizak, bere *Quosque tandem...!* saiakera lan ezagunean (1963) kulturaren pizkunde bat sustatzeko egindako saioan, euskal kultura testuinguru frankistan berpizteko ikonotzat, adierazgarritzat eta sinbolotzat du *txalaparta*: «La txalaparta es un ritmo primitivo, ritual, que aún se conserva, casi perdido, en algún lugar guipuzcoano, que sirve para avisar en el campo que ya ha concluido la elaboración de la sidra en ese determinado lugar».

Oteizaren ideia sortzaile hori hitz bihurtu zen eta, Remigio Mendibururen eskutik, eskultura. Lehenik hitz bihurtu zen:

> *Txalaparta, tablón de fresno horizontal, música de trabajo, sudor, manzana, cansancio, respiro, comunicación en el valle, en el bosque, la cañada y el Más Allá.*
>
> *Fiesta, liberación del trabajo, ritmo perdido en el caserío, ritmo de ayer... Txalaparta, susurro viejo, madero a los vientos de siempre.*

Eta geroago, edo beharbada aldi berean, eskultura bihurtu zen, zurezko arte::

Txalaparta, Remigio Mendiburu. Zurean landutako eskultura, 86 × 430 × 68. San Telmo Museoko bilduma.

Era berean, eskultura enblema bihurtu zen *Txalapartaren* ingerada *Ez dok amairu* herri mugimenduaren ikono bihurtu zenean, Nestor Basterretxeak marraztutako logoari esker.

Hogeita hamar urte geroago, Gipuzkoako Foru Aldundiak agindutako brontzezko kopia bat instalatu zen Jaizkibel mendiko Ama Guadalupekoa Santutegiaren gibelaldeko zelaian. Egia esan, Juan Pablo Huércanos eta Fernando Galvano adituen arabera, egituraren aurreko zoruko plakan adierazitako data aldatu behar da, 1961 ez baizik eta 1965 irarri behar da.

Ama Guadalupekoa santutegiko zelaian dago Txalaparta eskultura.

Sagardoaren kultura herrien ondare materiala eta immateriala da, eta ondare hori, Bidasoa ibaiak bustitako herrietan, senar-emazte bihurtzen da, Bidasoa ibaiaren bazterreko biztanleen gizarte identitatearen oinarrian lotura estua sorraraziz. Herri horietako familiak bildu egiten ziren sagarrondoak kimatzeko lanak egiteko, sagarra biltzeko eta sagardoa egiteko eta dastatzeko. Sagardoaren kultura Bidasoko herrien ertzetan errotu da, gaur egungo idiosinkrasiaren zati izateraino, eta iragana eta etorkizuna uztartzen dituen hari ikusezintzat antzematen da.

Gaur, XXI. mende betean, sagardoaren munduan ikertzen jarraitzen badugu, gurekin nolabaiteko zerikusia duelako izango da. Izan ere, liburu honen xedea da, sagardoaren egungo munduari ekarpen berri bat egiten saiatzeaz gain, zurekin konektatzea, eta zure arbasoen giroan murgiltzea, txinparta pixka bat eman baitzien beren bizitzei. Iragana kontatzen dugu orainaldia ulertzeko, hau da, zurekin hemen eta orain egon nahi dugu zeure historian sar zaitezen. Baina, nola konektatu sagardoaren inguruko emozioekin?

Oparoa eta aberasgarria da sagardoari buruz dagoeneko idatzi eta deskribatu dena, baina hau ez da errepikatzeko tokia, ezpada irakurleei mundu hori ezagutu dezaten egiten zaien enbidoa eta, aldi berean, liburu berri bat aurkezteko moduari eta funtsari zerbait berria eskaintzeko tokia. Esan gabe doa, liburua esparru akademiko batetik idatzia da, historiaren metodologia zientifikoan oinarrituta, baina irakurleei modu atseginean, ulergarrian eta erabilgarrian aurkeztuta.

Gaur egungo sagardo zurrutaden bidez, arbasoen memoria eraikitzen saiatzen gara, bizi izandakoak eta, agian, ahaztutakoak kontuan hartuz, ekarpen berriak egiteko sarbide gisa.

Liburuak historia *in situ* kontatzeko aukera ematen digu, Bidasoatik, bertan hizki larriz idatzitako Historiarekin berarekin lotzen baita sagardoaren kultura. Horrexegatik, dauden hutsuneak betetzen eta, aldi berean, sagardoak Bidasoaren inguruan duen garrantzia agerian uzten saiatzen diren dokumentuak eskaintzen dira liburu honetan, xehetasun guztiekin. Gure artxiboez gain, dokumentu iturri gisa garaiko kazetaritza kontuan hartu dugu, unean unekoa, urteen poderioz historia, ondare eta kultura bihurtu dena.

Liburuan oroitzapen, narrazio eta istorio xume pertsonal batzuk biltzen dira, memorian gordeak, inolako zalantzarik gabe geure kulturara hurbilduko gaituen historia horren kupela eraikitzen dutenak. Idatzitako ekarpenak *plagiatzeko* moduko testigantza gisa errespetatzen dira, eta liburu honetako orrialdeetan txertatu dira. Hortik abiatuta, ezagutza hedatzea baino egindako ekarpena aitortzea da xedea. Liburuak konfiantzazko pertsonen ekarpenak lehenesten ditu, ezinbesteko erreferenteak baitira bidasotar kulturarentzat. Hori dela eta, liburu korala eta poliedrikoa da.

Liburuaren bereizgarria da sagardoa ikasketa objektu gisa ez baizik eta jardueraren subjektu gisa kokatzen duela. Helburua da sagardoa subjektu bihurtzea *huts egindako* Bidasoko errepublika barojatar honetan.

Sagardoaren kulturari buruzko liburu honetan, sarrerako kapitulua *sagardo* hitzari berari emana dago, bai alderdi linguistikoari dagokionez bai alderdi mitologiko, literario eta historikoari dagokienez. Hitzetik abiatuta, sagardoak munduan eta Euskal Herrian, batez ere Nafarroan eta Gipuzkoan, Bidasoa ibaiaren inguruan, izan dituen jatorri posibleak hartu dira kontuan. Osagarri gisa, Ola sagardotegian zentratuko gara, bertan oraindik ere sagardoaren kulturarekin bat egin baitezakegu guztiz: sagarrondoaren landaketa, uztaren bilketa, sagardogintza eta sagardoaren dastaketa.

Agian jatorrizko ideia delako, Bidasoaldeko sagardoaren kulturaren barnean garrantzi handiagoa eman zaio Hondarribiari, sagarrarekin ez dakit zer bat antzematen baita bertan, Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Mari elizan kultura gurtza bihurtzeraino.

Hauxe izango da gure istorioa: ez iraganeko ezagutzak zenbaki gehiagorekin edo gutxiagorekin lagunduta ematea, baizik eta beste garai batzuetan bizitakoaren testigantzak eskaintzea dastatutako emozioen bidez; izan ere, hauxe dio Urkiri Salaberriak: «Janarien (edarien) alde emozionala, koipe eta kalorien kopurua bezain garrantzitsua da. Ez gara erregai faltan dauden makinak, fisika-kimika, bizipen eta elkarbizitza alderdietan elikatzea behar dugun pertsonak gara».

Sagardotegi haiek sozializazio lan handia egiten zuten, eta, zalantzarik gabe, bizitzarako eskolak ere baziren. Halaxe islatu zuen Juan Jose Udarregi bertsolariak: «gure kolejiyuak / sagardotegiyak» ozenki abestuta. Hor, sagardotegia hitzean, liburu honen oinarria eratzen duen aulkiaren hiru hankak ditugu: *sagarra, sagardoa* eta *sagardotegia*.

Gaur egun zergatik desagertu da Hondarribian sagardotegien mundua? Giroan nabari den galderari erantzuteko joan-etorriko bidea egiten hasi beharko dugu. Nola iritsi gara egoera honetara?

Nabarmendu behar da OLA Sagardotegiak, iraganeko burdinola hura zegoen lekuan, non suak burdinari txinpartak ateratzen zizkion, txinparta horri piztuta eusten diola eskualdean, sagardoaren txinpartei esker. Gaur egun, zilarrezko ezteiak ospatu ondoren, OLA sagardotegiak iraganaren eta etorkizunaren batasuna irudikatzen du lurraren produktua, lehen burdina eta gaur egun sagarra, teknika zehatz bat erabiliz, betiere teknika berritua eta eguneratua erabiliz, giza biziraupenerako produktu baliagarri bihurtzeko lanari esker. Gaur egungo sagardotegian iragan hura antzematen da, burdinaren lekuan zurezko kupelak nagusitu badira ere. Gaurtik iraganera eta iraganetik orainaldira, gaur egungo OLA sagardotegian nabari diren bi lerroak elkartzen saiatuz: iragana eta orainaldia, etorkizunari zabalduta.

Sagardoaren munduaren ezagutzak lagundu egiten du gure arbasoen lanak eta bizipenak ezagutarazten, haien aisialdia batez ere gizonak nagusi ziren sagardotegien inguruan ematen baitzuten. Gaur egun, agerian geratzen ari da emakumeen presentzia sagardoaren kulturan, hala ekoizpenean nola dastatzeko orduan, baina historian zehar ez da horrela izan. Beraz, dokumentuek eskaintzen dituzten aukeren neurrian, emakumeek kultura honetan bete duten eginkizuna azalduko dugu. Halere, zilegi den eta gure artean bolo-bolo dabilen galdera egiten jarraitzen dugu: nola jorratu gai hau eta beste gai batzuk genero ikuspegitik?

Nola uler ditzakegu iraganeko pertsonak eta gertaerak beren testuinguruan? Iragana ez da desagertzen eta beti dago orainaldian, batzuetan ikusezin eta besteetan, sagardoaren kasuan bezala, guztiz agerian, hain agerian ezen sagardotegien munduaren gaur egungo egoera, batez ere Astigarragan eta Hernanin, kezkagarria baita sagardotegien turistifikazioa eragin duen egungo *neurrigabekeria* dela eta.

1.1.- BIDASOA

Liburu honetako protagonista sagardoa bada ere, protagonista da, era berean, Bidasoa ibaiaren inguruan gertatzen den guztia. Izan ere, sagardoaren kulturaren eta Bidasoaren inguruaren arteko loturak izokina bera gainditzen du gastronomiaren kulturan.

Ibaiak hiru tratamendu linguistikoak jasotzen ditu: frantsesez femeninoa: «la Bidassoa»; gaztelaniaz maskulinoa: «el Bidasoa»; eta euskaraz neutroa: «Bidasoa», agian maskulinoa eta femeninoa aldi berean. Kontua da ibaiak hiru hizkuntza horiek hartzen dituela: euskara, gaztelania eta frantsesa, eta urteen joanean lapurtarren, gipuzkoarren eta nafarren arteko topaketen eta eztabaiden lekuko izan dela ibaia. Bidasoa itsasoari, baserriari, burdingintzari eta, gaur egun, turismoari emanak diren euskaldun horiek guztiak batzeko zubia dugu.

Baina Azkueren hiztegiaren arabera, Etxalarren eta Lesakan hala jaso baitzuen, 'riachuelo en general, corriente de agua' da *bidaso* hitzaren esanahia, eta hauxe gaineratzen du: «De aquí sin duda viene el nombre propio del río Bidasoa».

Diccionario Retana de autoridades de la lengua vasca hiztegiak, Azkuenaren osagarri, 'riachuelo' gisa itzultzen du bidaso hitza, eta hauxe azaltzen du:

> *El Bidasoa no es un nombre propio como muchos han creído; se percibe en el lenguaje de los aldeanos que lo emplean como un nombre común, por ejemplo cuando dicen: bidaso hori. Joannes Etcheberri, escritor vasco de Ziburu (Laburdi) lo emplea como nombre común en 1627 (Manual devotionezcoa): Belhar zurthiñez gorputzak haz gintzake iuiuski / Eta edaran bidaso mendikoaz gozoki.*

Ibilbide historiko luzekoa da *Bidasoa* izena. Ibai horri buruzko lehendabiziko testigantza Pomponio Mela geografo hispaniar-erromatarrari zor diogu, I. mendeko 40. hamarkadan idatzitako *Chorographia* obran Magrada esan ziolarik Bidasoa ibaiari. Halaxe jaso zuen Arnaut Oihenartek bere *Notitia utriusque vasconiae* (1638) obran eta, geroago, baita beste batzuek ere, hala nola Joseph Moret jesulagunak. Eztabaidagaia izan da, da eta izango da Magrada Bidasoa ibaiarekin identifikatzeko kontua, batzuek ontzat ematen baitute eta beste batzuek baztertzen baitute. Gure Bidasoa ibaiari buruzko lehendabiziko eztabaida motiboa, honakoa linguistikoa!

Bidasoa ibaia. XVIII. mendeko mapa Parisko Liburutegi Nazionalean.

Hitzaren idazketaren ibilbide historikoa duela mila urte baino gehiago jarri zen abian. Euskaltzaindiaren Euskal Onomastikaren Datutegian (EODA) jasotako datuen arabera, hitz hori 1007. urtean azaldu zen lehendabiziko aldiz lau dokumentutan: *Flumen quod dicitur bidasso (Bidasso deritzon ibaia)*. Hogei urte geroago, 1027an, hiru dokumentutan jasotzen da *bidaso* hitza.

Hondarribiko Udal Artxiboan eta, noski, Irungoan, izena, arrazoi batengatik edo beste batengatik, sarritan agertzen da *auzotarren* arteko liskarrak medio. Ez dugu ahantzi behar Bidasoa ibaia pertsonak eta salgaiak garraiatzeko bidea ere izan zela, batez ere lehorreko bideek garraio hori galarazten zutenean. Ane Galdósek dokumentu argigarri bat eskaintzen du: Valladolideko Errege Auzitegiak Bidasoa ibaiaren erabilerari buruzko epaia eman zuen. Erabaki zuten hondarribiarrek eta beren jurisdikziokoek eta hendaiarrek ibaiaren erabilera aprobetxatu zezaketela azken hamar urteetan egin bezala. Bi herriek arrantza nasak, uhartea, Behobiako ibia, ospitaleko errota eta aipatutako uharteko lurrak, gabarrekin, tirolekin (giladunak edo gila gabeak) eta itsasontziekin igarotzeko portua aprobetxatu ditzakete, arrantza egiteko, nabigatzeko, garraiatzeko, igaro eta itsasora irteteko, hori guztia errege-erreginei kalterik egin gabe.

1517an Hondarribiaren eta Hendaiaren arteko desadostasunei buruzko beste eztabaida eta espediente bat dugu: eztabaidagaia, Bidasoa ibaiko urak edukitzea eta erabiltzea.

Eztabaida hori, balizko akordioak lortzeko bidean, istorio xume eta amaiezin bihurtu zen. Ika-mika horien artean, XVI. mendean Irunen eta Hondarribiaren artean izokin nasen inguruan sortu zen liskarra nabarmentzen da. Izan ere, Bidasoa elikadura iturri garrantzitsua zen erriberakoentzat, izokina zen arrainik preziatuena hala kontsumitzeko eta oparitzeko nola era guztietako agintari zibil, erlijioso edo militarrak erosteko. Izokina nasen sistemaren bidez harrapatzen zen, eta nasa horiek erabiltzeko eskubidea jokatzen zuten herriek, batez ere Irunek eta Hondarribiak.

1919koa da «muga honetako Udalen –Hondarribia, Irun, Hendaia, Urruña eta Biratu– arteko akordioa, Bidasoa ibaiaren nazioarteko uren aprobetxamenduari dagokionez, argindarraren ekoizpenarekin lotuta».

Hurrengo mendeetan, era guztietako dokumentu idatzietan, sarritan eta etengabe erabili da Bidasoa hitza, idazkera apur bat desberdin batzuekin, esanahiari eragin gabe. 1599an, Dos alemanes en Vasconia eskuizkribuan deskribapen hau eskaintzen da: «En lo último de la Tierra de España... junto a la raya de Francia... passa un río no muy grande y casi braço de la Mar assi llamado en su lengua Bidazo».

Los Montes Pyreneos situados entre Francia y España planoaren xehetasuna. 1599. Egilea: Diego Cuelbis.

XVI. mendean, Ana Galdósi jarraiki, gai hauek hizpide dituzten dokumentuak dauzkagu: Bidasoko mendien aprobetxamendua, Bidasoa mendia, Bidasoa ibaiaren erabilera Hendaiaren eta Fuenterrabía-ren (Irun) artean, Bidasoaren mugak eta Bidasoa ibaiko ibiak.

Cassiniren mapan (1756-1815) «Quartier de la Bidassoa» azaltzen da. Izenak, ibaiak bustitako geografia osoan, hitzaren erabilera arrunta ahalbidetu du era guztietako errealitateak izendatzeko: kaleak, elkarteak, dendak, markak, baita garagardo markak ere..., horien artean Bidasoa eskubaloi kluba, betikoz galdu den Porcelanas Bidasoa lantegia eta Bidasoko trena nabarmentzen direlarik.

Horiek guztiak Bidasoa ibaitik eratorritako errealitate materialak dira, Pierre Lotiren arabera, Euskal Herriko ibaiertz hauek bustitzen dituen uraren bidez batzearen sinboloa, nahiz eta ibai horrexek berak markatzen duen Frantziaren eta Espainiaren arteko muga ofiziala.

HITZAREN ETIMOLOGIA

Bidasoa hitzaren jatorria eta esanahia gai eztabaidatu samarra izan da, baina ez behar bezain eztabaidatua, ezin izan baita adostasun batera iritsi, agian berriz ere asmatu duelako esaera esanguratsu honek: xaboi egilearen etxean, erortzen ez dena labaindu egiten da.

Etimologiari dagokionez, antzinako Oiasso hiriarekin lotura izan dezakeela uste da, aurretik bide hitza duelarik. Horixe izan liteke Koldo Mitxelenak iradokitako «Bide ad Oiassun» delakoaren jatorria, Udalak Historiaren Akademiari 1785eko maiatzaren 18an bidalitako aktan aurrekari bat jasotzen baita: «En sus Dicciones de Vide y Easo. Indica también su mucha antigüedad pues parece que la señala por la Antigua Ciudad de Easo». Beste teoria baten arabera, izenaren bigarren zatia assa (ura) izen zeltatik eratorria da. Eta badira beste askotariko interpretazio batzuk, tartean Miguel de Unamuno bilbotarra ematera ausartu zena, Hendaian nahitaez eman behar izan zuen egonaldia aprobetxatu baitzuen *Bide-Itsaso* interpretazioa proposatzeko. Halere, egia da idazleak Bidasoa ibaiaren inguruetako baserrietan aurkitu zuela bere haurtzaroko euskara.

Guk, Antonio Aranburuk bezala,

> *nos libraremos de tomar partido en un tema tan complejo... es uno de los misterios de nuestro río, río de pelotaris, de bertsolaris y de ferroneros. Río de bellísimas lamias y de tenebrosos akelarres. Río de contrabandistas y tragedias. Si sus aguas pudieran hablar y contarnos los secretos que conoce su cauce, lo harían en el dulce euskera que durante milenios fue desgranando su meloso y tierno acento en sus poéticas riberas.*

Hainbat arrantza aparailu erabiltzen zituzten izokin eta angula arrantzaleen eta zizare biltzaileen lekuko izan da ibaia. Era berean, ibaiaren parte bat osatu dute gabarrek, materialak eta pertsonak garraiatzeko sistemak, Bidasoa, kasu batzuetan, ibaiaren bi aldeen arteko komunikazio bide bihurtuz, eta beste kasu batzuetan, bi aldeak bereiziz eta mugarrituz, garita tipikoetako karabinero haien zaintzapean.

Tren Txikito delakoa izan zen beste garraio eta komunikazio sistema bat, Bidasoaren paraleloan bihurritzen zen bere geltokiekin eta geralekuekin.

BIDASOAREN GEOGRAFIA

Hain da oparoa eta joria gure eskuetara Bidasoari buruz iritsi dena, non, agian merezimendu osoz, ibai bat baino zerbait gehiago bihurtu duten, eta horrek balio sinboliko eta emozional handiak dakartza. Bidasoa ibaiko urek gainditu egin dute ibaiaren ibilgua, eta hori balio artistiko handiko lekukotasun ederretan islatzen da..

Horrek guztiak elementu materialari lerro batzuk ematera behartzen gaitu haren berezitasunari eta errealitateari dagokienez, bakarra eta errepikaezina baita, hiru generoetan bereizten den izenarekin gertatzen den bezala: la Bidassoa, el Bidasoa eta Bidasoa. Generoaren hirukoiztasuna dualtasun nominal bihurtzen da: ibaiak ez du izena bere bide osoan kontserbatzen. Ibaia izen bereko haranari izena ematen dion Baztan izenarekin sortzen da, baina, behin Oronoz-Mugairitik igaro ondoren Bidasoa izena hartzen du.



Edu Zelaietak beste idazle batzuekin batera idatzitako Bidasoa liburuaren azala.

Gaur egun onartu eta argitaratutako deskribapen ofiziosoak hainbat iturburu eskaintzen dizkigu, horien artean jarraian ematen ditugun datuak. Izpegi inguruan hiru puntutan sortzen den ur lasterra da Bidasoa ibaia: Ubedo (Mortalen erreka), Elorta (Araneko erreka) eta Iztauz (Xorroxin). Hiru errekasto horiek ibai bat osatzen dute Erratzun, Baztan ibaia, izen bereko haranean 26,8 km egiten dituena. Oronoz-Mugairitik aurrera, Bidasoa izenarekin, Kantauri itsasoraino iristen da 41,6 km egin ondoren, Hendaia eta Hondarribia arteko bokaleraino. Beraz, Bidasoa ibaiaren luzera osoa, ofizialki, 68,4 km-koa da Baztan ibaiaren luzera kontuan hartzen badugu.

Ibaiaren urak, ibaiadar askoren urak jaso ondoren, Kantauri itsasoan isurtzen dira uharte batzuk eratuta, horien artean Konpantzia izenekoa, eta ibaiaren urak itsasoaren urekin bat egin ondoren Txingudiko badia osatzen du. Txingudi izenak, ihitegi usaina baitario, antzeko beste formazio geologikoetan *itsasadar* esaten dena izendatzen du. Kasu honetan ere, itsasoaren sarbidea ibai baten bokalean Bidasoa itsasadarra izendatu zitekeen, Bilboko, Urdaibaiko, Oriako eta beste itsasadar batzuk bezala, baina Bidasoako badia eta Bidasoa itsasadarra bezalako beste proposamen batzuen aurrean Txingudiko badia nagusitu zen.

Higerko badia eta Hondarribiko itsasadarra

Badira itsasadar izena jasotzen duten testuak, eta horien artetik berriki argitaratutako bi nabarmenduko ditugu. Lehenengoa, non ibaia poesia baita, Bidasoa liburuan dago jasota: «Hondarribia, / el río deviene en ría / y los moradores de aguas arriba / se convierten en bonita iconografía». Bigarrena Maite Sota idazle nafarraren *Locura* eleberrian irakur dezakegu, Hendaian dago girotuta: «A mitad del espigón que delimita la ría del Bidasoa, el pavimento desigual estaba mojado... Al otro lado de la ría, el cercano pueblo de Hondarribia quedaba sumido en la bruma».

Beste izen bat, erabilera publiko ofizialekoa, Bidasoako estuarioari dagokio. Espainiako Geologia Interesdun Lekuen Inbentarioan (Gipuzkoako Foru Aldundia. Hirigintza Arkitektura eta Ingurumen departamentua. 1992), bada ezaugarri batzuk eskaintzen dituen fitxa bat.

> *Denominación: estuario del Bidasoa. Descripción: El Bidasoa, frontera natural entre España y Francia, presenta en su desembocadura un amplio valle con un estuario sometido a la acción de las mareas. [...]. Dominio geológico (GEODE): Cuenca Vasco-Cantábrica. Unidad geológica Ley 42/2007: Depósitos y formas de modelado costeros y litorales. Interés. Geolgógico principal: geomorfológico: De todos los estuarios existentes en Gipuzkoa, el del Bidasoa es el que mejor conserva su estructura y morfología, pese a la acción antrópica a que ha sido sometido. [...].*

Bidasoa ibaia, Txingudiko badia eta Kantauri itsasoa Hendaia, Irun eta Hondarribia artean. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Bidasoko sagardoari buruzko liburu honetan kontuan hartu ditugu Bidasoa ibaiak bustitzen dituen udalerri hauek: Doneztebe, Sunbilla, Igantzi, Lesaka, Etxalar, Bera, Irun, Hendaia eta Hondarribia.

BIDASOA IBAIAREN INGURUKO LISKARRAK

Bertakoek Bidasoa ibaiaren azken tartean, urak itsasoan isuri aurretik, izan zituzten liskarretako bat ibaiko ibiak edo igarobideak eragin zuen, eta beste bat izokinaren arrantzak.

Bidasoa ibaiko Behobiako edo Hendaiako ibia hainbat dokumentutan dago jasota, eta guk horietako bi aipatuko ditugu eskaintzen dituzten datuak aintzat hartuta:

Lehenengoak (1583ko urriak 9) Behobiako ibiaren alde egiten du:

> *Varios vecinos de Guipúzcoa en el pleito que Fuenterrabía e Irún mantienen por el paso de Behobia, declaran que el paso de Behobia es mejor que el de Hendaya. Afirman que en caso de mal tiempo las gabarras pueden trabucar y que en ocasiones, debido a las inclemencias, las embarcaciones no pueden salir de Hendaya. Además el paso es mucho más largo que el de Behobia. Al mismo tiempo declaran que el de Behobia es un paso más cómodo para caminantes y mercaderes que el de Fuenterrabía.*

Bigarrenak (1583ko urriak 17) Hendaiako ibiaren alde:

> *El Capitán General declara que sería preferible tener el paso de Hendaya a Fuenterrabía, que el de Behobia. Considera que de esta forma se evitaría que muchos vecinos de Irún tuvieran como oficio el paso ilegal de monedas y caballos. Dice que aunque algunos de ellos están condenados a muerte, no se les castiga y que incluso alguno de ellos ejercen como diputados de Irún.*

María José Noianen *Bidasoako Atlas Emozionala* liburuko «Dena dakien arraina» kapituluan testu hau dago jasota: «Irunen eta Hondarribiaren arteko gai liskartsuen zerrenda amaigabean, ohikoenetakoa dugu izokinaren arrantza. Gutiziatuenetakoa izan da aspaldidanik Bidasoako biztanle hori, eta 1309. urtekoa dugu, gutxienik, haren arrantza sistematikoa»..

Nasak, izokinak harrapatzeko ihiekin egindako saskiak, Hondarribiarenak ziren, eta Irunek eta Hendaiak hainbat aldiz borrokatu zuten, amore eman gabe, beren nasa propioak izateko, Berak eta Lesakak bezala.

TESTU LITERARIOAK

Bidasoa hizpide hartuta, ezinbestean aipatu behar dira Bidasoko Errepublikaren ideiaren sortzaileak, hots, gure Pio Barojak ibaiaren aurrean agertzen zuen maitasuna eta ikuspegia *(La leyenda de Jaun de Alzate)*. Hitzaurrean argi geratzen da:

> *El objeto de mi LEYENDA es cantar esta tierra y este río...*
>
> *[...] Antes de que llegue la época en que las presas y los saltos de agua hayan desfigurado definitivamente el Bidasoa, el pequeño río de nuestro pequeño país; antes que los postes sustituyan a los árboles y las paredes de cemento a los setos vivos, y los tornillos a las flores; antes de que no queden más leyendas que las de las placas del Sagrado Corazón de Jesús y las de la Unión y el Fénix Español, quiero cantar nuestra comarca en su estado natural y primitivo, y expresar, aunque sea de una manera deficiente y torpe, el encanto y la gracia de esta tierra dulce y amable.*

Liburuaren hirugarren atalean *(Los moradores del Bidasoa)* Bidasoari buruz idazten du:

> *Soy un río pequeño, pero con gracia y con más fama que muchos ríos grandes. De mí han hablado Estrabón, Tolomeo y Plinio. [...]. En invierno mujo como un toro y me lanzo en olas furiosas llenas de espuma; en el verano tengo remansos tranquilos y verdes, y entre las rocas avanzo reptando como una serpiente. [...]. Por delante de mí han cruzado los pueblos de Europa que han bajado a España, y luego a África, y los pueblos de África que han subido a Europa. Recuerdo a hombres con hachas de piedra y con ha-*

chas de bronce; recuerdo también a iberos y celtas, a fenicios y griegos, a romanos y godos, a suevos, a francos y a moros.

He conocido a Pompeyo y a los capitanes de Augusto; a Enrique IV de Castilla y Luis XI de Francia; a Carlos V y a Francisco I; a Condé y al Duque de Alba; a Luis XIV y a Mazarino; al bello don Beltrán de la Cueva, que usufructaba el lecho real de Enrique IV de Castilla, y al no menos bello almirante Bonnivet, rival en amores de Francisco I, que puso cerco a Gasteluzarra, el castillo próximo a Behovia. He visto conferenciar a Napoleón con sus generales, y a Wellington con los suyos, he contemplado las hazañas de Soult, Longa, de Jáuregui el Pastor, de Latour d'Auvergne y de Leguía; he seguido a Mina y a Zumalacárregui en sus correrías, y he visto a Fabvier, a Caron y a Armando Carrel izar su bandera republicana en Behovia contra los franceses en Angulema. He saludado también a viajeros ilustres, a Velázquez y a Goya, a madama d'Aulnoy y a Víctor Hugo.

Ciertamente, ahora ofrezco pocos encantos en mis orillas, y sobre todo en la española, que está llena de feos cuarteles carabineriles; pero tengo esperanzas de un porvenir mejor, porque un erudito, el Bachiller Juan de Itzea, me ha pronosticado que llegaré a formar una república independiente: sin moscas, sin frailes y sin carabineros.



Pio Baroja bi nekazarirekin Bidasoa ibaiaren ondoan, G. Montes Iturrioz.

Juan de Itzea batxilerraren profezia desiratuaren zain gauden bitartean, liburu honetan Bidasoko sagardodun errepublikan zentratuko gara, hau da, sagardoak Bidasoak bustitako herrietan duen presentzia izango dugu ardatz.

Bidasoari buruzko bigarren testu literarioa Pierre Lotirena da (*Ecos del Jaizkibel,* 1916ko maiatzak 13):

> *A lo lejos brilla el mar como una banda de nácar azul. El Bidasoa, inerte y liso, refleja con la precisión de un espejo las casas, la iglesia y el castillo de la vetusta Fuenterrabía, y todas las áridas montañas con sus menores repliegues y hasta con sus blancos caseríos que se destacan sobre esos grandes fondos rojos. La inmovilidad de las cosas y el brillo luminoso de los colores dan a esta costa algo de la tristeza soleada de Marruecos. Parece que tenemos cerca el África.*
>
> *Y esa gran calma, ese silencio de todo, esa tranquilidad inalterable del aire, esa inmovilidad de la luz y de la sombra me hacen la*

impresión de una parada momentánea en el movimiento vertiginoso de los siglos, de una reflexión, de una espera o, más bien, de una mirada melancólica echada a lo pasado, a lo anterior, seres, razas, religiones... Y, de cuando en cuando, suenan las campanas de las iglesias.

Barcas de lento andar pasan de una a otra orilla del Bidasoa.

Los marineros y los contrabandistas que las tripulan, con la cara afeitada, a la usanza, y con la cabeza cubierta con la boina tradicional, hablan en su lengua tantas veces milenaria o cantan en un falsete gangoso, como los árabes, los cantos de los antepasados.

De repente; al escuchar el toque de las viejas campanas y la vibración lejana de las antiguas canciones, comprendo todo lo que este país tiene de especial y raro. Del conjunto de los seres y de las cosas ambientes se desprende, a los ojos de mi imaginación, algo así como una esencia viva. Por primera vez "siento" que existe aquí un no sé qué de misterioso, destructible ¡ay! pero que todavía lo impregna todo y se exhala de todo; el alma, que se acaba del país basko.

Sin embargo, allá, abajo, detrás de mí, pasa aprisa, una cosa fea, negruzca, que hace ruido, conmueve la tierra y altera con silbidos esa calma deliciosa: el ferrocarril más nivelador que el tiempo, que todos los días deja aquí, como en todas partes, vulgaridad y gente estúpida.

Jose Angel Irigarairen ikuspegi poetikoan, ibaiak osotasun bat eratzen du hark bustitako herrien artean: «Ura bere bidean / eta Bidasoa denean, / gurean bihotzan barna / lotzen, elkartzen / mendetan zehar herria osatzen... mendetan zehar Nafarroan sortu eta / Ondarribi-Endaian itsasora doa». Olerki hori, *Bidasoa,* poza eta mina, espazioaren unitatearen denboraren unitatearen arteko batasuna islatu ondoren amaitzen da: «Bidasoa doa / gure bizitzan barrena /, ...eta berriz ere / ur berriak sortuko dira, / Baztango iturburuak / ez daude agortuta, / noizbait arrotuko zinez / eta bazterrak garbituko uholez / ber-sortutako ur zaharrez».

Daniel Ayerberen arabera, Maurice Ravelek konposatutako sinfonia bat merezi izan zuen Bidasoak, baina, hil aurretik, sinfonia suntsitzeko agindu zuen musikariak ez zuelako ibaiaren edertasun guztia islatzen. Domaia! Egileak dio musikari askoren inspirazio iturri izan dela Bidasoa: Aita Donostia, Guridi, Usandizaga..., baita Axular bezalako idazleena ere... Eta, guztien gainetik, balio unibertsala duen idazle batena: Johann Goethe (1749-1832), besteak beste *Fausto* obraren egilea. George Elioten hitzetan, «alemanez idatzi zuen azken egilerik handiena... eta Lurrean ibili zen azken gizon unibertsal osoa.

Luis de Uranzuren (Luis Rodríguez Galen izengoitia) artikulu batek, «Goethe en el Bidasoa» (*El Irunés,* 21. zk.) Goethek Bidasoan egindako ibilerak kontatzen dizkigu. 1830ean kokatu daiteke Goethe Bidasoko zubietako batean, ibaiak bizi izan zituen hainbeste borroketako baten erdian: «Tranquilo murmura el Bidasoa / Al sonido del cencerro pastoril. / Pero en la montaña retumban / Contínuas explosiones durante el día, / Y por la noche desciende / Un ejército a la orilla del río. / La sangre gotea en su camino...».

Luis de Uranzurena da *Lo que el río vio* obra, baitezpadakoa Bidasoa ibaiaren inguruko gertaera historiko larriak eta xeheak ezagutzeko.

Irarlan honek Bidasoko ibiarekin lotutako testigantza historiko bitxi bat eskaintzen digu, gerra nahiz bake garaian koka daitekeena:

Anbulantzia karlista Bidasoa zeharkatzen Endarlatsatik hurbil (Godefroy Duranden irarlana, The Graphic aldizkarian 1874ko urriaren 21ean argitaratua).

Fernando eta Rafael Artola anaiek, hitz gutxi baina iradokitzaileak erabiliz, lotu egiten dute Bidasoa ibaia Hondarribiarekin:

> *Or aurrean amaitzen da Bidasoa ibaia; an urrutixeago, barran eskeintzen dio itxasoari menditik dakarren mezua. Apar txuriz jantzita damaio itxasoak ongi-etorria, besarkatuz... Bidasoak (aspaldiko Almitxu edo Lamitxu?) kulun-kulunka daragio Ondarribiari. Seaska oberik! Agian orregatik izango da ondarbitarra ain idurikor, ameslari ta jostakin.*

Xabier Santxotena Alsuak (*El Irunés,* 52. zk., 1999): «Huyes, fluyes, cantas, vives / río de misterio, engordas al destino / naces silencioso, mueres orgulloso».

Zer ekarpen egin diezaiekegu hemen eta orain Bidasoko pertsonei? Erantzuna estimulatzailea da: urre koloreko edari hori bere alderdi mitologikoetan, kontakizunetan, literarioetan, etnografikoetan eta historikoetan ezagutzea. Helburua sotila da: sagardoaren kulturan murgiltzea etorkizunari begira dagoen iragan hurbilarekin berriz ere konektatzeko, ez baita esan beharrik sagardoa gure bizitzen zati dela. Hauxe da liburu honek erantzun nahi duen galdera nagusia: Zer toki hartu du sagardoak Bidasoa ibaiari ongietorria egiten dioten herrietan? Liburuari kapituluen egileek idatzitako ekarpenek ematen diote amaiera, baina liburuaren benetako amaia zabalik dago irakurleen ekarpenak jasotzeko, irakurleek idatzi behar baitute liburuaren epilogoa, paperean edo beren buru eta bihotzetan. Ereindako haziak, berandu baino lehen, ekarpen berrietan gauzatu behar du, liburuan jasotakoaren osagarri diren ekarpenetan, alegia.

1.2.- SAGARDOA

SAGARDO HITZA

Wikipediaren arabera

> *Sidra hitza sicĕra (edari mozkorgarria) hitz latin berantiarretik eratorria da, sicĕra σίκερα hitz grekotik [...], eta azken hori tkr egiptoeratik. Gauza bera gertatzen da cidre hitz frantsesarekin eta cider hitz ingelesarekin. Europako hizkuntza germaniar gehienek eta ia hizkuntza erromaniko guztiek etorki latindarraren izen klasikoa hartu dute, baina badira latinetik hain hurbil ez dauden beste hizkuntza batzuk ere, hala nola euskara (sagardo, sagar ardo), alemana (apfelwein, sagar ardo), txekiarra (jablečné, sagar ardo) eta beste hainbat hizkuntza (irlandera, hungariera, islandiera, etab.).*

Liburu honetan, *sagar* hitzetik abiatuta osatutako *sagardo* hitzarekin zerikusia duena interesatzen zaigu guri. Euskaraz, ia ehun hitzetako kopurura iristen dira sagar barietateak, kontuan harturik euskalki guztiak, eta horietako asko eta asko daude euskal hiztegietan jasota. RAEren (Real Academia Española) hiztegiak *sagardúa* hitz femeninoa jasotzen du sagardoaren sinonimotzat. Era berean, *sagarmín* hitza jasotzen du (del vasco *sagar* 'manzana' y *min* 'agrio'), eta 'manzana silvestre' esan nahi duela dio, Araban erabiltzen den hitz femeninoa.

Sagardo hitza Euskal Herri osoan dago hedatuta, euskalkiak euskalki, Euskaltzaindiaren mapa honek erakusten duen bezala.

Hitzaren lehen kontsiderazioa linguistikoa denez, haren inguruan dagoen nahasmendu txiki bat argitu behar dugu. Sagardo hitza, gehien-gehienek onartzen dutenez *sicĕra* hitz latindarretik eratorria bada, gaur egungo latin hiztegiek, hala nola *Diccionario ilustrado VOX latino-español* hiztegiak, 'edari mozkorgarri' gisa itzultzen dute *sicĕra*, 'sagardoa'.

Euskal literatura tradizionalean, euskal idazle handiek sagardo gisa euskaratu dute Bibliako *sicĕra* hitz latindarra, eta, beraz, badugu geure hitza Testamentu Zaharrean. Testu latindarrak (Epaileak, 13, 4 eta 7)

Mapa de Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca. Extensión término Sagardo.

emakume antzu bati agintzen dio, haurdun geratu eta ume bat izan zezan: «Cave ergo ne bibas vinum, ac siceram». Esate baterako *Biblia ad vetustissima exemplaria* Biblian (1574).

Gaur egungo itzulpenetan, hala nola *Elizen arteko Biblian*, ez da sagardo hitzarekin itzultzen, honela baizik: «Baina ez edan ardorik, ez beste edari mozkorgarririk». Gaztelaniaz idatzitako Bibliek ere, hala nola Biblia de Jerusalén Bibliak, bide beretik jotzen dute: «Guárdate de beber vino ni bebida fermentada».

SIDRATEKA HONDARRIBIAN

Liburu honetan sagardoa sagarra ikuspegitik jorratzen badugu ere, gaur den egunean Hondarribian SIDRATEKA izeneko eraikina dago. Antzinako ANTONTXU sagardotegiaren lokalean dago kokatua, Portua auzoko Santiago kale ezagunean.

SAGARDOA LURREAN

2.1.- SAGARRAREN KULTURA MITIKOA

José Uriaren liburuak *(La sidra)* Bibliako sagarra du hizpide, Ongiaren eta Gaizkiaren zuhaitzaren fruitua, eta sagar-bilketaren errituala eta sagardogintza gaur egun bizirik direla baieztatzen du. Ideia horrek ateak zabaltzen dizkigu mitoak, gurtzak eta sagarraren kulturak bat egiten duten atal honetan. Kultura baino lehen, sagardoarekin lotura semiotikoan, sagarra dugu eta, lehen tokian, Evaren sagarra, Adamen sagarra ere badagoen arren, RAEren hiztegian «nuez de la garganta» gisa jasota dagoenez (Amerika).

Aipatutako José Uria egileak, liburuaren amaieran, *La sidra* goiburuko kontakizun literario bat eskaintzen du euskal umore sotil batez, eta txinpartak ateratzen dizkio Bibliako Genesiaren kontakizunari:

> *Todos sabemos, puesto que así nos lo enseña la historia, que fue Noé el hombre que produjo el primer vino, pero pocos sabrán que la sidra es la bebida surgida todavía antes que el vino, y que la primera sidra fue producida por nuestro padre Adán.*
>
> *Cómo surgió la primera sidra nueva es lo que voy a mostrar en pocas palabras.*
>
> *Es cosa sabida de todos, y no tenemos aquí necesidad de repetirla, que Dios prohibió al primer hombre comer el fruto del manzano, y que por romper este mandato expulsó del paraíso a nuestros primeros padres Adán y Eva, y que entre otras muchas desgracias fueron obligados a trabajar.*
>
> *Iba un día Adán con su mujer, cabizbajo, silencioso y muy apesadumbrado, recordando haber perdido la incomparable felicidad que nunca más volvería a encontrar; cuando he aquí que de repente, entre otras clases de árboles, vio un manzano de muchas hojas, enorme y hermoso, que casi tocaba el suelo con los abundantes frutos que tenían sus numerosas y extensas ramas.*
>
> *Al ver aquel árbol, Adán se puso a temblar pareciendo que se iba a desmayar del miedo, y al verle Eva en aquel trance le preguntó:*
>
> *—¿Qué te pasa, Adán?*
>
> *—¿No lo ves?*
>
> *—¿Qué?*
>
> *—Ese árbol maldito.*
>
> *—¡Qué hermoso está! ¡Qué manzanas tan primorosas!*
>
> *—¿Pero mujer, después de lo que nos ha sucedido, tendrías el valor de mirar a ese fruto, de tenerlo en las manos, de llevarlo a la boca?*
>
> *—Qué quieres pues, querido Adán, ese fruto me enloquece. Déjame comer una manzanita, solo una, nada más que una...*
>
> *Al escuchar esto, se enfadó Adán más que antes, y lleno de rabia agarró al árbol, y lo zarandeó con toda la fuerza de sus poderosos brazos, dejando todo el suelo cubierto de manzanas.*
>
> *Todas las manzanas bajaron rodando cuesta abajo, y por fin se detuvieron en un gran agujero que había al fondo.*
>
> *No con esto se animó el furioso enfado de Adán, y tomando las mayores piedras que encontró por los alrededores, las tiró encima, destrozando, descuartizando todas las manzanas.*
>
> *Transcurrieron los días después de aquello. Como era costumbre los esposos andaban buscando comida. Se encontraban muy cansados y reposaron un poco en los alrededores del lugar donde sucedió el hecho anterior.*

Aquel día no habían encontrado agua todavía y estaban muy sedientos. En una de estas Eva vio que del agujero donde Adán había aplastado las manzanas surgía un líquido limpio y de color dorado. Se acercó corriendo y boca abajo bebió con ganas de aquel delicioso líquido. ¿Y qué era? El zumo de las manzanas que Adán había machacado con las piedras, que había fermentado por la fuerza del sol y se había convertido en inigualable bebida. Aquella fue la sidra que se hizo por primera vez en la tierra: la primera sidra nueva.

—Ven, querido Adán —le gritó Eva—, ven aquí, a beber esta buena bebida que parece oro fundido: comparado con los líquidos que hemos bebido hasta ahora ¡vaya bebida!

Eso mismo suelen decir todavía en las sidrerías de Astigarraga y de Hernani: ¡vaya bebida!; pero no sabrán donde tuvo la sidra su primera raíz.

Hela pues, aquí mostrada, para conocimiento de todos.

FRUITU DEBEKATUA

AltaLingua blogean aurki dezakegun «La manzana, un fruto prohibido por error de traducción» artikuluan, hauxe irakurtzen dugu aztergai dugun gaiari buruz:

Relacionar una manzana con el fruto prohibido es un hecho. Pero ¿sabías que puede tratarse de un error de traducción?

Este concepto viene vinculado a los textos de la Biblia, donde a Adán y a Eva se les presenta el fruto prohibido y se relaciona la manzana con el pecado original. Pero, cuando en el año 382 se le encarga a Jerónimo de Estridón la traducción de la Biblia al latín, algunos textos originales en hebreo generan ciertas dudas.

En el Génesis, «Dios indica a Adán y Eva que no deberían comer del fruto del árbol del bien y del mal». El término mal se tradujo como malum, que puede significar 'mal', 'manzana' o simplemente 'fruta'. Al vincularse con un fruto de un árbol, el significado se popularizó como manzana.

Ez dezagun ahaztu sagarraren definizio unibertsala: 1. Familia: Rosacea. 2. Azpifamilia: Maloideae. 3. Generoa: Malus. 4. Sekzioa: Malus. 5. Seriea: Malus.

Eta honela jarraitzen du:

¿Cuál es el verdadero fruto prohibido?

El término malum se tradujo como 'manzana', que es uno de sus significados, pero no el apropiado para esta traducción, pero también habría podido traducirse como 'fruta' o, si se quiere ser más preciso, 'fruta con semillas' según la época, en caso de hacer referencia a un fruto, lo más probable o acertado hubiese sido hacer referencia a una higuera, que es un árbol mucho más presente en otros textos.

Kapera Sistinoko *Jatorrizko bekatua* margolanean, Michelangelok pikondo bat marraztu zuen fruitu debekatuaren zuhaitza irudikatzeko. Grekoentzat, germaniarrentzat eta zeltentzat jakituriaren baliokideak ziren sagarrak, eta hilezkortasunaren dohaina ematen zieten.

Mundu mailan hedatutako paradigma mitologikoetako bat da Herkules edo Heraklesen hamaikagarren lana: sagarren lapurreta Hesperideen lorategian.

Herkulesen lanen mosaikoaren xehetasuna. Liria (Valentzia). Luis García (Wikimedia Commons).

Parisek Afroditari (maitasunaren jainkosa) eman zion liskarraren sagarra, eta horrek arazo bat eragin zuen Hera, Afrodita eta Atenea jainkosen artean.

Parazeltsoren arabera, erditik moztuta, Venusen (ugalkortasunaren jainkosa erromatarra) zeinua iradokitzen zuen. Venusi kontsakratutako fruta zen sagarra, horrexegatik azaltzen die Virgiliok maiteminduei («Bukolikoak III») zer aurki dezaketen sagarrean: «Galateak sagar batekin probokatzen nau, nirekin jostatzen den neskatila bihurria da; sahats batzuetara egiten du ihes, baina lehenago ikus dezatela nahi du».

Norvegiar mitologian, funtsezkoak dira urre koloreko sagarrak Idun jainkosaren hilezkortasunerako.

Txinatar kulturan, bakearen ikur dira sagarrak, eta emakumeen edertasunaren zeinu dira sagarraren kimuak.

Sinbologiaz betetako fruta da sagarra, eta estu lotuta dago gizakiaren historiarekin. Sarritan erabili da osasun onaren enblema gisa, propietate onuragarriak eman zaizkio beti, eta horrek gisa honetako esaera ezagunak sorrarazi ditu: «Arratsian sagar bat jaten dunak, medikue etxetik ateratzen du».

Sagarrak, bere adierazpenik sinbolikoenean, balio izan du, halakorik posible bada, Hirutasun Santuaren misterioa argitzeko. Hona hemen Resurreccion Maria Azkuek Baztanen jasotakoa, «Nola sinesten dezue» olerkian:

I.- Nola sinesten dezue
kristauen artean iru
pertsona direla
Jaungoiko batean?

Errespondi ezazu ai
breberomentean nik
liburutik txartela atera
bitartean.

II.- Errespondituko
datzut sustantziarekin
orra konparazioa
sagartxo batekin.

Kolorea, usaina
zaporearekin: orra nun
tuzun iru gauza pieza
batekin.

9.9.- JATORRIEN BILA

Aspaldi samar, 1930ean, Vavilov izeneko ikerlari batek proposatu zuen etxekotutako sagarrondoek Asiaren erdialdeko basa sagarrondoetan dutela jatorria, zehazki turkiar lurraldeko (Kazakhstan, Kirgizistan, Uzbekistan, Turkmenistan eta Tajikistan) sagarrondoetan. Teoria horrek, urtetan zehar zalantzan jarri denak, gaur egun, azterlan genetikoei esker, agerian utzi du Vavilov zuzen zebilela.

Asiaren erdialdeko basa sagarrondoa zuzenean dago lotuta tamaina askotako frutak eskaintzen dituzten beste sagarrondo batzuekin. Horietako bat da Siberiako *Malus baccata* sagarrondoa, fruta txiki eta gorriak ematen dituena. Bere garaian, gaur egun baino hedadura handiagoa zuen zuhaitz mota horrek eta, uste denez, lurralde hartan harrapatuta geratu zen Gondwana eta Laurasia bereizten zituen Tetis ozeanoaren gainean Tian Shan mendiak altxatu zirenean.

Zazpi milioi urtetan zehar, baita hamar milioi urtetan ere, hartzek eta beste ugaztun batzuek fruta hori hedatu eta alerik goxoenak eta ederrenak aukeratu zituzten. Horrela, pasoko hegaztiek banatutako gerezi formako fruta txiki bat izatetik tamaina handiagoko fruta izatera pasatu zen. Ikerlariek frogatu dute sagar txikiak ahotik eta hesteetatik igarotzen direla inolako aldaketarik gabe, eta kontuan eduki behar da sagarraren bihotzean geratzen diren haziak ez direla ernamuintzen. Beraz, ugaztun handiek ale handiak zabaltzen laguntzen zuten, ez besterik.

Orain dela 5000 eta 8000 urte bitarte, gizakiak lurralde hau konkistatu zuenean, bilakaera konplexua zuen sagarrak. Migrazioa era berean etxekotuta zegoen zaldiari esker gertatzen ari zen. Ordutik aurrera, milaka urteetan gauzatu den bereizketa berariaz eta nahi gabe egindako ekintzen bidez gertatu da. Hortik gaur egun dagoen sagar barietate handia.

Datu arkeologikoek eta molekularrek adierazten omen dute basa sagarra Neolitoan edo Brontze Aroaren hasieran iritsi zela Europara. Dirudienez, zaldietako zametan edo hesteetan garraiatzen ziren haziak Txinaren erdialderik Danubiorantz egiten zuen salgaien bidean. Gaur egun, ikerlariek badakite orain dela 3800 urte Mesopotamian txertoaren teknika ezagutzen zutela, eta, beraz, oso litekeena da sagarra garai hartan etxekotu izana. Ondoren, persiarrek, grekoek eta erromatarrek zabaldu egin zituzten etxekotutako sagar barietateak, eta hobetu egin zituzten sagastiak.

Halere, Europan, Neolitoko (duela 11200 urte) eta Brontze Aroko (duela 4500 urte) basa sagarrondo espezieen aztarna arkeologikoak aurkitu eta bildu dira. 1000. urterako baziren Israelen landatutako sagarrondoak.

Azterlan genetikoetan oinarritutako ikerketa horrek datu arkeologikoei esker ezagutzen zena berresteko balio izan du, baina egileek berek aitortzen dute oraindik asko dutela ikertzeko eta argitzeko.

Egile batzuek diote hebrearrek, egiptoarrek eta grekoek sagardoa ezagutzen zutela, baina hori ez da dokumentuen bidez egiaztatzerik izan, salbu eta egile latindarren ondorengo idazkien bidez. Esate baterako, Plinio Zaharrak (K.o. 23–79) udareekin eta era guztietako sagarrekin egindako edariak aipatzen zituen, eta sagarraren ardoa «lurraldeko edari tipikoa dela» baieztatzen zuen; Estrabonek (K.a. 64 edo 63–K.o. 19 edo 24, gutxi gorabehera) idatzi zuen asturrek ere sagardoa edaten zutela, ardo gutxi zutelako; eta Paladio agronomo erromatarrak (IV. mendea) ere gai hori izan zuen hizpide.

Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Arkeologiako katedradun Carmen Fernández Ochoaren arabera,

> *ya antes de los romanos, la sidra constituía bebida común entre los habitantes de Asturias. No poseemos datos seguros al respecto, pero la escasez de vino, empleado únicamente en festines familiares al decir de Estrabón, y la escasez de la cebada, así como la referencia de Plinio de manzanas, serían argumentos a favor de la elaboración ancestral de esta bebida típica de la región que llega hasta nuestros días.*

Asturiasko sagastiei buruz lehenik egindako erreferentziak egon badauden arren, 904. urtean aipatzen da lehenbiziko aldiz Sismundoren eta Mactitoren arteko salerosketa batean, non *sicĕra* baten hobekuntza Lenako (Asturias) ondasun baten truke espezietan ordaindu beharreko prezioaren zati den. Geroago, behin eta berriz aipatzen da 908., 931., 949. eta 950. urteetako dokumentuetan.

Mediterraneo aldeko arroan, han idatzi baitzen mendebaldeko kulturen historia, mahatsa zen edaririk onena eskaintzen zuen fruta. Luze gabe bereizi zen sagardo hori gainerako sagardoetatik, eta *ardo* hitza hartu zuen; beraz, norbaitek mugurdi ardoaz hitz egiten duenean, hitzaren jatorri historikoa kontuan hartuta mugurdi sagardo esan beharko luke, *ardo* hitza jatorrian mahats zukura bakarrik mugatzen baitzen.

Halere, gaur egun ohikoa da esatea sagardoa sagar ardoa dela, nahiz eta udare ardoa ere oso arrunta zen. Atlantikoko herrien artean, sagarretik sortzen zelako ohoratzen zen; izan ere, Avalon (zelta hizkuntzan 'sagasti' esan nahi du) uharte mitologikoan heroien edaria zen, hau da, erdi jainkoen edaria.

Manzana (sagarra) latinez mala da (*manzana* hitza mala *mattiana* hitzetatik eratorria da, eta mala *mattiana* oso ezagun egin zen Cayo Matio (K.a. I. mendea) nekazaritzaren arloko aditu erromatarraren frutarik gustukoena zelako), hortik dator azido maliko izena, sagarra baita substantzia horren kantitaterik handiena duen fruta.

Edari hori betidanik izan da tradizio handiko produktua Atlantikoko kostaldeko herrialdeetan, batez ere Espainian, Frantzian, Ingalaterran, Belgikan, Irlandan eta Alemanian. Adituek diote IX. mendearen hasierakoak direla sagardoari buruz dauzkagun lehen aipamenak. Aipamen horiek Inperio Karolingioan merkataritza, arauak eta zehapenak antolatzen zituen Capitulare de Villis akta legegilean daude jasota, baita Oviedoko San Salvador katedralean kontserbatutako Fakilo, Ego Fakiloren testamentuan, 793koa, non zehazten baita etxeak, basoak, mahastiak eta sagastiak ematen direla muztioak eta sagardoa egiteko.

Hauxe irakur dezakegu *Mezcal* blogeko «Descubriendo la fascinante historia de la sidra» artikuluan::

> *Durante la Revolución Industrial, la introducción de nuevas tecnologías y métodos de producción permitió una mayor eficiencia en la elaboración de la sidra. La utilización de prensas mecánicas y la pasteurización, por ejemplo, contribuyeron a mejorar la calidad y conservación de esta bebida. Además, el desarrollo de técnicas de fermentación controlada permitió obtener sidras más estables y con sabores más equilibrados.*
>
> *En la actualidad, la sidra ha experimentado una verdadera revolución en términos de variedad y diversidad. La aparición de nuevas variedades de manzanas, así como la incorporación de otros ingredientes y técnicas de producción, ha dado lugar a una amplia gama de estilos y sabores de sidra. Además, el interés creciente por los productos artesanales y locales ha impulsado el resurgimiento de pequeñas sidrerías y productores independientes.*

Norvegiar mitologian, urrezko sagarrak Idunn jainkosaren hilezkortasunaren giltza dira.

SAGARDOA ETA SAGARRA EUSKAL HERRIAN: NAZIOARTEKO LOTURAK

Liburuko kapitulu oso hau bibliografian adierazitako Pascal Mitxelenaren ekarpen bereziari eta espezializatuari zor diogu. Burura eramandako ikerketa dibulgazio gisa argitaratu da liburuan, hau da, lan zientifikotik liburu honi dagozkion alderdiak jasota.

3.1.- ALDEZ AURREKO OHAR BATZUK

Dokumentu hau ez da, Miguel Colmeirok esango lukeen moduan, «Pirinioez beste aldera gutaz eta gurea denaz egin ohi diren interpretazio faltsuei eta barregarriei» emandako erantzun bat. Jules Desplanque egileak, hauxe dio euskaldunei buruz, argi eta garbi, sagarraren jatorriari buruzko argitalpenean: «Europako arraza garrantzitsuenetako bat osatzen duten biztanle horiek Zagardoa esaten dioten sagardo kantitate handiak egiten dituzte».

Bi egile horiek gaur egungo egoera laburbiltzen dute: ez gara geureaz arduratzen. Adierazgarria da Euskal Autonomia Erkidegoak jateko eta sagardoa egiteko sagar barietateen germoplasma banku bat ezarri ez izana. Datuen dibulgazio urri horren ondorioz, espainiar estatuko eta atzerriko egileek errealitatez besteko baieztapenak transkribatzen dituzte. Bi dira sarrien erabiliak. Lehenengoak dio *Malus sylvestris* berezkoak direla ipar partean, Salamancako El Maíllo herrian ere *maillo* agertzen denean, edo Madrilen (Sestil del Maíllo herria), edo Andaluzian, hala nola Arroyo del Maguillo eta Hoyo del Maguillo Jaéngo probintzian, eta Prado de Maguillo Grazaleman. Julia Pinillak jakinarazi du Sierra Nevadan *maquillo* esaten zaiola *Malus sylvestris* espezieari.

Bigarrenak, Jacques Juberten maisulanean jasoak, dio euri erregimenaren ondorioz hartu zuela babes *Malus sylvestris* espezieak Euskal Herriko mendi garaietan, Hondarribiko aireportuan urtean 1700 mm-ko plubiometria dugunean.

Jules Nanotek aipatutako beste egile batzuek, sagarrondoak Euskal Herrian berezko eboluzioa izan zuelako ideia indartze aldera, diote sagarrondoa ezin izan zela Afrikatik etorri. Nikolai Vavilov botanikoaren ikerketen arabera, sagarrondoaren jatorria Kazakhstanen dago.

3.2.- NOLA IKUSI GAITUZTEN ANTZINAKO EGILEEK

Egile grekoak eta latinoak pomologiaren arloko aditu garrantzitsuenek aipatu dituzte, eta, horregatik, Euskal Herriari dagokiona aurkeztera mugatuko gara gu. Lehenik eta behin Aymeric Picaud egilea aipatuko dugu: lurraldea basatia dela dio «sagarren, sagardoaren eta esnearen kontsolamendua izan ezik». Ildo bertsuan, Poema de *Fernán González* –Gaztelako poesiaren jatorrizko maisulanetako bat– poemaren egileak, euskal lurraldeari nolabaiteko antzutasuna ematen zion iritzi orokortuaren berri eman zuen, Hacinaseko guduan nabarmendu ziren kapitainak goraipatuz. Honela zioen: «Fue dado por cabdiello don Lope el vizcaino / bien rico de mançanas, pobre de pan e vino». Gipuzkoako sagardo eta sagar bikainekin miresten ez den egile bakarra Tirso de Molina da *La prudencia en la mujer* lanean: «Manzanos llenos de gruesos ñudos dan mosto insulso».

Isidoro Sibiliakoak, VIII. mendeko egileak, dio *poma* fruta dela oro har, eta sagarra *malum* dela, grekoek esaten dutenez. Sagar gozatuaren nozioa sartzen du, ad *mandendum* hitzek 'erabiltzeko egokiak' esan nahi dutenean, eta ezti ura ur eta sagarrez egindako edaria dela. *Sicĕra* da, ardoaz gain, mozkortu dezakeen edari oro. Hitz hebrearra da eta ale edo sagarren zukuarekin egiten da. *Cervisia*, garaiko beste edaria, aleez egindako edabea da. Cartagenako apezpiku jakintsuak, horrela definitzen baitu Jules Desplanquesek, sagardoa aipatzen du. Egile frantsesak sagardoaren euskal jatorriaren alde egiten du eta, gainera, dio kartagotarrek sagarraren merkataritza gobernatzen zutela Espainian, eta euskaldunek asko erabiltzen zutela sagardoa.



San Isidoro

Egile arabiarrek testu grekoak eta batik bat latindarrak itzuli zituzten, baina eurek ere beren testuak idatzi zituzten, eta lan horietan penintsulan sagastiak zeudela adierazten dute, batez ere ipar partean. Omeiatarrak, 713. urtean, Indiaren ekialdean, Kaukason, Iranen, Iraken, Sirian, Libanon, Egipton eta Ipar Afrikan zeuden errotuta. Bisigodoen mendeko Espainia Tarikek konkistatu zuen 711. urtean, eta arabiarren azken erresumak XV. mendearen amaierara arte iraun zuen. Karlomagnok zazpi gerra izan zituen arabiarren kontra Espainian, eta bost sarrazenoen aurka, baina, halere, harreman adeitsuak izan zituen Harun al-Rashid kalifarekin, eta esklabo musulmanak jaso zituen kalifaren eskutik Iruñea suntsitu zuenean.

Françoise Aubaile-Sallenave *(Cidre)* ikerlariak adierazten du Karlomagnoren erresuma Ebro ibaiaren bazterreraino iristen zela, eta ezagutuko zuela *sicĕra* hitza. Ondorioetan harrigarriro adierazten du sagardoa Ipar Amerikara hedatu zela, testu batzuen arabera jada XVI. mendean kontinente horrekin harreman komertzialak bazeudenean eta hartu-eman horietan sagardoa ere garraiatzen zenean. Esteban Garibaik dio Gipuzkoan ugari direla sagarrak, eta sagardoa deritzon ardoa egiten dela. Adierazten du euskal arrantzaleak Ternuara joaten direla apirilean, eta irailean itzultzen direla. Lope Martinez de Isastik dio marinelek trukeak egiten zituztela basati menditarrekin «ogi pixka bat eta sagardoa» eskuratzeko, eta bere *Compendio historial de la M. N. y M. L. provincia de Guipuzcoa* (1625) obraren hitzaurrean adierazten du Esteban Garibai Zamalloa 10.000 larru igorrita finantzatu zutela hein batean; beraz, indartu egiten da euskal marinelak Kanadako kostaldera gutxienez XVI. mendean iritsi zirelako ideia.

CHAMPAGNE LEINUA

Zuria Nafarroakoa Champagneko erregina izan zen 1201etik 1222ra, eta 1424ra arte, Karlos III.a Noblearekin, Champagneko kondeak izan ziren Nafarroako erregeak. Lurralde hartan, Othe eskualdean, sagardoa egiten zen eta egiten da. Garrantzitsua da aipatzea Dom Pérignonek, 1683an, ardoari azukrea gehitzeko ideia bikaina izan zuela *xanpaina* egiteko. Dom Pérignonek, Champagnera joan aurretik, Frantziaren hego-ekialdean egiten zituen elizkizunak, eta lurralde hori Nafarroako erresumarena izan zen. Paul Robin eta Michel de la Torre egileek adierazten dute ziurrenik *xanpaina* izan zela sagardo apartsuak egiteko ideia eman zuena, baina beste batzuek uste dute alderantziz izan zela: xanpaina 1683an asmatu zela, baina berrehun urte lehenago azukrea gehitzen zitzaiola botilatutako sagardoari gustu handiagoa emateko eta aparra areagotzeko. Guk uste dugu penintsulako praktika dela, gaur egun Asturiasen artisau erara egiten jarraitzen dutelarik. Frantziako sagardoak, ontziratuta, marinelen lurraldea den Ternuarantz baizik ez dira esportatu. Gipuzkoako eta Asturiasko sagardoak, XX. mendean bete-betean sartu arte, Kuba, Argentina eta Mexiko bezalako norako ospetsuetara eramaten zituzten.

Champagne leinuaren armarria

EVREUX LEINUA

Filipe Evreuxekoarekin (1305-1343) hasita, Nafarroako erresumak 1425era eduki zuen Evreuxeko konderria Normandian. Eskualde horretan sagardoa egiten da, eta Gilles de Goubervillek ofizialki 1552an destilatu zuen lehendabiziko aldiz sagardo pattarra. Normandia Frantziako erregeak herri hedakor horri han finkatu zedin emandako lurraldea da, eta, bitartean, Iruñea eta Cádiz suntsitu zituzten, eta, hegoaldetik, Sizilia-raino iritsi ziren eta, iparraldetik, britainiar uharteak konkistatu zituzten.

Françoise Aubaille-Sallenave egilearen arabera, Normandiako abadia batek bazituen lursail batzuk Nafarroan, Simón de Ablitas juduak kudeatzen zituenak. Calabrian sagardoa egiten eta edaten da. Juduak izan ziren al-Ándaluseko kulturaren gordetzaileak, eta Inperio karolingiotik abian jarri zuten nazioarteko merkataritza radanitekin; iturri batzuen arabera, merkatari judu horiek merkataritza horri heldu zioten siriar kristauek baztertu zutenean. Esan dezagun Julien le Paulmierren obraren bertsio frantsesean zazpi kandelako lanpara bat agertzen dela, hebrearrek gurtzen dutena.

Esate baterako, Nafarroako erregeak batez ere musulmanez eta juduez osatutako armada batekin borrokatu zuen Espainian. Normandian, 1355ean, bazen de Navarre en Evreux izeneko gaztelu bat, eta iturri batzuen arabera, 10.000 eta 20.000 bitarte soldadu nafar joan ziren Normandiara. Ondoko Bretainiaren eta Euskal Herriaren arteko trukeak lehenago gauzatu ziren *Pommes et cidrerie* liburuan adierazten denez. Liburuan jasota dagoenez, euskaldunek egoitza bana zuten Bretainiako Aber Vrach portuan (sagardoaren epizentroa Europan), Normandian, Bretainian eta Galesen, eta, Erresuma Batuan, Devonen. Michel Sanche Dursus XI. mendean iritsi zen Normandiara; handik Ingalaterrara joan zen, eta han dago lurperatuta, frantses egileek adierazten dutena baino lauzpabost mende lehenagotik

Berengela Nafarroako printzesa Ingalaterrako erregina izan zen 1191tik 1199ra, eta Frantzian baizik ez zen bizi izan, Poitiers eta Le Mans hirietan, Bretainiatik eta Normandiatik oso gertu.

Egile frantsesek izen garrantzitsutzat dute Guillaume Dursus edo Dursue, XV. mende bukaeran eta XVI. mende hasieran aitzindaria izan baitzen sagar barietate onak bereizten. Jacques Desrochesek dio ekarpen horiek Karlos II. Nafarroakoaren espedizioak tarteko egin zituela, azkenekoa 1301ean, Juan de Graillyk gidatuta, eta ondoren Jerusalemera eta Siriara joan zela Hondarribitik igaroz. Egiaztatuta dagoen lehenengo Dursus edo Dursue Bizkaitik edo Nafarrotik heldu zen, Michel Sanche Dursus izena zuen eta Nafarroako erregearen aholkularia zen.

FOIX LEINUA

Foix etxea Frantziaren hego-ekialdean egokitu zen, sagardoa egiteko ohiturarik ez duten eremuan, eta Nafarroako erresumaren mende egon zen Filipe III.a Nafarroako erregearen garaian, Katalinarekin (1468-1518) jabetza hori galdu zuen arte. Lehendik, Frantziako San Luis erregeak suntsitu egin zuen eremu hura, infanteria bizkaitarra erabili zuen kataroak Montségurren zuten azken gotorlekuan azpiratzeko. San Luis Tunisian hil zen, iturri batzuen arabera islamera bihurtuta, eta beste iturri batzuen arabera gaixotasun benereoek eragin zuten haren heriotza. Handik hurbil egiten da sagardoa, eta xanpaina egiteko metodoa erabiliz ondu zen lehenengo ardoa Limouxen egin zen, argi eta garbi uzten delarik Dom Périgonek inguru horretan egiten zituela elizkizunak. Ez da zentzugabekeria pentsatzea bizkaitar mertzenarioak inguru hartan finkatu zirela eta beren ohiturak hara eman zituztela.

Evreux leinuaren armarria

Foix leinuaren armarria

KANADA

Kanada, Oregon ez bezala, sekula ez zen Espainiako koroaren mendeko lurraldea izan, frantsesek eta ingelesek borrokatu zuten lurraldea izan baitzen. Jesulagunek Frantziako probintziatzat hartu zuten, eta 1611n Belle Provincera iritsi ziren eta 1625ean Quebecera.

Frantsesen eta ingelesen presentzia hori gertatu aurretik, itxura guztien arabera bikingoak, euskaldunak eta portugesak ibiliak ziren lurralde hartan. Pentsatzekoa den bezala, denen aldeko argudioak daude, baina guk zentzuzkoenak iruditzen zaizkigunak ekarriko ditugu orrialdeotara.

HIZKUNTZA MAILAKOA

Bada eskimalen eta indiarren artean elkar ulertzeko modu edo *pidgin* bat, eta euskarak leku garrantzitsua du hartan. Peter Bakkerrek eta beste egile batzuek aurreratzen dute kostaldeko tribuen hizkuntza erdi euskara dela. Izan ere, bada 1670ean Amsterdamen argitaratutako euskara-islandiera glosario bat. Champlainek, 1541ean egin zuen hirugarren bidaian, Gaspen babestutako ehunen bat arrantza ontzirekin egin zuen topo. Koldo Mitxelena filologoak dio Gaspe hitzak 'gerizpe' edo 'kerizpe' esan nahi duela, gaztelaniaz 'cubierta', eta frantsesez 'sous abrit'.

XVI. mendean normala zen euskal arrantzaleak Ternuara joatea. Esteban Garibaik 1571n Anberesen argitaratutako obran dio indiarrek erraz ikasten zutela euskara, eta horixe bera berretsi zuen Martinez de Isastik 1582an idatzi baina 1615ean argitaratu zuen obran. Hauxe esan zuen Pierre de Lancre frantsesak baina oroz gain inkisidoreak: «Euskaldunek betidanik trafikatu dute han, eta, ondorioz, kanadarrek frantsesekin euskaraz baizik ez zituzten egiten tratuak».

Sebastian Cabotek 1497ko ekainaren 24an deskubritu zuen Ternua, italiarra zen baina Espainian bizi izan zen, eta Bristolgo merkatariek finantzatu zuten haren bidaia. Bristolek kastore larruak jasotzen zituen euskal merkatarien aldetik.

Champlain, Kanada frantseseko gizon itzaltsua, 1611n Quebecera itzuli zenean hiru jesulagun izan zituen aldean: aita Biard, Mas eta Quentin. Jesulagunek sagastiak zituzten Quebecen, eta 1642an bost ikastetxe: Breton lurmuturrekoa, Mendikoa, Tadusakoa, Montrealekoa eta Hurongoa. Beste bana izango zituzten Michiganen eta Ontarion.

ROBERT DELORT

Erdi Aroko egile ospetsua, animalien larruen merkataritzan aditua. Artikulu bat idatzi zuen 1492 baino lehen Kanadan euskal herritarrek izan zezaketen presentziari buruz. Dokumentua kontsultatu duten egileen arabera, Britaniako aduanetako erregistroetan oinarritzen da, jasota baitago indiarrek ondu ohi zituzten moduko kastore larruen bolumen handiak iristen zirela Ingalaterrako portuetara 1380 eta 1433 bitartean. Miren Egaña, Kanadako euskal toponimian aditua den aldetik, Robert Delort maisuak aurreratutakoa egiaztatzea ahalbidetuko luketen iturrien bila ari da. Leedseko Unibertsitateko Wendy Childs irakasleak euskal probintzien eta Ingalaterraren arteko Erdi Aroko merkataritza harremanei buruzko komunikazioaren datuak aberasteko adeitasuna izan du. Lehenengo komunikazioan adierazten digu garai hartan kastorea Europan hedatuta zegoela. Gogorarazi genionean euskal herritarrek zeramatzaten kastore larruak europarrek ez bezalako moduan (biribilkietan, indiarrek bezala) aurkezten zirela, zehaztu zigun XIV. mendean zehar eta, baita XV. mendean zehar ere, larruak Sandwichen jasotzen zirela. Zama 1442. urtean azaldu zen lehen aldiz Londresen, eta 1461etik aurrera Bristolen.

KANARIAR UHARTEAK-MADEIRA, HEGOALDEKO BESTE EREMU BATZUK

Kanariar Uharteak, Zorioneko uharteak, euskal espedizioen xede izan ziren 1381ean eta 1393an, 2002ko kanariar-amerikar historiari buruzko mahai-inguru batean jasota dagoenez.

Juan de Bethencourt, Granvilleko jauna, normandiarra, agertu zen mende bat geroago Zorioneko uharteen deskubrimenduaren protagonista ofizial gisa. Tenerifen, Tenerifeko Nekazaritza Biodibertsitatea Kontserbatzeko Zentroan, sagarrondoari buruzko 45 sarrera daude erregistratuta *sidra, manzana francesa, manzana francesa roja, blanca dura* eta *manzano franco* bezalako izenekin. Madeiran, Kanariar uharteekin etengabeko harremanak izan baitzituen, Festa do Pero (Sagarrondoaren jaia) ospatzen da, eta Santa de Serran sagardoa egiten da. Penintsulan, Malaga bezalako lurraldea oso interesgarria da sagar barietateen ikuspegitik, antzinako barietateak kontserbatu baititu dagozkien izen zaharrekin.

ESTATU BATUAK

Ameriketako Estatu Batuak da jateko sagar ekoizlerik handienetakoa munduan, eta sagar ekoizpen hori hiru eremu handitan biltzen da: 1. Washington estatuan, Jordan ibaiaren inguruan, Ozeano Barearen kostaldean, Oregon estatuaren iparraldean. 2. Estatu Batuetako ekialdean, gaur egungo New York estatuko eremuan. 3. Kalifornia da ekoizpen eremurik berriena.

Euskal herritarren presentzia hainbat egilek jaso dute, eta, dirudienez, Jordan ibaiaren haranera mugatzen da. 1609ko ekainean, Jordan ibaiaren inguruak aztertzeko agindu zuen Floridako gobernadoreak.

Loiolako jesulagunen liburutegiko dokumentu ezezagun batzuen arabera (02-n6 kutxa), 1572an Kalifornian lehorreratu ziren jesulagunak Kanadako ekialderaino eta Oregoneraino iritsi ziren. Oregonen, garai bateko sagar barietateen artean, *api etoile*, geza zuria eta geza gorria bezalako sagar barietateak ditugu, baita Kanadako errege sagarra ere.

Eremu horretan sagardoa egiten da eta, ekialdera, aintzira handien lurraldean, Detroiten, *jesuit apple tree* izeneko udareondo barietate bat dago, jesulagun frantses batek eramandakoa.

Ekialdeko Amerikan sagardoa egiten da, eta auzoko herrialdearekin dituen loturei esker, informazio gehiagorekin jarrai ditzakegu Euskal Herriko sagar barietateen presentzia. Dirudienez, egia da indiarrek, Tony Horwitzek aitortzen duenez, esploratzaileekin harremanetan jarri zirenean lehendik gizaki zuriarekin egon zirela erakusten zuten elementuak zituztela, izan ere, kanoek haize oihalak zituzten eta izen kristauak. Aita Ayusoren arabera, espainiarrak holandarrak baino lehenago iritsi ziren ekialdeko kostaldera, Holandan dagoen New Yorkeko mapa bat (nederlandera ekarritako izenekin) 1520ean datatzen baitu, arkatzaz idatzitako ohar batek 1620koa dela adierazten badu ere. Iturri gisa Justin Windsorren obra bat aipatzen du. Santa Maria izenetik eratorria da Marylandia izena.

Ez dugu Kaliforniako pomologian sakonduko ez dugulako behar besteko daturik.

SAGARDOA EGITEKO SAGARREN NAZIOARTEKO LOTUREI BURUZKO ONDORIOAK

Europan jateko sagarrek eta sagardoa egitekoek duten jatorriaren egungo egoerak ukatu eta, are gehiago, gutxietsi egiten du euskaldunen ekarpena.

Horren arrazoiak hainbat dira, eta horietako bat da ez garela sagarrondoen germoplasma banku bat sortzeko gai izan.

Tony Horwitzek dio historia garaileek eta idazleek idazten dutela. Euskal Herrian, historiaren eta ohituren transmisioa ahoz egiten zen, auzietan eta dokumentu ofizialetan erabiltzen ziren testu idatziak. Ahozko ezagutza hori aztertzea merezi du. Normandiako Contentin penintsulako sagarrak, bertan euskal barietateak sartu baitziren, Gipuzkoako antzinako barietateen antzekotzat edo parekotzat jo ziren.

Bistan da sagar barietateak mendeetan zehar bidaiatu direla, baina gaur egun, barietateak (hau da, royaltyak) lehenesten diren honetan, jatorriz Euskal Herrikoak diren sagar barietateak gizateriaren ondare izateaz arduratu beharko genuke, mendeetan zehar izan den bezala.

Tamalgarria da izen handiko egileen liburuetan eta argitalpenetan Euskal Herriak sagar barietateei dagokienez egindako ekarpena aintzat ez hartzea. Mugimendu berria da, baina etengabe egiten ari da aurrera. Kontsolamendu bat geratzen zaigu, alegia, ebasten dizkiguten bi mende horiek –Dursustarren presentzia Normandian edo Kanadarekiko loturak erakusgarri– *peccata minuta* direla Europako herririk zaharrenarentzat.

3.3.-
EUSKALDUNEN PRESENTZIA AMERIKAKO KONTINENTEAN 1492 BAINO LEHEN

Euskal Herriko sagarraren nazioarteko lotura ezezagunei buruzko asmorik gabeko lan batean, Amerikako kontinenteari heldu diogu Kanadako sagar barietateak ezagutzeko, bereziki Quebecen eta Belle Provincen, Kanadako errege sagar grisak eta zuriak lurralde hartara nork eraman zituen jakiteko.

Lan honetan guk uste duguna azalduko dugu: Kanadara sagarrondoak eraman zitzaketen lehendabiziko europarrak euskaldunak izan ziren, eta ez, behin eta berriz esan den bezala, Kanadako errege sagarrek jatorri frantsesa dutela XIX. mendean.

Arkeologian, linguistikan eta Erdi Aroko historian ugari dira euskaldunak Ameriketako lurretara garai goiztiarrean iritsi zirela pentsatzera garamatzaten arrastoak.

Azterlan honetan aintzat hartu dugu Groenlandia, Atlantiko aldeko Kanada, Ternua eta Saint-Pierre eta Mikelune barne hartuta, baita San Lorenzo ibaiaren bokalea ere, eta gaur egungo Estatu Batuetako Atlantiko aldeko fatxada hartzen duen eremu geografikoa.

Bereziki Hyacinte de Charenceyk egindako azterlan batzuen arabera, huts egiteko beldurrik gabe esan daiteke euskaldunek presentzia jarraitua izan zutela Kanadan gutxienez XIV., XV., XVI. eta XVII. mendeetan.

Horretarako, Pascal Mitxelenak XIV., XV. eta XVI. mendeetan euskaldunek, gaskoiek eta ingelesek kastore larruak saltzeari buruz egindako ekarpen batzuk aztertuko ditugu.

Erraz asmatzen da hiru talde horien presentzia: euskaldunek itsasontziak zituzten eta Mediterraneoan eta Atlantikoan ibiltzen ziren, eta Kanadaraino iritsi ziren uste baino askoz ere lehenago. Hainbat egilek, hala nola Louis Figuierrek, adierazten dute euskaldunak 1372an iritsi zirela Ternuara, San Lorenzo golkora eta Labrador penintsulako kostaldeetara.

Gaskoiak Baionan zituzten baseetatik lan egiten zuten merkatariak ziren, eta Hondarribian eta Donostian zuten lehentasunezko tratuari esker, Ingalaterrako hegoaldeko portuekin merkataritza libreko akordio batean parte hartzen zuten. Guyana, Pirinioetatik haraindi Bordeleraino iristen dena, dukerri ingelesa izan zen garai hartan. Kolonia ingeles handi bat zegoen Baionan, eta beste bat Donostian.

Rober Delortek, Erdi Aroko Europako larruen merkataritzan aditua den aldetik, dio Ingalaterran lehorreratutako kastore larruen merkataritzan nabarmendu egiten zirela Hondarribitik, Baionatik eta beste portu batzuetatik egindako bidalketak. Sandwichek gaskoiek bidalitako kastore larruak jasotzen zituen 1344tik aurrera. Orobat Bristolek 1378tik aitzina. XV. mendean Londres eta Southampton batu zitzaizkien Sandwich eta Bristoli, eta kudeatzaileak gaskoiak, ingelesak, espainolak edo euskaldunak ziren.

Komenigarria da gogoraraztea 1350etik aurrera, denbora tarte labur batzuetan izan ezik, Ingalaterrarekin nabigatzeko ahalak daudela. Are, 1353ko urrian, Santa Maria elizan, betiereko bakea sinatu zen Ingalaterraren eta Castro, Donostia, Getaria, Hondarribia, Mutriku eta Laredoren artean.

ONDORIOAK

Lan hau galdera bati erantzuteko sortu da: nork ekarri zituen Kanadako errege sagar grisa eta errege sagar zuria? Harrigarria iruditu zitzaigun inolako frogarik aurkeztu gabe baieztatzea sagar mota hori jatorri frantsesekoa zela, gure ustez sagarra eta sagardoa ezagutzen zituzten eta kontinente horretara iritsi ziren lehenak euskaldunak zirela erakusten duten zantzuak agerikoak baitira. Aztarna guztien arabera, herri txiki horrek Kristobal Kolon Mundu Berrira iritsi baino bi mende eta mende eta erdi bitarte lehenago jardun zuen Kanadako kastore larruekin salerosketa probetxugarrian. Horrek adierazten du Mundu Berriko sagardotarako sagasti eremuek euskaldunen presentzia handia izan dutela.

Ipar Amerikako eta Kanadako mendebaldeko kostaldean sagarrondoak landatzen dira eta sagardoa egiten da. Kostalde hori Sebastián Vizcaínok erregistratu zuen 1602an, eta Espainiak 1819an saldu zuen Oregon Adams-Onís Tratatuaren bidez.

Sagarraren eta larruen gaiak linguistikari, toponimiari eta arkeologia ezagunari eta berriari buruzko lan ezagunenei batzen zaizkien elementuak dira, eta agerian uzten dute euskaldunak Amerikako kontinentean izan zirela 1492 baino lehen.

Latinez, sagarra mala da (sagar hitza mala mattiana esapidetik dator; K.a. I. mendeko Kaio Matio erromatar nekazaritza-idazlearen sagar-barietate gogokoena zen hura). Hortik dator, halaber, azido malikoaren izena, sagarra baita substantzia horren kantitate handiena duen fruitua.

SAGARDOA EUSKAL HERRIAN

Sagardoaren kultura eskualde, herrialde eta zibilizazio askoren historiarekin lotuta dago, eta horien artean leku nabarmena du Euskal Herriak. Izan ere, sagardoa euskal nortasunean barneratu den edaria izan da, da eta izango da, beste batzuekin batera estereotipo deigarri bihurtzeraino, herri xehearentzat eskuragarria delako eta bere elikaduran beste elementu bat izan zelako.

Lydia Zapatak hauxe iradokitzen du burura eramandako azterlan arkeologikoetan: «gutxienez hurrak, ezkurrak eta rosaceae familiako sagarrondoak, hala nola gurbea eta sagarmina, elementu garrantzitsuak izango ziren giza elikaduran Euskal Herriko Mesolitoan eta Neolitoan».

4.1.- NOLA ETA NOIZ IRITSI ZEN SAGARRA EUSKAL HERRIRA

Aurreko kapituluan gure planetako sagarra/sagardoa binomioaren historia sotila azaldu dugu gaingiroki, eta orain beste urrats bat egingo dugu Euskal Herrian kokatzeko gure gaiari heldu baino lehen: sagardoa Bidasoan.

Horretarako, Pascal Mitxelenaren *Presencia vasca en el continente americano antes de 1492* ikerlan iradokitzailea hartuko dugu oinarri, eta, haren barruan, «Cómo y cuándo llega la manzana al País Vasco» atala. Hona hemen ekarpenaren alderdi nabarmenenak:

Oxfordeko eskolak, Barrier Juniperrek egindako ekarpenaren bidez, sagarra Euskal Herrira iristeko bi bide proposatzen ditu.

1. bidea: Zuzenean mendebalderantz merkataritza bideetan barrena, Tian mendietatik aurrera, Kaspiar itsasoaren iparraldetik, Danubio ibaian barrena Ekialdeko Europara eta, handik, erromatarren garaia baino lehen, Ingalaterrara. Esanak esan, erromatarrek ez zituzten Ingalaterrara jateko sagarrak eraman, txertoa baizik ez.

2. bidea: Kaspiar itsasoaren hegoaldetik Anatoliara, handik, Mediterraneoaren ekialdetik, mendebaldeko Europara batez ere kobrea biltzera joan ziren feniziar herrietara. Kobrea Espainian, Kornuallesen eta Galesen aurkitu zuten. Kobrearekin batera burdina aurkitu zuten. Barrier Juniperrek adierazten du merkatariek sagarrak eraman ohi zituztela beren bidaietan, eta era guztietako haziak trukatzen edo salerosten zituztela tokikoekin.

Atlantikoko kostaldean Maceria eta Monzano izenak aipatzen ditu Espainian eta Galizian sagarrari dagokionez, Havalon, Avignon Frantzian eta Avalon Ingalaterran. Av- eta hav- aurrizkiak sagarra adierazteko izen zelta zaharrak dira, eta kostaldeko leku horietan itsasgizonen lehorreratze puntuak irudikatzen dituzte. Itsasgizon horiek feniziarrak ziren, zeramatzaten haziak han utzi zituzten, batzuek fruitu onak eman zituzten, eta haien izenak tokiko izenetan gogoratzen dira. Ez dira kontuan hartzen *Malus sylvestris* espezieko sagarminak.

Askoz ere geroago, bat egin zuten lehenbiziko eta bigarren bideek, eta ikaragarri emendatu ziren jateko sagar barietate berriak, baita sagardoa egiteko balio dezaketen barietate batzuk ere, tanino asko duten horiek. Sagardoa Europako mendebaldeko kostaldean, Espainian eta Portugalen hedatu zen, eta horitik, Frantziako mendebaldera, Bretainiara, Normandiara eta Ingalaterrako mendebaldera, Kornuallesera, Devonera eta Somersetera.

Jada azaldu dugu sagar izena izen zelta baino lehenagokoa dela, hebrear sustraiekin uztartzen dela. Euskal Herrian, Normandian eta Bretainian, antzinako sagar barietateek sarritan adierazten edo iradokitzen dituzte Ekialde Hurbileko izenak, hala nola Jerusalemekoa, bon chrétien, imajinatzen dugun musulman barbaroari oposizioa eginez, edo *pelestiña*, Palestinakoa izan daitekeena. Abuztuaren erdialdeko eta irailaren hasierako jateko gisa sailkatuko dugun sagar barietate horrek sagardoa egiteko balio du, eta, beraz, erabilera bikoitzeko sagartzat jo dezakegu: jatekoa eta edatekoa.

Antzinako egile batzuen arabera, hala nola Marcialen arabera, Erromatar Inperioan Euskal Herriko sagarra salerosten zen.

Aurrez egindako ekarpenak baztertu gabe, X. mendetik Erdi Aroaren bukaerarainoko garaian zentratuko da gure iritzia. Garai hartatik kontserbatutako izen idatziek hebrearren, musulmanen eta gurutzaden inguruko aukerak iradokitzen dituzte.

Erdi Arotik Aro Modernorako trantsizioan, XV.-XVI. mendeetan, inoiz ez bezala emendatu zen sagardoaren kontsumoa, Euskal Herrian nabarmen garatu baitzen sagardogintza. Hori dolare baserrien sorrerari esker gertatu zen, aurrerago ikusiko dugun bezala. Gaur egun, Gipuzkoan, baserri haietako baten ale bat kontserbatzen da: Igartubeiti baserria.

4.2.- ARDOAREN ETA SAGARDOAREN ARTEAN

Euskal Herrian, behin eta berriz, antzinatik dago jasota sagardoaren eta ardoaren arteko lehia. Jatorri ezezaguneko Olentzero abestiaren kasuan, zenbait bertsio daude ahozko tradizioan, batzuek «botila ardoakin» diote eta beste batzuek «sagardoarekin», hala nola Juan San Martinek bildutako bertsioak («Gabon jaunariak folklorean»): «Horra, horra gure Olentzaro, / pipa hortzian dula ixerita dago. / Kapoiak baditu arraultzatxoekin / gabean merendatzeko sagardoarekin».

Pio Barojak ere *(La leyenda de Jaun de Alzate: Entre las olerías y la Navidad*) Olentzeroren bertsio hau damaigu: «Au urde tripa aundia / Sagar ustelez betia!».

Ildo berean, hauxe idatzi zuen Veneziako enbaxadore Andrés Navajerok:

> *En esta tierra no hay vino [...]. En lugar de viñas se siembran manzanos [...]. Con las manzanas hacen un buen vino que llaman sidra, que es lo que bebe la gente común [...]. Es saludable para quien a él se acostumbra; para los que no, es difícil de digerir, daña el estómago y despierta gran sed.*

Sagardoari emandako liburu honetan, edariari ematen zaion tratamendu bitxiagatik (doña Zagardoa) ezinbestean aipatu beharreko lekukotasun literario bat dugu: *Vida y hechos de Estebanillo González, hombre de buen humor, compuesta por él mismo. Estebanillo González* laburduraz ezagunagoa, azken eleberri pikareskoetako bat da, 1646an argitaratu zuten Anberesen (Juan Cnobbarten Alargunaren Moldiztegia).

Enrique Suárez Figaredok moldatutako argitalpena baliatu (*Lemir*, 13. zk., 2009) eta XII. kapituluari dagokion testu hau bereizi dugu:

> *Salí de la ciudad de Pamplona con una mula y un criado, y después de haber pasado los confines del reino de Navarra entré en la provincia de Guipúscoa, que, aunque es país no barato, es muy regalado y ameno en variedad de arboledas. El segundo día y postrero de mi viaje, a persuasión del criado, quizá por ir él a caballo, bebí una poca de cidra por hacer gran calor y decirme que era buena para refrescar, pero apenas la había envasado en la cueva de mi barriga , cuando empezó a tener alborotos con el vino que estaba adentro y andar a puñadas el uno con el otro, sintiendo yo, bien contra mi gusto, la batalla y el combate; pero ¿qué menos me podía suceder con bebida cuyo propio nombre es zagardoa que mal azagaya le tiren al ladrón que tal me hizo beber?*
>
> *Al fin, como en muchos reinos y señoríos me han dado emperatrices, reinasy damas de calidad muchas ayudas de costa, en esta provincia la señora doña Zagardoa, marquesa del real de Manzanares, me honró con hacerme ayuda de cámara y escudero de a pie, pues todo el camino fui a pata con los calzones sueltos y en las manos y haciendo a cada veinte pasos una parada*

Aipatutako moduko lekukotasunek Francisco Labayenen baieztapen hau babestu ahal izan dute: «La sidra o sagardúa ha sido, desde tiempo inmemorial, la bebida clásica y fundamental del pueblo euskeldun».

Ardoaren eta sagardoaren artean, Urteagak argi du (*Jaizkibel*, 18., zk., 1911ko urriak 29):

> *Pena guziyak astu azitzen*
> *Dizkigun sagardoteriya,*
> *Nun zaldutzen dan Euskaldunaren*
> *Erari maitagarriya;*
> *Rioja Alta ona izan arren*
> *Ardo eder da garbiya,*
> *Ezdu neretzat iñois izango*
> *Sagarduaren graziya.*

Herri tonu berbera destilatzen dugu Gabriel Celayaren bertsoetan, Buruandik kantatuta: «Llego a la sidrería / y ahí sigues como ayer. / Tú solo estás contento / si te dan de beber. / Cuando quieras marcharte, / no te podrás mover; / burbuja, la barrica, / tú serás el tonel. / ¿Qué dirá cuando vuelvas / a casa tu mujer?».

Adelardo Fernández-Ariasek *La Correspondencia Militar* egunkarian sinatutako Hondarribiari buruzko kronika batean (1900eko uztailak 26) albiste mozkorgarri hau dago jasota:

> *La noche de Santiago era el baile hasta las doce, la lujuria hasta el amanecer, el vino y la sidra corriendo sin cesar por las espitas... toda la juventud se lanzaba al agua de la voluptuosidad en la que se sumergía hasta ahogarse... Es asombroso el número de nacimientos que acusa el registro Civil del pueblo.*

Jai giroko pasadizo hori jada aintzat hartu zuen Aita Larramendik agian 1756an idatzi eta 1882an argitaratutako *Corografía de Guipuzcoa* lan etnografikoan: «De la manzana se hace la sidra, que es bebida fresca y agradable, y como sea pura emborracha como el vino y con borrachera más tenaz y de mayor duración».

Fernando eta Rafael Artola anaiek, beren *Aritz beraren adarrak* liburuan sagardoaren alde egiten dutela dirudi:

> *Ederra bazkaria. Damurik, nai ainbat ogirik ez, ta zegoen gutxia beltza. Ardo ta sagardo, edari eskasirik etzegoen, alare.Ederra bazkaria. Damurik, nai ainbat ogirik ez, ta zegoen gutxia beltza. Ardo ta sagardo, edari eskasirik etzegoen, alare.*
>
> *Urrengo igandean agertu ziran bixkiak anaiarengana, tankarta pean gordeta eraman zituzten dozenerdi sagardo botillakin. Ezer gutxi izango zen, baiña bai gustura artu Praxkuk. Ondarribiko sagardoa! Zokuetakoa gaiñera!*
>
> *Dendetako kalea! Une ontan zertan ari ote dira etxekoak? Orra or Barra-eneko sagardotegia.*

Guztien edaria zen sagardoa, eta gaur egun zorionez hala ez bada ere, oso gaztetandik edaten zen. Familia askotan onartzen zen erabileragatik eta ohituragatik! Horren lekuko dugu esaera zahar hau: «Sagardoak umea ekarri, kerexiak eraman».

Bestelako iradokizunez gain, badirudi sagardoa ona dela haurrentzat, eta gereziak kaltegarriak izan daitezkeela gehiegi janez gero. Hala eta guztiz ere, epaia argia da, aurreiritzi erlijiosorik gabea: *Sagarra ona izan liteke, deabruak emanik ere.*

Sagardoarekin eta haurrekin lotuta, Teodoro Mujikaren bertso eder bat dugu, *Sagardoari:*

> *Guraso zarrak barruan*
> *zuten biotz berddingabearen*
> *eredu eta ezaugarriak*
> *ziran sagasti ederren*
> *erdian jaio ta azitako*
> *semeak nola geraden*
> *amak utzita berealaxe*
> *bularretikan ematen*
> *sagardoaren txotxera jun da*
> *ikasi gendun edaten.*

Euskaldunentzako funtsezko edaria bai, baina euskal idiosinkrasian haren bikotekidea aipatu behar da: txakolina, Fernando Aretxabalaren ahapaldi bakotar honetan egiaztatzen denez: «Pues algún ángel plantó el manzano, / según afirman, y otro la vid, / para que hiciesen los vascongados / la sagardúa y el txakolí».

Hain edari hedatua izanik, esaera zaharren bidez igaro da euskal ahozko literaturara. Hauxe dago jasota 1596ko Refranes y sentencias lanean: «Zarrac sagastia ybini / gazteac yrazi». Eta beste burutsu hau: «Dolara baco etsatxuetan / baleuque andrea diruetan». Euskal literaturan urre urtua gisa adierazten da. Ez gehiago ez gutxiago!

4.3.- *SAGARRA*

Sagardoaren munduan, gaztelaniaz, *manzana* da oinarrizko hitza, eta manzanal, manzanera, manzanar, manzanil, pomar eta pomareda bezalako toponimoak bereizten dira. Euskaraz, guztiz sustraituta dago *sagar* hitza; izan ere, iraganaren eta euskal espazioaren zati da euskararen herrian.

Euskal hizkuntzan, sagardoaren eta haren eratorrien oinarri den sagar hitzak historia idatzi garrantzitsua du, euskalki eta euskararen lurralde guztietan dokumentatzen denez. Izan ere, Erdi Aroaz geroztik dugu sagar hitza dokumentatuta, oraindik ere hitzak zer ezkutatzen duen ezin azaldu dezakegun arren. Baina Euskaltzaindiaren lanak aintzat hartuta hitza noiz azaldu zen adieraz dezakegu. Lehendabiziko idazketa orain dela mila urte ingurukoa izan daiteke, hau da, Sagassaheta de Álava, 1025ean. Ondotik datoz Beila de Sagarzaharra (1089), Sagarzaheta (1089), Sagasseta (1099), Sagardia (1217), Sagartegui (1254), Sagarrcelay (1284), Sagasti (1314), Orti Sagarra (1330), Maria Miguelles de Sagastiçarr (1346), Iohan Sanchez d'Apalasagasti (1348), Lope de Veretersagastiguy (1349), Lope S(a)gar (1349), Johan de Irursagarreta (1350), Sancho Vassa Sagarr (1360), Sagaspe (1366), Pedro de Sagastia (1366), Pero Urtiz de Sagasti (1374), Lostau Sagarspea (1377), Martín de Sagastiçaual (1383), Miguell d'Irasagasti (1384), Martin Martines de Sagarbelsy (1384), Pero de Beysagasty (1390), Sagarbide (1391), Juan Sánchez de Sagarberridi (1399), Juan de Sagastigutia eta Pedro de Sagastiberri (1399), Martín d'Arymasagasti (1401), Juan Sanches de Andranafarrasagasti (1402), Sagarminaga (1415), Juan Martinez de Anasagasti (1447), Juan Urtis de Atorrasagasti (1448), Peres de Sagarduri (1448), Sagarzurieta (1452), Sagarteguieta (1452), Iohan Ybannes de Sagardia (1461), Ansolopezsagarreta (1479), Sagarduya (1483), Miguell de Sagarrola (1484), Pero Yvañes de Anasagastuy (1485), Christovelcho de Sagarçuça (1490), Sagarbieta (1498), Sagarvusti (1499), Sagardygastoa (1499), Juan de Sagarvinaga (1499) eta abar.

Erdi Aroan zehar dokumentatutako izenen zerrenda horri beste batzuk gehitu diezazkiokegu: Apa(la) sagasti, Atorrasagasti, Gilisagasti, Olasagasti, Oruesagasti, Sagardi, Sagardizar, Sagardogi, Sagardui, Sagarmendi, Sagarraga, Sagarribai, Sagartegieta, Sagarza, Sagarzazu, Sagarzurieta, Sagasta, Sagastasoloa, Sagasti, Sagastibeltza, Sagastiberria, Sagastiberridi, Sagastigutxia, Sagastigutia, Sagastizabal, Sagastizar, Sagastume, Sahastume, Sagatxaga... Halaber, sagarrarekin lotutako izenetan topatzen dugu: Dolaretxipi (Tolaretxipi), Dolarieta, Makazaga, Makazti... Datu bitxi batekin amaituko dugu: Nafarroako 1291ko agiri batean «Sagarro» hitza agertzen da.

Gure hiztegietan jasota daudenez, bi hitz elkarketa bitxi aipagarri gertatzen dira sagar hitzarekin: *sagar-dantza* eta *sagar-lur*. Hauxe diosku José María Iribarrenek: «Sagar danza, o danza de las manzanas. Baile típico del valle del Baztan... existe otra sagar-danza, bailada solo por muchachas». *Sagar-lur* hitzari dagokionez, badakigu sagarrondo batek hartu behar zuen lurzatia zela. Nekazaritzako neurri hori foruak definituta eta araututa zegoen.

Julio Caro Barojaren arabera, Nafarroan: «El prado-manzanal, se medía, y aun otras tierras también, con una medida llamada "sagarlurra", que era un cuadro de siete metros por siete: distancia que se dejaba entre árbol y árbol».

Telesforo Monzonek *(Langosta baten inguruan)*, «Lurraren mintzo» kapituluan, sagarraren eta euskararen arteko lotura sotila egin zuen:

> *Sagarrondok bezain euskara ederra egiten duenik, ez da Euskalerrian. Oraindik badira, erdaraz hitzik ikasia ez duten sagarrondo zaharrak. Orain landatzen dituztenak-eta, kanpoko eskoletan ibiliak dira gehienak. Baina laster hartzen dute hauek ere berriz gure lur-usaina. Eta egia diotsuet: ez da niretzat sagar-usain gabeko egiazko Euskalerririk.*
>
> *Udareagatik zer diodan? Mertxika ta horiek baino guretarragoa da bai udarea. Baina ez sagarra bezain herrikoia. Baserri jatorretan, sagarra eskainiko dizute orain ere. Herrietako jauntxo, midiku, mutxurdin, aberats eta apaiz batzuen ale-baratza polit horietan atxemanen dituzue orain ere udarerik ederrenak.*
>
> *Badakite bai hauek euskaraz zuk bezain ederki egiten baina, erdaraz nahiago gehienetan. Handinahikeria pixkat sartua baitzaie udareei. Ez da harritzekoa. Merkatuetan-eta garesti saltzen direla- -ta, euskaraz egiteko lotsatzen hasiak. Marrubiari ere gertatzen zaiona. Ez gereziari ordea. Gure gerezi ederrok ez baitira, gorrienak ere, euskaraz egiten aise lotsatuko. Topa zuei, Gerezi ta Sagar!*

Longa kapa beltza eleberrian jasotako baieztapen labur honetan ezin argiago azaldu zuen Joxean Agirre idazleak: «Sagardoak euskal kontzientzia pizten du».

4.4.-
LEHEN TESTU HISTORIKOAK

Jada I. mendean, Estrabon geografo grekoak Galian sagarrondoak ugari zirela idatzi zuen, eta jarraian azaldu zuen Baskonian sagardoaren antzeko edari bat zegoela, egositako eta uretan eta eztitan diluitutako sagar zatiekin egiten zena, baskoiek edaten zutena eta pitarra esaten ziotela.

IX. mendean Santiago Nagusia apostoluaren gorpuzkiak Galiziako Finisterran *inventio* edo aurkitu zirela jakin ondoren, erromes ugari izango ziren Erdi Aroan zehar Santiago de Compostelara bidean. Horietako batzuek, Euskal Herria alderik alde igarotzean, sagarra, sagardoa eta esnea aipatzen dituzte aintzat hartu beharreko elikagaien artean, eta harritu egiten dira sagastien ugaritasunaren aurrean.

Aipatzekoa da Aymeric Picaudek XIII. mendeko *Codex Calixtinus* obran idatzitakoa:

> *Jarraian dator, Garazitik hurbil, Euskaldunen lurraldea, Baionako hiria kostaldean, iparraldean. Hizkuntza arrotzeko lurraldea da, basoz betea eta menditsua, ogirik, ardorik eta era guztietako elikagairik gabea, sagarrak, sagardoa eta esnea izan ezik.*

Koldo Mitxelenak, bere *Textos arcaicos vascos* liburuan adierazten du sagardoari buruzko lehenbiziko idatziak XI. mendetik aurrera agertu zirela. Gaur egunera arte iritsi den testurik zaharrena, euskal sagardoaren ekoizpena aipatzen duena, 1014ko apirilaren 17koa da, latinez idatzita dago, eta Iruñeko Antso III.a erregeak Gipuzkoako lur batzuk Leireko monasterioari emateari buruzkoa da.

Era berean, XI. mendean aipatzen dira Altzako (1025), Bergarako (1050), Elorrioko (1053) eta Mutrikuko (1081) sagastiak.

1025eko testu horrek aipamen berezia merezi du, bertan baitago jasota gaur egungo Gipuzkoaren lehenbiziko testigantza, *Ipuscoa* hitza. Gaila andreak eta Olazabalgo (Altzo) San Salbador monasterioko García Azenariz Ipuscoako jaunak San Juan de La Peña monasterioari egindako dohaintza bat da. Agiri hori liburu honetan jasotzeko modukoa da, *manzaneto* (sagasti) hitza behin ez baizik eta bost aldiz aipatzen baita mugak edo landak markatzeko.

Bizkaian Goi Erdi Arokoak dira aurreneko aipamen idatziak, XI. mendearen erdialdekoak dira nekazaritzari buruzko lehen dokumentu idatziak. Dohaintzetan eta monasterioetako kartularioetan daude jasota gisa honetako aipamenak: «arbores pomiferas» (Busturia, 1051), «kasas terras et manzanares et pomares» (Bermeo, 1053), «cum terris, ortis et pomiferis arboribus» (Iurreta, 1072) eta abar. Aipatzekoa da Poema de *Fernán González* (XIII. mendea) poeman 930. urte inguruko Hacinaseko ustezko guduari buruzkoan Lope kondeari buruz dioena: «Don Lope el vizcaíno, rico de manzanas, pobre de pan y vino». Historialariek eta idazleek sakon aztertu eta eztabaidatu duten historiako pasarte horrek ezin hobe islatzen du orduko Bizkaiko nekazaritzaren egoera.

Hainbat bidaiarik eta foru eta tokiko ordenantzei, zergei, auziei eta abarrei buruz oro har dagoen dokumentazioak ematen digute Erdi Aroan zeuden sagasti handien, horien hedaduraren eta garrantzien berri. Erdi Aroko Bizkaian sagarrondoa da laborantzarik oparoena. Sagastiak hiribilduen inguruetan, lursailetan, mendietan eta leku bazterretan zeuden, eta sagardoa ia baserri guztietan egiten zuten, egileek berek kontsumitzeko eta hiribilduetan saltzeko. Nabarmentzekoa da Zenarrutzako kolegiataren garrantzia Erdi Aroko ustiakuntza mota horren erakusgarri gisa.

Aukeratutako testu historiko horien artean, 1309an gaskoiz idatzitako *Libro Becerro de San Sebastián* aipatu behar da, hartan ardoei eta sagardoei buruzko ordenantza bat baitago jasota.

4.5.-
SAGARDOARI BURUZ AUKERATUTAKO TESTUAK

Sidra hitza (antzinako *sizra* adieratik eratorria) Gonzalo de Berceok XIII. mendean idatzitako obra batean –*Vida de santo Domingo de Silos*– jaso zen lehenbiziko aldiz Gaztelako literaturan.

Lope de Isastik, Gipuzkoako probintziaren deskribapenean, sagardoaren kultura irudikatzen du hitz gogoangarri hauekin:

> *De lo que más abunda es de manzana: las cuales son de muchos géneros: las más preciadas que son Camuesas, Perazas, Piqueras, Arriólas, Amasas, Peros reales, y otras de esta manera se guardan en aposentos*

para el invierno. De las demás, que son en grande abundancia dulces y agrias, se hace sidra, que en Castilla llaman Vino de manzanas, de que se hinchen muchas cubas, y es una bebida sana, fresca y de nutrimento, y para el verano, y sobre salado de mucho gusto y regalo, particularmente para mujeres y trabajadores, que es su bebida ordinaria, y suele valer á ocho doce maravedís el azumbre, y no se puede vender con agua, sin que se manifieste so peña de seis mil maravedís, como manda la ordenanza del cuaderno.

Lope de Isastik ere, datu bitxi bat ematen digu:

En región tan remota como Terranova han aprendido los salvages montañeses (que digimos arriba) con la comunicación que tienen con los marineros bascongados, que van cada año por el pescado bacalao, que entre otras cosas preguntándoles en bascuence: nola zaude, como estás: responden graciosamente: Apaizac obeto, los clérigos mejor: sin saber ellos, que cosa es clérigo, sino por haberlo oido. Hablan y tratan con los nuestros, y ayudan á beneficiar el pescado en la ribera á trueque de algún pan bizcocho y sidra que allá no tienen ellos.

Argi geratzen da gipuzkoarren armetarako joeraren oinarrietako bat: «La bebida de la sidra, que se hace en aquella tierra hace la gente animosa, magnánima, respecto, que las manzanas dulces quitan la melancolía, y dan una fortaleza y brío particular».

Serafín Barojak balio historiko handiko testu bat idatzi zuen *El Urumea* egunkarian, «Las sidrerías». Hasteko, *Donostiako iru damatxo* abesti guztiz ezagunaren ahapaldi hau aipatzen du:

Donostiako Gaztelupeko
sagardoaren gozoa,
hantxen edaten ari nintzala
hautsi zitzaidan basoa.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
basoa kristaleskoa.

Debako mediku Martin Aranburuk, *Erari espirituzkoak* obran, hainbat alderditan bereizten du sagardoaren garrantzia:

Ez dago zer esanik oen guztietatik eta beste erari moduen artetik guri geienetsu zerbait esatea dagokiguna dala sagardoa, bada beraren izenak dion bezela da sagarraren ardoa, eta frutu au da gure euskal-erriko lurrean beste iñon baño geiago egiten dana eta bertako aberastasunik aundienetako iturria.

Onegatik da gauza ikusia eta jakiña medikuen artean txixa lekuko arriak gutxitan sortzen zaiztela sagardo eraleai, au da, sagardo asko egunero eraten duten jendeai.

Baño beste gañerakoan eta modu egokian sagardoa artutzen dala, da au txit erari osasungarria eta garbia, egarri illtzalle guztizkoa, eta eragiñazten duan txixaren bitartez baita ere gultzurrunetako eta puxigako garbitzallerik onetatikan bat.

Ardoa dago bere lekuan erari indarberritzalleen artean errege balitz bezela, bada lenago esan degunez piztutzen du itzali naiean dabillen odolaren indarra: bañan era berean berak ematen duan ordialdia da ere gogorragoa eta baita ere errazagoa sagardoarena baño, zergatik daukan erari onek baño asko ispiritu geiago, naiz eta izan ardoa indar gutxikoa.

Errose Bustintzaren *Euskalerriko ipuñak* liburuan argitaratutako testu batek umorez beteriko pasadizo bat eskaintzen digu:

Eta gure mutillak, bere ituntasuna kentzeko, eskaratzeko upa andira joanda, sagardoa edateari ekin eutsan.

Alako baten, upearen giltza, bere lekutik kanpora urtenda, beeko kortara jausi zan, eta bertantxe sagardoa parrastaka urteten asi zan.

Orduan, " Tototxu " izenaz etxeko txakurrari dei egin eutsan; eta, " Tototxu " eldu zanean, " Kokolo-mokolo " k txakurraren

buztana upa-zuloan sartu eban, andik sagardoa geiago urten ez zedin.

Eta, txakurrak iges egiteaz batera, upa andiko sagardao guztia eskaratzean batbatean zabaldu zan.

" Kokolo-mokolo ", eskaratzean ainbeste sagardao ikustean, estutu egin zan, zearo ikaratuta geratu zan.

Joxe Azurmendi filosofo zegamarrak goratu egiten du sagardoaren tonua *Mirande eta kristautasuna* obran:

Akelarre berbizteak eta euskal paganismo liturgiak ikusi ditugu geroago, ikusi, asko ez duela, berriz ere artisten batzuen inguruan, euskaltasunaren sustrai jator bila bezala muntaturik: hilargi bete gabetan sagardo libazioak, eta abar.

Ordea, Ortzi adora daiteke egun ere, eta sagardo libazioak egin litezke hilargi betetan eta larru-bixikeriak eta akelarreak ospa litezke dotoreak, baina hori dena eginaz, behinolako euskaldunek holakorik egin zutela, egia izango balitz ere, ezin pentsa genezake, horregatik, haien gauza bera egiten dugunik, haien sinesmenez egiten ez badugu.

Ugari dira euskal literaturan jasotako testuak, eta askoz ere gehiago barnean hartzen baditugu, zergatik ez, ahozko literatura bere adar guztietan, direla esaera zaharrak, direla abestiak eta bertsolariak. Sotila baita, Arantzazuko Amaren Egutegia egutegiaren 2025eko martxoaren 21ean jasotako esaera zahar bat aipatuko dugu. Esaera zahar horretan, animalien eta pertsonen zaintzarekin erkatzen da sagastien zaintza: «Nerabea, auntza eta sagastia, zaintzen zailak».

Literaturaz gain, beste arte batzuetan ere goraipatzekoak dira sagardoari buruz egiten diren ekarpenak, baina gainditu egiten dute liburu honen gaitasuna. Hala ere, Irungo Gordailuan ikus daitekeen adibide bat emango dugu.

Zurezko koadro angeluzuzena. Zizelaz erliebean landua, sagardotegi bateko pasadizo bat irudikatzen du: erdi-ezkerrean, lokal bateko atearen baoaren bidez, kupela lerro bat ikus daiteke, saltzailea edalontziekin eta mikelete bat. Eskuinean, berriz, bezero batzuk ikusten dira tokan jokatzen.

4.6.- DOLARE BASERRIAK GIPUZKOAN

Alberto Santanak *(Baserria)* dio Gipuzkoan, Erdi Aroan zehar (XI. mendetik XV. mendera) gizartean nekazariak zirela gehiengoa, baserriei atxikiriko sistema ekonomikoari lotuak, eta sagastiak zirela nekazarien funtsezko aberastasunetatik bat. XVI. mendetik aurrera, sagarraren eta gariaren garrantzia erabakigarria izan zen dolare baserriak izena izango zuten baserriak eraikitzeko.



Igartubeiti dolare baserria (Ezkio-Itsaso). Egilea: Xabier Eskisabel (Wikimedia Commons).



Habedun dolarea duen baserria (XVI. mendea). 1. Ardatza. 2. Ganbara. 3. Tolare-haga. 4. Gain-hagak. 5. Tolare-habeak. 6. Lastategia. 7. Sagar-patsa. 8. Masera. 9. Tina. 10. Ikuilua. 11. Pisu-harria. 12. Sukaldea. 13. Kontrasutako atea. 14. Gelak. 15. Upategia. 16. Kontrasutako horma. (Alberto Santana: Baserria).

Ander Izagirre donostiarrak deskribapen zehatz honekin azaltzen du dolare baserrien gaia:

Los caseríos no eran otra cosa que enormes lagares de sidra. La primera pieza que instalaban era la viga móvil, alrededor de ella montaban toda la estructura de la máquina y luego ensamblaban el tejado y las paredes. Aquí las familias no construían una casa. Construían una máquina y se iban a vivir dentro de ella.

El sistema de prensa lo trajeron los romanos para el aceite y el vino, la carpintería era germánica, las granjas de Asturias, Bretaña o Alemania, también contaban con lagares de sidra, pero la peculiaridad de los caseríos vascos es que se trata de casa-máquina...

¿Por qué les entró esa fiebre de construir caseríos-lagares por todas partes? ¿Por qué ocurrió esa revolución arquitectónica a principios del siglo XVI y por qué solo en el País Vasco?

La respuesta otra vez viene del mar.

La respuesta viene de los viajes transoceánicos. Las naos que zarpaban hacia las Américas cargaban todos los años miles de barricas de sidra, porque era una bebida que no se pudría durante las navegaciones y que además alimentaba.

La demanda creció tanto que Gipuzkoa se convirtió en un inmenso manzanal y las Juntas Generales aprobaron leyes de una minuciosidad obsesiva sobre la distancia mínima entre manzanos, la fecha de apertura de los toneles, la prohibición de introducir sidras foráneas, incluso decretaron la pena de muerte para quien talara cinco manzanos.

Según el historiador Sergio Escribano, en el País Vasco del siglo XVI funcionaban unos ocho mil lagares, la mayoría en Gipuzkoa, que producían unos quince millones de litros anuales de sidra. Los caseríos ya no eran meras unidades de supervivencia campesina, sino fábricas que trabajaban a pleno rendimiento al servicio de la expansión pesquera, ballenera, comercial y colo-

nial. Si miles de familias pagaron a maestros artesanos para que les construyeran un enorme caserío-lagar, que resultaba mucho más caro que una simple vivienda, fue porque la sidra daba mucho dinero.

El lagar solo lo ponían en marcha una o dos semanas, para presar las manzanas recolectadas en octubre, pero el esfuerzo compensaba para todo el año: así obtenían su bebida habitual (las familias consumían cuatro o cinco litros diarios, porque la sidra era más rica, más alimenticia y mucho más fiable que el agua sin potabilizar) y vendían los litros excedentes.

Los caseríos-lagar dejaron de construirse hacia 1650, porque ya no recibían tanta demanda de sidra, salían muy caros y resultaba complicadísimo sustituir las enormes piezas de madera. Igartubeiti fue uno de los pocos caseríos que mantuvo el lagar, aunque no lo utilizaran, y por eso la Diputación compró el edificio a finales del siglo XX, lo desmontó entero y lo volvió a montar para entender cómo se ensamblaban aquellas tremendas maquinarias de prensar sidras. En la entrada del caserío se ve el tornillo vertical y el elemento que impide que el caserío se quiebre en mil pedazos cuando ejercen una presión tan brutal en su estructura contrapeso del lagar: una piedra de mil setecientos kilos.

La superficie entera de la vivienda la ocupaba el gran lagar de madera en muchos de los caseríos, algunos de los cuales perviven en nuestros días. Tan importante fue la manzana que las de gran calidad y duración servían para pagar parte de la renta del caserío a los propietarios.

En los caseríos del siglo XVI y la primera mitad del XVII, el lagar, dolarea, era una gigantesca máquina de madera que ocupaba todo el eje longitudinal de la granja en sus dos plantas. Estos artefactos, dedicados a la elaboración de sidra, se basaban en los principios de las primitivas prensas romanas y estaban formados por una gruesa viga horizontal de hasta doce metros de largo que se hacía descender hasta apisonar la masa de manzanas colocada bajo ella, mediante un enorme tornillo de madera. Ningún lagar se ha conservado entero, pero los postes que regulaban el mecanismo siguen en pie sosteniendo varias decenas de los caseríos más antiguos de Gipuzkoa.

Los lagares que se inventaron a fines del siglo XVII todavía siguieron siendo de madera, pero eran mucho más pequeños y tenían varios tornillos de presión directa. Más tarde, a principios del siglo XIX, comenzaron a difundirse las pequeñas prensas desarmables con husillo de hierro central y mecanismo automático, que son las que hoy abundan en buena parte de las granjas locales.

Igartubeiti Baserri Museoko liburuxka batean, Ondarearen Europako Jardunaldien harira (Gipuzkoa, 2024), «Balea olioa eta xaboia» gaitzat hartuta, bitxikeria hau dago jasota: «Dolare baserriek beti izan dute itsasoarekin lotura, baserri hauetako dolarean ekoizten zen gero euskal marinelek bidaia luzeetan eramango zuten sagardoa. Marinel hauek trukean olioa ematen zieten baserritarrei».

Gordailuan (Irun), Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroan, XVI. mendeko dolare baserri bateko dolare ardatz bat kontserbatzen da. Pieza hori Ubegi baserritik (Altza, Donostia) etorria da, eta, Josu Tellabideren arabera, Gipuzkoan kontserbatu den ale bakarra da.

Berreskuratutako eta Gordailuan (Irun) gordetako pieza

SAGARDOA ETA ITSASOA

5.1.- SAGARDOA ETA ITSASOA

Orain dela mende asko, gure arbasoak itsasoan barneratzera ausartu ziren gure lurraldeko lurra emateko gai ez zen bizigaien bila, eta beren zeharkaldietan ezinbestekoa zuten produktua zen sagardoa.

Horri buruzko lehenbiziko aipamen idatziak XV. mendearen azken urteetakoak dira, une horretan areagotu egin baitziren merkataritza harremanak Habsburgotarren monarkiak ezarritako egonkortasun politikoaren eta itsasoen kontrolaren babesean. Gainera, garai hartan sagarrondoak zabalkunde handia izan zuen euskal landa eremuan, hazkunde demografiko handia izan zen, eta nekazaritza indartu bazen ere, ez zen nahikoa izan herritar guztiak asetzeko. Defizit hori arrantzarekin –balearen arrantza funtsezkoa zen– eta Ipar Europara esportatutako burdinarekin berdindu zen, irabazi handiko bi negozio baitziren, eta sagardoak lehen mailako rola jokatu zuen horretan. Testuinguru berezi horretan, ez baitzen berriz errepikatuko, balio erantsi handiko produktu bihurtu zen sagardoa.

Balearen arrantza ohiko jarduera zen jada Erdi Aroan. Gipuzkoar arrantzaleek haragi-hezurrezko puska erraldoi horiek harrapatzen zituzten Bizkaiko golkora itzultzen zirenean iparraldeko ur hotzetan barrena. Jarduera hori behin eta berriz eramaten zuten burura urtero, eta, denboraren joanean, murriztu egin ziren harrapakinak euskal kostaldeetan, eta, aldi berean, handitu egin zen kostaldeko herrietako arrantzaleen arteko lehiakortasuna, gero eta urriagoa baitzen altxor urri eta preziatu hori.

Arazo horiek saihesteko, gipuzkoarrak Kantauriko beste eremu batzuetarako eta ipar Europarako espedizioak antolatzen hasi ziren. Halere, oso arriskutsua zen ipar Europako uretan barna nabigatzea, ontzi piraten eta kortsarioen erasoak eta Europako potentzien arteko itsas guduak zirela eta.

Gauzak horrela, 1497an Ternua deskubritu zuten eta han bakailao sarda handiak zeuden, eta balea asko gerturatzen ziren. Gezurra dirudien arren, garai hartan era horretako berriak oso azkar zabaltzen ziren; izan ere, hogeita zortzi urte geroago, gipuzkoarrek latitude urrun haietara iristeko lehen bidaiak antolatu zituzten. Ordutik aurrera, urtero 30 itsasontzi (gehienak Gipuzkoakoak) abiatzen ziren Kanadara 2000 marinel hartuta.

Diru asko kostatzen zen balea harrapatzeko arrantza ontzi bat hornitzea eta prestatzea Ternuako ur hotzetara joateko; horregatik, bidaia hasi baino hilabete batzuk lehenago ontzi jabeak eta armadoreak beren prestaketa lanekin hasten ziren. Erriberako zurginek, bikeztatzaileek eta ontzietako mantentze lanez eta konponketez arduratzen ziren beste artisau espezialista batzuek itsasontzia bidaiatzeko egoera ezin hobean (hau da, gila eta saihets irazgaitzak, mareako obrak eginak eta haize oihalak berme osoz erabiltzeko moduan antolatuta) egon zedin lan egiten zuten bitartean, espedizioaren sustatzaileek bidaia finantzatzeko bazkideak eta itsasontziaren armazoia bilatzen zituzten. Kasu batzuetan, horietako batzuen ekarpen ekonomikoa ez zen dirutan izaten, baizik eta sagardotan, eskuarki norberaren uztakoa. Bestela esanda, ordaintzeko diru gisa erabiltzen zen sagardoa. Ternuarako espedizioa egiteko sozietatea eratuta, eskifaia kontratatu eta hornidurarako produktuak erosten zituzten, horien artean oinarrizko bi produktu: sagardoa eta bizkotxoa (altxagarririk gabeko ogi modukoa, luzaz irauten zuena).

Martxoan eta apirilean Ternuarantz abiatzen ziren arrantza ontziak irailean edo urrian itzultzen ziren. Hau da, zortzi hilabete inguru irauten zuten kanpainek. Luzea eta gogorra zen bidaia. Garai hartan, gaixotasunak hedatzeko benetako mintegi ziren itsasontziak. Marinelen metaketak, higiene faltak eta elikadura desegokiak benetako epidemiak eragiten zituzten eskifaian.



Pasai San Pedroko (Gipuzkoa) Albaola Itsas Kultur Faktoriako panela. San Juan baleaontzia, Albaolan berreraikia, xanpainarekin ez baizik eta sagardoarekin "bataiatu" zuten uretaratzeko ekitaldian (2025eko azaroak 7).

Gainera, marinelek asko jan behar zuten lan baldintza gogorrei eta zeharkaldi osoan egin beharreko ahalegin fisiko handiari eutsi ahal izateko, baina batez ere zetazeo ikaragarri handi horiek harrapatu ahal izateko (balea heldu batek 20 tona inguruko pisua izan zezakeen). Armadoreek elikagai errazio nahikoak ematen bazizkieten ere, dieta ia beti batekoa izaten zen, eta ez zituen bitamina batzuk izaten. Bizkotxoarekin eta sagardoarekin batera, babak eta zalkeak, xingarra eta arrain lehortuak edo gazituak. Batzuetan haragia jaten zuten, arrautzak gutxitan, eta frutak eta barazkiak inoiz ez.

Marinel bakoitzak egunean bi litro sagardo inguru edaten zuen, edari freskagarria eta atsegina izateaz gain, eta ardoak baino gehiago irauten baitzuen, C bitamina hartzeko iturria zen eta, horrexegatik, itsasoan den gaitzik beldurgarrienetako baten –eskorbutoa– aurreko antidoto egokia. Gainera, elikagaien dieta Kanadako lurretan eskifaiak itsasontzian zuenaren antzekoa zen oso. Berriz ere, garrantzitsua zen sagardoa edatea, eta gainera esaten da euskaldunek eraman zituztela lurralde hartara sagarrondo landareak.

XVII. mendearen hasieran, egoera hori aldatzen hasi zen aurkako inguruabar sorta baten ondorioz, hala nola itsas jardueraren atzerakada ondoz ondoko gerrak eta nabigazioaren segurtasunik eza tarteko. Gainera, euskaldunak pixkanaka egotzi egin zituzten Groenlandiako eta Ternuako kaletatik, eta ezinezkoa zen baleak harrapatzea Brasilen, Islandian eta Norvegian. Horrek guztiak eragin zuen sagastiak bazterrera uztea eta artadiek haien lekua hartzea.

Hala eta guztiz ere, XVII. mendean, sagardoa oso presente egon zen Indietako bidean ibiltzen ziren edo Austria etxeak Ozeanoan zituen Itsas armadetan aritu ziren galeoietan bidaiatu ziren euskal marinelen dietan. Izan ere, 1699an, Pedro Arostegi donostiarrak Mapileko ontziolan San Joaquín (1071 t) eta San Ignacio (1066 t) ontziak eraiki zituen eta, lehendabiziko bidaia egiteko 23.388 azunbre sagardo (46.776 litro inguru) ontziratu zituen 204 upeletan banatuta. Sagardo hori Urnietako, Errenteriako eta Donostiako baserrietan ekoitzi zuten.

1728an Venezuelarekiko kakaoaren merkataritzarako Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainiaren fundazioa bultzada handia izan zen Gipuzkoako merkataritzarako eta ontzigintzarako. Atlantikoan barrena egiten zituzten zeharkaldietan eta Konpainiaren ontziak eraikitzen zituzten ontzioletan sagardoa beti egon zen presente. Izan ere, Vicente de Lardazabalek merkataritza enpresako medikuentzat eta zirujauentzat 1769an idatzitako eskuizkribuan adierazi zuen sagardoa edan behar zela eskorbutoa prebenitzeko, tratatzeko eta sendatzeko.

Beraz, sagardoa gure arbasoen balentriekin oso lotuta eta presente egon den produktua izan da.



CONSIDERACIONES
POLITICO-MEDICAS
SOBRE LA SALUD
DE LOS NAVEGANTES,
EN QUE SE EXPONEN LAS CAUSAS
de sus mas frecuentes enfermedades, modo
de precaverlas, y curarlas.
CON LAS CONDUCENTES INSTRUCCIONES
para el mejor régimen de los Cirujanos de Navíos, que
hacen viage à la América, especialmente para los de
la Real Compañia Guipuzcoana de Caracas, à fin de
que con mayor acierto se conduzcan, asi en el méthodo
curativo de los enfermos, como en el manejo de
los Botiquines de su cargo.
SU AUTOR
EL DOCTOR D. VICENTE DE LARDIZABAL,
Medico de la Ciudad de San Sebastian.
QUIEN LAS DEDICA
A LA DIRECCION
DE LA MISMA REAL COMPAÑIA.
CON LAS LICENCIAS NECESARIAS.
EN MADRID: Por Don Antonio Sanz, Impresor del Rey nuestro Señor,
y de su Real Consejo. Año de MDCCLXIX.

Vicente de Lardizabalen liburuaren izenburu osoa (Euskal Itsas Museoa, Donostia)

5.2.- SAGARDOA EUSKAL MARINELEEN BABESLE

«SAGARDOA, EUSKAL ITSASGIZONEN "BABESLE" IZAN DA MENDEETAN ZEHAR».

Horixe da New Yorken sortutako *About Basque Country* webguneko 2019ko artikulu baten izenburua, eskorbutoaren gaia jorratzen duena eta hauxe dioena:

> *Gaurkoan, Samuel Reasonek sinatutako artikulua argitaratu duelako aipatzen dugu. Honetan, euskal itsasgizonek mendeetan zehar bale-ehizan edota bakailao arrantzan izandako arrakastan sagardoak izandako garrantzia kontatzen digu.*
>
> *Bela Garaian, belaontzietan eginiko ozeanoz bestaldeko bidai handietan, itsasgizon asko eskorbutoa dela eta gaixotzen ziren. C bitamina faltagatik gertatzen da eta heriotza-tasa altua eragiten zuen.*
>
> *Askotan kontatu dugun bezala, euskal itsasgizonek «bere itsaso» egin zuten ipar Atlantikoa, eta mendeetan zehar bale-ehiza menderatu zuten. Nabigatu bitartean ez zuten gaixotasun hau izan, eta beraz honen eraginik ere ez.*
>
> *Samuel Reasonek artikulu honetan azaltzen zuen bezala, honen arrazoia, egunero sagardo kantitate altu bat ahoratzen zutelako zen. Honek, eskorbutoa ez izateko C bitamina nahikoa ematen zielako.*

Denboran urrunago, baina Bidasoa ibaitik hurbil, pitarrari propietate sendagarriak ematen zaizkio (*El Bidasoa*, 1933ko irailak 39):

> *Hay manjares y bebidas humildes que son las glorias de muchos países por su utilidad y su baratura [...]. De este género es la "pitarra", bebida legendaria de los aldeanos de Guipúzcoa, mitad sidra y mitad agua; bebida modesta, sanísima y económica, poco alcohólica, un grado nada más, completamente inocua, con la cual remediaban nuestros abuelos su poca simpatía por el agua.*

Adierazten du euskaldunek Erdi Aroan beren ontzietan eramaten zituztela

> *sendas barricas de «pitarra». Siendo la «pitarra» o sidra aguada, una bebida antiescorbútica, permitía largas navegaciones sin temor al escorbuto, que era el azote de los navegantes antiguos y los vascos al llegar a Terranova antes que los escandinavos, realizaron una hazaña que luego repitió el capitán Cook en su vuelta al mundo en el siglo XVIII, descubriendo el núcleo mayor de la Oceanía.*

Aurrekoaren osagarri esan behar dugu Hondarribiaren nortasun zeinuetan balea , gazteluarekin batean, komunitatearen elementu bereizgarri gisa nabarmendu dela historian zehar. Hondarribiaren lehenbiziko zigiluan, 1297koan, aurpegietako bat balearen arrantzari soilik emana dago.

Balearen arrantzak rol garrantzitsua bete du Hondarribiko eta euskal kostaldeko beste herri batzuetako espazioan eta denboran. Denborak Erdi Aroan du abiapuntua, eta batez ere Aro Modernoan garatu zen.

Espazioa, hasietan, Kantauriko kostaldearen ondoko lekuetan garatzen da, baina balea kopurua murriztu zen heinean, gero eta urrutiago joan behar zen haien xerka. Laxaro Azkuneri jarraituz, balearen arrantzaren eta sagardoaren ekoizpenaren arteko lotura egin dezakegu.

Euskal arrantzaleek 1497an (Hondarribiaren zigiluaren data baino 200 urte geroago!) Ternua aurkitu ondoren, balea preziatua harrapatzeko itsasontzi haiekin itsasoan barneratzeko abentura epikoa hasi zen.

Halaxe dago jasota Laxaro Azkuneren testu honetan *(Sagardoa Azpeitian)*:

> *Hona hemen Laxaro Azkuneren hitzok: «Urtero 30 euskal galeoi abiatzen omen ziren lurralde haietara, gipuzkoarrak gehienak, 2.000 marinelekin. 1615ean, 3.680 barrika eraman zituzten, 450 litro barrika bakoitzeko. Marinel haiek derrigorrezkoa zuten sagardoa, 2/3 litro tripulatzaile bakoitzarentzat, edo bi barrika sagardo 5 gizoneko.*
>
> *Kontua da euskaldunen itsasontzien kroniketan ez dagoela eskorbuto-arazorik, eta hura zen garai hartako gaitz beldurgarriena itsasoan.Hori prebenitzen zuena sagardoa zen. Sagarrak ura du %85, eta gainerako osagaiak; azukrea, azidoak eta poligenoak (antioxidatzaileak eta antimikrobianoak). Osagai horiek babesten zuten osasuna».*

Era berean aipatuko dugu Álvaro Aragónen testu hau *(Síntesis de la Historia de Gipuzkoa)*:

> *A consecuencia de los cambios producidos con la difusión del maíz y fruto de la dinámica de los mercados locales que se produjo desde el siglo XVII, Gipuzkoa experimentó un proceso de especialización: si en la zona costera y pueblos aledaños era importante la producción de la manzana y la sidra —sobre todo, en el entorno del puerto de Pasaia y Donostia-San Sebastián, para el abastecimiento de las flotas comerciales, ballenera y pesquera—, a medida que nos introducimos en el interior, la extensión y el número de manzanales era menor, pues las tierras de manzanales habían sido reconvertidas en tierras sembradías, y la perduración de los cultivos de cereal era mayor.*

Korso nabigazioari dagokionez, Hondarribiko ekonomian iturri garrantzitsua baitzen, datu hau ematen digu José Ramón Guevarak:

> *La alimentación era a base de productos en conserva: bacalao, tocino y bizcocho o galleta de pan que cuando se endurecía se remojaba en agua para su cosumo. Para beber aparte del agua se llevaba sidra, sobre todo en embarcaciones vascas, vino y txakolí.*

EMAKUMEA ETA SAGARDOA

Pierre de Lancrek, Henrike IV.a erregearen kontseilaria Bordeleko parlamentuan, sorgin ehiza bat gidatu zuen Lapurdin, eta, gainera, 1612an *Tableau de l'inconstance de mauvais anges et démons (Aingeru gaiztoen eta deabruen aldakortasuna erakusten duen liburua)* liburua idatzi zuen. Hona hemen harribitxi bat sagardoaren gaiari dagokionez:

> *Lapurdi herrialde menditsua da, hiru erresumaren mugen artean dago: Frantzia, Espainia eta Nafarroa... sagarren herrialdea da, emakumeek sagarrak bakarrik jaten dituzte, sagar zukuak soilik edaten dituzte, eta horrek debekatutako sagarrari atseginez kosk egiteko aukera ematen die, Jaungoikoak gure lehen aitari agindutako debekua urratzea ekarri ziena. Adamen seme-alabak gogotik limurtzen dituzten Evak dira, eta, bururik ez dutenez, mendietan bizi dira erabat aske eta xume, Eva lurreko paradisuan bezala.*



Gipuzkoan sagarrarekin lan egiteko tresnen ondoan, emakumeen presentzia. Severo Agirre-Miramón

6.1.- ERAKUSKETA: EMAKUME EKINTZAILEAK SAGARDOGINTZAN

Emakumearen gaia sagardoaren antzinako munduan, beste gai askotan bezala gizonei lotuta egon baita, ikusgarria egiten ari da gaur egun artxiboetan gordetako dokumentu urriei esker. Horietan emakumeak agertzen dira, eskuarki alargunak eta dirudunak, liburu honetako orrialdetan agerian jartzeko modukoak.

Hori guztia jendaurreko aurkezpen ekitaldien bidez ezagutarazten ari da, hala nola Emakume Ekintzaileak Sagardogintzan erakusketan, hainbat tokitan aurkeztutakoan, horien artean Igartubeiti Baserri Museoan (Ezkio, Gipuzkoa).

Nestor Basterretxearen bost-seme alabetako batek, Gorka Basterretxeak, Arabako Errioxara eraman zuen erakusketa sagardoaren kultura ardoarenarekin uztartzeko. Erakusketa 2020. urtearen hondarrean inauguratu zen Eltziegoko Kultura Etxean, Lourdes Odriozolaren solasaldi baten ostean.

Oro har, «Emakumeen itzalpeko lana sagardogintzan» erreportajea baliatuko dugu. *Goiberri* aldizkarian argitaratu zen 2020ko uztailaren 2an eta hauxe irakurri dezakegu hartan:

> *XVI, XVII eta XVIII. mendeko lau emakumeren istorioak ditu aztergai erakusketak, eta laurek hainbat ezaugarri dituzte komunean: sagardoaren inguruan egin zuten lan eta emakume izanagatik gutxietsiak izan ziren. Maria Labayen, Maria de Echevarria, Ana de Beroiz y Fagola eta Maria Josefa de Orobio dira erakusketako protagonistak. Bertan erabilitako irudiak Jokin Mitxelena ilustratzaileak egin ditu.*
>
> *Lurdes Odriozola historialariak egindako ikerketa batean oinarritutako erakus-*

Sagardoaren munduko emakumeari buruzko erakusketaren ilustrazioak

keta da, Sagardo etxearekin elkarlanean sortua: «Helburua sagardoaren eta sagarrondoaren inguruko kultura eta ondarea zabaltzea da», azaldu du historialariak. Erakusketarako Tolosan dagoen Gipuzkoako artxibo orokorrera jo zuten: «Sagardo eta emakume hitzekin 202 erregistro daude bertan, baina orain bezala itzalean egiten zuten lan». Emakume horiek guztiek ere bazuten komunean beste zerbait: «Auzi bat edo salaketa bat badago edo alargun geratzen badira agertzen dira, bestela oso zaila da haien aztarnak jarraitzea». Izan ere, beti gizonen izena azaltzen da, eta emakumearena ezkonduz gero soilik agertu ohi da. Gizonaren emakume gisa. Beraz, erregistroan agertzen direnen artean lau aukeratu zituzten garaiaren arabera: «Sagardoaren momentu historiko oso desberdinetako emakumeak hautatu genituen». Odriozolak azaldutakoaren arabera, laurek ezagutu zuten sektorea: «Gizarte matxista batean bizi diren emakumeak dira, beldurtzen ez direnak; abokatu bat bilatuko dute denek haien kasua defendatzeko».

Urrezko mendea eta beherakada

XVI. mendea urrezko mendea izan zen sagardogintzarentzat. Ontzigintzak gora egin zuen garai hartan, eta Amerikara, Ternuara edo Europa iparraldera bidaiak ugaritu ziren ondorioz: «Gaztelako Koroak indar gehien zuena zen munduan eta hainbat itsaso ibilbide bilatu zituzten», azaldu du Odriozolak.

Itsasoarekiko lotura orduan hasi zen: «Gerra amaituko da eta merkatu antolaketa berria egingo dute». Euskal paisaian ere baserriak eta baserri-dolareak agertzen hasi ziren, eta sagardoa diru gisa erabiltzen zuten: «Marinelek sagardoa eramaten zuten eskorbutorako eta oso baliotsua zen». Maria de Labayen lezoarrak bidaiatzeko erabili zuen sagardoa, baina ontzian sartu behar zuenean udalak ezezkoa eman zion: «Donostiako sagardoa bakarrik sartu zezaketela esaten zuten, baina Gipuzkoako foruetan oinarrituta auzia irabazi eta sartzea lortu zuen». [...].

Lurra ez zen emankorra garai hartan eta beharrezkoa itsasotik zetorren, arrantzaren bidez eta merkataritzaren bidez. Sagardoa bi ekintza horietan agertu zen, jardun nagusi bilakatuz. XVII. mendean, baina, krisi galanta gertatu zen sagardogintzan: «Euskaldunek Ternuara joateko eskubidea galdu zuten Gaztelako Koroak indarra galdu zuelako, eta ingelesen esku geratu zen boterea». Kanpo merkataritzak ere indarra galdu zuen XVII. mendean, eta Ameriketatik produktu berriak ekarri zituzten: artoa, babarrunak, tomatea, piperrak, patata... Artoak izan zuen sagardoan eragin gehien, sagarrondoak baino uzta oparoagoa ematen duelako: «Lan gutxiago eskatzen zuen, artoak egun batetik bestera ematen duelako uzta, eta gainera dena aprobetxatzen zuten bertatik».

Ondorioz, sagarrondoak kendu zituzten askok artoa jartzeko, eta eskaerak ere behera egin zuen. Egoera horretan indarkeria pairatu zuen Ana de Beroizek 1691n: «Dibortzio antzeko bat lortu zuen, diberzio bezala agertzen dena». Baserri baten jabea zen Donostian, eta baserrian laguntza izateko Miguel de Maizekin ezkondu zela azaldu du Odriozolak. Tratu txarrak eman zizkion emazteari, eta hark sagardo guztia jaso eta alde egin zuen: «Gizonak salaketa jarri zion eta sorgina zela esan zuen zigorra jaso zezan».

Bigarren salaketa bat ere jarri zion, eta emakumea baserrira itzuli zen sagardo guztia jaso eta baserria hutsik uzteko: «Hortik aurrera elizak diberzioa eman zion, eta garai horretan arrazoia ematea itzela da». Halere, arrazoia eman bazioten ere, baserrira itzuli behar izan zuen: «Etxera itzuli zen, etxean bizi izan zen baina bakoitza bere eremuan eta dena erdibana eginda».

Maria de Echeverria donostiarrak ere sagardogintzaren beherakada pairatu zuen. Senarrak utzitako zorrak ordaintzeko sagardoa merkaturatu zuen: «Saltokia bizilekuan zuen, egungo Fermin Calbeton kalean hain zuzen». 1637an sute handi bat izan zen kale hartan, eta ur nahikorik ez zutenez, sua itzaltzeko sagardoa erabili zuten. Sagardo hori, dena den, ordaindu egin behar zioten: «54 sagardo karga erabili zituen Maria de Echeverriak, eta udalak ez zizkion ordaindu nahi». Horrela, salaketa jarri zuen emakumeak, eta irabazi egin zuen, kantitate osoa lortuta.

XVIII. mendea, baketsua

Egoera baretu zen hurrengo mendean, baina sektorea ahul zegoen oraindik: «Momentu horretan udal eta probintzietako erakundeek sagastia babesteko apustua egin zuten». Errenteriako Maria Josefa de Orobio da erakusketako azken emakumea, XVIII. mendekoa. Emakume aberatsa zen eta Pasai Donibanera ezkondu zen. Lehenengo sagardoarekin zizarra produzitzen zuen saltzeko, baina udalak debekua jarri zion: «Orobiok salaketa jarri eta irabazi egin zuen, sagardoa merkaturatzeko eskubidea berriz lortuta».

6.2.- EMAKUMEEK IDATZITAKO TESTU HISTORIKOAK

Ana Galdós historialariak (Irun en el siglo XVI. Una interpretación histórica a partir de su catálogo documental, 2011), kontsultatutako dokumentazio historikoa aintzat hartuta, XVI. mendeko kasu batzuk nabarmentzen ditu. Testu hau emakumeak XVI. mendean sagardoaren munduan izan zuen parte hartzeari buruz mintzo zaigu:

Cuando llegaba la época de cosechas y se requería mano de obra, los propietarios de los terrenos contrataban a jornaleros para desempeñar los trabajos necesarios. Así por ejemplo ocurría con la recolección de la manzana. Este trabajo solía estar desempeñado por mujeres que se encargaban de todo el proceso de producción. Eran ellas las responsables de recolectar la manzana y llevarla hasta los lagares donde se convertía en sidra. Una vez obtenida esta bebida, ellas mismas envasaban la sidra en las cubas y la transportaban hasta las tabernas donde se vendían.

Javier Sagarzazuren marrazkia Sagrario Arrizabalagak eta Lourdes Odriozolak idatzitako Ardoa Gipuzkoan liburuan.

Historialari horrek emandako dokumentu batzuetan emakumearen zereginaren berri ematen da kapitulutan banatutako istorio labur batean, kasu honetan Miguel de Leguíarekin lotuta:

Lehenbizikoan (1596ko otsailak 9):

> *Miguel de Leguía, vecino de Fuenterrabía, demanda a Pierres, francés e inquilino en su casa de Mendibil, por haber vendido a varios vecinos de Irún ciertas cargas de sidra que estaban en la casa de Mendibil y que eran de su propiedad. Solicita ante la justicia de Fuenterrabía que tanto Pierres como los vecinos que han comprado la sidra sean castigados.*

Bigarrenean (1596ko otsailak 21):

> *Nicolás de Justiz, alcalde de Fuenterrabía, ordena al preboste de la villa que aprese a María Esteban de Aranibar, criada que fue de Miguel de Leguía por haber sustraído unas manzanas de la propiedad de Miguel.*

Hirugarrenean (1596ko otsailak 26):

> *Miguel de Azpilcueta, presente en Irún, declara ante la justicia de Fuenterrabía, que a petición de María Esteban, criada de Miguel de Leguía, acudió con su rocín a la casa de mendibil, propiedad de Miguel de Leguía, para llevar hasta Fuenterrabía unos barriles de sidra.*

Egun bereko (1596ko otsailak 26) laugarren eta bosgarren kapituluetan, lekuko batek María Estebani leporatzen dio pitxer bat lapurtu izana, eta beste lekuko batek sagar bete saski bat lapurtu izana egozten dio.

Seigarren kapituluan (1596ko otsailak 26):

> *María de Azaldegui, vecina de Irún, declara ante la justicia de Fuenterrabía, que la criada de Mlguel de Leguía le había solicitado una escalera para poder acceder a la casa de Mendibil, propiedad de Miguel de Leguía.*
>
> *La testigo vio cómol la criada sacó toda la manzana que había en la casa y se la llevó.*

Azkenik, zazpigarren kapituluan (1596ko martxoak 11):

> *María Esteban de Aranibar, presa en la cárcel de Fuenterrabía, confiesa ser de Arana, en Navarra, y estar casada con Juan de Olarain, soldado de la compañía del capitán Pedro de Urbina. Declara haber servido para Miguel Mendibil y Leguía y para Ursula De Oyanguren, su mujer, y niega todo de lo que se le acusa.*

SAGARDOA EGITEKO SAGARRA GIPUZKOAN

Gure probintzian, Gipuzkoan, sagar landaketaren eta ekoizpenaren bilakaera historikoan lau fase bereizgarri eta definitzaile bereizten dira gaur egungo egoerara iritsi arte, eta lehengai hori eraldatzeko industriaren ezagutzarekin eta sagardoa egiteko sagarraren laborantzaren errentagarritasunaren analisiarekin eta etorkizuneko proiekzioekin amaituko dugu. Azalpen honetan ahalik eta laburren izateko ahaleginak egin ditut; hori dela eta, baieztapen batzuek, zenbaitetan, prestidigitadore baten mahukatik irtenak direla dirudite.

Lehendabiziko aroa: etapa honek Gipuzkoako hirietako ordenantzen hasieran du abiapuntua, hau da, XIV. mendearen hasieran, eta XVII. mendearen amaierara arte luzatzen da. Etapa horretan guztian garrantzitsua zen sagarrondoa, eta gipuzkoarren edari nagusia zen sagardoa. Garai hartan gutxi idazten zen, baina ongi. Horrela, Tolosako 1329ko lehen ordenantzek sagarra eta haren babesa baizik ez dituzte gaitzat. Donostia birpopulatzeko 1180. urteko foruak sagarrondo bat mozten zutenek bete beharreko zehapenak ezartzen ditu, eta moztutakoa birjartzeko eta fruitua eman arte izandako galeren kalte-ordaina emateko betebeharra ezartzen du.

Fruitu arbolarekiko errespetu hori areagotu egiten da Gipuzkoako 1397ko ordenantza konstituzionalean, fruitu arbolak mozten zituenari heriotza zigorra ezartzen baitzion. 1917ra arte inprimatu zen foru hori. Donostiako ordenantza zaharretan, sagardoaren gaiari dagokionez Tolosak baino obsesio txikiagoa izanda ere, gutxienez zazpi artikuluk jorratzen zuten sagarraren eta sagardoaren gaia. Sagardoa egiteko sagarra eta sagardoa garrantzi ekonomiko handiko jarduera zen, eta, ondorioz, garaiko esparru juridiko urriak landaketa, babesa, produktuaren merkataritza eta kontrola estaltzen zituen.

Bigarren aroa: bigarren fase honek sagarrondoak gure probintzian izandako nolabaiteko atzerakadan du abiapuntua, XVIII. mendean artoa sartuta sagastien eremua murriztu baitzen.

Presio demografikoak, karlistaldiek, komunikabideen hobekuntzak eta Gipuzkoara erraz iristen zen ardoak ere zuzeneko eragina izan zuten atzerakada horretan. Sagarrondoa eta sagardoa ardoarekin batera bizi dira, baina sagardoak nekazarien eta arrantzaleen artean edari nagusia izaten jarraitu zuen, bakailao ontzi guztiek sagardoa eramaten baitzuten zamategian.

Hirugarren aroa: nolabaiteko gainbehera fase hau XIX. mendearen amaieran geldiarazi zen 1936ra arte, batez ere Gipuzkoako Foru Aldundiak eta erakundeak izan zituen administratzaile bikainek emandako bultzadari esker. Sagardoa egiteko sagarrondoak eta sagardoak beste goraldi bat bizi izan zuten hirietan sagardotegiak zabaldu zituztenean. Horietan sagardoa egin eta saltzen zuten baserritik bereizitako jarduera gisa, eta horren garrantzia aintzat hartzekoa da.

- 1930ean eraldaketa hori Gipuzkoa osoan egiten zen 800 dolare ingurutan.
- Industria metodo berriak aplikatu ziren Grignongo Nekazaritza Eskolatik ekarritako teknologiaz. Era berean, eragin handia izan zuen Vicente Laffiteren eta Severo Aguirre Miramónen ikerketa lanak.

Laugarren aroa: 1939an abiatzen da, Gerra Zibilaren amaiera irudikatzen duen datan, eta, jatekorik ez zegoenez, edaria bigarren mailako kontua zen. Ia betikoz galdu zen sagardoa egiteko sagarrondoa. Lehen adierazitakoaz gain, hauexek izan ziren arrazoi nagusiak:

- Aldundiaren protagonismorik eza.
- Sagardotegi kopuruaren murrizketa, 800 inguru izatetik gutxi gorabehera 60 izatera pasa baitziren.
- Espainiaren isolamendua ikuspuntu ekonomikotik eta ikerketaren ikuspuntutik. Ikerketaren arloko atzerapena medio, XX. mendearen hasieratik hobetu ez zen egoeratik abiatu behar zen. Garai hark sagarrondoen erauzketa eta abandonua ditu bereizgarri, eta, ondorioz, 1960-1970. hamarkadetatik kronikoa den defizita nagusitu da.

7.1.-
FORU SAGARDOA

Sagardoaren presentzia, oinarrizko beharrak asetzeko orduan, euskal legeek arautu behar zuten, udal mailako legeek, baina, batez ere probintzia mailakoek. Hortxe kokatzen dira euskal foruak, probintzia bakoitzak bereak dituela.

Sagarrari, sagastiei, sagardoari eta dolareei buruzko ordenantza sorta bat jaso zuten foru legeek, eta haien erabilera eta ohitura lege bihurtu ziren.

Lurralde bakoitzean sagastiak lehenik animalietatik babesteko eta, bigarrenik, pertsonek egin zitzaketen kalteetatik babesteko xedean egiten ziren legeak.

Nafarroako foruak datu hau ematen du: animalien jabeei, baldin eta «egunean zehar, hau da, eguzkia ateratzen denetik sartzen den arte landatutako sagarrondoak dauden landetxeetan sartzen badira florin bateko isuna ezarriko zaie buru bakoitzeko, eta gauean sartzen badira, bi florin».

Gipuzkoako foruak zehapenak ezartzen ditu «sagastian abuztuko Ama Birjinaren egunaren eta Urte Berriaren arteko epean zehar sartzen diren animalien jabeentzat».

Animalien aurkako ordenantzak, Gipuzkoan, berezi-ki zorrotzak ziren ahuntzen eta antxumeen kasuan. Horrela, gaur egun ankerra zela iruditzen bazaigu ere, 1826an Hondarribian bildutako Batzar Nagusiek adierazi zuten hil egin zitezkeela «partzuergoaren lurretan eta herri lurretan zebiltzan» ahuntzak.

Geroago, Zigor Kodearen legediaren arabera, ahuntzen jabeei isunak jartzen jarraitu zuten, baina ezin zitezkeen ahuntzak hil.

Sagarrondoak ere zorrotz babesten ziren. Izan ere, 1457ko ordenantzek heriotza zigorra jasotzen dute «bost sagarrondo moztu edo hondatzen dituenari» ezartzeko.

Foruek ere behin eta berriz arautu zuten sagarraren eta sagardoaren inguruan baserrietan egindako eta kontsumitutako sagardoa hirien mundura bildu zenean.

Hona hemen sagardoei buruzko foru legediaren adibide batzuk:

No se puede echar agua a la Sidra que se hace en la Provincia para venta publica, aunque sí, cada uno para el consumo de su Casa. Tampoco se puede traer á la Provincia, ni vender en parte alguna de ella, Sidra, que no fuere de su propia Cosecha; y se pueden tomar Sidras, y Vinos en caso de necesidad, para apagar Incendios de Casas, estando obligados los Dueños á franquearlas, pagandoseles por las Villas, y Lugares su importe, como consta de los Capítulos I.o, y II.o, Titulo XXI, y del II.° Titulo XXXIX. de los Fueros.

[1726]. Dáse Comisión, para impedir la introducción de Sidras de Francia en Fuenterrabía. Sidras. Representa la Ciudad de Fuenterrabía, los motivos que ha tenido, para permitir su introducción, pidiendo no se continúe en la Comisión; y se la recuerda la disposición del Fuero.

[1741]. Permítese introducir, y vender en Fuenterrabía, Sidra de Francia, después de consumir la de la propia cosecha.

[1759]. Concédese á la Ciudad de Funterrabía, permiso para que pueda hacer traer Sidra de Francia por urgencia.

[1774]. Pregunta Fuenterrabìa, si prohivirà la venta de Sidra hecha con Manzana de Francia. Dictamen del Consultor, que siente deberle prohibir, mientras hubiere cosecha del País.

[1776]. Solicita un Vecino de Irun, no se le impida la venta de una Cuba de Sidra de Francia, que se rezuma, y vierte en mucha cantidad; y se da orden á la Universidad, por caso urgente, siendo ciertos los supuestos.

7.2.-
MUTINA OIARTZUNEN SAGARDOA MEDIO

Errege armadentzako bizigaien hornidurak haserre handia sorrarazten zuen ukitutako herrietan, baina erregearen indarrek eskatutakoa betearazten zuten, eta, batzuetan, liskar larriak eta are mutinak gertatzen ziren, herritarrak indarkeria erabiliz matxinatzen ziren.

Aipamen berezia merezi du 1699ko abuztuaren 1ean Oiartzunen gertatutako mutinak edo lapurreta ekintzak, sagardo eramate bat medio. Xose Estevezen arabera, Koroaren goi administrari Francisco Necolaldek, ontzidiko galeoiak hornitzeko, zazpi kupela bete sagardo konfiskatu zituen Oiartzungo Elizalde plazako hiru etxetan.

Oiartzungo bizilagunek istilu larriak eragin zituzten, eta 1699ko uztailean sagardoa konfiskatzea eragotzi zuten sagardoa «biztanleen elikagai beharrezkoa eta edari naturala delako, eta hori gabe premia larrian egongo liratekeelako». Gaztelako Kontseiluak, ekintza horiei amaiera emateko asmoz, Gipuzkoako korrejidoreari ahalak eman zizkion gertaerak argitu zitzan. 1699ko uztailaren 29an iritsi zen Oiartzunera bere jarraigoarekin. Ikerketak eta galdeketak egin ondoren, korrejidorea eraso zuten eta burua estalita zeramaten hamazazpi eta hogei bitarte gizon eginbideak zeuzkan maletaz jabetu ziren. Burua estalita zeramatenek «zauritu eta tratu txarrak eman zizkioten korrejidoreari, kolpe ugari eman zizkioten besoetan eta bizkarrean (oraindik ere sendatzen ari da), baita eskribaua eta herrizaina zauritu ondoren ere, horiek hildakotzat jota, harekin etorritako gainerakoak bezala».

Gertaera larri horiek eragin zuten Gaztelako Kontseiluak «matxinoak» zigortzea, eta konfiskatu egin zituzten auzipetuen ondasunak.

7.3.- SAGARDOAREN DEFENTSA EPIKOA

Hondarribiko Artxiboan balio historiko handiko dokumentu bat gordetzen da (1904ko urriaren 29ko akta), duela mende bateko gizartearen isla den ekarpen kulturalez apaindua.

Agiri horretan, Donostiako barrutiko alkateek Gizarte Erreformen Institutuari eskatu zioten ez zezela igandeetan sagardoaren salmenta galarazi. Hona hemen agiriaren paragrafo batzuk:

> *Que se hallan las autoridades de estos pueblos y en general todos sus habitantes, justamente alarmados por la interpretación que se ha dado a la Ley y Reglamento del descanso semanal, en virtud de lo cual se mantienen cerradas las sidrerías, o despacho de venta de sidra, desde el sábado a la noche hasta el lunes a la mañana... La sidra constituye artículo alimentario de primera necesidad en la comarca, y más especialmente para la clase menos acomodada y para los labriegos, hora por la costumbre y también por la economía... Es la sidra un género que por sus excepcionales cualidades y escasa riqueza alcohólica, una vez puesta en venta, es imprescindible continuar... hasta que se termine la cuba. El tener cerrada la cuba durante más de doce horas produce trastornos tan notables en el líquido, que pronto desmerece y si paran algunos días de poca venta ya empieza a perderse el género... Son tan delicadas las condiciones de la sidra, que no se puede hacer provisión de ella de un día para el otro porque se pierde: ni por la mañana se puede comprar para la comida del mediodía ni a esta hora para la noche. En suma es artículo de inmediato consumo, por eso se despacha a las horas de las comidas para las familias, porque es la bebida más económica -exceptuando el agua- y que mejor se presta para consumo de la familia obrera y labradora...*
>
> *La sidra no solamente constituye la bebida predilecta de toda esta comarca, sino que es la más inofensiva de todas por los escasos grados de alcohol que contiene, y expendiéndose preferentemente en los caseríos que pueblan nuestros pintorescos campos, es un llamativo para la gente obrera de todas las clases, que de esta suerte, se entrega a expansiones honestas y legítimas sustrayéndose a la influencia de los centros de vicio y corrupción.*
>
> *Los obreros, los empleados, los dependientes de comercio y cuantos durante la semana pasan ocupados en sus labores ordinarias desean la llegada del domingo y saben en donde hay una buena sidra, para ir a solazarse y pasar una tarde en amigable consorcio con sus amigos y conocidos. En la sidrería se expansiona y deleita el ánimo del obrero que pasó trabajando toda la semana y se fraterniza de tal manera, que las diferentes clases sociales se ven juntas en buena armonía...*

Los sufridos y laboriosos caseros, labradores del país, ansían que llegue el domingo para ir a distraerse de las rudas faenas de toda la semana y beber unos vasos de sidra el domingo, único día que pueden holgar. No tienen estos infelices labriegos otro día ni otra distración que el domingo y la sidrería; privarles de su único recreo es vejatorio por lo menos.

Es en fin la distracción más higiénica e inofensiva, se come, se bebe, se pasea, se divierte y no da lugar a perpetrar crímenes pues la escasa fuerza alcohólica de la sidra no produce los efectos de otras bebidas que incitan a la riña o pendencia...

Representando el manzano una importantísima riqueza en esta comarca, si por efecto de la prohibición de la venta de sidra los domingos... los árboles por inútiles se habrán de arrancar, y gran parte del campo quedará yermo con todas sus consecuencias...

Suplican se digne acordar que la venta de sidra no debe suspenderse en los domingos. San Sebastián, 18 de octubre de 1904. Por Astigarraga el Marqués de Valdespina = Por Irún Blas EChagoyen = Por Rentería Jesús M. Echeberria = Por Villabona Valeriano Saizar = Por Usurbil Pío Legarra = Por Orio Francisco Ayestaran = Por Pasages Fernando Irigoyen = Por Alza José Ramón Sarriegui = Por Urnieta Laureano Belauzaran = Por Hernani S. Adarraga = Por Aya Francisco Rezabal = Por Andoain Hipólito Errusquin = Por Fuenterrabía Máximo Laborda = Por Oyarzun Bonifacio Baraibar = Por Alegría Prudencio Tolosa = Por Asteasu José María Arrue.

7.4.- SAGARDOA GIPUZKOAN DUELA 1000 URTE

2025ean Gipuzkoak bere izenak argia ikusi zueneko milurtekoa ospatu eta gogoratu du. Izan ere, 1025eko dokumentu batean lehenbiziko aldiz agertzen da *Ipusc*o hitza. Gaila andreak eta Olazabalgo (Altzo) San Salbador monasterioko García Azenariz Ipuscoako jaunak San Juan de La Peña monasterioari egindako dohaintza bat da. Agiri hori liburu honetan jasotzeko modukoa da, *manzaneto* (sagasti) hitza behin ez baizik eta bost aldiz aipatzen baita mugak edo landak markatzeko.

Milurteko horrek, oso esanguratsua baita Gipuzkoarentzat, besteak beste bi erakusketa historiko ekarri ditu berekin batera: lehenengoa, «Ipuscua 1000 años. De Ipuscua a Gipuzkoa. 1025-2025», San Telmo Museoak Donostian antolatua, eta bigarrena, «Gipuzkoa. Izanetik izena 1025-2025», Altzoko herrian.

Eta data erabakigarri horrek –historiaren magia– lagun egiten dio liburu honetako protagonistari, sagardoari. Izan ere, Altzon, Muga Jardunaldiak. 1025-2025. Mila urte Gipuzkoak eta Altzok programan, garrantzi historiko handiko bi atal biltzen dira, Gipuzkoako sagardoari emandako liburuko kapitulu hau osatzen dutenak.

Lehenengoa, «Sagargintza eta sagardogintzaren historia» izenburuarekin, Xabier Alberdi Lonbidek emandako hitzaldia da, eta bigarrena, «Baserriak eta sagardogintza, Altzon» izenburuarekin, Lourdes Odriozola Oiarbidek.

Historian doktore diren bi lagun horiek 2025eko martxoaren 25eko Ataria aldizkarian (Altzoko Kultura Batzordea) «Sagastiak eta sagarra Altzon, duela mila urte eta orain» artikuluan azaldutakoaren laburpena gure egiten dugu euskarazko bertsioan. Hona hemen idatzitakoa:

Hitz horiekin amaitu zuen bere hitzaldia Lourdes Odriozolak, bere diskurtsoan eraiki zuen borobila itxiz: 1025ean Olazabal baserriko andere eta jaunak egindako doantzan aipatzen ziren Altzoko izen -Olazabal, Zuaznabar, Artzadun eta Otsabio- eta sagastiak aipatuz hasi zuen, eta egun Zuaznabar-Barrena baserriak duen sagarrondo ustiaketa aipatuz amaitu. Aurretik, Xabier Alberdik, erdiaroko azken mendetan sagarrak erta sagardoak izan zuten garrantziaz hitz egin zigun. Ondoren, sektoren etorkizunari buruzko mahainguru mamitsua izan genuen.



Harrera bikaina izan zuen proposamenak, eta ia berrogeita hamar lagun bildu ziren joan den larunbat goizean Batzarremuñoko areto nagusian sagasti, sagar eta sagardoaren historiaz eta etorkizunaz gaian adituak eta arituak direnak esateko zutena entzutera. Aurreko ekitaldietan bezalaxe, ezinezkoa zaigu paragrafo gutxi batzuetan biltzea han esan zirenak, baina utziko ditugu aztarna batzuk.

Xabier Alberdi Albaola Elkarteko zuzendari eta historialariak eskaini zigun lehen hitzaldia. XI-XVII mende-tartera eraman gintuen, argi utziz, dokumentazio gutxiegi dagoela tarte horretako lehen erdiari dagokiona eta gehiago dakigula bigarren erdiaz. Lehen tarte horretan, halere, topatu diren doantza eta salerosketa idatzietan, sagastiak dira ondasun aipatuenak soroekin batera: esanguratsua. Bigarren erdiari buruz jakin denetik, ondoriozta daiteke soberakin gehien sortzen zuen nekazaritzako sektorea izan zela sagardogintza, baserriak sagardogintzaren beharretara egokiturako faktoria agro-industrialak bihurtu zirela, eta sagardogintza negozio estrategikoa zela itsaso eta industria jarduerak hornitzeko.

Ondoren, Lourdes Odriozola historialariak, XI. mendez gero egun Altzo bezala ezagutzen dugun eremuan kokatutako komunitateak egindako ibilbide kronologikoa egin zigun. Honela eman zion hasiera hitzaldiari: Altzo gune garrantzitsua zen XI.mendean; ez da kasualitatea dokumentu hau -1025eko doantza dokumentua- hemen sortua izatea. Mendez mendeko ibilbidea egin zuen gero, dauden dokumentuetan oinarrituta, bakoitzean Altzok eta bertakoek izan zuten garapena, bizitako gorabeherak, eta izandako bilakaera azaltzeko.

Bere hitzaldiaren bigarren zatia Zuaznabar Barrena baserriari eskaini zion; zorionez, dokumentu ondare aberatsa dute jasoa baserri horretan, eta bere genealogia zehatza eskaini zigun XVI. mendeko hastapenetatik egun arte. Ariketa bikaina, erakusgarri ederra, ezagutzeko nola iraun duten baserri horiek mendez mende, ze estrategia erabili diren eskuz esku iragateko jarduerari eustsiz eta handituz ahal izanez gero.

7.5.- ORAINA-ETORKIZUNA

Josu Ozaita antropologoak euskaraz argitaratutako artikulu batean (*Gaur8*, 2024ko otsailak 3), gaztelaniaz «La magia del txotx» izenburuarekin, egileak nabarmentzen du denek ilusioz gainezka espero dutela sagardotegien denboraldi berriaren irekiera. Sagardotegira joatea familia harremanak indartzen dituen erritu izaerako familia otordu bihurtzen da. Horrez gain, sagardotegietan egiten diren topaketek lagunen arteko harremanak sendotzeko eta negozioak egiteko balio dute, eta ez dugu ahantzi behar gero eta turista gehiago joaten direla sagardotegietara.

Egileak bere ekarpena amaitzeko baieztatzen du sagardoaren antzinako eta gaur egungo kulturek benetako tenplu bihurtzen dituztela sagardotegiak.

Sagardoen orainaldi honek etorkizun itxaropentsua iradokitzen du 2024. urtearen hasieran plazaratutako albiste garrantzitsu batek bermatuta: Euskal Herri osorako lehenbiziko Euskal Sagardoa jatorri deitura adostu zen. Izan ere, hemendik aurrera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sagardo ekoizleei Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako ekoizleak batu dakizkieke.

Eta hori gertaera historikoa da, Europako Erkidegoan lehenbiziko aldiz dago estatu mugak gainditzen dituen akordio bat.

Sagardo dastaketa Bilbon, Konpartsakide Egunean. Argazkilaria: Oskar Matxin Edesa (Berria: 2024ko uztailak 21).

GAZTEEN SAGARDOA

Beti onartu dugu gazteak direla etorkizuna, eta hori egia biribila da inolako zalantzarik gabe. Horrexegatik, liburu honen ardatza sagardoaren kultura baita, zorionekoa da gure protagonista. Izan ere, Bilboko 2024ko jaien prestaketan, jaien benetako eragileek, konpartsek, beren egun handia ospatu dute, Konpartsakide Eguna, sagardoa dastatuz. Bilboko 28 konpartsek, izan ekologistak, feministak, euskaltzaleak edo beste edozein ideologiatakoak, hainbat sagardo dastatu zituzten goiz partean (*Berria*, 2024ko uztailak 21), eta behin eta berriz edan zituzten arratsalde partean.

GAUR EGUN: 2024-2025

2024: Sagar eskasiaren urtea

2024ko bisurte honetako udatik udazkenerako trantsizio egunotan sagar bilketa hasi delako berria jaso dugu. Ez da albiste ona izan. Geure egiten dugu Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpen idatzia (ireki. euskadi.eus, 2024ko irailak 19), eta alderdi esanguratsuenak nabarmenduko ditugu.

> *Euskal Sagardoa Jatorri Deiturarako sagar bilketa hasi da Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagasti batzuetan eta datozen egunetan hasiko da gainerako sagastietan. Iazko urtearekin alderatuta, heldutasuna atzerago dator sagastietan, sagar gazietan gehienbat. Uzta txikiagoa espero da, ez-urtea tokatzen delako batetik, neguan hotz gutxi egin duelako eta udaran egindako bero zakar kolpe batek uztaren parte bat bota duelako.*
>
> *[...].*
>
> *Guztira iazko uztaren %40 inguru biltzea aurreikusten da.*
>
> *Gaur azaldu ditu datu guzti horiek Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak Irungo Etxezabal baserriko sagastian.*
>
> *[...].*
>
> *Datu zehatzak emateko goizegi bada ere, 2,5 milioi kilo biltzea aurreikusten da Euskal Sagardora bideratutako sagastietan. Urtez urte geroz eta sagar gehiago ari da izaten bertako sagastietan, dauden sagas-*

tiak zaindu eta sagasti berriak aldatu eta produkzioan sartu ahala.

[...].

Euskal Sagardoaren barruan 250 sagargile daude gaur egun eta 500 hektarea inguru sagasti. Sagar hau guztia Jatorri Deiturako 47 sagardotegietara joaten da, Euskal Sagardoa ekoizteko. Sagasti hauetan zahar eta berriak daude eta beste 155 hektarea dira produkzioan sartu berriak edo datozen urteetan produkzioan sartuko direnak.

[...].

Izan ere, sektoreak eta administrazioak helburu bat garbi zehaztu zuten Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren sorreran: 15 urtean %100 bertako sagar hutsez egitea hemengo sagardo guztia; hau da, Euskal Sagardoa seilupekoa izatea ekoiztuko den sagardo guztia. Hala ere, urte asko dituzten sagasti txikietan bada arazo bat, belaunaldi errelebo falta eta azken urteetan nabarmentzen ari da arazo hori: sagastiak zaindu eta sagarra biltzeko jendea falta dela, eta baserrietan lan egiten duen geroz eta gazte gutxiago dagoela. Gai horri ere heldu dio Jatorri Deiturak administrazioekin batean, etorkizunerako aukerak bilatu nahian.

[...].

Euskal Sagardoa Jatorri Deitura Nafarroa eta Iparraldeko sagar eta sagardogile sektoreekin bat eginda dago, hauek ere Jatorri Deituran sartu daitezen. [...].

Une hauetan, behin baimen administratibo guztiak jaso ondoren, Euskal Sagardoaren ezaugarri berrien tramitazioa Bruselarekin ixtea falta da. Europan ez dago araubide propioa duen eta mugaz gaindiko jatorri deitura duen beste kasurik, honakoa litzateke bereizgarri horrekin sortzen lehenda-bizikoa.

[...].

Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak 106 sagar mota ditu onartuak eta hauetako 24 dira gehien erabiltzen direnak. Sagardotegi bakoitzak bilatzen du bere gustuko nahasketa eta sagardoa. Hauek dira Euskal

2025eko sagardo denboraldiaren aurkezpena. Konstituzio plaza (Donostia). Egilea: Berria (2025eko urtarrilak 9).

Sagardoan erabiltzen diren 24 sagar mota nagusiak:

GAZIAK (GARRATZAK) ERREZILA, GOIKOETXE, TXALAKA, URTEBI HAUNDI, FRANTZES SAGARRA, BOSTKANTOI, HARITZA, AZPEITI SAGARRA,MANTTONI IBARRA; GEZAK: GEZAMIÑA,URDIN, MOZOLOA, PATZULOA, MIKATZA, UDARE MARROI. TXORI SAGARRA; GAZI-GEZAK: MOKO, LIMOI, MERABI, MOKOTE, URTEBETE, URTEBI TXIKI, SALTXIPI.

Nafarroa eta Iparraldearen sarrerarekin 250 sagar motatara zabalduko da zerrenda hau, bertako sagar motak medio. Beren artean antza handia duten sagar motak dira asko, eta guztiak dira mundu mailako gainerako sagar motekin alderatuta ADN berezia dutenak, ehundaka urtean Euskal Herrian sortu eta garatuak baitira.

2025. urtean, historian lehenbiziko aldiz, Euskal Herri osoko sagardogileek txotx denboraldiaren irekiera aurkeztu dute. Euskal Sagardoa jatorri deiturak 1,3 milioi litro sagardo edukiko ditu.

Irungo Ola sagardotegiko Eider Bengoetxeak nabarmendu du bazela euskal sagardogile guztiak elkarrekin biltzeko eguna iristeko garaia.

Aurreikuspen guztien arabera, 2025ean 800.000 lagun inguru bilduko dira euskal sagardotegietan.

SAGARDOAREN KULTURAREN NAZIOARTEKO TOPAKETA

Hauxe irakur dezakegu Joseba Salvador Goikoetxeak *Naiz* egunkarian (2024ko urtarrilak 12) argitaratutako «Punto de encuentro internacional de la cultura y el turismo de la sidra» artikuluan:

> *La 5a edición de la Feria Internacional de la Sidra, Sagardo Forum, reunió hace poco más de un mes a dos mil profesionales y aficionados de todo el mundo para compartir conocimientos y experiencias en torno a la cultura y el turismo de la sidra. En el concurso, se degustaron 262 sidras de 19 países.*
>
> *[...].*
>
> *Virginie THOMAS: Enóloga bretona [reproducción de parte de la entrevista que le hicieron]:*
>
> *«Nunca hemos dedicado tiempo a degustar la sidra»*
>
> *Apasionada de la sidra, Virginie Thomas es enóloga y responsable de «Bouscule Tes Sens» (Sacude tus sentidos), donde realiza catas intuitivas, es decir, dejando de lado los conocimientos técnicos, se centra en algo que cualquiera puede emplear: los sentidos. En el marco de la Feria Internacional de Sidra del V Sagardo Forum celebrada en el Kursaal el 2 de diciembre, enseñó a disfrutar de las sidras a través solo del olor o del sabor.*
>
> *Cata mediante las emociones y los sentimientos. ¿Cómo se hace?*
>
> *Es una forma rara, lo sé (ríe). Me gusta trabajar sobre las emociones, porque conocemos la forma técnica: acidez, amargor... pero la mayor parte de la gente que no trabaja en la producción o en algo relacionado con el vino no entiende las palabras o no se siente capaz de hablar con legitimidad. De esa forma, pruebas las sidras a ciegas y vas a buscar algo más que solo la técnica. Vas a poder entender mejor el mensaje de la sidra, puedes ver paisajes, comida, recuerdos familiares o sentimientos. Hablar con la emoción es más atractivo siempre.*
>
> *Usted lleva a cabo las catas así, a ciegas.*
>
> *Es una forma muy original. Doy a cada participante un vaso negro y un antifaz. Antes de empezar hago una forma de meditación, de este modo van a poder entender mejor el mensaje de la sidra. A veces es muy emotivo, las sensaciones son más fuertes con la sidra, la historia, la familia... En el Sagardo Forum presenté tres sidras de Bretaña para mostrar la diversidad que existe en una sola región. Probamos dos sidras solo con la boca y otras dos solo con la nariz, para así comparar y hablar uno a uno sobre sus emociones, y después les descubrí el color, la botella...*

Haritz Rodriguez, lehendabiziko sagardo pommelierra Euskal Herrian. Argazkia: Andoni Canellada. FOKU

HARITZ RODRIGUEZ: LEHENDABIZIKO SAGARDO POMMELIERRA

Sagardoaren etorkizunari emandako atal honetan, albiste baikor bat nabarmendu nahi dugu gure sagardoaren munduarentzat. Izan ere, 2025eko lehen hilabeteotan, hedabideek jakinarazi dute Haritz Rodriguez donostiarra Euskal herrian eta Espainiako estatuan den lehenengo sagardo pommelier izendatu dutela. Albistearen alderdi garrantzitsu batzuk aurkeztuko ditugu Gara egunkarian (2025eko otsailak 1) Joseba Salvadorren eskutik argitaratutakoari jarraiki.r.

El título de «pommelier» que Haritz Rodríguez obtuvo a finales del pasado año en Londres y que solo ostentan 123 personas en el mundo es otorgado por la American Cider Association, la más importante del sector a nivel internacional.

[...].

El de la sidra es aún un sector muy minoritario, si lo comparamos con el mundo del vino o de la cerveza aunque, por eso mismo, tiene un gran potencial de desarrollo. Por ello es importante que cuente con personas que actúen como intermediarios entre el productor y el consumidor y ayuden a su difusión, una labor en la que los pommeliers podemos jugar un papel importante.

[...].

Nosotros somos muy pequeños. El principal productor del mundo es Gran Bretaña, donde se elaboran 800 millones de litros, aunque en esa cantidad se incluyen diferentes tipos de sidra, tanto industriales como artesanales, con diferentes porcentajes de zumo natural. Nosotros solo elaboramos 12 millones, aunque la mayor parte se elabora con zumo natural, lo que nos da un prestigio a nivel internacional.

[...].

El problema de la sidra radica en que es la hermana pequeña del vino y de la cerveza, productos que llevan años mejor posicionados, mientras la sidra ha sido la bebida de los pobres.

[...].

Lo que la sidra necesita es un precio digno, por la sencilla razón de que es la clave para asegurar la viabilidad del sector. Es algo que tiene que entender el consumidor si quiere seguir disfrutando de este producto natural a un precio razonable.

KIZKIA

SAGARDOA BIDASOAN

Bidasoa ibaiaren bazterrean dagoen Berako idazle Pio Barojak *El Bidasoa* astekarian (1917ko abendua) elkarte baten sorrera sustatu zuen: elkarte sekretuak Bidasoko Txapelaundiak izena izango zuen, eta ibai ospetsu honen bazterreko herri guztien arteko anaidi bakotarra eratzen lagunduko zuen.

> *Mi ideal es ya fundar la República del Bidasoa con este lema: «sin moscas, sin frailes y sin carabineros. Un pueblo sin moscas quiere decir que es un pueblo limpio; un pueblo sin frailes revela que tiene buen sentido, y un pueblo sin carabineros indica que su Estado no tiene fuerza; cosas todas que me parecen excelentes.*

Ehundik gora urte joan dira eta Pio Barojak nahi zuen errepublika ez da oraindik iritsi, baina izan dena eta badena Bidasoko errepublika sagardozalea da, Nafarroako Doneztebe, Sunbilla, Etxalar, Igantzi eta Bera herriek eta Gipuzkoako Irun eta Hondarribia herriek osatua, Lapurdiko Hendaia barne hartuta.

Bidasoa ibaiaren inguruko sagardoaren kulturari buruzko ikerlan eta dibulgazio liburu honetan, ibaiko urek bustitako herrietara mugatzen gara, Bidasoa izena hartzen duen puntutik aurrera, eta kanpoan uzten ditugu ibaiak berak Baztan izenarekin bustitzen dituen herriak.

8.1.- SAGARDOAREN KULTURA BIDASOAN

Sagardoa, orokorrean gure kulturarekin eta, bereziki Hondarribiarekin, estuki loturik dagoen elikagaia da.

Harreman horren lekuko, ondorengo gertakari hauek oso esanguratsuak dira: Euskal Herriaren (batez ere atlantiar isurialdearen) eta itsasoaren arteko lotura historiko sakona; Sagardoaren eta itsas jardueren

Bidasoko txapelaundiak Irungo Korrokoitz kalean. Irungo Udal Artxiboa.

arteko harreman estua; Mendetan zehar Euskal Herri atlantiarreko nekazaritza ekoizpen nagusia sagardoa izan da (Gipuzkoako aipamen zaharrena 1025ekoa da); Hondarribiaren posizio estrategikoa mendetako euskal itsas jardueren baitan.

Esan berri ditugunen aurrean irakurlea berehala konturatuko zen sagardogintza eta sagardo salerosketa, jarduera estrategikoak zirela iraganean. Gipuzkoako kasua adibide bezala hartuz, gure lurralde historikoa, gutxienez XV. eta XVIII. mendeen artean, Gaztelar-Espainiar Monarkiaren baitako itsas jarduera gune boteretsuenetako bat izan zen.

Bertan, besteak beste, Ternuara eta Artikora baleatara eta bakailaotara zihoazen arrantza espedizioak antolatzen, edo Sevillatik eta Cadiztik Ameriketara zihoazen galeoi gehientsuenak eraikitzen ziren. Jarduera horietan guztietan funtsezkoa zen edari nagusiena sagardoa zenez, berehala jausi gaitezke zuen pisu estrategikoaz. Ozeano arteko nabigazioei dagokionez Gipuzkoako porturik garrantzitsuenak Donostiaren menpekoak ziren dudarik gabe: Donostian bertan kokatutakoak (Kontxan eta Urumean) eta Pasaiakoa. Donostiako merkatari, armadore, lur jabe eta aberatsak, noski, gehienak sagardogile eta sagardo saltzaile handiak zirenak, garrantzia estrategiko honen jabe ziren eta beren interesak babesteko udal araudien sorrera bideratu zuten.

Horiek denak hiribilduko harresien barne-aldean bizi zirenez, kokagune horretan etxea zuten sagardogileen eta sagardo-saltzaileen aldeko hainbat pribilejio eta eskubide biltzen zituzten 1489ko Donostiako Udal Ordenantzek. Besteak beste, sagardogile horien sagardo guztia bukatu arte ezin zen kanpoko sagardorik ekarri eta aipatutakoen sagardoa bakarrik erabili zitekeen Donostiako portuetan (Pasaiakoan barne) itsasontzi guztiak (bertakoak eta kanpokoak) hornitzeko.

Monopolio horrek haserre handia eragin zuen, batez ere, Pasaiako portuaren testuinguruko herrietan. Donostiako auzo zen Altzako sagardogileek 1492an hitzarmen bat adostu zuten Donostiako Udalarekin uzta txarreko urteetan Pasaian ontziak sagardo altzatarrez hornitzea baimentzen zuena. Baina Errenderia izan zen 1570ean pribilegio horren aurkako errege agindu bat lortu zuena.

Horren aurrean, Donostiako Udalak monopolioari uko egin zion, baina, ordainetan harresiz barneko sagardogileei Pasaian ontziak sagardoz hornitzeko lehentasuna eman zitzaien. Donostiarren interesak gehiago sendotzeko, Pasaian hornitzen ziren ontzi horietako asko Lapurdiko balea-ontziak eta bakailao-ontziak zirela kontuan izanik, Donostiako Udalak Gipuzkoako Batzar Nagusien babes bila jo zuen. Eskari honen ondorioz, Probintziak foru berri bat jarri zuen indarrean 1584an: aurrerantzean Gipuzkoa bertako sagardorik zegoen bitartean, ezingo zen kanpotik, hau da, Lapurditik gehiago ekarri.

Hau guztia kontuan izanik, berehala nabarmentzen da Hondarribiak Gipuzkoako sagardo-politikaren baitan izan zuen zeresan handia. Ez dugu ahaztu behar garai hartan, itsasotik hasi eta Endarlazara bitarteko Bidasoa ibarraren mendebaldeko eremu osoa Hondarribiaren jurisdikziopean zegoela, ibaiaren bi ertzak barne. Beraz, Hondarribiako Udalak bultzatu eta babestutako merkataritza politikak eragin zuzena zuen mugaz gaindiko harremanetan, hau da, Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdi arteko hartu-emanetan, are gehiago, Espainiar eta Frantziar monarkien arteko nazioarteko merkataritzan. Eta zeresan handia zuen, noski, Bidasoako muga inguru horretan burutzen zen sagardo salerosketan ere.

Hondarribiko dokumentu zaharretan sagardo salerosketari buruzko aipamen ugari aurki daitezke. Garaiotan, Hondarribia, Donostiaren ondoren, Gipuzkoako bigarren itsas merkataritza eta espedizio horniketa gune garrantzitsuena izanik, gehienetan Hondarribiko hiribildu bertako sagardoaz hornitzen zituzten ontziak. Hondarribiko hainbat sagardogile eta sagardo saltzaileren izenak ere jakin ahal izan ditugu. Besteak beste, 1575ean Catalina de Gamboak 12 barrika sagardo saldu zizkion Bretainiara zihoan Hendaiako ontzi baten jabeari. 1585ean Tomás de Landergorrietak, markataritzan eta Terranoban baleatan jarduten ziren zenbait ontziren jabea zenak, 36 barrika sagardo saldu zituen Bilbaora. 1603an, aldiz, Juan Martínez de Oyarzabal eta Antonio de Ainciondo –Potosin zilar merkaritzan aberastu eta galeoi eraikuntzan jarduten zena– izan ziren Pedro de Emparan irundarrari 50 barrika saldu zizkiotenak Terranobara zihoan bere naoa hornitzeko.

Hondarribiko sagardoa nahikoa ez zenean, ordea, maiz, bertako portuan zeuzkaten ontziak hornitzeko beren herritik ekarri ohi zuten sagardoa Lapurdiko armadore eta ontzi-jabeek. Adibidez, 1570ean 12na barrika sagardo ekarri zituzten ziburutar eta azkaindar bik Flandriarako artilez zamatuta zeuden beren ontziak hornitzeko. 1572an beste ziburutar bat eta lohitzundar bat izan ziren Bordelera zihoazen beren ontziak bakoitzak 5na barrika sagardorekin hornitu zituztenak. Jarduera hauek ez ziren, gainera, 1584an,

hau da, Probintziak foru berria idatzi zuen urtean eten. Urte horretan bertan, ziburutar batek 4 barrika sagardo ekarri zituen Hondarribian zeukan bere naoa hornitzeko. Beranduagoko berriak ere ez dira falta. Horren lekuko, 1612an hendaiar batek 3 barrika sagardo sartu zituen Galiziara zihoan bere zabran.

Merkataritza ontziez gain, Irlandara edo Ternuara zihoazen eta Hondarribiko portuan zeuzkaten arrantza-ontziak hornitzeko ekartzen zuten, maiz, sagardoa Lapurdiko beren jabe eta armadoreek. Adibidez, 1540an lohitzundar batek 12 barrika ekarri zituen Hendaiatik Irlandara arrantza zihoan bere naoa hornitzeko. 1571ean ziburutar bat izan zen Higer lurmuturraren babesean zeukan eta Terranobara zihoan bere naorako beste 12 barrika ekarri zituena. 1575ean, aldiz, Ternuara zihoazen 3 arrantza-ontzi izan ziren Lapurdiko sagardoa ontziratu zutenak: 2 ziburutarrak eta bestea lohitzundarra. Lehen aipatu bezala, 1584az geroztik ere ez ziren eten jarduera hauek. Horren lekuko, 1585ean ziburutar batek 6 barrika sagardo ekarri zituen Terranobara zihoan bere ontzirako eta 1588an beste bi ziburutar izan ziren, Hondarribian sagardorik ez zegoela eta, beren herritik, batek 20 eta besteak 40 barrika sagardo ekarri zituztenak beren ontziak Terranobara bakailaotara bidaltzeko.

Bidasoa inguruan ekoiztutako sagardoa kanpora ere esportatzen zen. Adibidez, 1568an Esteban de Cassanueva hendaiarrak 5 barrika sagardo bidali zituen Capbretonera. 1585ean lehen aipaturiko Tomás de Landergorrieta hondarribiarrak, Juan de Arbelaiz irundarrak, eta María de Aragorri hendaiarrak, lehenak 16, bigarrenak 50 eta hirugarrenak 30 barrika sagardo bidali zituzten Bilbaora. Askoz urrunago, 1609an Juanes de Olaso endaiarrak Sebastian de Alatresta irundarrari 40 barrikada erosi zizkion Bordelera, bertan Terranobara joateko prestatzen zeukan ontzira bidaltzeko. 1610ean, aldiz, La Rochelle eta Les Sables-d'Olonne artean dagoen Jard-sur-Mer herrixkatik gariz zamatuta etorritako ontziaren kapitaina zen Pierre Guillome-ri saldu zizkion 4 barrika sagardo Martin de Iparraguirre irundarrak.

Hondarribitik "kanpora" irteten zen sagardo gehiena, ordea, askoz ere gertuagoko kokagune batera joaten zen, Pasaiako portura alegia. Portu horretan kokaturiko Pasai Donibane eta Lezo herriak Hondarribiaren jurisdikziopean egoteak ahalbidetzen zuen Donostiako ordenantzek ezarritako monopolioaren aurkakoa izan ziteken jarduera hori. Egia da, Bidasoa ibarretik Lezora edo Pasai Donibanera bidaltzen zen sagardoa ez zela, printzipioz, Pasaiako portuan zeuden ontziak hornitzeko bideratua. Baina, ez dago dudarik bidalketa horiek Donostiako sagardo-salerosketa araudiaren aurka jarduteko bidea zabaltzen zutela. Kasu batzuetan Bidasoa ibarreko biztanleak ziren sagardoa Pasaiako portuko herrietara eramaten zutenak. Adibidez, 1540an Joanes de Larrea eta Cosme de Larreandi irundarrek bakoitzak 11na barrika sagardo eraman zituzten Pasai Donibanera. Gehienetan, ordea, Pasaiako portuko herritarrak ziren Bidasoa aldera sagardoa erostera etortzen zirenak. 1540an bertan Juan de Bayona sanjuandarrak 6 barrika erosi zituen Irunen bere herrira eramateko. 1545ean, aldiz, Catalina de Casanueba sanjuandarra izan zen Hondarribian 3 barrika sagardo erosi eta eraman zituena.

Aipatu berri dugun Bidasoa eta Pasaia arteko salerosketa "bide" horri jarraituz, sanjuandarrek eta lezoarrek Lapurdira ere jotzen zuten sagardoa erostera. Horren lekuko, 1536an Domenja de Darieta lezoarrak Lapurdin erositako 16 barrika sagardo eraman zituen itsasoz Hondarribitik Lezora. Aldiz, 1569an Sanz de Zarauz sanjuandarra izan zen Hendaiatik bere pinazan 20 barrika sagardo eraman zituena Pasai Donibanen bertan txikizka saltzeko. Badirudi Pasai Donibanera eta Lezora eramandako sagardo horiek gehienak txikizka saldu eta herrian bertan kontsumitzeko zirela, hau da, Donostiako pribilejioei eragin txarrik egin gabe. Baina bestelako berriak ere ez dira falta. Adibidez, 1578an Juanes de Urreizti ziburutarrak 32 barrika sagardo eraman zituen Hendaiatik Donostira, bertan Terranobara joateko prestatzen ari zen Ziburuko Martincho de Arrecheren ontzia hornitzeko. 1610ean ere Martin de Yriarte hendaiarrak bere herrian eta Irunen erositako 42 barrika eraman zituen Pasaiara, Terranobarako prestaketetan zegoen Joanes de Laçon lohitzundarrarren ontzia sagardoz hornitzeko.

NAFARROAKO DOLAREAK BIDASOAN

Hurrengo deskribapena «Inventario de lagares de sidra en la Navarra Atlántica: primeros resultados» artikuluan oinarritzen da. Artikulu hori *Cuadernos de Etnología y Etnografía Navarra* (83. zk., 2008) argitalpenean argitaratu zen, eta egileak Asier Agirresarobe, Luis del Barrio eta Josu Tellabide ikerlariak izan ziren. Ikerketa lanak, 2006an eta 2007an eginak, Julio Caro Baroja Nafarroako Etnografia Museoak babestu zituen. Lan horretatik atera ditugu Bidasoa ibaiak bustitako dolareak, gure liburuan jasotzeko, eta ikerketa zientifikoaren alderdi jakingarrienak nabarmendu ditugu.

9.1.- DOLAREEN ZERRENDA

DONEZTEBEKO SAGARDOTEGIA

> *Donezteberko hiriguneko hiri etxea [...]. Dolareak berak hartzen du higiezinaren zatirik handiena, upeltegia beheko solairuan, dolare aska lehenengo solairuan eta, azken horren gainean, sagarra biltegiratzeko erabiltzen den solairuarteko txiki bat [...]. Dolarean lortutako zukua grabitatez jaisten zen beheko solairura dolare askan egindako zulo baten bidez, ontzi batean biltzeko.*

Dolarearen informazio historikoa: Higiezina XVIII. mendearen amaieran eraiki zuten, eta dolarea jardunean aritu zen iragan mendeko 40. hamarkadaren hasierara arte. Higiezina berariaz eraiki zen dolare gisa. Iragan mendearen erdialdean etxeko ontziak konpontzen zituen galdaragile bat bizi izan zen bertan. Egitura orokorrari eusten dio, eta gaur egun biltegi gisa erabiltzen da.

Donezteberko sagardotegia. Argazkia: Asier Agirresarobe.

INDIANOBAITA (SUNBILLA)

Indianobaita etxea Sunbillako Garaigarri auzoan dago [...] eta dolarea eraikinaren barnealdean, beheko solairuan, solairuaren laurdena hartuz. [...]. XIX. mendearen amaieran eraiki zuten dolarea [...] eta 25 urte baino gehiago dira sagarra sakatzeari utzi ziotenetik [...]. Dolareak ez du eraldaketarik izan, eta, beraz, gaur egun jatorrizko instalazio guztiak kontserbatzen ditu.

[...].

Oinplano angeluzuzeneko eraikina, bi isuriko teilatuarekin, teila arabiarrez estalita. Fatxada nagusia harlanduzkoa da bigarren solairuraino, eta gainerakoa harlangaitzez eraikia da, eskantzuetan eta baoen inguruetan harlanduak. [...].

Lokalaren egitura: Harlangaitzezko horma zarpiatuak, kareztatuaren hondarrekin, zurezko teilatua eta kareorezko eta zanpatutako lurrezko zoladura [...]. Prentsaren albo bietan aska bana egokitzen da. Eskuinekoak txikitutako sagarra biltzen du, eta bestea, txikiagoa, sagar patsa jasotzeko erabiltzen da, behin sagarra zanpatu ondoren. Lehenengoaren gainean, zurezko solairuarte batean, dolaretik beretik eskailera batek egiten baitio sarrera, makina birringailua egokitzen da. Aska txikiaren ezkerraldean sagardoa biltegiratzeko kupelak daude lerrokatuta. [...].

Etxeak sagasti handiak ditu Bidasoa ibaiaren ezkerraldeko lurretan. Aspaldi, Indianobaitako dolarea auzotarrek ere erabiltzen zuten beren sagardoa egiteko.

Indianobaita (Sunbilla). Argazkia: Asier Agirresarobe.

APEZTEGIA (ETXALAR)

Apeztegia etxea Etxalarko hirigunean dago, Iñarreta auzoaren sarreran, parrokia-elizaren ondoan [...]. Dolarea XX. mendearen erdialdean eraiki zuen gaur egungo jabearen aitak, Juan Ansalas Zubietak. [...]. Dolarea bi urtean behin erabiltzen da.

Informazio historikoa: 1983an zurezko dolare aska kendu eta gaur egungo hormigoizkoa paratu zuten. Eta dolareko gainerako instalazioak berritu zituzten.

[...].

Lokalaren egitura: Harlangaitzezko eta adreiluzko hormak, zarpiatuta eta zuriz pintatuta, egitura eta zoladura hormigoizkoak.

Lokalean biltzen dira dolarea, dolare aska, birringailua eta hiru kupel.

Apeztegia (Etxalar). Argazkia: Asier Agirresarobe.

ARGARATEGARAIA (IGANTZI)

Argarategaraia baserria Igantziko Irisarri auzoan dago. Dolarearen kokapena: Dolarea higiezinaren barnealdean dago, beheko solairuaren hego-ekialdeko angeluan. Solairu horren zatirik handiena ukuiluak hartzen du. [...]. Dolarea XX. mendearen hasieran eraiki zuten . [...]. 1990era arte erabili zuten.

Informazio historikoa: Ez du aldaketarik izan bere bizitzan zehar. [...].

Lokalak harlangaitzezko horma zarpiatuak ditu, lehenengo solairuak zurezko egitura du eta zoladura hormigoizkoa. Barneko espazioaren antolaketa: Eraikinaren hego-ekialdeko angeluan dago dolarea, ukuilura sartzeko atetzarraren ondoan. Dolarea eta dolare aska ditu. Sagarra gaur egun galdua den eskuzko birringailu batekin txikitzen zen.

Argarategaraia (Igantzi). Argazkia: Asier Agirresarobe.

IRIBURUTA (LESAKA)

Iriburuta baserria Lesakako Biurrana auzoan dago, hirigunetik bost kilometrotara.

Dolarearen kokapena: Industrian eraikitako dolarea da, baserriko lehenengo solairuan dago, ezkaratzaren ezkerraldean.

[...].

Dolarea baserriaren jabeak erosi zuen 1970ean, gaur egun galdua den Lesakako Bertizenea baserrian. Zaldien bizkar gainean lekualdatu zuten gaur egungo tokira.

[...].

Prentsa erabiltzen jarraitzen dute. Urtero egiten dute sagardoa beren sagastietako fruituekin, eta nahikoa ez badute, Sunbillako Indianobaita etxeari erosten dizkiote sagarrak.

[...].

Eskuzko birringailu txiki bat eta Platina markako kortxo jartzeko bat kontserbatzen dute.

[...].

Oharrak: Sagardoaz gain, pitarra edo sagardoa eta ura nahasiz eginiko edari arina egiten dute.

BEKOERROTARENEA (LESAKA)

Bekoerrotarenea etxea Lesakako Otsango auzoan dago, Bekoerrota errotaren parean.

Dolarearen kokapena: Eraikinaren beheko solairuan dago, eta dolare aska, prentsa eta birringailua ditu.

1940. urte inguruan eraiki zuten dolarea Ricardo Olaetxeak eta Maria Alzugarai Lasagak, gaur egungo jabearen gurasoek. [...]. 1988ra arte erabili zuten.

[...].

Ez du aldaketarik izan eraiki zutenetik.

[...].

Lokalaren egitura: Ageriko harlangaitzezko hormak, zurezko sabaia, lehenengo solairuaren egiturari dagokiona, eta hormigoizko zoladura. [...].

Dolareak beheko solairuaren erdia hartzen du, eta osagai guztiak barneko luzetarako mehelinarekin daude lerrokatuta.

BERIYA ETXEA (LESAKA)

Dolarearen kokapena: Etxearen beheko solairuan dago, garai bateko zalditegietan, gaur egungo garajean. [...]. XIX. mendearen bigarren erdian eraiki zuten dolarea.

[...].

Dolarea erabiltzen da gaur egun. Bi urtean behin beren sagastietako sagarrak zanpatzen dituzte.

1937an kuartel gisa erabili zuten etxea, eta kalte handiak eragin zituzten zurezko egiturek su hartu zutenean. Egiturak eta dolarea zaharberritu zituzten geroago.

[...].

Otekalea kaleari begira dagoen leiho ireki baten ondoan dago dolare aska. Barnealdeko zoladura hormigoizkoa da eta hormak zarpiatuta eta zuriz pintatuta daude.

Barneko espazioaren antolaketa: Dolareak lokalaren gibelaldearen ezkerraldea hartzen du, birringailua erdian eta kupelak eskuinean.

[...].

Oharrak: bere sagardo propioa egiteaz gain, dolarea herriko biztanleek eta ondoko lgantziko baserriek ere erabiltzen dute.

Beriya etxea (Lesaka). Argazkia: Asier Agirresarobe.

MARITXENEA (BERA)

Maritxenea baserria Berako Kaule auzoan dago.

[...].

Dolarea XIX. mendearen amaierakoa da [...] eta gaur egun erabili egiten da, bi urtean behi bada ere. [...]. Eraiki zutenetik ez du aldaketa garrantzitsurik izan, aspaldi ez dela eranskina handitzeko eta teilatua galeria estali bihurtzeko egin dituzten obrak egin arte.

[...].

Lokalaren egitura: Gibelaldeko eta alboetako hormak ageriko harlangaitzezkoak. Solairuarteko egitura eta zoladura hormigoizkoak. Aitzinaldea metalezko atetzar batekin ixten da.

Barneko espazioaren antolaketa: Eranskinaren gibelaldea hartzen du dolareak, eta aitzinaldea biltegi eta garaje gisa erabiltzen da. Dolare askaren ezkerraldean, birringailu nagusia dagoen plataformaren azpian, botilak biltegiratzeko zoko txiki bat du, arrapala batez iristen dena.

Maritxenea (Bera). Argazkia: Asier Agirresarobe.

IRAZOKIBEREA (BERA)

Irazokiberea baserria Berako Kaule auzoan dago.

Dolarearen kokapena: Baserriaren mendebaldeko fatxadari erantsitako eraikinean dago.

[...].

Jatorriz barroko garaikoa den dolarea gaur egungo baserriarekin batera eraiki zuten XVIII. mendearen amaieran. [...]. 1970era arte erabili zuten. Jatorrizko dolarearen lekuan, hau da, zurezko ardatzak zituen habedun dolarearen lekuan, dolare askaren hondoan ainguratutako burdinazko ardatz batez hornituriko egungo dolarea paratu zuten. Moldaketa hori egin zutenean dolarea hartzen duen lokalaren altuera beheratu behar izan zuten.

[...].

Lokalaren egitura: Harlangaitzezko hormak hein batean zarpiatuta. Sarrera hegoaldeko alboan irekitako ateak egiten dio. Iparraldeko hormak aireztatzeko gezileiho bat du, eta mendebaldekoak bi.

[...].

Dolareak lokal osoa hartzen du.

Irazokiberea (Bera). Argazkia: Asier Agirresarobe.

ERAUSTEA (BERA)

Eraustea baserria Berako Garaitarreta auzoan dago.

Dolarearen kokapena: Baserriaren iparraldeko fatxadari erantsitako eraikinean dago, baserriaren gibelaldean. [...]. Jatorrizko dolarea gaur egungo baserria eraiki zutenean eraiki zuten, XVIII. mendearen amaieran. [...]. Dolareak 1987ra arte jardun zuen. Jatorrizko dolarearen lekuan, hau da, zurezko bi ardatz zituen habedun dolarearen lekuan, dolare askaren hondoan ainguratutako burdinazko ardatz batez hornituriko egungo dolarea paratu zuten, Baionan erosia XX. mendearen hasieran.

[...].

Lokalaren egitura: Harlangaitzezko hormak, hormigoizko zoladura eta hormigoizko teilatua gangatxoekin. Barneko espazioaren antolaketa: Gaur egungo dolareak (dolare aska, prentsa eta birringailua) beheko solairuaren herena hartzen du, eta gainerakoa ukuilu gisa erabiltzen da.

[...].

Oharrak: jabeek dolarea eraberritzeko asmoa dute beren sagastietako sagarrak prentsan zanpatzeko.

Eraustea (Bera). Argazkia: Asier Agirresarobe.

SALDERESBEREA (BERA)

Salderesberea baserria Berako Garaitarreta baserrian dago. [...]. Dolarea baserriaren ipar-mendebaldeko fatxadari erantsitako eranskinean dago. [...]. Jatorrizko dolarea gaur egungo baserria eraiki zutenean eraiki zuten, XVIII. mendearen bukaeran. [...]. Iragan mendearen 80. hamarkadara arte erabili zuten dolarea.

Informazio historikoa: Jatorrizko dolarearen lekuan, hau da, zurezko bi ardatz zituen habedun dolarearen lekuan, dolare askaren hondoan ainguratutako burdinazko ardatz batez horniturikoegungo dolarea paratu zuten.

[...].

Lokalaren egitura: Lurrezko zoladura, hormak harlangaitzezkoak eta teilatua zurezkoa, goiko solairuaren egiturari baitagokio. [...]. Erantsitako eraikinaren ia solairu osoa hartzen du. [...]. Dolare askaren gibelaldeko horman finkatutako birringailu mekaniko batez txikitzen da sagarra.

[...].

Garai batean sagardoa gurdian garraiatzeko erabiltzen zen kupela luzanga bat (garralia) kontserbatzen dute.

Salderesberea (Bera). Argazkia: Asier Agirresarobe.

BALKEZENEA (BERA)

Balkezenea baserria Berako Dornaku auzoan dago.

Dolarearen kokapena: Baserriaren gibelaldeko fatxadari erantsitako eraikinean zegoen dolarea.

[...].

Dolarea ziurrenik gaur egungo etxearekin batera eraiki zuten XVIII. mendean.

[...].

1977ra arte jardunean ibili zen [...][eta] 1993an desmuntatu zuten.

[...].

Oharrak: Navarra Cuatro Estaciones izenburuko dokumental bat dago, eta bertan agertzen da, besteak beste, Irazoki familia dolarean sagardoa egiten. Dokumental hori Pio Caro Barojak zuzendu zuen 1972an. Julio Caro Barojaren 1986ko obran, Txertoa argitaletxearen Estudios Vascos IV, De la Vida Rural Vasca seriean argitaratua, etxeko lanei emandako kapituluan, 175. orrialdean Balkezeneako dolarearen marrazkia ikus daiteke, eta 176. orrialdean jasotakoaren arabera, Balkezena baserrikoa zen 1974an Beran kontserbatzen zen zurezko dolare klasiko bakarra.

Balkezenea (Bera). Argazkia: Asier Agirresarobe.

MARTIÑENEKO BORDA (BERA)

Martiñeneko Borda Berako Zia auzoan dago.

Dolarea baserriaren mendebaldeko fatxadari erantsitako eraikinean dago. [...]. Dolarea 1880. urte inguruan eraiki zuen baserriaren jabe Joxe Angel Agirrek.

[...].

Dolarea erabiltzen da. Bi urtean behin zanpatzen du sagarra. 2006an gutxi gorabehera 1.500 litro sagardo ekoitzi zuten.

Informazio historikoa. Eraiki zutenetik ez du aldaketa garrantzitsurik izan.

[...].

Dolarearen egitura: Harlangaitzezko horma zarpiatuak, zuriz margotuak. Hormigoizko zoladura eta zurezko teilatua. [...]. Lokalaren ia erdia hartzen du dolare askak.

Martiñeneko borda (Bera).
Argazkia: Asier Agirresarobe.

OBENEA (BERA)

Obenea oinetxea Berako Illekueta auzoan dago. [...]. Dolarea ipar-ekialdeko fatxadari erantsitako eraikin batean dago.

[...].

Jatorrizko dolarea ziurrenik gaur egungo etxearekin batera eraiki zuten XVIII. mendean. [...]. Gaur egun erabiltzen da.

Informazio historikoa: Jatorrizko dolarearen lekuan, hau da, zurezko ardatzak zituen habedun dolarearen lekuan, dolare askaren hondoan ainguratutako burdinazko bi ardatzez hornituriko egungo dolarea paratu zuten iragan XX. mendearen hasieran. Ardatzak, Simon Frères de Cherbourg (Frantzia) markako buruekin batera, Baionan erosi zituzten.

[...].

Lokalaren egitura: Harlangaitzezko hormak hein batean zarpiatuta, hormigoizko zoladura eta sabaia goiko solairuko egiturak eta oholtzak eratua. Gibelaldeko horma atalean aireztapenerako bao txiki bat irekitzen da.

Barneko banketa espaziala: Dolarea kanpotik sartuta ezkerraldean dago. Bi ataletako zurezko eskailera batek, hasierako mailak harrizkoak, dolare askaren gaineko solairuartekora eramaten du.

[...].

Oharrak. Gaur egun eskuz erabiltzeko prentsa txiki eta eramangarri bat baliatzen dute, eta tarteka ardoa egiteko erabiltzen da.

Obenea (Bera). Argazkia: Asier Agirresarobe.

TELLETXEA (BERA)

Telletxea oinetxea Berako Illekueta auzoan dago.

[...]. Dolarea higiezinaren barnealdean dago, eraikinaren gibelaldean, beheko solairuaren iparraldean. [...]. Jatorrizko dolarea ziurrenik etxearekin batera eraiki zuten XVIII. mendean.

[...]. Dolarea jardunean izan zen 1964ra arte.

Informazio historikoa: Jatorrizko dolarearen lekuan, hau da, zurezko bi ardatz zituen habedun dolarearen lekuan, dolare askaren hondoan ainguratutako burdinazko bi ardatzez hornituriko egungo dolarea paratu zuten. Ardatzak, Simon Frères de Cherbourg (Frantzia) markako buruekin batera, Lapurdiko Uztaritzeko Etxegarai etxean erosi zituzten.

[...].

Lokalaren egitura: Harlangaitzezko hormak, harriak kareorez batuak. Hormigoizko zoladura. Etxearen barnealdetik, lokalaren hegoaldeko horma atalean irekitako ateko bao batez iristen da dolarera. Gainera, ate-leiho bao ireki bat du eraikin nagusiren ekialdeko perimetroan.

Barneko espazioaren antolaketa: Dolare aska lokalaren hego-ekialdeko angeluan dago.

[...].

Oharrak: Telletxea etxeak bere barnealdean kontserbatzen ditu, apaingarri gisa, 20 cm-ko diametroa eta 140 cm-ko luzera duten zurezko bi ardatz, jatorrizko dolarearí dagozkionak.

Telletxea (Bera). Argazkia: Asier Agirresarobe.

TXURIOBAITA (BERA)

Oinetxea Berako Altzate auzoko plazan dago. [...]. Dolarea oinetxearen ipar-ekialdeko fatxadari erantsitako eraikina da.

[...].

Jatorrizko dolarea ziurrenik oinetxearekin batera eraiki zuten XVIII. mendean. [...]. Dolarea 1964ra arte izan zen jardunean.

Informazio historikoa: Etxea osorik eraberritu zuten 1916an. Urte batzuk geroago moldatu egin zuten eranskina-dolarea, eta altueran bi etxebizitza gehitu zizkioten. Obra horretan desagerrarazi egin zituzten habedun dolarea eta zurezko ardatzak, eta dolare askaren erdian ainguratutako burdinazko ardatza paratu zuten. 1945. urte inguruan, motor elektriko bat instalatu baitzuten, utzi egin zioten eskuz eragin beharreko prentsa sistema erabiltzeari.

[...].

Lokalaren egitura: Hegoaldeko horma atalean irekitako ateaz gain, horma atal horretan bertan ate txiki bat du prentsatutako sagar patsa biltegiratzeko gela txiki batera iristeko. Bestalde, eraikinaren perimetroan irekitako ateak bide ematen zion barnealdeari, bertan zegoen muztioa biltzeko tina bat. Lokalak badu beste leiho bao bat kanpoaldera irekita ekialdeko horman. Horma atalak zarpiatuta eta kareztatuta daude. Iparraldeko eta hegoaldeko hormen barrualdean sartuta, harrizko bi harburu pare kontserbatzen dira, eta harburu horiek, tartean ipinitako habe baten bidez, galarazi egiten zuten habedun dolare zaharreko paldoak altxatzea. Bi harburu agerian daude iparraldeko hormaren kanpoaldean. [...]. Dolareak eranskinaren beheko solairuaren azalera osoa hartzen du.

[...].

Oharrak: 1916an burututako zaharberritze obra Nicanor Altzuguren hargin maisu beratarrak gidatu zuen. Garai batean, jabeek ez ezik, inguruko auzotarrek ere erabiltzen zuten dolarea beren sagardoa egiteko.

Txuriobaita (Bera). Argazkia: Asier Agirresarobe.

TXANBURRENEA (BERA)

Txanburrenea baserria Bidasoa ibaiaren eskuinaldeko erriberan dago, Iruñea-Irun errepide nagusi zaharraren ondoan [...], Berako hirigunearen hegoaldera 600 metro ingurura.

Dolarean kokapena: Baserriaren iparraldeko fatxadari erantsitako eraikinean dago. Gainera, biltegi, garaje eta aletegi gisa erabiltzen da.

[...].

Dolarea XIX. mendearen bukaeran eraiki zuten baserriaren jabeek eta egoiliarrek. [...]. Dolarea erabiltzen da gaur egun. Bi urtean behin sagardoa egiten dute beren uzta propioak erabiliz.

Informazio historikoa: Orain dela hamarkada batzuk moldatu egin zuten dolare aska. Hormigoizko zoladura kolore zuriko poliesterrezko geruza batez estali zuten eta hodi bidezko hustubidearen lekuan giltzaz ixteko iturri bat ipini zuten.

[...].

Lokalaren egitura: Dolarea hartzen duen lokala zementuzko blokeez egina da, eta zementu zuntzezko teilatu batez estalita dago. Zoladura hormigoizkoa da. Bertan sartzeko bi orriko atetzar bat du baserriaren fatxada nagusian, iparraldean.

Barneko espazioaren antolaketa: Dolarea lokalaren ipar-mendebaldeko angeluan dago.

[...].

Oharrak: Garai batean, baserriak berak ez ezik, inguruko auzotarrek ere erabiltzen zuten dolarea beren sagardoa egiteko.

9.2.-
LEKU-EDER BASERRIA BERAN

Nafarroako dolareen zerrenda aurkeztu ondoren, ezin diogu agur esan Bidasoa ibaiak bustitako Nafarroako herrietako sagardo munduari Berako Leku-eder baserria aipatu gabe, ale guztiz berezia baita. Izan ere, 1646. urteko errolda batean aipatzen den baserri honetan gaur egun sagardoa egiten jarraitzen dute, dolare zaharraren lekuan dolare berri bat instalatuta, era berean pitarra egiten zuen Guillermo Perugorriaren biloba Guillermo Perugorriak adierazi duenez.

Perugorria familiak, gaur egun, egin beharreko eraberritze lanak eginda, Nafarroako baserriaren ezaugarriei eusten die, beren ondasunekin eta lurrekin, horien artean garai bateko eta gaur egungo sagastiak biltzen direlarik, hainbat sagar barietaterekin.

Leku-eder baserria (2006). Argazkilariak: Rosa María eta Totono Errandonea.

Perugorriatarrak dolarean, 1995ean.

Sagardoaren txinpartek piztuta jarraitzen dute Beran eta Bidasoko beste herri batzuetan sagardotegi aipagarri batzuei esker, hala nola sagardoaren kulturari emandako Lesakako Linddurrenborda sagardotegiari esker.

Horiek guztiak, sagardoaren espazioaren eta denboraren baitan, gogoan hartzeko modukoak dira, eta aintzat hartzekoak etorkizuneko ekarpen idatzietan.

9.3.-
TXOTX BAT LEHENGO ERARA GAMIOXARREA BASERRIAN

Horixe du izenburu Alicia del Castillok *El Diario Vasco* egunkarian (2007ko otsailak 11) argitaratutako eta Sagardoetxearen funtsetan jasotako testuak. Eskaintzen duen testigantza dela eta, geure egiten dugu liburu honetan:

> *Existen documentos del año 1544 que señalan cómo se hacía la cata y tasación de la sidra en el Valle de Baztan. Gamioxarrea revivió ayer la antigua tradición que se recoge en las Ordenanzas del Valle y por la que el alcalde jurado y el alcalde del Valle de Baztan, acudían a probar las sidras que se elaboraban para fijar los precios de venta. En torno al mediodía comenzaron los actos.*
>
> *Primero se pudo ver a los txistularis, entre ellos el alcalde jurado actual de Arizkun, Patxi Larralde, y a Josu Cabodevilla, Fernando Anbustegi, Koldo Uribe-Etxebarria y Rafa Barragan en los papeles del alcalde jurado 'Joanes Bonetaberri' junto a dos amigos, 'Pierres Otxanaiz' y 'Zea Ipukolandagoiti' y el alcalde del Valle 'Rufus, Bizerzuriko Bordako jauna'.*
>
> *Tras reunirse en la plaza con Mikel Ortega, que hacía las veces de 'Mixel Lekaluze Sagastibeltza', el dueño del lagar y Oianko Garde como su mujer, acudieron en comitiva, acompañados por cuatro sagardantzaris, hasta Gamioxarrea.*
>
> *En la entrada del lagar, Josu Cabodevilla, en su papel, leyó las ordenanzas, recordando ocho puntos principales que hablaban de su*

misión. Sobre todo, poner el precio de venta al público de la sidra «tan barata como se pueda». Ellos estaban allí para probarla, para saber así si estaba aguada y para poner el precio por barricas, según la calidad de cada una.

Pequeña enciclopedia práctica de agricultura entziklopedian («La sidra y las bebidas económicas»), hauxe idatzi zen 1903an, Eguberrietako salmentaren irabaziak gorabehera: «Es más ventajoso destruirlo en los árboles frutales que explotarlo para su venta».

Mihuraren aurkako bando bat liburu honetako orrialdeetara ekartzeko modukoa da, argigarria baita erabat. Horretarako, geure egiten dugu Félix Ibargutxiren «La curiosa historia de un bando municipal de 1941» ekarpena (El Diario Vasco, 2014ko urtarrilak 22):

El ente Sagardoaren Lurraldea, de Astigarraga, ha creado un centro de documentación que tiene materiales muy diversos, desde artículos de prensa y fotos hasta un inventario de objetos relacionados con la elaboración de la sidra.

Una de las funciones del centro de documentación es rescatar y difundir documentos antiguos, como el que aparece en el último boletín trimestral de la entidad, un bando de 1941 del alcalde de Irun, que informaba de la decisión del Servicio Nacional Agronómico de Gipuzkoa de recorrer los manzanales guipuzcoanos para erradicar el muérdago, una planta parásita que debilita el manzano e incluso puede llegar a dominarlo completamente.

«Es un documento muy interesante, porque informa que se llevarán a cabo inspecciones en ciertos pueblos, y viendo esa lista de poblaciones podemos deducir que era ahí donde más manzanales había en la pos-

guerrra», nos comenta Lourdes Odriozola, la historiadora que dirige este centro de documentación de Astigarraga.

Esos pueblos eran Hondarribia, Irun, Oiartzun, Lezo, Errenteria, Pasaia, Astigarraga, Hernani, San Sebastián, Usurbil y Oñati. Resulta una lista llamativa. Aparecen lugares como Lezo, Pasaia y Oñati, que hoy en día cuentan con pocos manzanales.

El ingeniero jefe del Servicio Nacional Agronómico precisaba en su nota que, si los propietarios de los terrenos no extirpaban el muérdago, lo harían sus operarios, y luego se les pasaría la factura a los baserritarras. Esto indica que la administración pública consideraba los manzanales como una [sic] recurso necesario, pero la situación no era buena. En el bando se puede leer la expresión «una riqueza frutal hoy casi abandonada». Luego, con la industrialización, aumentó el declive: muchas de las plantaciones se perdieron para siempre, sin que los gobernantes movieran un dedo.

Ese bando del alcalde de Irun es solo un ejemplo de lo que contiene el centro de documentación. Lourdes Odriozola y la técnico Leire Alkorta se dedican a recopilar continuamente artículos de prensa son ya más de 3.500 que tengan que ver de alguna manera con la sidra, un producto cultural con numerosas ramificaciones. La fototeca, por su parte, dispone ya de 20.000 fotografías.

Además de artículos, hay múltiples materiales impresos, como los 49 aportados por Iñaki Larrañaga, quien durante más de 25 años ha trabajado en el servicio de pomología de la Diputación guipuzcoana. Otras personas que han colaborado especialmente son el astigarratarra Miel Joxe Astarbe, autor del diccionario Sagardoaren hiztegia y la bibliotecaria Arantza Arzamendi, de San Sebastián.



BANDO

El Sr. Ingeniero Jefe del Servicio Nacional Agronómico de Guipúzcoa, en el Boletín Oficial de la Provincia de fecha 2 del actual, publica lo siguiente:

«Habiéndose efectuado durante el invierno pasado, una campaña de extirpación del muérdago en toda clase de árboles con el fin de beneficiar el manzanal de Guipúzcoa en los términos municipales de Fuenterrabía, Irún, Oyarzun, Lezo, Rentería, Pasajes, Astigarraga, Hernani, San Sebastián, Usúrbil y Oñate, se hace ver a los agricultores que en el plazo de 15 días a contar de la publicación de esta nota, deberán realizar esta extirpación de aquellos árboles que involuntariamente hubieran quedado con muérdago en el pasado año o que en el presente haya nuevamente aparecido nuevos brotes y haciéndoles ver que dicha operación deberá ejecutarse en la forma ordenada y dispuesta por la Jefatura Agronómica de Guipúzcoa.

Si pasado dicho tiempo los agricultores no hubieran efectuado esta operación, la misma se verificaría por brigadas particulares, siendo los gastos que ocasione de cuenta exclusivamente del agricultor.

También quiero recordar a todos los agricultores en cuyo arbolado actuó esta Jefatura en campaña de poda en el pasado año y en estos municipios la obligación que tienen de limpiar toda la madera muerta que se haya producido en su arbolado, así como la supresión de todas las ramas chuponas que se hayan producido, consecuencia de la poda, advirtiendo que esta Jefatura comprobará dichas faenas, debiendo a su vez, si les fuera posible, efectuar tratamientos de invierno.

Todas estas medidas tienen por fin el tratar de conseguir una posible mejora de una riqueza frutal hoy casi abandonada, encareciendo a los Ayuntamientos presten la mayor atención posible, para el mejor cometido de lo dispuesto.»

Lo que se hace público para general conocimiento y debido cumplimiento.

Irún, 9 de Diciembre de 1941.

EL ALCALDE,

José Ramón Aguirreche.

Irungo alkatearen bandoa

Mihurak erasotako sagarrondoa gaur egun. Argazkia: Matías Guilló.

10.7.-
ANTZINAKO DOLAREA SAN MARTZIALEN: AGINAGA BASERRIA (MEAKA)

Lehenbiziko datu harrigarria, ziurrenik Aginaga baserriarekin lotua dena, Esteban Garibairen 1628ko *Compendio historial de España* obran aipatu izana da (XXX. Liburukia, IX. kapitulua). Testua eskaintzen dugu, San Martzialeko guduari buruzko kontakizunaren testuinguruan: «A boca de noche começando a caminar con tal denuedo, que parecia mostrar el trimpho de la vitoria que esperavan, marcharon dos leguas hasta otro valle, llamado Saroya de Aguinaga».

Era berean, Irungo Artxiboko dokumentazioan, «Aguinaga-Saroya» auzo gisa eta «Aguinaga la Alta» gisa dago jasota.

Inazio Imazek emandako datuen arabera, Imaz-Lizaso-Igiñiz familiaren jabetzako baserria Meaka auzoan dago, zerrenda batean edo bestean Bidasoa auzoan dagoela azaldu bada ere. Guk esan dezakeguna da baserria bere dolarearekin, urteetan kontserbatu baita, Irungo sagardoaren historiaren zati dela, baita Aginaga Saroia barrutia ere, baserriaren jabetzako saroia, Aginaga baserritik hurbil.

Mihurak erasotako sagarrondoa gaur egun. Argazkia: Matías Guilló.

Aginaga baserriko sarbidea eta fatxada nagusia Irungo Meaka auzoan

Aginaga baserriko dolarea

10.8.-
ARANBURU BASERRIA: IRAGANEKO ETORKIZUNA. ARANBURU LEINUARI ETA ETXEARI BURUZKO IRUZKINAK

Jada aipatu dugu baserri hau Antonio Aranburuk emandako Olaberria auzoko baserri sagardogileen zerrendan, baina, berriz ere hartu behar dugu hizpide inolaz ere. Izan ere, Irungo baserri honek hirutasun berezia osatzen du, bakarra eta espero dezagun errepikakorra sagardoaren munduan: iragana, oraina eta etorkizuna.

Jatorriz Irungo Unibertsitatekoa (Gipuzkoa) den Aranburu leinuari buruzko hainbat datu bildu eta sistematizatu nahi ditugu. Iruzkin horiei buruzko informazioa batez ere Aranburu leinuko hainbat zaldun Santiago eta Alcántarako ordenetan sartzeko espedienteetatik atera dugu. Zaldun horiek, Tolosan bizi baziren ere, Irungo etxeko leinuaren ondorengoak dira, halaxe jakinarazten da haien espedienteetan jasotako txostenetan eta lekukoen idatzietan. Iruni dagokionez, Junkaleko Andre Mariaren parrokian 1638tik aurrera kontserbatutako agiriekin osatzen dira emandako datuak, 1638. urte aurreko dokumentazioa urte hartako inbasio frantsesean suntsitu baitzen. Irungo Udaletxean bertan eta Zabala Etxeko artxiboan kontserbatutako dokumentazioa sakon aztertzea falta da. Horietan jasotako informazioa lagungarria izan daiteke Irungo Aranburu Etxeko jaunen eta jabeen lerroari jarraitzeko, oraindik ere hortxe baitirau.

IRUNGO UNIBERTSITATEKO ARANBURUTARREI BURUZKO AZTERLAN GENEALOGIKOA

Jada aipatu dugun Irungo Junkaleko Andre Mariaren parrokiako artxiboko dokumentuak mugatuak direnez, Pedro de Aramburu izango dugu gure azterlanean abiapuntu. Irunen bizi izan zen XVI. mendearen hasieran, Pedro de Aramburu y Aburruzaren 1680ko espedientean jasotako lekukotzen arabera. Azterlan labur honek bi leinu lerro hartzen ditu, lehenbizikoak Irunen jarraitzen du, Aranburu Etxearen beraren jabeen lerroa da, baina emakume batek jaso zuenez oinordekotzan, XVII. mendearen erdialdean bereizi egin zen Aranburu deituratik. Bestalde, gizonezkoen lerro nagusia aurkeztuko dugu, garai bertsuan Tolosara lekualdatu zena, Sevillatik igaro ondoren.

Aranburu baserriaren armarria Irunen

Tolosan, Aranburutarrek maila garrantzitsua lortu zuten bai gizartean bai politikan, hala nola Miguel Aramburu y Plazak, Alcántarako Ordenako Zaldduna 1747an eta Villafuertesko lehen Kondea. Pertsona horrexek ematen dio amaiera azterlan honi.

I.- Pedro de Aramburu, Irungo Aramburu Oinetxearen jabea eta edukitzailea. Ez dakigu norekin egon zen ezkonduta, baina bi seme izan zituen:

A.- Juan Pérez de Aramburu, lerroari jarraipena eman ziona.

B.- Juan de Aramburu.

II.- Juan Pérez de Aramburu, aitaren ondorengoa Irungo Aramburu etxearen jabe eta jaun gisa. Olaverría Etxearen jabe Margarita de Olaverríarekin ezkondu zen.

Lau seme-alabaren gurasoak izan ziren, baina haietako bakar baten izena ezagutzen dugu:

III.- Miguel de Aramburu, odolez kaparea[1] Espainiako foruaren eta ohituraren arabera, Irungo Aramburu Oinetxe noble eta kalifikatuaren ondorengoa, Irungo Unibertsitateko eta eskualdeko oinetxe garrantzitsuenetako baten ondorengoa.

1.- 61. folio zenbakitua. Artxibo Historiko Nazionala, aurrerantzean AHN. OOOM-Santiago sekzioa. Espedientea: 497.

Haren filiazioa eta odol kaparetasuna frogatu ondoren, errejidore kargua bete zuen 1568an eta 1608an. Haren biloba Miguel de Aramburu y Aburruza Santiagoko Ordenan sartzeko espedientean jasotako lekukoen frogetatik heldu da informazio hori.

Miguel de Aramburu María de Iparraguirre andrearekin ezkondu zen, Joanes de Iparraguirre eta Joana de Riberaren alabarekin, Lesakako Iparraguirre Etxeko oinordekoarekin. Maríak Irunen egin zuen testamentua 1628ko urtarrilaren 25ean.

Gutxienez, hauen gurasoak izan ziren:

A.- Joanes de Aramburu, Irungo Unibertsitateko Kapitaina[2]. Kargu hori alkate arruntaren baliokidea da.

B.- Pedro de Aramburu, lerroari geroago jarraipena eman ziona Tolosan.

C.- María Esteban de Aramburu, Irungo lerroari jarraipena eman ziona.

IV.- María Esteban de Aramburu, Irungo Aramburu Etxearen jabea eta andrea. Dispentsa eman ondoren, Juan de Echeverría Aramburu ahaidearekin ezkondu zen.

Seme izan zuten:

V.- Phelipe de Echeverría Aramburu, Irunen 1625. urte inguruan jaioa eta Irunen 1697ko azaroaren 9an zendua[3]. Irungo Aramburu Oinetxearen jabea zen[4], haren lehengusu Miguel de Aramburu y Aburruza 1661ean Santiagoko Ordenan sartzeko frogen espedientean jasota dagoenez, hartan Phelipek berak bere lekukotasuna eman zuelarik. Bere Etxeari dagokionez, hauxe adierazi zuen Ofizio Santuaren komisario Bartolomé de Ibarreta lekukoak[5]: "tiene un escudo y en él, las armas de ella que por ahora no se acuerda cuáles sean, que la memoria no está todas las veces con la prontitud que se quisiera".

Deempeñó entre otros los siguientes cargos concejiles: Elector[6] del Ayuntamiento de Irún el 2 de febrero de 1655, Alférez[7] el 2 de febrero de 1660 y Contador[8] el 2 de febrero de 1663.

Besteak beste, zinegotzi kargu hauek bete zituen: Irungo Udaleko hauteslea[9] 1655eko otsailaren 2an, Alfereza[10] 1660ko otsailaren 2an eta Kontu-hartzailea[11] 1663ko otsailaren 2an.

Irunen ezkondu zen[12] 1653ko otsailaren 23an Marina de Narbarte andrearekin. Marina Oiartzunen bataiatu zuten[13] 1635eko urtarrilaren 6an, eta Irunen zendu zen[14] 1697an. Miguel de Narbarteren eta Perica Larzabalen alaba zen.

Hamabi seme-alabaren guraso izan ziren, baina ez dakigu nork jaso zuen Etxea oinordekotzan:

A.- Ana María de Echeverría Aramburu Narbarte, 1654ko maiatzaren 1ean Irunen bataiatua[15]. Irungo San Anton ermitako serora[16].

B.- Lucía de Aramburu Narbarte, 1656ko otsailaren 13an Irunen bataiatua[17]. Haur zelarik zendu zen.

C.- María de Echeverría Narbarte, 1657ko abuztuaren 15ean Irunen bataiatua[18].

D.- Catalina de Echeverría y Narbarte, 1660ko otsailaren 18an Irunen bataiatua[19].

E.- María Antonia de Echeverría Aramburu y Narbarte , 1662ko martxoaren 3an Irunen bataiatua[20].

2.- 61. folio zenbakitua. AHN. OOOM-Santiago sekzioa. Espedientea: 497.
3.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Irun. Heriotzei buruzko 1. Liburua, 53. folio zenbakitua.
4.- 85. folio zenbakitua. AHN. OOOM-Santiago sekzioa. Espedientea: 497.
5.- 61. folio zenbakitu gabea. AHN. OOOM-Santiago sekzioa. Espedientea: 497.
6.- Archivo Histórico Municipal de Irun. Signatura: A/01/0001/105/R.
7.- Archivo Histórico Municipal de Irun. Signatura: A/01/0001/144/R.
8.- Archivo Histórico Municipal de Irun. Signatura: A/01/0002/011/V.
9.- Irungo Udal Artxiboa. Signatura: A/01/0001/105/R.
10.- Irungo Udal Artxiboa. Signatura: A/01/0001/144/R.
11.- Irungo Udal Artxiboa. Signatura: A/01/0002/011/R.
12.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Irun. Ezkontzei buruzko 1. Liburua, 6. folio zenbakitua.
13.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Oiartzun. Bataioei buruzko 3. Liburua, 29. folio zenbakitu gabea.
14.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Irun. Heriotzei buruzko 1. Liburua, 52. folio zenbakitu gabea.
15.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Irun. Bataioei buruzko 1. Liburua, 37. folio zenbakitu gabea.
16.- Irungo Udal Artxiboa. Signatura: A/01/0003/038/V.
17.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Irun. Bataioei buruzko 1. Liburua, 42. folio zenbakitua.
18.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa,. Irun. Bataioei buruzko 1. Liburua, 45. folio zenbakitu gabea.
19.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Irun. Bataioei buruzko 1. Liburua, 51. folio zenbakitua.
20.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Irun. Bataioei buruzko 1. Liburua, 56. folio zenbakitua.

F.- Mariana de Echeverría Narbarte, 1664ko martxoaren 11an Irunen bataiatua[21].

G.- Juanes Felipe de Echeverría Narbarte, 1666ko otsailaren 13an Irunen bataiatua[22]. Irungo parrokia-elizako presbiteroa eta onuraduna[23]. Miguel de Aramburu y Atorrasagasti lehengusu txikiaren kapilaua[24]. Zabala Etxeko artxiboak Felipek bidalitako gutunak kontserbatzen ditu, eta 1711ko uztailaren 16ko data duen gutun batean bere lehengusuari[25] jakinarazten dio Aramburun urte hartan ez dela ia sagarrik batere, eta horrek, inolako zalantzarik gabe, zuzeneko eragina izango zuen sagardoaren ekoizpenean. Kontua da, gaur egun, Aranburu Etxearen jabeek, oraindik ere sagardoa egiten dutela.

H.- María Josefa de Echeverría y Narbarte, 1669ko maiatzaren 12an Irunen bataiatua[26].

I.- José de Echeverría Aramburu y Narbarte, 1671ko azaroaren 22an Irunen bataiatua[27]. Udaleko enplegu hauek izan zituen: Diputatua[28] 1711n eta Diruzaina[29] 1712an.

J.- Tomás de Aramburu y Narbarte, aurrekoaren bikia, 1671ko azaroaren 22an Irunen bataiatua[30].

K.- Lucía de Echeverría Narbarte, 1674ko martxoaren 18an Irunen bataiatua[31].

L.- Martín de Echeverría Aramburu Narbarte, 1675eko abenduaren 8an Irunen bataiatua[32]. 1700eko otsailaren 2an auzokideen bake eta gerra ohoreak[33] eskatu zituen. Udaleko enplegu hauek izan zituen: Diputatua[34] 1711n eta Alfereza[35] 1728an.

TOLOSAKO LERROA

IV.- Pedro Aramburu kapitaina, Irunen sortua. Sevillan bizi zen, eta ahalez ezkondu zen[36] Tolosan 1634ko abuztuaren 15ean, María de Aburruza y Arambururekin. Andre hori Tolosan bataiatu zuten 1608ko otsailaren 3an[37]. Domingo de Aburruza letradu tolosarraren eta Catalina de Aramburu y Açelain sorabillarraren alaba. Catalina Francisco Arambururen alaba da[38], Oiartzun haraneko alkate eta epailearen eta haran horretako Aramburu etxe ospetsu eta kalifikatuaren jabearen eta jaunaren alaba. Denboraren joanean, haren biloba Marñia de Aburruzak jaso zuen Etxea oinordekotzan.

Pedro auzotar kapare gisa hartu zuten Tolosan 1635eko irailaren 3an, eta honako kargu hauek izan zituen: Alkatea 1642an, Errejidore Nagusia 1645ean eta Diputatua 1652an. Tolosan egin zuen testamentua Antonio de Aralderen aurrean, 1662ko apirilaren 10ean.

21.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Irun. Bataioei buruzko 1. Liburua, 60. folio zenbakitu gabea.
22.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Irun. Bataioei buruzko 1. Liburua, 64. folio zenbakitu gabea.
23.- Irungo Udal Artxiboa. Signatura: A/01/0008/094/V.
24.- Euskadiko Artxibo Historikoa. Sekzioa: Zavala Etxeko artxiboa. Signatura: 35. 22.
25.- Euskadiko Artxibo Historikoa. Sekzioa: Zavala Etxeko artxiboa. Signatura: 73. 9.
26.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Irun. Bataioei buruzko 1. Liburua, 73. folio zenbakitu gabea.
27.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Irun. Bataioei buruzko 1. Liburua, 80. folio zenbakitua.
28.- Irungo Udal Artxiboa. Signatura: A/01/0005/136/R.
29.- Irungo Udal Artxiboa. Signatura: A/01/0005/179/V.
30.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Irun. Bataioei buruzko 1. Liburua, 80. folio zenbakitua.
31.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Irun. Bataioei buruzko 1. Liburua, 86. folio zenbakitu gabea.
32.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Irun. Bataioei buruzko 1. Liburua, 95. folio zenbakitu gabea.
33.- Irungo Udal Artxiboa. Signatura: A/01/0003/034.
34.- Irungo Udal Artxiboa. Signatura: A/01/0005/136/R.
35.- Irungo Udal Artxiboa. Signatura: A/01/0009/188/V.
36.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Tolosa. Ezkontzei buruzko 2. Liburua, 42. folio zenbakitua. Eta 25. folio zenbakitua. AHN. OOOM-Alcántara sekzioa. Espedientea: 92.
37.- 41. folio zenbakitu gabea. AHN. OOOM-Santiago sekzioa. Espedientea: 497.
38.- 58. folio zenbakitu gabea. AHN. OOOM-Santiago sekzioa. Espedientea: 497.



Aburruzatarren armarria Tolosan

Honako seme-alaba hauek izan zituzten senar-emazteek:

A.- José de Aramburu y Aburruza, 1637ko apirilaren 6an Tolosako Andre Maria parrokian bataiatua[39]. Ume zelarik zenduko zen, amak ez baitu bere testamentuan aipatzen.

- José Miguel de Aramburu y Aburruza, 1639ko irailaren 1ean Tolosako Andre Maria parrokian bataiatua[40]. Jarraipena eman zion lerroari.

C.- Juan Bautista de Aramburu y Aburruza, 1641eko martxoaren 15ean Tolosako Andre Maria parrokian bataiatua[41]. Ávilako kalonjea. Hiri hartan zendu zen[42] 1680ko urriaren 28an, Ceutako apezpiku hautesle zelarik.

D.- Pedro de Aramburu y Aburruza, 1642ko abenduaren 21ean Tolosako Andre Maria parrokian bataiatua[43]. Gipuzkoako probintziako ontzien eskuadrako almirantea[44] eta Itsasoko eta Gerrako kapitaina. Santiagoko Zalduna[45] 1680an. Ez zuen ondorengorik izan.

E.- María de Aramburu y Aburruza 1644ko irailaren 9an Tolosako Andre Maria parrokian bataiatua[46]. Tolosan zendu zen[47] 1723ko ekainaren 3an. Bere garaian Tolosako Aramburu Etxearen jabea izan zen, eta Etxeko fatxadan Aramburutarren eta Aburruzatarren armarria zegoen agerian. Ondoren, bere ondorengoei eman zien oinordekotzan, higiezina Zabala Jauregia[48] gisa ezagutzen baita.

Aramburutarren-Aburruzatarren armarria, Tolosan

39.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Tolosa. Bataioei buruzko 4. Liburua, 50. folio zenbakitua.
40.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Tolosa. Bataioei buruzko 4. Liburua, 67. folio zenbakitua.
41.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Tolosa. Bataioei buruzko 4. Liburua, 80. folio zenbakitua.
42.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Tolosa. Heriotzei buruzko 4. Liburua, 48. folio zenbakitu gabea.
43.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Tolosa. Bataioei buruzko 4. Liburua, 92. folio zenbakitua. Eta 45. folio zenbakitua. AHN. OOOM-Alcántara sekzioa. Espedientea: 498.
44.- Luis María de Zavala y Fernández de Heredia Santiagoko zaldunak idatzitako biografia. Hemen: https: //dbe. rah. es/biografias/57581/pedro-de-aramburu-aburruza.
45.- AHN. OOOM-Santiago sekzioa. Espedientea: 498.
46.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Tolosa. Bataioei buruzko 4. Liburua, 102. folio zenbakitu gabea.
47.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Tolosa. Heriotzei buruzko 4. Liburua, 133. folio zenbakitua.
48.- Juan Carlos de Guerra, Estudios de heráldica vasca. Donostia, 1928, 37. orrialdea.

1665eko urtarrilaren 25an Diego Antonio de Zabala y Arangurenekin ezkondu zen. Ondorengoak izan zituzten.

José Miguel de Aramburu y Aburruza, 1639ko irailaren 1ean Tolosako Andre Maria parrokian bataiatua[49]. Tolosan honako udal kargu hauek bete zituen: Errejidorea 1668an, Alkatea 1670ean, Leiala 1682an, Diputatua 1687an eta berriz ere Alkatea 1690ean. Juan Austriakoa jaunaren zerbitzura lan egin zuen[50]. Santiagoko Zalduna izan zen[51] 1661ean egindako eta gainditutako frogekin. 1692an, Gipuzkoako Probintziako Batzarrak lurraldeko arautegi osoa biltzeko eskaera egin zion[52]. Lan hori 1696an argitaratu zen Nueva Recopilación de los Fueros, Privilegios, Buenos Usos y Costumbres, Leyes y Órdenes de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa izenburuarekin. Tolosan zendu zen[53] 1697ko irailaren 16an.

1666ko azaroaren 28an Andoainen ezkondu zen[54] María de Atorrasagasti e Isasarekin, eta 1667ko uztailaren 22an Tolosan berretsi zuten ezkontza[55]. María, 1650eko martxoaren 16an Andoainen bataiatua[56], Juan Pérez de Atorrasagasti y Ansisu andoaindarraren eta Irungo Unibertsitatean jaiotako Isabel de Isasa Astigar y Zubiaurreren alaba zen.

Hamaika seme-alabaren guraso izan ziren, eta horietatik hauexek iritsi ziren adin nagusira:

A.- Miguel de Aramburu y Atorrasagasti, lerroari jarraipena ematen diona.

B.- José Francisco Basilio León de Aramburu y Atorrasagasti, 1683ko ekainaren 16an Tolosako Andre Maria parrokian bataiatua[57]. Maiestate Katolikoaren Guardia Kapitaina[58]. Tolosako Diputatu Nagusiaren kargua bete zuen 1703an. Espainiako Errege Armadako Teniente Nagusia eta Infanteriako Guardietako Sarjentu Nagusia. Alcántarako zalduna[59] 1747an egindako eta gainditutako frogekin; espediente horretan bere lau aitona-amonen armarriak[60] azaltzen dira.

Aramburutarren armarria Irungo Unibertsitatean

Ez zen ezkondu eta ondorengorik utzi gabe hil zen. Haren iloba Miguel de Aramburu y Plazak 1758an Felipe V.a erregeak José Franciscori emandako Gaztelako titulua jaso zuen, Villafuertesko Kondea izenarekin.

C.- Pedro Ignacio de Aramburu y Atorrasagasti, 1684ko abenduaren 8an Tolosako Andre Maria parrokian bataiatua[61]. Salamancako San Bartolome Eskolako ikasle bekaduna eta Ciudad Rodrigoko Eliza Santuko kalonje teologoa.

VI.- Miguel de Aramburu y Atorrasagasti, 1677ko martxoaren 11n Tolosako Andre Maria parrokian bataiatua[62]. 1702ko otsailaren 14an ezkondu zen[63] Oñatiko San Migel Goiaingeruaren parrokian Juana Josefa Plaza y Lazarraga andrearekin.

49.- 41. folio zenbakitu gabea. AHN. OOMM-Santiago sekzioa. Espedientea: 497. 45. folio zenbakitu gabea. AHN. OOMM-Santiago sekzioa. Espedientea: 498. Eta 24. folio zenbakitu gabea. AHN. OOOM-Alcántara sekzioa. Espedientea: 92.
50.- 61. folio zenbakitua. AHN. OOMM-Santiago sekzioa. Espedientea: 497.
51.- AHN. OOOM-Santiago sekzioa. Espedientea: 497.
52.- Jon Arrieta Alberdi, ARAMBURU ABURRUZA, Miguel de. Nueva Recopilación de los Fueros, Privilegios, Buenos Usos y Costumbres, Leyes y Ordenanzas de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa. Anuario de Historia del Derecho Español urtekaria, 2016, 86. zk.
53.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Tolosa. Heriotzei buruzko 4. Liburua, 83. folio zenbakitua.
54.- 45. folio zenbakitua. AHN. OOOM-Alcántara sekzioa. Espedientea: 92.
55.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Tolosa. Bataioei buruzko 3. Liburua, 49. folio zenbakitu gabea.
56.- 24. folio zenbakitu gabea. AHN. OOOM-Alcántara sekzioa. Espedientea: 92.
57.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Tolosa. Bataioei buruzko 5. Liburua, 211. folio zenbakitu gabea. Eta 44. folio zenbakitu gabea. AHN. OOOM-Alcántara sekzioa. Espedientea: 92.
58.- Antonio Maria Labaien Toledo, El general Aramburu. Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen buletina, 1956, 423.-431. orrialdeak.
59.- AHN. OOOM-Alcántara sekzioa. Espedientea: 92.
60.- Endika de Mogrobejo, Blasones y linajes de Euskalerria. Bilbo, 1991. Amigos del Libro Vasco, III. liburukia, 66. orrialdea.
61.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Tolosa. Bataioei buruzko 5. Liburua, 226. folio zenbakitua.
62.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Tolosa. Bataioei buruzko 5. Liburua, 159. folio zenbakitu gabea.
63.- Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa. Oñati. Ezkontzei buruzko 4. Liburua, 132. folio zenbakitu gabea.

Aramburutarren armarria Irungo Unibertsitatean

Gutxienez seme hau izan zuten:

VII.- Miguel Aramburu y Plaza, 1710eko maiatzaren 10ean Tolosako Andre Maria parrokian bataiatua. Alcántarako zalduna 1747an[64]. Villafuertesko lehenengo kondea.

ARANBURUTARREN OINETXEA IRUNGO UNIBERTSITATEAN

Jarraian, Irungo Aramburutarren Oinetxearen eta armarrien deskribapena eskainiko dugu. Deskribapen hori, 1661ean eta 1680an Santiagoko ordenan sartzeko Miguel eta Pedro de Arambururen frogak hurrenez hurren bildu zituzten zaldun informatzaileen espedienteetan dago jasota. Informatzaileak Aramburutarren Etxean aurkeztu ziren, ikusten zutena deskribatu zuten eta zuzenean egin zizkioten galderak Phelipe de Echeverría Aramburu jabeari, aldez aurretik galdekatu zituzten lekukoen adierazpenen benetakotasuna egiaztatzeko.

1661ean egindako José Miguel de Aramburu y Aburruzaren espedientean aitortu egiten dute Aramburutarren Oinetxea, eta hauxe gaineratzen dute, hitzez hitz[65]: «dista de la Universidad de Irún un quarto de legua y habiéndola reconocido y visto sus armas que son un escudo partido en palo, a la mano derecha en campo azul una losanje de plata con un castillo azul y la otra mitad lisonjada de oro y de gules que es colorado».

1680an, Pedro de Aramburu y Aburruza ordenan sartzeko espedientea osatzeko, informatzaileak berriz joan ziren Aramburutarren Etxera, eta, kontuan izanik ikerketaren interesa, nahiago dugu Etxearen jabeak 1680ko uztailaren 9an egindako adierazpena eta txostena orriotara hitzez hitz ekarri:

> *En el lugar de Yrún dicho día, mes y año porque muchos de los testigos dicen que el Padre del Pretendiente, es originario y descendiente de la Casa y Solar de Aramburu cuyos ascendientes fueron Señores de ella y que al presente la posee y goza Phelipe de Echevarría Aramburu, y está sita en término y jurisdicción de este lugar, medio quarto de legua de él, determinamos ir a hacer descripción y vista de los ojos de la dicha casa y tomar la declaración juntamente al dueño de ella para que bajo de juramento diga si los tiene por parientes al Pretendiente y sus ascendientes y en qué grado se halla con ellos y por donde tiene el Señorío y goce de dicha Casa, con lo demás perteneciente a esta diligencia.*
>
> *Y porque estamos informados que el dicho poseedor es vascongado y no habla ni entiende la lengua castellana resolvimos llevar con nosotros a D. José de Arbelaiz, caballero de la orden de Santiago, intérprete que ha sido para alguno de los testigos, para que nos conduzca a la dicha Casa y debajo del juramento que tiene hecho pregunte y responda lo que preguntásemos y respondiese.*

64.- AHN. OOOM-Alcántara sekzioa. Espedientea: 93. Eta hemen: Vicente de Cadenas y Vicent, Caballeros de la Orden de Alcántara que efectuaron sus pruebas de ingreso durante el siglo xviii. Madril, 1991, Ediciones Hidalguía, I. liburukia, 59. eta 60. orrialdeak.

65.- 84. folio zenbakitu gabea. AHN. OOOM-Santiago sekzioa. Espedientea: 497.

Y en su cumplimiento habiendo hecho parecer ante nosotros al dicho Don José de Arbelaiz, entendido de nuestra diligencia fuimos a la parte y lugar donde está la Casa de Aramburu que es en el barrio que llaman Olauerri, y está distante de Yrún como medio quarto de legua, habiéndola visto.

Parece su planta cuadrada en forma de torre con cuatro vertientes y su fábrica es de mampostería y las cuatro esquinas de piedra sillar, con cinco ventanas grandes que cosen los cuatro lienzos y en ellos tiene cinco puertas, que la principal de ellas mira al oriente, esta sola dicha Casa y la circundan montes y prados y manzanales, que es todo término redondo, y del Señorío de la dicha Casa.

Y luego incontinenti habiendo preguntado y hallado al Señor poseedor de dicha Casa en ella, entramos y por el dicho D. José de Arbelaiz intérprete le fue recibido juramento en forma de derecho de decir verdad en lo que se le preguntase, el cual le hizo a Dios y una cruz y prometió decirla.

Y siendo preguntado por donde le toca y pertenece el Señorío de la Casa y Solar de Aramburu que al presente posee, dijo que habrá ciento y treinta años que Pedro de Aramburu dueño y poseedor de la dicha Casa-Solar de Aramburu hubo por hijos a Juan Pérez y Juan de Aramburu, hermanos, de los cuales el dicho Juan Pérez de Aramburu casó con Margarita de Olaverría dueña de la Casa de su apellido, los cuales hubieron cuatro hijos, que el uno de ellos fue Miguel de Aramburu, abuelo materno del declarante, que casó con María de Yparraguirre dueña de la Casa de Mendiondo, los cuales hubieron por sus hijos entre otros a Mari Esteban de Aramburu madre suya, que casó con dispensación con Juan de Echeverría Aramburu, de quienes es hijo el dicho declarante. Y a don Pedro de Aramburu que casó en Tolosa de cuyo matrimonio es hijo entre otros D. Pedro de Aramburu, primo hermano de este declarante. Y así reconoce el parentesco, y se ha tratado y trata con sus hermanos. Y los padres de unos y otros hicieron la misma entroncación como descendientes

Baserriaren argazkia 1980an, Oihana Recalde Casadok emana

Aranburu baserriaren argazkia 2025ean, Oihana Recalde Casadok emana

10.9.-
SAGARREK PROIEKTUA

Sagarrek sistema tradizionalaren edo sistema bideratuaren arabera landatutako hainbat sagastik osatutako multzoa da, bertako euskal barietateez egindako sagardoa egiteko.

Ekoizpena ekologikoa da guztiz, eta Euskal Sagarra jatorri deitura du.

Sagarrondo zaharrenak Manolo Recalde Zapiainek landatu zituen 1995ean Recalde Etxearen jabetzako lurretan, Meaka auzoan, Ibaietara bidean.

Urte batzuk geroago, 2019an, Manolo Recalde Zapirainen eta Manuela Zuriarrain Carreraren seme Iñaki Recalde Zuriarrainek sagarrondoak landatu zituen sistema tradizionalaren arabera aipatutako etxearen jabetzako gainerako lurretan.

Sagarrek sagardoa egiteko sagarra ekoizteko proiektua da. 2019an jarri zuten abian Iñakiren anaia Josu Recalde Zuriarrainek eta Oihana Recalde Casadok, Josu eta Nieves Casado Eceizaren alabak, alde batetik Meaka auzoan sagasti handi bat sortzeko asmoz, eta bestetik, Olaberria auzoan ere sagasti handi bat antolatzeko asmoz, Aramburu Baserri historikoaren lurretan, lur horiei jatorrizko erabilera itzultze aldera.

Hainbat dokumentutan jasotako datu historikoen arabera, lur horietako sagastiei buruzko aipamenak XVI. mendekoak dira, eta eremuko sagardo ekoizpen handienetako bat zuen baserria zen.

Ez dakigu zer urtetan desagertu ziren sagarrondoak, baina 1965etik aurrera Cevaderos Montero etxalde handiak erabili zituen lur horiek, eta geroago inguruko beste abeltzain batzuek, aziendarentzako bazka gisa erabili baitzituzten.

2021ean 3,5 hektarea sagarrondo landatu ziren Aranburutarren lurretan.

2023an 1,2 hektarea sagarrondo landatu ziren Aranburutarren lurretan eta 2 hektarea Meakako lurretan.

2023an, guztira, Sagarrekek 8 hektarea eta erdi baino azalera handiagoa du, eta Oihana Recalde Casadok kudeatzen du.

Oihana Recalde Meakako sagastian

Sagarrek proiektuaren barruan, 2025eko maiatzaren 18an, Meakako sagastia aurkezteko jai bat egin zen. Naturaz, sagardoz eta tokiko kulturaz beteriko esperientzia berria izan zen, sagar bakoitzaren atzean partekatu beharreko amets bat baitago.

Natura betean, han landatutako 1.800 sagarrondoen aurrean, Maddi Ane Txoperena Iribarren idazleak eta bertsolariak bere arrasto errimaduna gaineratu zion ekitaldiari: «Egia da, bai! Ederki gaude / Ederra da panorama / baina ikusita, ez gara ohartzen /gibelean duen lana. / Sagarrondoak landatu dira / lur honetan banan-banan, / eta horrela ia bukatu / sagarrondoen oihana. / Eskerrak zuri, Oihana!».

Ekitaldia amaituta, bertaratuak, urratsez urrats musikaren erritmoari jarraiki, Ola sagardotegira iritsi ziren pintxo ederrak jatera eta sagardoa edatera.

Sagarrek proiektuaren izena sagar hitzarekin eta Recalde deiturarekin dago elkartuta, Sagar-rek, hots, biak batuta *Sagarrek.*

Jarraian, *Sagarrek* proiektua zertan datzan azalduko dugu.

Helburuak:

* Ingurumen naturala babestea.
* CO2 emisioak xurgatzea.
* Bertako sagar espezieak babestea.
* Euskal kultura eta historia babestea.
* Kalitatezko produktu natural bat ekoiztea.
* Ingurunearen zaintzaren arloan sentsibilizatzea.

· Norentzat egiten dugu?

Ekoitzitako sagarrak Irungo sagardotegi bakarrari baizik ez zaizkio saltzen, *Sagarrek* sagastitik 5 minutura dagoen Ola Sagardotegiari, alegia.

Sagarrak bildu eta egun berean eramaten ditugu fresko-fresko eta ahalik eta kalitaterik handienarekin.

· Nola egiten dugu?

Sagarra ekoizteko prozesua batez ere eskuz bideratzen da.

Zuhaitzak banan-banan kimatzen dira, sagarrak banan-banan biltzen dira, adarrei eusteko loturak ipini behar dira, babesgarriak jarri behar dira zuhaitzak balizko lesioetatik babesteko, eta beste lan batzuk egin behar dira landan ahalik eta eragin txikiena izateko eta ingurumena, intsektuak, animalia txikiak eta inguruko landare aniztasuna errespetatzeko.

· Zein izango da *Sagarreken* etorkizuna?

Aurreikuspenen arabera, 2030. urtean sagardo ekologikoa egiteko 160 tona sagar bilduko dira, bertako sagar barietateak, eta horiekin 106 mila litro sagardo egin ahal izango dira.

Hauxe dugu eslogana: «Sagar bakoitzaren atzean amets bat dago».

Sagarrek proiektua, hasiera batean, sagarra ekoizteko soilik garatu zen. Baina proiektua garatu den heinean, *Sagarrekek* eskain ditzakeen produktuen eskaintza dibertsifikatzeko ideia berriak sortu dira.

Hortaz, honako hauek eskain ditzake *Sagarrekek* etorkizunean:

* Sagarren ekoizpena.
* Sagardo bihurtzea.
* Bisitaldi gidatuak.
* Aisiako jarduerak, sentsibilizazioa, kultura eta historia.

Aitzitik, hauxe da euskal sagardoaren etorkizunari buruzko pertzepzioa.

2023. urtean, guztira 12 mila milioi litro sagardo ekoitzi ziren Euskal Herrian, eta horietatik 4 mila milioi litro baizik ez ziren bertako sagar barietateekin egin. Horrek esan nahi du 8 mila milioi litro sagardo beste herrialde batzuetatik ekarritako sagarrekin ekoitzi zirela.

Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak adostu dute 2030. urterako Euskal Sagardoa gisa etiketatuta egon nahi duen sagardoak bertako euskal sagar barietatez egina behar duela izan, beste lurraldeetako sagarrak erabili gabe.

Horrez gain, sagar ekoizle berrientzako laguntzak eta dirulaguntzak ematen ari dira sagar kopurua emendatzeko eta lehen adierazitako 2030. urterako helburuak betetzeko.

Bestalde, sagardotegi zerbitzuaren eta sagardotegiak bisitatzeko zerbitzuaren eskaera handitu egin dela ikusten dugu azken 10 urteetan nabarmen hazi den turismoak bultzatuta.

Sagarra eta sagardoa ekoizten dituen sektorearen aurreikuspenak oso positiboak dira, eta Euskal Herrian are gehiago haztea espero da.

DOLAREAK HENDAIAN

Bidasoak ibaiak bere urekin Ipar Euskal Herriko Hendaia ere bustitzen du.

Imanol Amestoy ikerlariak «Ipar Euskal Herriko sagardi bat: Abbadiako eremua» izenburuko lan hau eskaintzen digu.

11.1.- SAGASTIA ABBADIAKO EREMUAN

Abbadiako eremuaren goegrafian euskal kostaren laburpen bat atzeman dezakegu : harretsi zutak eperrak apaindurik, urre kolorezko itsas-arte borobilak, hondartzaren parean kisu gorrian zizelduak dauden plegu izigarriak eta hain famatuak diren « Harroka bibiroak » edo « Bizkiak » kostaren higaduaren lekuko.

Mendebaldeko haizeak dantza araztuen dituen pentzeak, larretan atzematen diren otezuri eta branek.

Frantziako Itsas kostaldeko kontzerbatorioa 1979 urtean erosi zuen Abbadiako lurraldeak, Antoine d'Abbadiko gazteluaren ondoan.

Lurralde honetan , 3 baserri dezberdina kokatuak dire : Azporotsttipi , Larretxea eta Nekatoenea,

1979. ean baseritarrek baziren hiru etxaldeetan. Pentzeak baziren baita ere artoako zelaiak. Nekatoenaren baserritarrek hil zirelarik, itsas kostaldeko kontzerbatorioa eta bereziki lehen eremuaren langilea Ganix Grabière , kontserbatorioko sagardi proyektu bat antolatu du 1988 urtetan.

Abbadiako eremuan lehen helburua natura eta ingurumea babestea da. Sagardi proiektuekin beste helburua izan da Euskal Herriko sagar zahar motak edo barietak atxikitzea. Bainan la hori erdizka egina da, lortu nahi duguna urtero da jendeak haien etxeetan antzinako bertako mota hauek landatzera bultzatzea da. Golden edo Granny smith motak landatu ordez horietakoak badira janari dendetan , hobe liteke « Anisa », « Apez Sagarra », « Pehatsa » landatzea , lehen

Manzanal cerca del mar, delante del castillo de Abbadia

Neskatoenea baserria 1942. urtean

Euskal Herriko sagarren erakusketa Larretxean, 2004. urtean

Sagardoa egiteko dolareko prentsa, Abbadiako sagarrak erabiliz

landatzen ziren motak hain zuzen, kasik desagertuak direnak.Como todos los años invitamos al público a que venga a realizar nuestra recogida y prensado de manzana frente al caserío Nekatoenea.

Urtero bezala publikoa gomitatzen dugu gure bilketa eta prentsaketa egitera etor dadin Nekatoenea baserriaren aurrean.

Urrilarren asteburu batean dolarearen inguruko festa bat egiten dugu , sagarrak zanpatzen ditugu antzinako bertako motak , aspaldi Euskal Herrian eta Biarnon lantzen zirenak eta gero denbora aurrera egin ahala, kasik desagertu direnak.

Mota hauek biziki interesgarriak dira, batzuk ez dira gordinik jateko onak , beste batzuk onak dira zukua egiteko, batzuk sagardoa egiteko edo besteak erretzeko.

Helbura ez da gu geu sagardogile izatea bainan gure ondarea babestea.

11.2.- KUPELA SAGARDOTEGIA

Hendaia Ipar Euskal Herriko ordezkaria izan bada Bidasoko sagardoaren kulturaren partaide delako, aipamen berezia merezi du sagardoak Baionan, Lapurdiko hiriburuan, duen presentzia, liburu honen geografiatik kanpo badago ere.

Izan ere, 2015. urtetik aurrera, Kupela sagardotegiaren abentura dugu aiduru Aturri ibaiaren bazterrean. Kupela euskal hiri enblematikoan sagardoa ezagutarazteko eta dastatzeko sortu zen.

Kupela sagardotegiak lortu du sagardoaren antzinako kultura eta modernitatea uztartzea sagardo produktuetan oinarrituz. Sagardo horiek Astigarragan onduak dira Euskal Herri osoko sagastietako sagarrekin.

Lapurdin ohoratu egiten dute sagardoa sagardotegiko hormak irudiztatzen dituen lelo honekin: «Zer litzateke Euskal Herria, sagardorik gabe?».

SAGARDOA HONDARRIBIAN

Bidasoak bustitzen dituen herri guztietan sagardoa presente badago, Hondarribiko herriak aipamen berezia merezi du gure protagonista *sagar* Hondarribiko bizitzan sustraituta dagoelako, bai sagarraren bai sagardoaren bidez.

Sagar toponimoa oparoa da gure lurretan, argi eta garbi.

Fermin Olaskoaga ikerlariaren arabera, Hondarribiko abizen nagusietako bat da Sagarzazu, nahiz eta ez den beste abizen asko bezain zaharra eta ez den herri askotara hedatu... Ziurrenik Oiartzun aldean sortu zen, Oiartzunen izen hori hala toponimian nola deitura patronimikoetan jasotzen duen dokumentazioa bai baitago XV. mendearen amaieratik aurrera.

Fermin Olaskoagaren hitzetan,

> *hasta comienzos del siglo XVIII son muy pocos los pueblos donde se encontraban personas de este apellido, y mayormente se circunscribían a la comarca de Oarso-Bidasoa, por ejemplo, en Errenteria desde 1610, en Irun desde 1631 y en Hondarribia desde 1650. El «patriarca» de la primera generación en Hondarribia: Pedro Sagarzazu, nacido hacia 1580 en Oiartzun, en 1649 era carbonero y vivía en el caserio Zigarroa de Jaitzubia. Fuera de nuestra comarca se encontraban unas pocas familias, algunas de las cuales hemos podido entroncar con familias procedentes de Oiartzun. Así, encontramos familias Sagarzazu en Orio desde 1603, en Usurbil desde 1625, en Eskoriatza desde 1628, en Villabona-Amasa desde 1668 y en Azpeitia Urrestilla desde 1697... En las partidas de bautismos de los libros sacramentales de Hondarribia hemos recogido todas estas variantes en su grafia: Sagarçaçu, Sagarçasu, Sagarsasu, Sagarsazu, Sagarzasu, Sagarzazu, Zagarsazu, Zagarzasu, Zagarzazu. También debemos de citar que existe la forma Sagartzazu como la grafía académica actual adoptada por la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia (Real Academia de la Lengua Vasca).*

12.1.- JASOKUNDEKO ETA SAGARRONDOKO ANDRE MARIA

Dokumentu idatziek egiaztatzen digutenez, Erdi Aroan, «Santa María», eta, inoiz, «Santa María de Castro» izena izan zuen Hondarribiko elizak.

1299koa da berme historikoa duen Hondarribiko elizari buruzko lehenbiziko testigantza. Hondarribiko parrokia elizarena den dokumentu horrek, gaur egun Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoan gordetzen bada ere, izenburu hau du: *Relación de los capellanes mayores de esta Parroquia, vicarios y beneficiados, que da comienzo el año 1299 y fin en 1658.*

Vatikanoko Artxiboan Hondarribiko elizari buruzko hiru dokumentu gordetzen dira, Vatikanoko katalogoetan beren izenburuekin aipatuko ditugunak:

Lehenengoan, 1310ekoan,

> *Clemente V concede a Esteban de Gardiga, prebendario perpetuo, el poder acceder al beneficio perteneciente al obispo de Tarbes (Francia), cuando quede vacante en la misma ciudad y diócesis, aunque aquél posea otra prebenda perpetua en la iglesia de Santa María de Fuenterrabía, diócesis de Bayona.*

Bigarrenean, 1328koan,

> *El papa Juan XXII reserva una ración perpetua de los beneficios pertenecientes al racionero de la iglesia calagurritana en favor de Esteban Sánchez de Uranzu, clérigo de la diócesis de Bayona, aunque tenga otras partes de prebendas en las iglesias de Santa María de Fuenterrabía y de Irún, siempre en la diócesis de Bayona.*

Eta, azkenik, hirugarrenean, 1462koan,

> *El papa Pío II concede al obispo de Bayona el indulto de desmembrar la iglesia rural de Santa María de Irún de la iglesia parroquial de Santa María de Castro, de Fonteranda (Fuenterrabia), y de erigirla en parroquia, excluyendo toda interferencia de parte de la parroquia madre, ahora que la zona de Irún ha crecido considerablemente.*

«Jasokundeko» izena Hondarribiko artxiboko 1625eko dokumentu batean dago jasota. Geroago, 1646an, «eta Sagarrondoko» gehitu zitzaion, Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoko dokumentuan egiaztatzen denez. 1754ko kontu liburuan aipatzen dira «cinco libras de cera blanca en velas, que se pusieron delante de Nuestra Señora del Manzano».

Historian barrena asmatutako izenak gorabehera, Meltxor Errazkin Sorondo alkateak oraindik ere Santa Maria Eliza erabiltzen zuen 1913an.

Antzeko zerbait aurki dezakegu elizako dorreari dagokionez. Dokumentu zaharrenean kanpaiaren izena dago jasota, «Santa María», baina haren arrastoa galdu egin zen denboraren joanean, eta «Trinidad» eta «Olegario» izenak izan zituen.

Antzinatasun handikoa izaki, Castrojerizko (Burgos) Santa María del Manzano kolegiata aipatu behar dugu, Ama Birjina gurtzeko XIII. mendeko irudia duelarik. *Burgospediaren* arabera, «La Virgen del Manzano era la preferida de Alfonso X «el Sabio» que alabó en sus Cantigas la imagen labrada en piedra que se puede contemplar en la Colegiata de Castrojeriz, localidad esta de la cual además es patrona». Aurrera egingo dugu Wikipediaren datuekin:

> *Antes de llegar el peregrino a Castrojeriz, divisa a la izquierda la imponente presencia de la Colegiata de Nuestra Señora del Manzano, advocación que ya existía en tiempos del conde Garci Fernández en un templo con cabildo regular, que fue agregado a la mitra burgalesa el año 1068.*

Beraz, aipatutako iturrien arabera, badugu Sagarrondoko Andre Maria bat XI. mendean, orain dela ia 1000 urte.

Vatikanoko Artxiboan gisa honetan enuntziatutako dokumentu bat (Avignon, 1394ko urriak 21) kontsulta daiteke:

> *El papa Benedicto XIII concede a Juan Martínez de Vallunquera, canónigo de la iglesia de Santa María de Valladolid y bachiller en decretos, la canonjía en expectativa de prebenda en dicha iglesia, con valor anual de treinta libras tornesas, siempre que renuncie a la capellanía perpetua recibida con anterioridad en la iglesia de Santander, en la diócesis de Burgos. El pontífice lo comunica a los arcedianos del Alcor y Carrión, en la diócesis de Palencia, y al chantre de Santa María del Manzano, cerca de Castrojeriz, en la diócesis de Burgos.*

Gipuzkoan, Juan San Martinen arabera (*Hondarribia*, 18. zk.), 17 Andra Mari dira sagarrarekin. Hona hemen zerrenda, aita Lizarralderen *Andra Mari* liburutik (1926) hartua.

> *San Adrian ermitakoa Aizkorrin, Iruetxetakoa Zegaman, Uriartekoa Elgetan, Arratekoa Eibarren, Santutxu Uribarrikoa Oñatin, Izaskungoa Tolosan, Lazkaoko parrokian dagoena, San Prudentzio ermitakoa Lazkaon, Buiñondokoa Bergaran, Antiguakoa Antzuolan, Gurutzetakoa Idiazabalen, Dorletakoa Leinzko-Gatzagan, Santilaurente ermitakoa Aretxabaletan, Zikuñagakoa Ernanin, Altzugaratekoa Altzagan eta Loinazkoa Beasainen. Arte estiloz, gehienok gotikoak dira, beraz, XIV eta XV. mendeetan kokatzekoak. Baina, zer adierazten du sagar horrek, bere sa-*

beleko fruituaren sinboloa baizik? Orain Hondarribiko Santa Maria parrokiko altare nagusian dagoen Andra Mariaren irudia harroko estilokoa da, oso ederra benetan, XVII. mendean Italiatik ekarria. Argi dago sagarra duela eskuan.

Hego Amerikan, Iñaki Egañaren hitzetan,

en el Convento de san Francisco de Lima se venera una imagen conocida popularmente como la Virgen de la Manzana, que no es otra que la de Arantzazu... La copia llegó en 1646. Desde entonces es venerada y debe su nombre a que los fieles llevan manzanas para que sean bendecidas. Esas mismas manzanas luego se utilizan para que los enfermos las coman y sanen.

Nuestra Señora del Manzano arrantza ontzia: 1955ean Mutrikuko Egaña ontzitegian egina. Folioa: SS-1-1843 Matrikula: Pasaia. Motorra: 200Hp. Marka: Echevarria. Luzera: 18,30; Zabalera: 5,27; Puntala: 2,58. Patroia: Federico Aguirre Sorondo.

Geroago, Berriz Nuestra Señora del Manzano: Folioa: SS-1-2177. Matrikula: Pasaia. Motorra: 900Hp. Marka: Mitsubisi. Luzera: 27,60. Zabalera: 6,72. Puntala: 3,35. Patroia: Federico Aguirre Sorondo (1968-1984).

19.2.- HIPOTESI ARKEOLOGIKOA

Pia Alkain arkeologoak Pampinot eta Eguzki kaleetan bideratutako indusketa arkeologikoari buruz idatzitako txostenean jasotako hipotesi baten arabera, baliteke Hondarribian XIII. mendeko dolare bat izatea:

A lo largo del proceso de excavación se ha podido registrar una serie estratigráfica compuesta por más de 00 contextos o unidades estratigráficas, siendo casi la mitad de ellos elementos lígneos (postes de madera, pequeñas estacas o conjuntos de madera formando estructuras de gran porte).

Dentro del conjunto de maderas localizadas en la excavación destaca el registro de dos estructuras de madera de notables dimensiones y varios conjuntos de estacas, asociados todos ellos a los depósitos de época medieval, conservándose la mayoría de estos restos en buenas condiciones. Las dos construcciones de madera, que corresponden a ingenios de características similares, están formadas por un pilar central y una retícula de tablas y vigas dispuestas en cuatro niveles diferentes alrededor del mismo.

Las primeras hipótesis planteadas para la identificación de estas estructuras están relacionadas con las actividades propias de un lagar o prensas de uva; sin embargo, serán las investigaciones en curso sobre todos los elementos hallados durante la intervención las que podrán aclarar o descartar la finalidad de los elementos localizados.



12.3.- TXAKOLINA/SAGARDOA BINOMIOA

Esan beharrik ez dago Hondarribian *txakolina*/sagardoa bikotekideen artean txakolinak jasotzen dituela ohore handienak. Izan ere, txakolinaren jatorri deitura, ia mundu osoan, *hondarribi txuri* eta *hondarribi* beltz izeneko barietateek zehazten dute. Bi mahats barietate horiek Hondarribia izena eraman dute, eramaten dute eta eramango dute munduko maila handiko gastronomiara. Besteak beste, puntu horretaraino iritsi da Hondarribia toponimia nazioarteko geografiako lurretan barrena.

Dokumentazioaren arabera, Hondarribian, bi produktu horiek, txakolina eta sagardoa, batera izan dira Erdi Aroaz geroztik gau egun arte. Mahatsa eta sagarra Hondarribiko nekazaritzaren testigantzak dira, nahiz eta ez duten lortu, sektore osoaren izenean, Hondarribiko armarriko sinboloen artean egoterik, sinbolo militarrekin (alde zaharra), arrantzakoekin (Portua) eta erlijiosoekin batera.

Hondarribiko hiribilduaren armarrian nekazaritza sektorea bi mahats mordorekin irudikatzeko saiakera antzua (1604)

Historiaren gorabeherak, zenbaitetan, bide bitxietatik igarotzen dira. Hondarribiak, *txakolina* egiteko mahatsaren sehaska izaki, jokabide berezia izango du *txakolina*-sagardoa bikote harremanean.

Sagrario Arrizabalaga eta Lourdes Odriozola historialariek gertatutakoa ulertzeko arrastoak ematen dizkigute. Erdi Aroan, mahastiak uzta garrantzitsuak ematen hasi ziren, eta XVI. eta XVIII. mende bitartean maila gorenera iritsi ziren, gau egun gertatzen den pareko mailara, eta Hondarribian ere garrantzitsua izan zen ekoizpena.

Txakolinaren goraldia Gipuzkoako kostaldean geratu zen, baina,

> *en Hondarribia, la documentación de archivo apunta a que las invasiones francesas del siglo XVI y la consecuente destrucción de las viñas, marcaron el inicio del declive de este tipo de cultivo, pues se observa un claro predominio del manzano a partir de dicha centuria... Es cierto que quedaron algunas viñas diseminadas, pero... las ya escasas referencias a viñedos desaparecen de la documentación a lo largo del siglo XVII en que este tipo de cultivo se puede dar por desaparecido... En la década de 1720, la producción de vino había sufrido un fuerte retroceso frente a la sidra y los cereales... ¿Cuáles pudieron ser las causas de la desaparición de las antaño prósperas viñas hondarribiarras? En nuestra opinión, si la invasión de la segunda década del XVI fue determinante y marcó la crisis del sector vitícola, fue el terrible sitio a que fue sometida esta plaza en 1638 el que habría determinado el abandono definitivo del cultivo de la vid.*

Sagrario Arrizabalagak eta Lourdes Odriozolak Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan (GPAH) bildutako XVI. mendeko dokumentu batzuek jakinarazten dute aldi berean daudela sagastiak eta mahastiak.

1525eko ekainak 24: Saubat Ibarguen eta María Beltrán de Alcayagaren arteko ezkontza agiria. Senargaiak ondasun propiotzat aurkeztu zituen mendi bat eta gisa honetako lurrak: «solían ser bina e mançanal en el lugar de “Los Hornos”».

1566ko martxoak 26: Sainduatik Magdalenara zihoan bide publikoan Antonio de Ubillak zeuzkan mahastien eta sagastien alboko sagasti baten salmenta.

1573ko urtarrilak 20: Pedro de Legasa eta Catalina de Iraugiren sagastien trukea, Arkollan. Sagasti horietako batek muga egiten zuen Juan Martínez de Oñatiren mahastiarekin.

1590eko maiatzak 15: Juan de Ubillak Esteban Arambururen alde fundatutako errolda. Sagasti bat hipotekatu zen «La Roca» zeritzon aldean, Catalina de Gamboaren mahastiarekin mugakide.

1568ko abuztuak 15-18: Martín Abadía eta Gracia de Benesaren arteko ezkontza agiria. Ezkonberriek, besteak beste, baserri bat, dolareak, mahastiak eta Labetako barruti bateko sagastiak jaso zituzten dote gisa.

1587ko ekainak 5: Martin de Aldunbek Juanes de Leguíari saldu zizkion mahastia eta sagastia beren mahatsondoekin eta sagarrekin. Labureder aldean zeuden, eta sagastiek inguratuta zeuden alde guztietatik.

1578ko urriak 5-27: Amador de Benesaren emazte Gracia Ibáñez de la Plazak Domingo Echeandíaren alde fundatutako erroldaren eskritura. Martin Sánchez de Zuloagaren sagastiaren alboko lursail bat hipotekatu zen Juan Martínez de Oñatiren mahasti batekin.

1590ko apirilak 5-28: Sancho de Unzaren baserriaren salmenta, bere lurrekin, mahastiarekin, soroekin eta hiribildutik eta Laburederreko iturritik aurrera Guadalupera zihoan bidearen eta, behetik Muliatera egiten zuen bidezidorraren ondoko sagastiarekin.

Sagardoaren merkataritzan, Hondarribian ezin esan daiteke sagardoa esportatu zenik. Izan ere, hiribilduak XVI. mendean salerosi zituen produktuen artean bazen sagardorik, baina batez ere Frantziatik (Arroxela eta Bordele –baita txakolina ere–), Nafarroatik, Rivadaviatik, Portugaldik (Caparicako ardoa Ternuarako bidaietarako) eta Andaluziatik inportatutako ardoak baino askoz ere gutxiago. Andaluziarekin lotuta, *In Dei nomine* liburuaren egile Denis Álvarez Pérez-Sostoak eta Iñaki Garrido Yerobik Martin Sanz de Labordaren testamentua aurkeztu dute, Hondarribitik esportatutako sagardoari buruzkoa da.

Hondarribiarrek eta hiribilduan finkatutako soldatuek edaten zuten sagardoa aldi berean zen bizigai Ternuara bidaiatzen zuen ontzietan. Hala gertatu zen 1571n: Tomas Landergorrietak Hondarribian ekoitzitako sagardoa erosi zuen Ipar Atlantikora bakailaoa harrapatzera zihoan *Santiago* ontzia bizigaiez hornitzean.

Kontrakoa gertatu zen bost urte lehenago, Ana Benitoren arabera. 1566an, «ubo muy poca sydra de la cosecha de la dicha villa este presente año y ansy ay mucha falta de sydra en ella para se poder probeer». Horrexegatik, Hondarribian zamatzen zuten ontziek inportatu behar izaten zuten sagardoa, Penautin de Berero ziburutarrak egin behar izan zuen bezalaxe: «Trae para su beberaje de un navío que tiene en el puntal y Ribera desta villa para nabegar para Tierra Nueva treze botas de sydra».

Hondarribian ekoizten zen sagardoa ez zen esportatzeko bezainbestekoa, eta, batzuetan, inportatu beharra zegoen.

Frantsesek Hondarribia okupatu zuten denboran, 1719ko ekainaren 19tik 1721eko abuzturen 22ra arte, kanpoko sagarra ekarri eta ordaindu behar izan zen, eta ordaindu behar izan ziren, era berean, 1720an hiribilduan saldutako txakolinen gaineko zergak, horri guztiari diruaren balioaren gorabeherak gehitu behar zaizkiolarik. 1723ko kontuetan ere hainbat pertsonak saldutako 254 txakolin upel aipatzen dira. *Txakolinaz* gain, ardoaren eta pattarraren salmenta aipatzen da.

1721ean zahagi bat ardo nafar oparitu zitzaion herriaren kontura plazako gobernadore Bousquet jaunari.

Hondarribiko artxiboko kontu liburuei esker, janariarekin eta edariarekin lotutako datu garrantzitsuak dauzkagu. Edarien artean, *txakolina* eta sagardoa nabarmentzen dira. Lagin gisa dugu 1721eko apirilaren 22an egindako «sagardo kupelen» errolda: : Jose Saenz Izquierdo (2) - Frantzisko Saenz izquierdo (1) – Blanca Saenz Izquierdo (2) – Dionisio de la Portilla bikarioa (5) – Juan Bautista Iriarte (8) – Felipe Alkaiaga Salzedo (5) – Lazaro Oronoz (2) – Juan Izazio Agirre (5) – Dionisio Artzu (1) – Juan Antonio Diaz Zamorano (1) – Gabriel Alberro (1) – Luzia Arburu (1) – Pedro Inazio Zuloaga (5) – Frantzisko Antonio Casadevante (8) – Juan Frantzisko Iriarte (5) – Lazaro Castillo (1) – Katalina Arburu (1) – Andres Albirena (1) – Antonio Iantzi (1) – Frantzisko Ladron de Guevara (5) – Jaziznta Calatayud (1) – Juan Basterretxea (4) – Josepa Peredo (2) – – Alkate Jauna (8) Agustina Justiz (2) – Josefa Butron (2) – Jose Zuloaga (3) – Jose Iriarte (1) – Jose Mendinueta (2) - Katalina Iribarren (1) – Felix Huarte eta anaia (4) eta Ana Maria Fernandez (1).

12.4.- DATU HISTORIKOAK ARO MODERNOAN

Sagardoaren munduarekiko lotura historikoa bilatzen duen liburu honetan, geure artxiboetan eta batez ere Hondarribikoan dauden dokumentu kopuru handia kontuan harturik, behartuta gaude ezagutza eta zabalkundea eskaintzen dituzten horiek aukeratzera, eta ikastunak animatzen ditugu jarraian eta bibliografian adierazitako dokumentuak kontsultatzera. Horixe da orrialdeotan aurkeztuko duguna, sagardoaren munduak Aro Modernoan irudikatzen zuena uler dezagun.

- 1529. urtea: Esteban de Landa hondarribiarraren adlitem prokuradore Juan López Sánchezek egindako izapideak, hari zegokion herentziarekin lotua, bereziki Arguioko errotari, dorreari, errioari eta sagastiei dagokienez, eta adin txikikoaren aita Juanes de Landak jabetzan izan zuen errota horretako haltzadiei dagokienez.
- 1531ko urtarrilaren 18ko akta: Pedro Sanchez de Alçayagaren etxean upel bat sagardo saltzeko baimena. Epaileen baimena jaso zuenez, hasitako upel bat sagardo zazpi arditetan saltzeko baimena ematea adostu zen, baina gehiago saltzeko debekua ezarrita. Zehapena Pedro Sanchez de Alçayagaren tabernariari legez kanpoko sagardoa saltzeagatik. Pedro Sanchez de Alçayagaren tabernariari dobla erdiko isuna jarri zioten sagardoa saltzeagatik, Kontzejuak salmenta berariaz debekatu zuenean.
- 1531ko otsailaren 15eko akta: Ardoak eta sagardoak baimenik gabe eta errejidoreek gainbegiratu gabe saltzeko debekua. Parrokiak meza nagusia esan bitartean ardoa eta sagardoa legez kanpo saltzen zirela salatu ondoren, berretsi egin zen produktu horiek errejidoreek baimendu eta dastatu gabe saltzeko debekua, errejidoreek haien kalitatea eta prezio egokiak egiaztatu behar baitzituzten. Araua ez betetzeagatik urrezko dobla bateko zehapena ezarriko zen aldiro-aldiro.

Ardoak legez kanpo saltzeagatiko kasu batean deklaratzeko deia. Agindua eman eta biharamunean, Migel Sanchez de Benesari eta Catalina de Arryetari dei egiteko erabakia hartu zen deklaratu zezaten, haietako bakoitzaren ardandegietan Bordeletik iritsi berriak ziren ardoak saldu zituztelako Kontzejuaren baimenik eta oniritzirik gabe. Onartu zen zigorrik ez jartzea haien alegazioak entzun arte, baina epailearen aurrean agertu ezean Hiriko ordenantzetan jasotako zigorrak aplikatu zitzaizkien.

- 1531eko apirilaren 26ko akta: Maria de Gamboari, Lorenço de Gamboa zenduaren alabari eta Maria Martin de Caycueguiren tabernariari, dobla erdiko isuna jarri zioten betearazle leialen agindua ez betetzeagatik sagardoen salmentari dagokionez, arrazoi berberagatik egona baitzen espetxean.

- 1575eko urtarrilaren 12ko akta: Garia, olioa, ardoa eta gisakoak salerosten zutenek kontzejutik pasatu behar zuten neurriak alderatzeko, 6 errealeko isuna ordaindu eta espetxean bi egun eman nahi ez bazuten. Alargun bati 6 errealeko isuna jarri zioten sagardoa baimenik gabe saltzeagatik edukiaren herena ura izanik. Beste emakume bati 8 errealeko isuna jarri zioten sagardoa baimenik gabe saltzeagatik edukiaren erdia ura izanik.
  - 1575eko apirilaren 13ko akta: Beste emakume bati 16 errealeko isuna jarri zioten sagardoa baimenik gabe saltzeagatik edukiaren erdia ura izanik.
  - 1576ko urtarrilaren 4ko akta: Debekatu egin zuten Nafarroako eta Bordeleko ardoa saltzea hiriko uzta agortu arte, eta berdin kanpotik ekarritako sagardoen kasuan.
  - 1579ko urtarrilaren 3ko akta: Olio, ardo eta sagardoaren, lakariaren, egurraren, kobrearen, burdinaren, pisuen eta balantzen eta abarren neurriak aipatzen dira.
  - 1581eko azaroaren 3ko akta: Txakolinak eta sagardoa aipatzen dira.
  - 1584ko uztailaren 18ko akta: Ardoen, gariaren, sagardoaren eta olioaren neurriak eta hainbat bizilagunen pisuak eta balantzak erkatu ziren.
  - 1587ko ekainaren 17ko akta: Debekatu egin zen urteko sagardoa hiribildutik ateratzea, urri zelako eta haren premia handia zelako, sagardoa galtzeko zigorra eta 2000 marabedi-ko isuna jaso nahi ez bazen.

- 1587ko urriaren 21eko akta: Sagardo uzta eskasa izaki, ura gehitu zitzaion, eta prezioak zehaztu ziren gehitutako ur kantitatearen arabera.
- 1588ko irailaren 5eko akta: Sagardoa garraiatzeko upelak neurtu eta erkatu ziren.
- 1588ko azaroaren 20ko akta: Sagardoaren prezioak zehazten dira (erreal erdia bi azunbreko pitxerrak).
- 1590eko urtarrilaren 3ko akta: Debekatu zuten hiriko uztatik eratorriak ez ziren ardoak eta sagardoak saltzea.
- 1590eko abuztuaren 29ko akta: Batzuek ordenantzak bete gabe jarraitzen zuten ardo eta sagardo arrotzak saltzen jarraitzen zutelako. Sagardoari urik ez emateko agindua eman zuten.
- 1592ko urtarrilaren 15eko akta: Sagardoari urik ez emateko agindua, 1000 marabediko isuna ordaindu nahi ez bazen.
- 1592ko abuztuaren 12ko akta: Inork ez ziezaiola sagardoei ura erantsi, inork ez zezala saltzeko sagardo txarra egin, eta inork ez zezala kanpoko sagardoa ekarri, ekartzekotan kalean isuriko baitzuten, eta ez ziezaiotela urik gaineratu beste leku batzuetara (Ternua, Andaluzia, Portugal, Galizia, ...) eramatekoa zen sagardoari, upel bakoitzeko 10.000 marabediko isuna jaso nahi ez bazen. Gainera, alkatearen aurrean zinpeko adierazpen bat egitera behartzen ziren.
- 1593ko urtarrilaren 27ko akta: Sagardo bat ere ez zedila tabernan saltzen hasi Kontzejuak ura zuen jakiteko aztertu arte, 1.000 marabediko isuna eta 10 eguneko espetxe zigorra jaso nahi ez bazen.
- 1593ko martxoaren 24ko akta: Oraindik ere bazirela urez nahasitako sagardoa baimenik gabe saltzen jarraitzen zuten auzotarrak.
- 1594ko azaroaren 10eko akta: Debekatu zuten hiriko uzta bildu bitartean ardoak eta sagardoak saltzea.
- 1595eko azaroaren 12ko akta: Sagardo berria saltzen hasi aurretik, aurreko urteko sagardo guztia saltzeko agindua.
- 1596ko urtarrilaren 3ko akta: Kanpoko ardoa eta sagardoa saltzeko debekua, bertakoa saltzen ez zen bitartean.
- 1596ko otsailaren 7ko akta: Zigorrak ardo eta sagardo arrotzak saltzeagatik.
- 1596ko martxoaren 25eko akta: Dekretuz agindu zen bakoitzak bere sagardo zaharra edo berria saltzeko, ez zegoelako ordenantzarik, ohiturarik edo pribilegiorik sagardo zahar guztia saltzeko itxaron beharra zegoela agintzen zuenik, aurreko urteko agindua ezerezean utzirik. Kontzejuak dastatu eta prezioa ezarri behar zuen.
- 1596ko martxoaren 27ko akta: Berretsi egin zen nork bere sagardo zaharra edo berria saldu ahal izatea, sagardo zahar guztia saldu arte itxaron behar izan gabe.
- 1596ko urriaren 16ko akta: sagar zamak garraiatzeko marregazko zakuak eta sagardoa eta txakolinak garraiatzeko upelak kontzejura ekartzeko agindua, horiek neurtzeko eta erkatzeko, 500 marabediko isuna jaso eta ontzi horiek betikoz galdu nahi ez bazituzten.
- 1596ko azaroaren 20ko akta: Txakolingileek eta sagardogileek, behin uzta bildu ondoren, kontzejuari eskatu zioten edari horiek salgai jarri ahal izateko tasa eta prezioa finkatu zitzala.
- 1597ko urtarrilaren 8ko akta: Debekatu zuten hiriko uztatik eratorria ez zen sagardoa saltzea.
- 1602ko urtarrilaren 9ko akta: Inor ez zedila ausartu ardo eta sagardo arrotzak saltzera hiriko uzta agortu arte, bestela kalean isuriko zen eta 10 eguneko espetxe zigorra eta 600 marabediko isuna ezarriko zen araua urratzen zen bakoitzean.
- 1603ko urtarrilaren 6ko akta: Adierazi zen auzotar guztiek ordaindu zituztela gari, artatxiki, garagar eta beste hazi batzuei eta aziendari, sagardoari eta txakolinari zegozkien zergak, eta erabaki zen bigarren zerga bat sortzea Zarauzko etxearen aurkako auzia, hainbat urte jardunean zeramatzan kapera nagusiaren defentsan, ordaintzeko.
- 1603ko ekainaren 9ko akta: Hainbat salgairi aplikatutako tasak adierazi ziren, hala nola arrainei, olioari, eztiari, ardoei eta sagardoei aplikatutakoak.

- 1603. urtea: Martin de Juztiz hondarribiarraren informazioa eta eskaera, egiaztatuz itsasontzi baten jabea zela Donostiako portuan eta kaian, eta ontzi horretan 20 upel sagardo sartu nahi zituela, sagardo hori Hondarribiko bere uztako sagarrekin egindakoa zelarik.
- 1606ko uztailaren 27ko akta: sagarrentzako zakuak eta sagardoarentzako upelak neurtzeko agindua.
- 1606ko irailaren 27ko akta: Lehortea eta sagar eskasia zirela eta, erabaki zen sagardoa egiteko karga bat ur erantsi ahal izatea lau karga sagar bakoitzeko.
- 1609ko irailaren 9ko akta: Sagar uztaren eskasia zela eta, baimendu egin zen muztioari laurden bat ur gehitzea, ez gehiago, sagardoa egiteko.
- 1610eko urtarrilaren 27ko akta: Bizilagunek etxean zuten sagardo kantitatea berrikusi zen.
- 1610eko abuztuaren 25eko akta: Sagardoari ura eransteko debekua.
- 1611ko martxoaren 30eko akta: Hiriko bizilagun batzuek erabiltzen zituzten neurriak (ardoa, sagardoa, pisuak, balantzak eta abar) erkatu zituzten.
- 1614ko abuztuaren 3ko akta: Sagardoari heren bat ur gehitzea baimendu zen uzta handiagoa izan zedin.
- 1615eko abuztuaren 12ko akta: Debekatu zen errekastoetan lixiba jotzea, uzta txarra izaki dolareetan ura gehitu behar baitzen sagardoarekin nahasteko; bestela, 6 errealeko isuna eta 8 eguneko espetxealdia.
- 1622ko martxoaren 30eko akta: Adierazi zen negua hiriko portuan ematen zuten ontzi frantsesek beste arrantza gune batera abiatu aurretik zamatu beharreko sagardoaren edo ardoaren erdia hiriko uztakoa behar zuela izan, 1621. urtean erabakitakoaren arabera.
- 1622ko azaroaren 29ko akta: Donibane Lohizuneko marinelek baimena eskatu zuten beren itsasontziek negua Hondarribiko portuaren babesean eman zezaten. Eskaera onartu egin zen baldin eta Ternuarako eta Norvegiarako bidaietan eraman beharreko edariaren kargaren erdia Hondarribiko sagardoa edo txakolina bazen, ez beste inongoa.
- 1635eko urtarrilaren 10eko akta: Adierazi zen sagardo uzta 20 kargatik gorako 80 upelekoa eta 20 kargatik beherako 20 upelekoa izan zela.
- 1635eko abuztuaren 29ko akta: Sagar uzta oso eskasa izan zenez, sagardoari laurden bat ur gehitzeko baimena eman zen.
- 1639ko abenduaren 25eko akta: Auzotarren eta kanpotarren sagardo upelen zerrenda zehatza.

Frantsesek Hondarribian ezarritako setioak (1638) eragindako galerak era guztietakoak izan ziren: giza galerak eta galera sozialak eta ekonomikoak. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan jasotako dokumentu batzuk aipatuko ditugu erakusgarri:

- 1640an, Joan de Iparraguirrek bere Mayncia-tegui (Jaitzubia) etxean bi zurgin maisurekin egindako obra jaso zuen eskritura batean, eta dokumentu horretan, Gabriel de Abadia eskribauaren aurrean izapidetuan, aipatzen da 1638ko setioan Condé printzearen oste frantsesek etxe asko erre zituztela, horien artean berea.
- 1643an, Magdalena de Burgoaren heriotza tarteko (Magdalena Martin de Justiz kapitain zenduaren emaztea zen) ondasunen inbentarioa egin zenean, honako hauek adierazi ziren: Hondarribian zuen etxe nagusia, Sainduako baserria bere sagastiekin eta dolareekin, hiribildutik gertu, mendi landu gabe bat Txiplaon, sagasti gazte batekin eta etsai frantsesak 1638ko gerran eta setioan erretako eta lur jotako errota batekin, errota berria Justizen, oinetxe horretako jaunarekin erdibana, hori ere 1638an etsaiak erretakoa eta suntsitutakoa, hainbat baratze eta aziendarentzako borda bat, 1638an erretakoa eta txikitutakoa, hilobiak Hondarribiko elizan, altzariak eta hainbat tresna.
- Bada 1635eko ondasunen zerrenda bat, Martin de Justiz zendu zenean egindakoa. Inbentario horren ertzean badago iruzkin bat, ondorengo data batean egindakoa, eta bertan adierazten da etsai frantsesak, 1638an, Sainduan zuen etxetik eraman zituela munduaren sorreraren zapi egunak irudikatzen zituzten zazpi margolan, Flandrian moldatutakoak.
- 1712. urtea: Udaleko sindiko prokuradore nagusiaren eskariz bertako justizia arruntaren aurrean izapidetutako autoak, 1711ko sagardo uztari erantsitako ur kantitatea ikertzeari buruzkoak.

12.5.-
FELIPE V.AREN ORDENANTZA (1701)

Bada balio historiko handiko dokumentu bat, Hondarribian sagardoari buruzko legedian mugarri izandakoa inolako zalantzarik gabe: Felipe V.a Adoretsua Espainiako erregearen 1701eko ordenantza. Versallesen sortua, hamazazpi urte zituenean inauguratu zuen Borboi leinua Espainian. Leinu horrek, errepublikaren bi aldietan izan ezik, espainiar estatuko buruzagitza du orain arte.

Felipe V.ak, bere agintaldiaren lehenbiziko urtea amaitutakoan, 1701eko azaroaren 17an, Hondarribiko sagardo uzten funtzionamendua arautzeko ordenantza berri bat sinatu zuen Madrilen. Sagardoen («sagarraren uztatik egiten den ardoaren fruitua») salmenta ez zenez 1638tik hiri titulua zuen Hondarribiarrentzat eta bertako biztanleentzat onuragarria, Kontseiluan hitzartu ondoren erregeari eskatu zioten haiek erabakitako arauak (1701eko irailaren 26an) sina zitzala, arauak «derrigor» bete zitezen.

Argiak dira Udala ordenantza berriaren hamaika kapituluak ezartzera eraman zuten arrazoiak:

> *El mal despacho y pérdidas que se experimentan en la mala forma que se practica en la venta de las sidras de toda la cosecha de esta ciudad y el perjuicio que recibe el pueblo del exceso que cometen los cosecheros en echar agua a las sidras cautelosamente, y en la extracción de la manzana fuera de esta jurisdición y en la introducción de la de fuera.*

Hona hemen hamaika kapituluen zerrenda, modu irakurgarrian bereizia eta transkribatua.


Ordenanza original en que se dictan reglas para beneficiar y despachar la cosecha de Sidra de esta Ciudad Confirmada por el Rey Don Felipe en Madrid a 17 de Noviembre de 1701

Jean Ranc, Espainiako Felipe V.a, Prado Museo Nazionalean. Irudia Wikimedia Commons-etik hartua. Erabilera publikoa.

> *1.º: Todos los años personas prácticas inspeccionen toda la manzana, tocante a sus naturales, habitantes y moradores. Todas las sidras se hagan puras, sin que nadie ose de echarle agua, pero no habiendo manzana bastante para hacer puras las sidras, pueda la Ciudad arbitrar el agua que se ha de echar o autorizar manzana de fuera.*
>
> *2.º: No sacar fuera ninguna manzana ni sidra, a menos que no se considerare que pueda sobrar y, siempre, con licencia de los alcaldes.*
>
> *3.º: Las sidras traídas de fuera se venderán después a las de la cosecha de los de casa.*
>
> *4.º: No se puedan envasar sidras para vender extramuros de la ciudad, pero se puedan llevar por cargas a otra feligresía, mientras estuvieran en venta dentro de los muros.*

5.º: Todas las sidras a vender el mismo año tengan el mismo precio y tasa, según la calidad de la primera, segunda y demás cosechas.

6.º: Las sidras que se hubieren de vender se envases en cubas y vasijas bien dispuestas y, si por culpa de los dueños, tuvieren defecto y se estropease la sidra, se traten de vender a un nuevo precio, según su calidad.

7.º: Hasta que no se consuman todas las sidras envasadas para vender, no se permita poner a la venta las de la nueva cosecha.

8.º: Que envasadas intramuros de la ciudad todas las sidras de los vecinos intramurales y extramurales se haga cálculo de todas las cubas para vender y, posteriormente, las que se trajesen de fuera.

9.º: Nadie sea osado a poner en venta sus sidras sin que primero preceda la cata y declaración jurada de si se han hecho puras o aguadas.

10.º: Si a alguna de las cubas o basijas se le ha soltado el arco por accidente, lo reconozcan los peritos y, de no haberse perdido, se pueda vender en la tanda que le corresponda, sin dejar de vender las no dañadas.

11.o: Estas disposiciones prevalezcan sobre cualquier ordenanza anterior, costumbre o fuero, que queda derogada.

Hauexek izan ziren kapitulu horiek zehazteko arduradunak: Francisco Antonio de Ausa, Miguel Antonio de Casadevante, Gregorio de Ambulodi, Pedro de Iriarte, Francisco Saena Izquierdo, Pedro de la Portilla eta Miguel de Santesteban. Lazaro de Oronoz izan zen Hondarribiko eskribaua. Agiria Gabriel de Caicuegui eta José Saenz Izquierdo hiriko diputatuari eta ahaldunei helarazi zitzaien; egiaztapen testigantza Martin de Aguirre errege eskribauak sinatu zuen eta José Gurpegi fiskal arduradunak eman zuen oniritzia.

Ordenantzaren berri Irun herrian eman zen, baina 1701eko azaroaren 3an Alonso Manzanok, hiriaren izenean, Kontzejuari jakinarazi zion Irungoek ez zutela inolako interesik ez motibaziorik kapituluak berresteko izapideetan, arauak hiriko biztanleentzat baino ez baitziren.

Nolanahi ere, sagardoari buruzko ordenantza 1701eko azaroaren 17an onartu eta zigilatu zen.

1701eko sagardoari buruzko ordenantza baliozkotzen duen zigilua.

Guadalupeko 1715eko kontu liburuan jasota dagoenez, Juan de Tabernak eta haren emazte Catalina de Iriberrik Magdalena de Etxeondori ordaindu zioten Saindukoaren ondoko sagasti bat alokatzeagatik.

Udal Artxiboan 1721etik 1750era arteko dokumentu hauek dauzkagu:

Saltzeko sagardoei jarritako prezioak.

Lehenengo sagarrekin egindako sagardoa saltzeko prezioen eta daten zehaztapena.

Bizilagun batzuen erreklamazioak, kontsulta eta irizpena Udalak hartutako erabaki baten baliozkotasunaren inguruan. Erabaki horren arabera, sagardo azunbre bakoitza zilar-kobrezko bost laurdenetan saldu behar zen bai uzta oneko urteetan, bai uzta txarreko urteetan.

Auzotarren arteko zozketak zeuden sagardo kupelak saltzeko.

1745eko martxoaren 18an hirian zeuden sagardo kupelen zerrenda. Data horretan, Hondarribian, sagardo zaharra zeukaten 14 kupel eta sagardo berria zuten 56 kupel zeuden, guztira 70, eta horietatik 27k 30 karga baino gehiago zuten, 5ek 40 karga baino gehiago, eta denetan handienak 48 kargako edukia zuen.

Aldundiaren baimena Frantziako sagarra eta sagardoa ekarri ahal izateko.

Urte batzuk geroagokoak dira, 1760 eta 1832 bitartekoak, beste dokumentu hauek:

Udalak izendatutako batzordearen txostena. Horren arabera, aurreikusten da 1760. urtean sei mila sagardo kargako uzta izango dela, eta ezartzen da uzta biltzaile bakoitzak bildutako sagarren seirenarekin egindako sagardoa heren bat urarekin nahasi daitekeela jendaurrean saldu ahal izateko. Saltzeko egiten den gainerako sagardo guztiek puruak izan behar dute,

garbiak, ur nahasketarik gabeak, eta sagardo puru horiek urez nahasitakoak baino lehenago saldu behar dira. Aldundiaren zenbait jakinarazpen, Udalaren eta Sebastian de Iriarteren artean sagardoei buruz sortutako auzia gainditzekoak.

Urruñan bizi zen Martín de Iturbek bere burua eskaini zuen Hondarribia sagardoz hornitzeko, Frantziako sagarra ekartzen uzten bazioten.

Alderdiko diputatuak aurkeztutako erreklamazioaren ondoriozko informazio irekia Frantzian sartutako sagar kantitatea egiaztatzeko eta Aldundiaren erabakia probintziatik zortzi egunetan sagar horiekin egindako sagardo guztia ateratzeko, Gipuzkoako foruen 21. Tituluko 2. Kapituluan zehaztutakoa urratzeagatik. Erabaki hori geroago arindu egin zen kontuan harturik interesatuek aurkeztutako arrazoibideak, eta, ondorioz, lehenengo aldiz saldu ahal izango ziren sagardo horiek uzta eskasa izandako beste herri batzuetan. Hainbat erreklamazio eta abar.

Hondarribiak Historiaren Errege Akademiari emandako erantzunean (1785) islatzen eta laburbiltzen da sagardoaren gaia: «No suelen ser abundantes las Cosechas que se recogen de Trigo, Aba y Maiz, pero si la de Manzana, que produce la sidra mas esquisita para el consumo del Vecindario».

1721eko diru sarreretan, zilarrezko 20 erreal adierazten dira, Maria Ignacia de Ugarteri «por haver contravenido en la venta de la sidra» ezarritako isunaren ordainketari dagozkio. Diru irteeren kapituluan, 25 errealeko gastua aipatzen da, eta gastu hori «hizieron quarenta y seis hombres en pan, sidra y bacallau, que se ocuparon en la composición de los caminos de Guadalupe y Muliate».

1755eko kontu liburuan, «en su monte concejil mas arriva de la casería de Elvistieta en el barrio llamado Jasquivel» haritzak landatzeko gastuen artean agertzen dira «42 azumbres de sidra para los que lo llevaron a cabo durante tres días».

12.6.- HONDARRIBIKO ANTZINAKO DOLAREAK

Hona hemen Josu Tellabide Azkolainen *Hondarribiko antzinako* dolareak lana.

Hondarribian ziren eta diren dolareen aztarnak eta beraien erreferentziak zerrenda honetan doaz. Beste hainbat tolare garai guztietakoak topatu ditezke azterketa historiko-etnografiko sakon bat eginda.

GOTIKO GARAIKO DOLAREAK (XVI-XVII mendeak).

- Altxakotxiki. Etxearen suradura osoa hartzen zuen, lau bernia zituen eta desagertu zen. Erruinan ezagutu genuen 1995 urtean.

- Zaldunborda. Egiturako habealdi bat osoa (edo bi ez dakigu) mantentzen zituen. Barren aldetik, eian, ikusten ziren 1995 urtean. Baserri eraikina eraberritu zenean desagertu zen 2004an. Ba zuen, aparte burnizko ardatzako dolare txiki bat. 45 urte baziren ez zutela sagardorik egiten.

BARROKO GARAIKO DOLAREAK (XVIII-XIX mendeak).

- Erromeroenea. Dolarearen egitura mantentzen da nahiko egoera kaskarrean. Azpizumilak, dolare zola, kantalerak, urkaren kanalak... mantentzen ditu. Zurezko bi ardatzekoa zen, baina desagertu dira.

BURNIZKO ARDATZA DUTEN DOLAREAK (XIX.XX mendeak).

- Artxu. Ardatza bateko dolare txiki bat da. Gaur burnizko ardatza, zurezko urka edo urkatxoa, patxolak, trumukuak eta ziur aski odiak manntentzen ditu. Dolare lakua eta tina ormigoizkoak dira. Sagarra txikitzeko makina (edo matxaka) hor dago. Eskuz eragitekoa da. 15 urte da ez dela erabiltzen.

- Ogallurretagaraikoa. Ardatza bateko dolare handia. Baserriaren hiru solairu hartzen ditu: ganbara, lastategia eta eia (Ikusten dena behintzat, dena armiarma sareaz estalia dago). Mantentzen du: burnizko ardatza bat, urka haundia zurezkoa, sagarrak txikitzeko makina zurezkoa motor elektrikoz erabiltzen zena, ganbarara igotzeko zurezko eskailerak (handik sagarrak botatzen ziren makinara). Ziiuraski, trasto zaharren artean estalita, trumukuak eta odiak daude. 30 urtetik honera ez da erabili eta herrira garlian garraiatzen zuten sagardoa.

- Txominenea. Desagertua da orain dela 60 urte. Burnizko ardatza bat zuen. Semisarga auzoko baserri guztiek hemen jotzen zuten sagarra.

- Beinborda. Bi ardatzetako dolarea omen zen. Juanito Gonzalez zen nagusia. Ez dakigu gaur ere mantentzen ote den. Baserria aspaldi hutsa dago. Ikertu egin behar.

- Kaikuegi. Ardatza bateko dolarea omen zen eta ez dakigu mantentzen den. Ikertu egin behar.

- Justiz. Ardatza bateko dolarea, Urte asko dela ez zen erabiltzen. Gaur baserriaren atarian dago apaingarri bezala.

- Barrenetxea. Alde zaharreko Ubilla kale inguran zegoen dolare zaharra kendu eta Barrenetxea baserrira pasa zuten, han dolare berri edo modernoa egiteko 1986 urtean. Hamar urte bada hau ere itxi zela eta bertako kupelak eta dolarea desmontatu eta saldu egin zituzten.

12.6.1.- DOLAREA ERROMERONEA BASERRIAN

Asier Agirresarobek eta Josu Tellabidek 2015ean azterlan bat eraman zuten burura, guk liburu honetarako baliatu duguna. Izenburua: "Informe relativo al Lagar de sidra de Erromeronea en Hondarribia".

Iragan 2015eko uztailaren 14an Hondarribiko Erromeronea baserriko sagardo dolarea aztertu ondoren, burura eramandako azterlanaren emaitzak ezagutarazi nahi ditu txosten honek.

Erromeronea baserria Hondarribiko Akartegi auzoan

Bisitaldian, lagun izandako Eneko Altuna udal arkitektoaz gain, gure informatzaileak izan ziren higiezinaren jabeak, Unsain Sagerre anaia-arrebak, Lupe, Rosa Mari eta Xalbador. 1689koa da Erromeronea baserriari buruzko erreferentziarik zaharrena, de Romero baserria aipatzen da.

Erantsitako dolareari dagokionez, ez dago haren erabilerari buruzko aipamenik, baina bere ezaugarriak azterturik, XVII. mendearen amaierako edo XVIII. mendearen hasierako eraikina dela esan dezakegu, eta, beraz, baliteke baserriari buruzko lehenbiziko erreferentzia aldian edo ez askoz ere geroago eraiki izana.

Gaur egungo jabeek eta haien arbasoek dolarean sagardorik inoiz egin ez badute ere, beti esan diote tolare.

Jatorrian barnealdeko espazio osoa sagardoa egiteko erabiliko bazen ere, sagarra prentsatzeko guneak oinplanoaren erdia baino pixka bat gutxiago hartzen du. Espazioaren gainerakoa sagardoa kupeletan, upeletan eta barriketan biltegiratzeko eta sagardoa egiteko lanabesak eta tresnak gordetzeko erabiltzen zen, hala nola, sagarrak txikitzeko zapalgailuak, oholak, zurezko erretenak, sagar patsa mozteko ganibetak *(tregatzak)*, sagarrak neurtzeko ontziak *(kuela)*, palak, inbutuak, iragazkiak...

Baserriaren hormari erantsitako gorputzaren erdialdean, zanpatutako lurrezko zoladura irregularretik gora batez beste metro eta erdiko altueran, sagarra txikitu eta beratu ondoren prentsatzeko erabiltzen zen egitura dago, dolare aska. Dolare askaren zorua 10 cm baino lodiagoak diren ohol handiek eratzen dute, oholak luzetara ipiniak. Ohol horiek zeharka ipinitako sekzio handiko (22 x 20 cm) hiru azpi subilen gainean bermatzen dira, eta azpi subil horiek, aldi berean, 20 x 20 cm-ko luzetarako bi habek eratutako egitura baten gainean hartzen dute atseden. Bi habe horiek, mutur batean, eraikinaren horman daude sartuta, eta erdian eta beste muturrean, oinarri batzuen gainean antolatutako lau paldoren gainean.



Dolare aska Erromeronea baserrian, Akartegin (Hondarribia)



Alzado. Medidas en metros.



Planta. Medidas en metros.

Oholek eratutako sagarra prentsatzeko egitura angeluzuzenaren gainazala zabalera eta lodiera handiko zurezko oholek inguratzen dute lau aldeetatik, eta ohol horiei *kantalera* esaten zaie. Barnealdean 410 cm luze eta 270 cm zabal den azalera eratuz, luzetarako bi kantalerak, garaiagoak izatez gain, dolare aska ixten duten zeharkako kantaleretatik nabarmentzen dira. Estankotasun handiena lortzeko, albotik presionatzeko sistema bat dute luzetarako kantalerek zurezko ziriez eratuta.

Egiaztatu ezin izan den arren, dolare askak eskantzuetako baten oinarrian prentsaketan lortutako muztioa husteko egindako zulo bat kontserbatuko du, eta muztioa grabitatez isuriko zen beheko solairuan egongo zen tinara edo ontzira.

Dolare aska deskribatu ondoren, lehen aipatutako erdiko bi paldoak baizik ez dira kontserbatzen prentsaketa sistematik, biak dolare askaren alde banatan, luzetarako kantaleren kanpoko aldean. Dolare askaren hondotik ia bi metrora, bi paldo horietako bakoitzak bi gurutze edo zeharkako uztarri ditu, horien gainean antolatuko zen dolareko habe bikoitza. Beheko uztarriak habeen pisuari eta zuzeneko presio sistemaren gainerakoari eutsiko zien. Goiko uztarriak ezerezean utziko zituen sagar patsaren gainean antolatutako zapalgailuen gaineko zuzeneko presioa egitean habeetan sortzen diren goranzko indarrak. Habe paretik zintzilikatuta tamaina ederreko zurezko tako batzuk egongo ziren, pieza bakoitzak erdialdean zulo hariztatu bat izango zuelarik azkoin gisa. Zulo horietan hariztatuko ziren zurezko ardatzak, beheko muturrean buru karratu batekin, eskuarki burdinazko uztaiekin bridatua eta indartua.

Azkenik, erantsitako dolareak, dolare askaren hondotik gora metro erdira, solairuarteko bat du; jatorrian sagarra txikitu aurretik biltegiratzeko erabiliko zen. Ate batez itxitako leiho bao batek zuzeneko sarrera egiten dio solairuartekoari kanpoko aldetik.

Analisia eta balorazioa

XVI. mendeko eta XVII. mendearen lehen erdiko baserrietan, baserriaren ia bolumen osoa okupatzen zuen zurezko makina erraldoia zen dolarea. Prentsaketa sistema kontrapisua zuen palanka beso handi baten mugimenduan oinarritzen zen, etengabeko presioa egiten zuen sagar patsaren gainean. Gaur egun ez da osorik kontserbatutako dolarerik, Ezkioko Igartubeiti baserri zaharberritua izan ezik. Halere, mekanismoa eratzen duten egiturako paldo pareak zutik diraute hamarnaka baserri zaharri eusten.

XVII. mendearen amaieran, aurrekoen lekua hartuko zuen dolare eredu berri bat hedatzen hasi zen. Zurezko dolareak izaten jarraitu zuten, baina hari torloju batzuk izango ziren zuzeneko presioa egingo zutenak. Makina berri hori tamaina txikiagoko mekanismoa zen, baina haren egiturak eraikitako bolumenaren ia erdia okupatzen zuen. XVIII. mendean hasi ziren aurreneko dolareak eraikin nagusitik kanpora antolatzen, dolarea hartzeko berariaz eraikitako eranskinetan, hala nola Erromeronean. Gaur egun, Gipuzkoan, makina horietako bakar batek ere ez du funtzionatzen, baina baserri batzuek kontserbatu egin dute haien zati handi bat; Muñozabalek (Donostia), Urtetak (Usurbil), Azkonobietak (Urnieta), Aritzagak (Aduna), Iturraranek (Aia), Alontsok (Berrobi), Kapagiñeneak (Elduain) eta beste batzuek. Nafarroan ere, Bidasoa bailaran, dolare mota horren ale batzuk kontserbatzen dira, baina horietako gehien-gehienetan, zurezko ohol handiez eratutako dolare asken lekuan inguruko hareharri gorriko lauza handiak dituzte, hala nola Balkezenean (Dornaku, Bera), Doneztebeko sagardotegian, Ontsarian (Narbarte, Bertizarana) eta Amaiurko (Baztan) erretore etxean. Arizkungo (Baztan) Gamiozarrea etxeko dolarea da urtean behin funtzionatzen jartzen duten bakarra, hori bai, dolarearen funtzionamendua erakusteko baizik ez, 2005ean zaharberritu, osatu eta martxan jarri ondoren.

Hondarribian ere orain arte ez genekien makina mota horren alerik zegoenik ere Jaitzubiako Ipiztiku baserria galdu ondoren. Halere, jakin badakigu XVI. mendean hondarribiar baserritar askok mahastien lekuan sagastiak landatu zituztela sagardoa egiteko, eta 1920an 6000 litrotik gorako 366 kupela baino gehiago biltegiratzeko gaitasuna zuten 40 dolare baino gehiago zeudela. Behin iragan mendeko 90. hamarkadan Gornutzeko Altxakotxiki eta Jaitzubiako Zaldunborda baserriak desagertu ondoren, egitura horiek Gipuzkoako palanka habedun dolare baserrien eredu bikainak baitziren, eta XIX. mendearen amaierara arte zurezko ardatzak dolare askaren erdian ainguratutako metalezko ardatzez ordezkatu eta, pixkanaka beste aldagai batzuk sartu baitzituzten (horietako batzuk oraindik ere beren horretan kontserbatzen dira udalerriko landa eremuan barreiatutako ezin konta ahala baserritan), orain huts egiteko beldurrik gabe esan dezakegu hain zuzen ere Erromeroneakoa dela Hondarribian barroko garaiko makina eredu hori irudikatzen duen dolare ezagun bakarra. Elementu garrantzitsurik eta esanguratsurik kontserbatu ez duen alea izanik ere, betikoz galdu baitu goiko habea bere hari torlojuekin, ia ez du aldaketa garrantzitsurik izan eraiki zenetik. Dolare aska kalitate oneko egitura da eta, lehen azterketa egin ondoren, kontserbazio egoera onean dagoela esan behar dugu, dolare askaren hondoko oholak eta kantalerak kontserbatzen baitira beren presio sistemarekin. Era berean, nabarmentzekoa da, funtzionatzeari aspaldi utzi bazaion ere, inolako aldaketarik egin gabe, eta eranskinak gerora izan dituen hamaika erabilerak gorabehera, dolarearen hasierako erabileren jatorrizko antolamendua bere horretan kontserbatzea: dolare askaren egitura lehenengo solairuan, oinplanoaren zati handi bat okupatuz, goiko solairuartekoa sagarra biltegiratzeko, eta gune ireki handia kupelak kokatzeko.

Horregatik guztiagatik uste dugu barrokoko makina hau galtzea kalte konponezina litzatekeela Hondarribiko ondare ukigarriarentzat, eta, aldi berean, agintari eskudunei eskatzen diegu beren lana egin dezatela kultura ondare hau datozen belaunaldientzat kontserbatu ahal izan dadin.

12.6.2.- DOLAREA SAN ANTONIO ETXEAN

Kosta auzoko 9. zenbakiko San Antonio etxea da iragan XX. mendearen hasieran sagardoa egiteko sortu ziren azken instalazioetako bat.

Emilio Iridoy Urtizbereak (1.877), sortzez hondarribiarrak, Arkolla auzoko Bidegurutzeberri baserrian bizi zenak eta besteak beste laborantza lanei emana bizi zenak, Jose Iridoy eta Tiburcia Urtizberea gurasoekin lan egiten zuen. Gurasoek zazpi seme-alaba izan zituzten, Emilio barne.

25 urte zituenean, Emilio Iridoy familiarengandik emantzipatu eta 1904an Benita Azaldegirekin ezkondu zen. Ezkondu aurretik senar-emazteen etxebizitza eraiki zuen, gaur egun "Villa San Antonio" gisa ezagutzen den etxea.

Emiliok eta Benitak bi seme-alaba izan zituzten, Francisco eta Consuelo. Franciscok bere familia osatu zuen eta zurgindegi bat izan zuen bere etxean, Eguzkietan, San Antonio etxearen ondoan. Consuelok, bere aldetik, hiriburura jo zuen, Donostiara, eta hantxe antolatu zuen bere bizimodu berria.

Emilio Iridoy, seme-alabak hazten ari zirenean, nekazaritza lanei lotu zitzaien, barazki laborantzako lanei, eta behiak ere bazituen. Gainera, sagardoa egiteko "dolare" bat eraiki zuen.

Tamalez, handik gutxira (hiru urte) hil egin zen bere emaztea, Benita, eta Emiliok bere gain hartu zuen jarduera profesionalaren ("dolarea" barne) eta seme-alaben gaineko ardura, 1914an bigarrenez ezkondu zen arte Josefa Antoni Olano zaldibiarrarekin.

Josefa Antoniarekiko bizikidetzari esker, beste alaba bat izan zuen, Maria Francisca izenekoa, eta senarrak emazteak San Antoniorekiko zuen debozioaren berri jakin zuen. Hortik, santuarekiko leialtasuna agerian uzteko, familiaren etxebizitzaren izena, hasieran Eguzkieta izena baitzuen, aldatu eta "Villa San Antonio" izena hartu zuen.

Ezkondu eta bi urtetara zendu zen bigarren emaztea, eta alarguna berriz ezkondu zen hil berriaren ahizparekin, Ignacia Olanorekin.

Bigarren ezkontzatik sortutako alaba, Maria Francisca, Meltxorrenea baserrian (gaur egun Intxaurdi Etxea) jaiotako Joaquin Salaberriarekin ezkondu zen, eta bi alaba izan zituzten, Josefina eta Maria Jesus Salaberria Iridoy, etxebizitzaren gaur egungo jabeak.

San Antonio etxea

Emilio Iridoyren eta Blankanea baserriko Pedro Mari Aranbururen arteko adiskidetasun sakonari esker, Blankaneako baserriak batez ere fruitu arbolak eta sagastiak baitzituen inguruan, "dolareak" arrakasta izan zuen garai hartan; izan ere, inguruko partikularrek eta nekazariek sagarrondoak zeuzkaten, eta "Villa San Antonio" eta bertako dolarearen berri bazutenez, hara eramaten zituzten sagarrak, ondoren lortutako sagardoaz gozatzeko.

Negozio ekonomikoko industria jarduera bat baino ezagunen eta auzotarren arteko lankidetza zen, nahiz eta, batzuetan, sagarrez betetako kamioi txikiren bat iristen zen Asturias aldetik.

Jarduera ez-industrial horixe da (baita edariaren kultura aldaketa eta sagardoa egiteko sagasti gutxiago izatea ere), Emilio Iridoyren oinordekoek berenganatutako ezagutzak gorabehera, Hondarribiko San Antonio etxeko "dolarearen" historian oroitzapenak bakarrik geratzeko arrazoia.

Gaur egungo etxearen jabeak gogoratzen du, modu anekdotikoan, sagardoa egiteko lanetan esku hartzen zuten lankideez gain, Kosta auzoko komentuak gertu egonik eta erlijiosoekin harreman estuak izanik, nola Kaputxinoen komentuko ikasleak eta Agustindar Errekoletoen komentukoak (Hondarribian "Picpus" izenaz ezagunagoa) "Villa San Antonio" etxera joaten ziren sagardoa egiteko prozesuaren berri izateko, eta nola lan egiteko arropak janzten eta prentsan lan egiten hasten ziren, elementu horiek gaur egun erabiltzen ez badira ere.

12.7.-
SAGARDOGILEAK ETA SAGARDOTEGIAK XIX. MENDEKO HONDARRIBIAN

Sagardogileek, behin baino gehiagotan, beren burua defendatu behar izan zuten ekoizten zituzten produktuei ezarritako zergak zirela eta. Hala dago jasota 1810eko abuztuaren 22ko aktan:

> *También se presentó memorial del Médico Urbiquiain pidiendo a la Ciudad aumento de dotación del mismo. Y habiendo conferenciado largamente dichos Señores sobre la materia, y deseando la Ciudad aliviar al vecindario de la visita, fijando un poyo competente al Médico, estableciéndolo sobre alguna pequeña sisa en la sidra, se acordó convocar para después de la misa mayor del Domingo inmediato a todos los cosecheros para darles a entender este deseo de la Ciudad, y hoydo su parecer reserva determinar lo que se ha de señalar y lo demás que deva obrar.*

Handik egun gutxi batzuetara, 1810eko irailaren 9ko aktaren arabera, bilkura berezia egin zen udaletxean, eta bertan izan ziren «Sagardogileak». 49 sagardogile ordezkatzen zituzten 48 lagun bildu ziren:

01.- Antonio de Echenagusia. 02.- Josef de Zubeldia. 03.- Francisco de Echeberrya Justiz. 04.- Francisco de Errazquin. 05.- Sebastián de Yriarte. 06.- Josef Francisco de Ugarte «por su Thio D. Josef Antonio de Ugarte». 07.- Pedro Antonio de Alza. 08.- Josef Joaquín de Olasagasti. 09.- Miguel Antonio de Casadevante. 10.- Francisco de Noguera Yparraguirre Torrealtako kondesa ordezkatuz eta D.a María Josefa de Sorondo. 11.- Ramón Olaizola. 12.- Gabriel Josef Arburu. 13.- Miguel Antonio Sopelarte. 14.- Josef Sagarzazu. 15.- Miguel Antonio Berrotaran. 16.- Tomás de Echegaray. 17.- Juan Bauptista Gaztañaga. 18.- Josef Antonio Gurruchaga. 19.- Lino Josef de Aguinaga. 20.- Pedro Josef Berrotaran. 21.- Josef de Yriarte. 2.- Ygnacio Amunarriz. 23.- Gabriel Ygnacio Picabea. 24.- Josef Antonio Sein. 25.- Félix Labandibar. 26.- Joaquín Toledo. 27.- Ygnacio de Lecuona Cigarroa. 28.- Melchor de Exponda. 29.- Gregorio Zuzuarregui. 30.- A. Aguirre [orri zati bat falta da]. 31.- Martín Josef Yparraguirre. 32.- ... Urtizberea. 33.- Miguel Antonio Oyanguren. 34.- ... Simón de Ostiz [orri zati bat falta da]. 35.- Pedro Olazabal. 36.- Ramon... [orri zati bat falta da]. 37.- Antonio Olazabal. 38.- Pedro Jossef Sorzabal. 39.- Pedro Fermín Garmendia. 40.- Josef de Zapiain. 41.- Francisco de Arbelaiz. 42.- Antonio Uga... [orri zati bat falta da]. 43.- Sebastián Antonio de Echeverrya. 44.- Josef de Lizarraga. 45.- Nicolás Peña. 46.- Lázaro Antonio de Aguinaga. 47.- Josef Francisco Olazabal. 48.- «Y por D.a Ángela López de Briñas mi suegra, yo el Escribano».

> *Estando así congregados se manifestó que la Ciudad desea fijar una dotación regular al Médico de manera que ninguna persona tenga que pagarle cosa alguna por razón de visita y que para el efecto es preciso por falta de fondos imponer un ochavo en cada azumbre de sidra: lo que fue contradecido por el concurso por decir se hace perjuicio con la sisa a los cosecheros.*

Badugu Melitón Rameryk 1840ko otsailaren 12an idatzitako beste akta bat (A-1-179).

Kontuak ematen dizkio Udalari, eta sagardoa hizpide hartuta, hauxe dio:

> *Los consumos que hubo durante los veinte meses que esta administración estubo a nuestro cargo fueron sumamente cortos; la causa es de suyo muy sencilla. En el año de 1832 se recogió en esta Ciudad una de aquellas cosechas de sidra no conocidas en mucho tiempo seguramente: yo mismo llegué a recoger en la casería de Careaguenea perteneciente a mi Padre político el difunto Dn. Luis Zuzuarregui 225 cargas de manzana: de esta abundancia resultó que habiéndose llenado de sidra todos los rincones de este pueblo llegamos a ver vender a cuarto la azumbre de sidra.*
>
> *Esta gran cantidad de sidra y su eccesiva [sic] baratura fueron pues la sola y única causa de haberse reducido a la nada los consumos del vino y del aguardiente en el primer año.*

1841eko irailaren 1eko aktan:

> *Se leyó un memorial de D. Francisco Noguera en el que hace presente que el Ayuntamiento del año mil ochocientos treinta y seis echó mano de sus sidras y de las de la pertenencia de la Sra. Condesa de Torre alta ascendiendo su total importe según liquidación efectuada, a once mil y pico de r. cuyos libramientos le fueron expedidos por aquella Corporación y en su consecuencia pide se le satisfagan, fundándose al efecto en las reglas segunda y tercera de la Circular dirigida por la Provincia a los pueblos con fecha diez y nueve de Agosto último. Sus mercedes enterados acordaron contestarle que debiendo tomarse una medida general que abrace todas las reclamaciones legítimas que se hagan en este sentido con arreglo al tenor expreso de la Circular de la Provincia que se cita en su exposición sobre el modo de pago en la manera que en ella se previene, de los suministros que se hayan hecho durante la guerra civil, el Ayuntamiento á pedido a la Diputación los documentos de liquidaciones efectuadas que ha creído son necesarios para poder comenzar sus trabajos en el asunto, por lo que no puede decir otra cosa por ahora, sino que al ejecutar dichos trabajos tomará en consideración su solicitud.*

1852ko urriaren 6ko aktan jasota dagoenez, Udalak gobernariari bidali behar zion idazkia irakurri zen:

> *Es indudable que desde el año de mil ochocientos cuarenta y dos Dn. José Joaquín de Casadevante ha llevado en carros por el paseadero la manzana a su lagar, sin que tenga noticias se lo haya impedido nadie y que también anteriormente solía pasar alguno que otro carro, aunque no con tanta frecuencia, por cuanto no había el motivo que hoy para ello, como también el que el mencionado paseadero es el camino que conduce al granero de la primicia, si bien generalmente se conducían estos frutos en caballerías. Tampoco puede dudarse que el paso de los carros por dicho sitio perjudica mas o menos su embaldosado, como también el que de esta prohibición se irrogan perjuicios al Sr. de Casadevante, por cuanto el lagar que tiene en la casa que llaman de Gamboa está hecho de manera, que a no pasar la manzana por el paseadero, le cuesta mucho más su conducción.*

Eztabaida batzuk izan ziren idazkiaren inguruan, eta botoetara eramanik, 5ek aldeko botoa eman zuten eta 1ek aurkakoa. Ondorioz, gobernariari bidaltzeko erabakia hartu zen.

1875eko irailaren 19ko aktan jasota dagoenez, zerga berri bat zela eta Udala «Zergapeko handienekin» bildu zen, eta sagardoari eta sagar kargari ezarri nahi zizkien zerga berriak planteatu zizkien..., «y después de una fuerte discusión sobre el asunto pasó a la votación y resultó de ella que no convenía por ningún concepto en que se creara del nuevo impuesto a la cosecha de la manzana».

Bi urte geroago, Aldundiari zuzendutako eta herritar askok sinatutako idazki bat dago jasota 1877ko uztailaren 26ko aktan. Honela dio:

> *En atención a lo gravoso del derecho impuesto a la sidra y manzana en la reunión celebrada por este Ayuntamiento y mayores contribuyentes en quince del actual, quede sin efecto el acuerdo tomado, y se convoque a nueva reunión a fin de buscar otro medio menos gravoso. En su vista, el Ayuntamiento acordó por unanimidad dirigir el siguiente informe a la Diputación.*
>
> *Señala el ayuntamiento que la reunión se realizó con los mayores contribuyentes "con el objeto de arbitrar recursos para hacer frente a muchas atenciones que pesan sobre el Municipio, fueron convocados los mayores contribuyentes que marca la Ley con arreglo al número de concejales, y si bien no asistieron todos, se completó número bastante para tomar acuerdo: que aunque es verdad votaron cinco de la clase de mayores contribuyentes, en contra, no lo es menos que los otros cuatro y los individuos del Ayuntamiento hicieron a favor del impuesto, resultando de la votación nueve a favor y cinco en contra. No se comprende*

cual haya sido el espíritu de los exponentes al consignar que las existencias de la sidra pertenecen al Sr. Alcalde y a una sociedad; pero sea cual fuere, bueno es que conste, que el Sr. Alcalde, además de ser propietario, especula en grande escala en dicho negocio, bien comprando de esta jurisdicción, o bien trayendo de otros pueblos de la Provincia y del Extrangero, por lo cual, si no difiriese de la opinión de algunos propietarios que creen afecta directamente a sus intereses el nuevo impuesto, el perjudicado en primer término será él.

Zergapeko handienekin beste deialdi bat egiteari dagokionez, ez dagoela horretarako oinarririk, egindakoa legea errespetatuz egin baitzen

sin negar el derecho que a todo ciudadano le concede la Ley de presentarse en queja a la superioridad de los acuerdos que toman la Corporación, bueno es que conozca V.E. la importancia de los Sres. exponentes, pues además de no pertenecer en casi su totalidad a la categoría de mayores contribuyentes, apenas hay ocho que sepan firmar, y finalmente, de los cinco Señores que votaron en contra, no aparecen mas de dos en la instancia, habiéndose negado los otros tres a prestar su consentimiento por considerarlo no había motivos fundados para pedir la revocación del acuerdo.

Geroago egindako beste bilkura batean, alkateak gai hori behar beste eztabaidatu zela iritzi zion, eta botoetara eraman zen jurisdikzioko sagardoa eta probintziako beste herri batzuetatik ekarritakoa berdin ordaindu behar ote zen. Gehiengoak erabaki zuen berdin ordaintzea, Udaleko pertsona guztiek eman zuten berdin ordaintzearen aldeko botoa.

1877ko abenduaren 19ko aktan jasota dagoenez, Udalak sagardoa jendaurreko enkantean jartzeko baldintzak adierazi zituen, behin Aldundiak azaroaren 26an jendaurreko enkante hori onartu ondoren;

1ª.- Toda la sidra que se venda en el término municipal de esta Ciudad pagará de derecho el 10% sobre el precio de la venta y al respecto de treinta y ocho azumbres por carga.

2ª.- El dueño de la sidra a las cuarenta y ocho horas a más tardar después de empezada la Cuba o barrica, deberá dar parte al rematante declarando las cargas que contiene y al precio que ha empezado, pudiendo el rematante en todo caso hacer medir la vasija, y si la diferencia que resultase excediera de un 5% sobre lo declarado, pagará por primera vez, dobles derechos de la diferencia, por segunda dobles derechos también de todo el contenido de la vasija y por tercera además de los derechos dobles, perderá el género. En todos los casos excepto cuando no resulte diferencia, correrán por cuenta del dueño los gastos de la medición.

3ª.- Toda la sidra que se importe de fuera, tanto en botellas como en barricas para el consumo de las familias, está sugeta al mismo pago del diez por ciento sobre el precio de la venta en este pueblo, y no en el de la compras; y cuando hubiese dos o más diferentes se cobrará el del medio.

4ª.- Cada vez que quieran traer sidra de fuera de la jurisdicción, están obligados a dar aviso al rematante, y los que traigan sin llenar este requisito, tendrán perdido el continente y contenido en la primera vez; y en caso de reincidencia, pagarán además la multa de derechos dobles.

5ª.- Toda la sidra vendida desde Agosto hasta la fecha que importa mil ochenta y cinco reales excepto la que está en venta y que no se ha cobrado todavía esta ni aquella, queda a favor del rematante a quien se le facilitará la lita de las personas que adeudan para que inmediatamente proceda al cobro.

6ª.- Al dueño de la sidra no se le obligará al pago de los derechos hasta tanto no se haya concluido de vender la vasija empezada; y cuando tuviese necesidad de abaratar el precio del principiado, llamará al rematante para que haga un cálculo prudencial de la cantidad que falte de vender y cobrar después los derechos que correspondan.

7ª.- El remate se verificará en la Sala Consistorial el Domingo treinta del actual a

las once horas de su mañana bajo el tipo de cinco mil reales vellón, y el término será en treinta y uno de Agosto del año próximo entrante.

8ª.- No se admitirá postura que baje de cincuenta reales ni postor que no presente fiador en el acto a satisfacción del Ayuntamiento.

9ª.- La cantidad que causare el remate, será destinada en primer término al pago de la conducción de aguas potables a la Ciudad.

10ª.- Queda exento del derecho la sidra elaborada el año anterior de la cual hay pocas existencias.

12.8.- SAGARDOGINTZA: 1900-2026

XX. mendeko lehen datuak, oso zehatzak, Davydd J. Greenwood maisuak eskaintzen dizkigu Hondarribia: *riqueza ingrata* liburuan. Liburu hori lehen mailako dokumentu historikoa da. Hona hemen datu batzuk:

1920. urte inguruan, 37 dolare zeuden landa eremuan eta 6 hirian. 366 kupel zeuden, bakoitzak gutxi gorabehera 6.250 litroko edukierarekin, eta, beraz, guztira 2.287.500 litro sagardo. Sagardoa zen edaririk arruntena, ardoa garestiegia baitzen. 9 sagardotegi zeuden hirialdean. Uzta on bat izaten zen bi urtean behin. 120 kilo inguru sagar sagarrondo bakoitzeko.

XX. mendearen hasierako Hondarribiko sagardoari buruzko datuak ematen dizkigu Francisco Sagarzazuk 1919ko urriaren 25ean aurkeztutako *Noticia del informe presentado al Excmo. Ayuntamiento de Ondarrabia* liburuxkak, Hondarribiko Udal Artxiboan kontserbatzen denak.

Juan Jauregi Etxenike alkateak, Hondarribiaren garapenarekin tematuta, bertako biztanleriaren, historiaren eta udako koloniaren garrantziagatik, hiriko indar bizien ekarpena eskatu zuen baliabide ekonomikoak handitzeko proposamenak jasotzeko.

Geroago Hondarribiko alkatea izango zen Francisco Sagarzazuren ekarpena liburu honetan jasotako eskema honetan laburbiltzen da:


NOTICIA
DEL INFORME PRESENTADO
AL
EXCMO. AYUNTAMIENTO
DE
ONDARRIBIA
POR
D. FRANCISCO DE SAGARZAZU
OCTUBRE
25—1919

Francisco Sagarzazuren liburuxkaren azala


Resumen de los nuevos impuestos e ingresos por ventas de terrenos

		PESETAS
1	Aumento en el impuesto del vino	10.000
2	Fiscalización de arbitrios	10.000
3	Aumento en el impuesto a los vinos de lujo	2.000
4	Aumento en el impuesto a la sidra	25.000
5	Impuesto sobre establecimientos de bebidas	1.000
6	Fiscalización del Servicio de Aguas	3.000
7	Impuesto sobre vehículos particulares	500
8	Impuesto sobre carruajes industriales	600
9	Ingreso por desinfección de viviendas	250
10	Aguas y alcantarillado	100
11	Impuesto a las casetas de la playa	500
12	Ocupación de terrenos públicos	300
13	Impuesto al Tranvía eléctrico	500
14	Impuesto a la Eléctra-Irún-Endara	500
15	Impuesto al Casino de Fuenterrabía	36.000
16	Impuesto al alquiler de fincas en el verano	10.000
17	Aumento del impuesto del pescado (Casa-venta)	4.000
18	Impuesto por la exportación del pescado	9.000
19	Derechos del puerto de Amute	3.000
20	Venta de terrenos en el nuevo Cementerio	1.700
21	Venta de solares en el nuevo Ensanche	20.000
22	Aumento a conseguirse para Artes y Oficios	750
23	Supresión de los gastos actuales por arquitecto	3.000
	SUMA TOTAL DE LOS INGRESOS	139.750

Zerga berriak

Alfontso III.aren erregealdiaren azken urtean, 1930ean, Hondarribian 308.417 litro sagardo egin ziren (Bidasoan: Udaberri, 1984), eta José Uriak La sidra liburuan jaso duenez, II. Errepublikaren lehen bi urteetan honako hauek izan ziren datuak, litrotan emanak, lehenengo zutabean sagardogilearen izena adieraziz, bigarrenean 1931ko litroak adieraziz eta hirugarrenean 1932koak.

SAGARDOAK ETA PITARRAK GITEKO ARAUAK

II. Errepublikaren garaian, Udalak 1932ko abenduaren 21ean egindako bilkura berezian, Juan José Petit alkatea buru, arau sorta bat idatzi zuen dolareetako eta sagardotegietako sagardoei eta pitarrei buruzko araudi zehatz bat ezartzeko.

DISTRITO DE FUENTERRABIA		
Zenón Ugarte	3.600	
Ignacio Indo		1.800
Hilario Laborda		35.600
Julián Aguirreche	10.683	7.510
José María Salaverría	48.060	34.400
Pedro Expósito	36.405	47.600
Anselmo Berrotarán	25.020	
Domingo Errazquin	21.690	17.000
Urbano Gonzalez	28.440	19.850
Manuel Sarasola	24.930	21.900
José Cruz Ugarte	7.740	
Santiago Larraza	10.260	
Anselmo Salaverría	50.490	
Ignacio Mendizabal	14.399	6.590
Miguel Ugarte	20.700	
Antonio Unsalo	6.030	
Fausto Sagarzazu		17.800

Sagardo litroen ekoizpena Hondarribian, 1931n eta 1932an

DOLAREAK

1.ª. Podrá introducirse libremente en los lagares autorizados toda clase de manzana destinada a la elaboración de sidras y pitarras, pero en ningún caso harán extracciones del producto elaborado sin que el conductor lleve consigo una declaración firmada por el dueño del lagar, expresando el nombre del conductor, del destinatario y su domicilio, número de envases y la cantidad y clase de líquidos especificados en litros. En los locales en que existan a la vez lagares y sidrerías de un mismo industrial, el aforo de las cantidades de los líquidos que contengan los envases, se realizará una vez terminada la época de su elaboración.

2.ª. Cuando de los lagares que se hallen fuera del radio de los fielatos, tenga que verificar extracciones a las sidrerías u otros establecimientos y domicilios particulares que se encuentren en el mismo caso que los lagares, podrán ser conducidas las sidras y pitarras sin necesidad de documento alguno, pero estarán obligados los dueños a presentar diariamente en la Alhóndiga la declaración correspondiente requisada en la forma que indica la presente regla, donde contará la cantidad de líquido extraído.

3.ª. Los dueños de los lagares que se hallen establecidos dentro de la línea de los fielatos, podrán verificar extracciones, siempre que se hallen autorizados para ello y presenten en la Alhóndiga la declaración mencionada debidamnente requisada.

4.ª. En la Alhóndiga municipal podrán adquirir los industriales los talonarios de declaración a los efectos de cumplimentar los requisitos de las reglas 1.a y 2.a.

SAGARDOTEGIAK

5.ª. Las sidrerías serán consideradas por la Administración como depósitos particulares. Los depósitos de esta clase están obligados:

a) A no tener comunicación alguna interior con otros establecimientos que se dediquen a la venta de los géneros gravados con arbitrios municipales.

b) A marcar con numeración clara la cabida de cada envase en medidas métricas.

c) A numerar con orden correlativo las barricas y cubas, no permitiéndose la existencia de números duplicados.

6.ª. Las sidras y pitarras procedentes de lagares situados dentro de la línea de fielatos que ingresen en estos depósitos y lo mismo los que se destinan al consumo particular, irán acompañados de la declaración correspondiente que será entregada en la Alhóndiga, una vez firmada por los destinatarios.

7.ª. Las extracciones que se verifiquen en lagares que se hallen fuera del radio de los fielatos y se destinen a los depósitos y consumo particular, a excepción de los especificados en la regla 2.a, deberán ir acompañados de la expresada declaración y se presentará en el fielato de entrada, donde será comprobada su exactitud por el empleado encargado, quien la devolverá requisada al conductor de la mercancía para su entrega en la Alhóndiga, con la conformidad y firma de los destinatarios.

8.ª. Los derechos de las sidras y pitarras que se destinen al consuma particular se satisfarán conforme a la declaración hecha por los dueños de los lagares o remitentes. La Administración, llegado el caso, practicará los análisis necesarios para la debida comprobación de la clase de líquidos declarados para su debido adeudo.

9.ª. Los derechos de las sidras almacenadas en los depósitos particulares, serán cobrados al tiempo de solicitar la autorización de venta a la Administración de Arbitrios, con arreglo a la declaración del precio inicial de venta, que no podrá ser elevado sin previo conocimiento de dicha Administración.

10.ª. Una vez puestas a la venta las sidras y pitarras, queda prohibido según lo dispuesto en la regla 3.a del artículo 67 del vigente Reglamento de Arbitrios municipales, la mezcla, adición de agua u otra operación que desvirtúe la calidad de los líquidos.

11ª. En la época que terminan las elaboraciones, se tomarán las existencias de los depósitos, levantándose acta por duplicado del resultados del aforo. Estos documentos firmados por el dueño del depósito y operador, quedarán en poder del interesado y de la Administración.

12.ª. Al verificarse el adeudo de los derechos de las sidras y pitarras, la Administración descontará un 10%, tanto a los vendedores como a los particulares, en concepto de mermas por inutilizaciones, brozas, etc.

13.ª. Para proceder al embotellamiento de sidra en los depósitos autorizados es condición indispensable que los interesados den previa cuenta a la Administración, a fin de que paguen los derechos fijados a razón de 0,04 pesetas botella.

En el caso de que el líquido que se embotelle proceda de envases puestos a la venta, se descontará de los derechos que han de satisfacer las botellas llenadas, el importe ya satisfecho por esta sidra anteriormente, al ser puesta a la venta al público.

14.ª. Las sidras conocidas con el nombre de zizarras no podrán ser destinadas al consumo público hasta el 11 de septiembre de cada año, previo análisis del laboratorio Químico municipal y para su conducción, venta y pago de los derechos, regirán los mismos requisitos exigidos para las sidras en general, incurriendo en la penalidad que fija la regla 3.a del artículo 67 del Reglamento de Arbitrios municipales los industriales que sin conocimiento de la Administración volvieran a llenar los envases de dicho líquido.

15.ª. A los conductores de sidras procedentes de fuera de la jurisdicción se les exigirá declaración verbal clara y terminante de la cantidad que conduce y su destino, cobrando los derechos en el acto, excepción hecha de las que sean destinadas a sidrerías autorizadas, en cuyo caso se extenderá una declaración por los empleados de los fielatos, expresando en ella los siguientes conceptos:

1.º. Nombre del conductor y su domicilio.
2º. Nombre del consignatario y su domicilio.
3.º. Cantidad de sidra especificada en litros.
4.º. Firma del encargado del fielato y fecha de entrada.

16.ª. Este documento será entregado al conductor y este, a su vez requisado con la conformidad y firma del que recibe el género, lo devolverá al mismo fielato.

17.ª. Las sidras y pitarras destinadas a la venta pública, rerán analizadas previamente por el Laboratorio Químico municipal, donde se preeverá a los interesados del certificado consignando en el mismo el número de envase y fecha. Este documento será expuesto a la vista del público en los envases cuya vente ha sido autorizada.

18.ª. Las pitarras destinadas al consumo de los colonos dedicados a la labranza estarán exentas del pago de los derechos, siempre que no se dediquen a alguna operación comercial o industrial.

A este efecto se entenderán como tales labradores, aquellos que se dediquen a trabajos agrícolas y sea este su único modo habitual de vida.

19.ª. Las infracciones de las presentes reglas se castigarán con arreglo a las disposiciones penales del Reglamento de Arbitrios municipales.

12.8.1.- SAGARRAK, SAGASTIAK, DOLAREAK ETA SAGARDOTEGIAK (MAXIMO SAGARZAZU)

ARMA PLAZA Fundazioak bideratzen duen Ezagutu Zure Hiria programaren baitan, Hondarribiak bere seme entzutetsuetako bat ezagutzeko aukera izan du: Maximo Sagarzazu Ugarte (1912–1999) eta, hark idatzitako kaierei eta mapei esker, gure herriaren bizitzari buruzkoak hobe ezagutzeko egin zituen ekarpenekin ikasi dugu eta gozatu dugu. Larramendinean eman zituen urteetan ikasitakoari eta Hondarribiaren iraganaren eta etorkizunaren aurrean jarri zuen arretari esker, pintzelkada zehatzak eskaini zituen, betiere gu guztiongan aldatzen ikusten ari zen orain dela ehun urteko Hondarribia harenganako maitasuna ereite aldera.

Hain xeheki egindako eta gordetako lana, orain ezagutzera emana, bere herriko kulturan eta Euskal Herrian iraungo duen ondarea da, herri baten (Hondarribia) bilakaeraz eta bizirauteaz jabetu nahi duten jakintzaren hainbat arlotako interesatuentzat eskuragarri dagoena.

Errespetuz eta adorez esan dezakegu Hondarribia, bere lanari esker, Hondarribia gehiago dela.

Liburu honetan ezinezkoa da aintzat ez hartzea Maximok sagardoaren inguruan egindako ekarpenak, argiki eta poliki argiztatzen baitute sagardoaren kultura, orain dela mende bateko orainaldiarekin harremanetan jartzeaz gain. Ekarpenak jaso eta laburbilduta aurkezten ditugu azken mendeko Hondarribia sagardogilearen bizi eta jakintza iturri gisa ezagutarazteko. Errespetatu egin dugu egilearen grafia, baina zuzenketa txiki batzuk egin ditugu hark edoskitako, maitatutako, hobetutako eta egindako euskara hobeto ulertze aldera.

Hona hemen, erakusgarri gisa, «Hondarribiko nekazari eta arrantzalien poz atseginak» izenburupean idatzitako testua: «Lenagoko artzai zarren / bizitza zikirua janez. / Gazta eta talua berakin / pittarra eranez».

Egilearen kaieretan eta mapetan, sagar moten, sagastien, dolareen eta sagardotegien berri ematen du. Sagarrari dagokionez, sagardoaren lehengaia baita, hirurogei sagar barietate baino gehiago aipatzen ditu, batzuk katalogatuak eta beste batzuk berriak, Euskal Herriko sagar barietateei gehitu beharrekoak eta, xumetasunez eta harrotasunez, munduan zerrenda-

tutako 7500 sagar barietateetan bildu beharrekoak. Maximo Sagarzazuk berak hitz hauek esanda azaldu zuen bere harridura lortutako zerrenda oparo horren aurrean: «Bakarren batek esan dezake nola leiken ainbat sagar mota. Ba, ikusi duanarentzat ez da arritzeko. Gutxi gora bera orrelaxek dira, dana esan gabe».

Hona hemen Maximo Sagarzazuk behin behineko grafiaz idatzitako sagar barietateen zerrenda hurrenkera alfabetikoaren arabera:

Abel sagarra / Altxa sagarra / Amonaren Marijen sagar lapurditarra / Andoain sagarra / Andre sagarra / Anibeta sagarra / Antzolana sagarra / Balestia sagarra / Baratze sagar berdea / Baratze sagar gorria / Baratze sagar oria / Betekor sagarra / Buztin sagarra / Dolare (Tolare) sagarra / Donosti sagarra / Erbi sagarra / Ernani sagarra / Errege sagar beltza / Errege sagar oria / Gabiota sagarra / Gazi gozoa / Gergoria sagarra / Geza zuri sagarra / Goierriko altxa sagar oria / Goierriko sagar berdea / Ilberri sagarra / Ispurua sagarra / Kaiki sagarra / Kamues sagarra / Kaneui sagarra / Kanpandoja sagarra / Libra sagar gazia / Libra sagar geza / Luerri sagarra / Mando burua / Mazal gorria / Merkalin sagarra / Minborda sagarra / Mokolo sagarra / Napar sagarra / Oliyo sagarra / Patzulo beltza / Patzulo sagar berdea / Patzulo sagar oria / Piku sagarra / Sagar behi zabala / Sagar gazi mina / Sagar gazi gozoa / sagar gorria / Sagar mokotea / San Inazio sagar gazia / San inazio sagar geza / San Juan sagarra / San juan sagar oria / San Juan sagar zuri gorria / San Martin sagarra / San Pedro sagarra / Santiago sagar gazia / Tente sagarra / Tolosa sagarra / Txalaka sagar gazia / Txalaka sagar gezia / Txingurri sagarra / Txori sagar gorria / Udare sagarra / Zurten sagarra.

Sagastiak (sagardiyak), 1924ko urtean, nabarmendu egiten dira egilearen mapetan, eta espazioan erreferentziazko izenarekin bereizten dira, hala nola kasu hauetan: Esteuzko, Kaikueiko, Bordaberriko, Nabarreneako, Ullurtako, Ogallurreta azpiko, Lesaka eneako... sagardiyak. Beste batzuk, mapetan ongi kokatuak eta adieraziak, sagardiyak (sagastiak) gisa nabarmentzen ditu. Kasu batzuetan, adibidez, «Tolariak» markatzen du, hala nola Lexonabarkoa.

Puntu honetaraino, Maximo Sagarzazuren ekarpena, landako munduari buruzkoa, nerabe baserritar baten begietatik ikusia. Orain, berriz ere liburu honetarako funtsezkoa dena bereiziz, Portua auzoko eta Herriko sagardoaren munduari egindako ekarpenak aterako ditugu egilearen kaieretatik.



Hondarribiko udalerriaren planoaren xehetasuna. Egilea: Maximo Sagarzazu

Hondarribiko udalerriaren planoaren beste xehetasun bat. Egilea: Maximo Sagarzazu

Gisa honetan enuntziatu zuen lehenengo epigrafea: «Maximo Sagarzazu Ugarteren oroimenak eta erriko Portuko sagardotehiyak tolariakin». Portua auzoko Santiago karrika du lehenengo erreferentzia: «Tomas Aginagalde genduan / aberatsa izana benetan / iriya ta gurdi tolare eta / sagardo orlako lanetan».

Ondoren, Antontxonian, Urbano Gonzálezen dolarea aipatzen du, eta, aurrerago, Santiago kaleko plazan dagoena. Jarraian, Txerri beltzenian sagardo berria egiten hasiak zirela jakinarazten du, bando baten bidez sagardo litroa hogeita hamar xentimoan saldu behar zela iragarri ondoren.

Nikolaxanianek sagardo ona zuela aipatu ondoren, San Pedro kalean dolarerik ez zuen sagardotegi bat aipatzen du; ez du jabea ezagutzen, baina oso sagardo ona ematen dute.

Hondarribiko Portua auzoaren planoaren xehetasuna. Egilea: Maximo Sagarzazu

Beste ekarpen batek, «Maxino sagarzazu Ugarteren oroimenak eta Ondarrabiko Portuko sagardotehiyak» goiburuarekin, Azken Portuko sagardotegi bat aipatzen du, eta bertso batzuk eskaintzen dizkio dolareak eta sagardoa egiteko langile trebeak dituen Maximo Labordari. Eta beste sagardotegi bat aipatzen du Zuloaga kalean, non arrantzaleek egarria asetzen duten itsasotik etxera itzultzen direnean.

«Maximo Sagarzazu Ugarteren oroimenak eta erriko tolare ta kupeltehiyak» izenburupeko beste zerrenda batean aipatzen du Maximo Labordak lokal bat zuela Santa Engrazian, goian dolarea eta azpian kupelak. Ondoren, Santa Engrazia eta Damarri artean, Manuel Sarasolaren dolarea aipatzen du Gartzinian, edateko sagardo ederrarekin.

Jarraian Jose Maria Salaberriaren dolarearen berri ematen du Murrua kalean, dolarea goian eta kupelak behean. Eta sagardotegi bat zuela elizaren ondoan, eguzkiari begira, edaria alderik hotzenean gordeta.

Maximo Sagarzazuren osaba Miguel Ugartek Pampinot kalean saltzen zuen «euskaldun erari ederra». Bertso eder hauek eskaini zizkion osabari: «Sagardo mustiyua salduta / bera ere konten. / Osasuna ta diruakin / zein edo posten».

Zerrendari amaiera emateko Xalbador Lapizek saltzen zuen sagardoa aipatzen du: «Zorren denbora artan / aipatua zen benetan»; izan ere, San Nikolas kalean eta Juan Laborda kalean sekula santan ez zen kalitate txarreko sagardorik saldu.

Gai hau «Sagardotehiko doñuan baserri ta motia» izenburuarekin amaitzen du, lerro hauek abestuz:

Kapeluxar ketari Malengañerako Ralara,
Ralarai, Ralarai, larai, larai.
Arri koskorra Malen karrikarako Ralarai,
larai, larai.
Txori ketari Bixkundenerako Ralarai.
Juanito apartax Santiago kalerako Ralarai.
Jezus Goikoetxea diabrua Malen kalerako
Ralarai, larian, lari.

12.8.2.- SAGARDOTEGIEN ZERRENDA (FLORENTINO PORTU)

1934. urtea baino lehen Hondarribian zeuden 56 sagardotegien zerrenda, Florentino Portuk bere *Notas históricas y curiosidades hasta 1969*. Fuenterrabía liburuan gogorarazten duena.

HIRIGUNE HISTORIKOAN

Kale Nagusia: 3. zk.-ko etxea, Kareniceri-zarra; 2. zk.-ko etxea eta 6. zk.-ko etxea, Yriarte.

Pampinot kalea: 4. zk.-ko etxea, Zamoranian, eta 20. zk.-ko etxea, Ugarten etxian.

Etxenagusia Margolaria kalea: 11. zk.-ko etxea, Pedron tolaretan.

Ubilla kalea: 10. zk., José María Salaberriaren etxian.

Apezpiku kalea: Eliz-atzian, Barran,11. zk.-ko etxea eta Fraxkuneko murruan, 5. zk.-ko etxea, Marcosen-etxian.

Arma Plaza: 13. zk.-ko etxea, Antonio Berrotaranen etxian.

Iparraldeko kalea: 5. zk.-ko etxea, Zano guardapescaren etxian.

Juan Laborda kalean: 3. zk.-ko etxea, Yartzenean.

San Nikolas kalea: 3. zk.-ko etxea eta 15. zk.-koa, Kondonean.

Javier Ugarte etorbidea: Karlos V.aren gazteluaren behe aldeko teilapea. Oharra: 1890eko ekainaren 13ko El Bidasoa astekarian (502. zk.) iragarri zen jendaurreko enkante batean salduko zela etxe bat, elkarren ondoko bi eraikinek osatua, beren upeltegiekin eta dolare bikoitzarekin, Arma Plazaren iparraldean, Karlos V.a Enperadorearena izan zen jauregiaren ondoan, Frantziari eta itsasoari begira ikusmira ederrak zituena.

Damarri: La Glorian.

PORTUA AUZOA

San Pedro kalea: Rakataplaunean, Maulisi-Lulunean, Romanchonean, Katillunean, Bernardonean, Amundarainean, Cherribeltzenean, Alijamuñean, Ychuanean, Tolar Sarretan, Tolar Berriyetan, Don Maximon Escabetxian, Florencion Escabechian, Estanizenean..

Santiago kalea: Nicolás Chiquinian, Pío Campandeguin etxian, Mañunean, Toribio García Tolaretan, Tomás Aguinagalden tolaretan, Miguel Panen etxian.

Zuloaga kalea: Hilario Labordaren Escabechian.

Almirante Cabrera kalea: Florencio Martinezian.

Kosta, Santa Engrazia, Amute, Mendelu:

Gartxianean, Sarasolaren etxian, Santa Engraciako tolaretan, Urbiñenean.

Amute: Miguel Ugarteren etxian.

Mendelu: Albizuren etxian.

San Pedro kalea, Nire-Neria parean; ezkerrean, Rakataplan (Rakataplaunea) etxea, sagardotegiarekin

Ogallurreta Azpikoa (Jaitzubia)

Baserriak: Mediamborda, Ogallurreta azpi, Camiyo, Apachara, Pascual enean, Ipiztiku (Jaitzubia), Alchaco aundi, Torrea, Ipisticunea (Akartegi) eta Magdalengain. Oharra: 1819ko otsailaren 17ko aktan jakinarazi zen Magdalengainen sagardoa saltzen zela.

Gaingiroki aipatu beharreko dokumentu batzuk dauzkagu:

1928ko urtarrilaren 27ko idazkia, Batzorde Iraunkorraren 1928ko urtarrilaren 31ko aktan jasoa, «Hiriko biztanle eta sagardo saltzaile» Urbano González, Fausto Sagarzazu, Pedro Alcain, José María Salaberría, Pedro Expósito, Julián Aguirreche, Zenon Ugarte, Víctor Odriozola, Manuel Sarasola eta José Antonio Unsainek sinatua.

Diote badakitela udal arielen artean

> *se encuentra una tributación para las sidras con arreglo a diferentes tipos en proporción al precio de venta y referente a la sidra elaborada en la localidad, más un recargo o aumento, sobre los precios de tributo a que antes se hace referencia, de 0,05 por botella de sidra embotellada para la reventa en fondas y establecimientos de bebidas.*

Jakin nahi dute ea Udalak horri buruzko erabakirik hartu duen eta, hala bada, Aldundiak onartu ote duen. Batzordeak hauxe erantzutea erabaki zuen: iragan abenduaren 31ko Udalbatzaren osoko bilkuran, kontuan izanik Aurrekontu Arrunta, sagardoaren gaineko zerga arautu zela, eta erabaki zela «suprimir el cobro correspondiente al precinto de cinco céntimos por botella de la sidra embotellada destinada a la reventa» eta, beraz, ez zela zerga aplikatu.

Atal honi amaiera eman aurretik, aipa dezagun Jose Jauregui Labordak egindako eskari bat (1966ko martxoaren 2ko aktan jasoa), «como antiguo propietario de la edificación conocida con el nombre de Lagar», kostako Azken Portun. Adierazten da iragan hilabeteko 26an Francisco Canoura errentariak hustu egin duela lokala, eta Juan Maria Iridoyk okupatzen zuen lehenengo solairua ere utzi egin duela. Batzordeak baimena eman zion Jaureguiri eraikina eraisteko.

12.8.3.- SAGARDOA EGITEKO LANTEGIA HONDARRIBIAN

1890. urte aldera, Jose Maria Salaberriak, Ainhoa Sarasola Salaberriaren birraitonak, sagardoa egiteko lantegi bat altxatu zuen Hondarribiko Murrua kalean, hiru solairuko etxe batean, sarrera bikoitzarekin, bata Murrua kalean eta bestea Etxenagusia Margolaria kalean, bi solairu beherago.

Murrua kaleko sarreratik sartzen ziren 60 kiloko zakutan garraiatutako sagarrak, hirugarren solairuan uzten ziren, zoru gainean, 50 cm-ko altuera hartu arte. Eta sagarrak pausatzen uzten ziren hiruzpalau egunez.

Hirugarren solairu horretan depositu bat zegoen 30-40 cm bitarte zabal zen hodi batez hornitua, eta hodi horretatik bidaltzen ziren sagarrak beheko solairura txikitutako sagarrak 8 x 4 metroko tanga huts baterantz bultzatzen zituen birringailu baten bidez. Jarraian, tangaren azalera osoan barreiatzen ziren.

Behin tanga beteta, ura eransten zuten txikitutako sagar masa guztiz estali arte, eta dena pausatzen uzten zen lauzpabost orduz.

Ontzi edo tanga horretan, alde biribilean 3 metroko garaiera zuten bi ardatz zeuden, bakoitza prentsatzeko gailu batez hornitua, muturrean, eskuz goratzeko eta beheratzeko palanka batez eragiten zirenak.

Palanka horien eta txikitutako sagarren artean ipintzen ziren ontzi osoa estaltzen zuten zurezko oholak. Palanka bakoitzaren azpian azalera osoa estaltzen zuten ohol handiak ipintzen ziren zeharka.

Sagar masaren gaineko presioak *sagardo* izeneko isurkaria sortzen zuen, hodi baten bidez beheko mailara igarotzen zen, eta han 3.000/4.000 litroko haritz zurezko kupela handietan biltzen zen.

Isurkari edo sagardo hori hartzitzen uzten zen 7 edo 8 egunez, hartzidurak sortutako aparra goiko sarbidetik edo zulotik ateratzen zen arte.



Jose Maria Salaberriaren sagardotegiaren krokisa

Une horretan 4.000/5.000 litroko haritz zurezko kupel handietara aldatzen zen isurkaria, eta kupel horiek txikizkako salmenta puntuetan zeuden, Hondarribiko 5 saltokietan.

Kupel handi horiek itxita edukitzen ziren sagardoa txikizkako salmentarako prest egon arte.

Lehenbiziko instalazio hartatik hogei urte igaro ondoren, laneskuan aurreztu beharrak ekarri zuen sagarrak txikitzeko eta prentsatzeko sistemaren erabateko elektrifikazioa.

Prentsaketa lanetik etorritako hondarrak pentsu ona eskaintzen zion aziendari.

12.8.4.- SERAFIN SAGARZAZU SAGARZAZU

Sagardoaren kulturan primus inter pares aurkezteko, Hondarribiko mugak gainditzen baititu, hasteko geure egiten dugu Xabier Sagarzazuk Noticias de Gipuzkoa egunkarian argitaratutako ekarpen hau (2017ko martxoa 15):

> *Serafin Sagarzazuk 84 urte ditu eta jubilatua dagoen arren, 1965ean zabaldu zuen San Pedro kaleko Zeria jatetxearen bizitza gertutik jarraitzen du oraindik. Sagardogile*

ere izandako hondarribiar honek kontatzeko asko du.
Familia sagardogilea ere izan zarete. Kuluxka izan zenuten, gero Alde Zaharrean ere sagardoa egiten zenuten eta baserrian, Sagarzazu sagardotegia izan zenuten azkena. Zergatik itxi zenuten?
–Sagardotegiak ondo funtzionatzen zuen, baina haundia zen eta lan asko egin behar zen. Nik adina banuen ordurako eta duela hamar urte ixtea erabaki genuen. Zeriarekin jarraitu genuen aurrera. Bada, hori bai, oraindik sagardotegiaz galdezka deitzen duen jenderik. Interneteko gidaren batean edo hor egongo gara oraindik..
Zeria 1965an zabaldu genuen, baina aurretik, hemendik gertu dagoen Kuluxkan sagardotegia zeukan familiak eta han hasi nintzen.
Familia sagardogilea ere izan zarete. Kuluxka izan zenuten, gero Alde Zaharrean ere sagardoa egiten zenuten eta baserrian, Sagarzazu sagardotegia izan zenuten azkena. Zergatik itxi zenuten?
–Sagardotegiak ondo funtzionatzen zuen, baina haundia zen eta lan asko egin behar zen. Nik adina banuen ordurako eta duela hamar urte ixtea erabaki genuen. Zeriarekin jarraitu genuen aurrera. Bada, hori bai, oraindik sagardotegiaz galdezka deitzen duen jenderik. Interneteko gidaren batean edo hor egongo gara oraindik...

Hirian barrena Hondarribia liburuan idatzita dago Jose Maria Salaberriaren sagardotegia, Murrua kalekoa, Pedro Sagarzazuren eskuetara pasatu zela, Hondarribiko Sagarzazutarren hamaikagarren belaunaldikoa bera, eta gizon «altua zela, zaildua, dotorea keinuetan». Harekin ikasi zituen sagardoa egiteko artea eta teknika bere seme Serafin Sagarzazuk, dolare hura 1983ra arte gobernatu zuenak, urte hartan, negozioaren bilakaerak berak behartu baitzuen beste leku bat bilatzera.

1932ko urriaren 12an jaioa, Juan Ignacio Zubillaga Loinazek uko egin eta Hondarribiko Udaleko zinegotzia izan zen 1980ko urtarrilaren 25etik 1983ko maiatzaren 23ra arte. Serafin Maria Aranzazu Zurutuza Mugica beasaindarrekin ezkondu zen. Maore Sagarzazu Zurutuza eta Libe Sagarzazu Zurutuza alabak izan zituzten, eta horiek ere beren sema-alabak izan zituzten. Laurogeita hamahiru urte betetzeko gutxi falta zitzaionean zendu zen Serafin, 2025eko urriaren 8an.

Serafin Sagarzazuk, 1983an, Hondarribiko Udalari baimena eskatu zion Zimizarga auzoko Barrenetxea baserrian dolare bat eraikitzeko.

Pello Errazkin Ezponda arkitektoak aurkeztutako proiektua Udalbatzaren 1983ko azaroaren 24ko osoko bilkuran onartu zuten.

Barrenetxea sagardotegia, izen bereko baserriari itsatsita.



Serafin Sagarzazu zeria subklaseko balea baten hezur okzipitalaren ondoan, Hondarribiko Zeria jatetxean

12.8.5.- KAMIO-TXIKI BASERRIA

Hondarribiko baserri honek sagardoaren kulturari egindako ekarpenaren berri Ainara Elizondok eman digu, eta geure egiten dugu.

Kamio-txiki baserria Hondarribiko Jaitzubia auzoan

Sagardoa egiten baserriko dolarean

Hauexek dira Kamiotxiki baserria, Juan Jose Irazusta eta sagardogintzari dagokionez bildutako datuak:

.-Juan Jose Irazustaren aitak bi baserri zituen: Kamiotxiki eta Zaldunbordaberri.

.-Juan Jose Hondarribiko Kamiotxiki baserrian jaio zen 1901-04-25ean eta 2001-01-12an zendu zen, 100 urte betetzeko hiru hilabete falta zituela.

.-18 urterekin Argentinara ihes egin zuen Afrikara gerrara ez joatearren; Patagonian eta Panpetan ibili zen artzain 12 urtez.

.-1931n itzuli zen Euskal Herrira eta Errenteriako esmalterian lan egin zuen 29 urtez.

.-Ameriketatik bueltan, Zaldunbordaberri baserrian bizitu zen eta 1980. urtean "Nork bere bidea" eleberri autobiografikoa argitaratu zuen "Auspoa" bilduman eta Antonio Zavalaren laguntzarekin. Lan honi esker Espainiako Kritika Saria jaso zuen euskarazko narratiban 1980an. Hauxe izan zen Irazustaren lan bakarra.

.-90. hamarkadan Kamiotxiki baserria erosi genuenean, hainbat fruta arbolarekin batera, baserriko lurretan zenbait palmondo ere bazeuden, Juan Jose Irazustak Ameriketatik ekarritakoak, hain justu. Gaur egun baserriko lurretan oraindik ere bada palmondorik bere omenez.

.-Garai batean Kamiotxiki baserriak 80.000 metro karratu lur zituen; gero lurrak desjabetu egin zituzten, zatitu... Baserriak sagarrondoak zituen eta tolarea.

.-Baserria erosi genuenean, tolarea bertan zegoen. Antza denez, ingurukoek ere Kamiotxikin jotzen zuten sagarra sagardoa egiteko. Tolarea desmuntatu, txukundu eta gero berriz ere muntatu genuen, beraz, egun baserrian dagoen tolarea garai hartako bera da.

.-Baserria erosi genuenean aldare bat zegoen bertan, baina salerosketan etxea hustutzea adostu zen eta familiakoek jaso zituzten altzariak, beraz, ez dugu aldarearen datu gehiago.

.-Baserrian egiten dugun sagardoa etxerako da.

12.8.6.- ZIGARROA BASERRIA

Zigarroa baserria, Hondarribiko Jaitzubia auzoan, Euskal Herriko zaharrenetakoa da. 1462koa da baserri honi buruzko lehenengo aipamen idatzia. Zigarroa izena historian zehar mantendu da, deitura bezala, 1553an baitago jasota abizen hori daraman lehenengo pertsona: Esteve Zigarroa.

Gaur egun zaharberrituta dagoen baserria erabat suntsitu zuten soldadu frantsesek 1638ko setioan, orduan Veronica Zigarroa zuen jabe.

Gaur egungo jabeek, Narciso Corres eta Cecilia Camporen oinordekoek, sagardoa egiten dute baserriko instalazioetan, beren lurretatik bildutako sagarrekin.

Baserritik hurbil Zigarroako karobia dago, ondare balio handikoa Hondarribiarentzat.

Zigarroa

Garlea, upa, kupela edo upel luzanga baserrian gordetako sagardoa garraiatzeko

Ramon Corres Zigarroa baserriaren inguruko sagarrondoen ondoan

12.8.7.- BEKO-ERROTA ETA ARDOKA SAGARDOTEGIAK

Jaitzubiako Beko-errota baserriak, baserriari buruzko lehenengo aipamen idatzia Lucia Alzateren 1562ko testamentua delarik, kalte handiak nozitu zituen Frantziako armadak 1638an ezarritako setioan. Baserria XX. mendearen hasieran zaharberritu zuten eta, geroago, XX. mendearen amaieran, erabat eraldatu zuten gaur egungo jatetxe handi bihurtzeko.

Eraikinaren inguruan mahastiak eta olibadiak lantzen dira, eta bertako sagarrekin egindako Beko errota Tolartegi sagardoa zerbitzatzen da.

ARDOKA SAGARDOTEGIA

Gaur egungo Ardoka sagardotegiaren historiak gaur egun dagoen lekuan du abiapuntua, Bidasoa ibilbidean. Aurkitutako lehenengo aipamen idatziak 1975ean eraitsitako Txautxaba etxeari egiten dio erreferentzia.

SAGARDOTEGIA

Orain dela hogeita bost bat urte abian jarri zen Hondarribian Lokate / La Sagardotegia, Kepa jatetxearen ondoan. LA hitz vietnamdarra da, sagardotegiari izena emateko egokia. Gaur egun Ardoka Sagardotegia du izena.

Ardoka lokala

Sagardoaren kulturak Hondarribian izan zuen garrantzia agerian uzten duten lekukotasun horiekin batera esan dezakegu oraindik ere dolare batzuk geratzen direla, kontserbazio egoera onean batzuk eta ez hain onean bestetzuk, eta zenbait sagardoa egiteko baliatzen direla maila apalean, hala nola Arkollako Martitxenea baserrian.

Beko-errotako sagardoa

LA FIESTA DEL TXOTX EN BEKO-ERROTA

La palabra txotx, zotz, significa palillo, púa, espiche. Así, el txotx es una especie de palillo que cierra un orificio y que se encuentra en la cabecera de la kupela. Antaño se servía con grifos de latón, cuando el vaso de sidra se vendía a 10 céntimos y solía acompañar a un chicharro o verdel, recién adquiridos en el muelle. Así eran las sidrerías a lo largo de todo el pueblo vasco. Lugares donde abundaban los bertsolaris y donde surgían las más insólitas apuestas. Todas estas anécdotas han quedado atrás, no así la tradición del txotx. Para saborear realmente la sidra, no hay ningún secreto como el txotx. Cuando la rica sagardoa empieza a caer de la kupela, sobre unos anchos vasos de cristal, puestos en hilera medianamente inclinados y colocados a metro y medio de distancia, la sidra empieza a despertarse de su letargo. Si el trago al txotx se hace en cuadrilla, entonces se organiza espontáneamente una fiesta. Surgen las improvisaciones. Siendo la costumbre más común comer de pie y cambiando los vasos.

El último domingo de enero, el caserío BEKO-ERROTA celebra la fiesta anual de la sidra. La operación de la apertura al txotx, marca el hito principal de la fiesta. Al son del txistu y tamboril, con fuertes repiques de cencerros y txalaparta, se arranca el ziri y la sidra sale con fuerza. Luego vienen los bertsolaris, la trikitixa, los danzaris, las txingas. Los talegilles de Segura no pueden dar abasto. Grandes y chicos se van sentando en mesas alargadas para saborear el bacalao, los txuri-beltz, las chuletas, las cataña, los talos. Y siempre de fondo, el sordo tañir del chorro de la joven sagardoa que cae.

Un logro importante del restaurante BEKO-ERROTA es el haber conseguido tener sidra al txotx desde su apertura hasta el 1 de octubre, a la misma temperatura y con el mismo frescor que el primer día, y ello gracias al dispositivo de frío con que cuenta. Las nuevas sidrerías que van apareciendo por doquier tratan de instalar sistemas similares a Beko-Errota, aunque no siempre con idénticos resultados.

Para terminar, traemos a colación aquellos bersos de Ramón Artola:

Bediekatua izan dedila
Sagardoaren graziya
Bai eta kupira gabe
eraten duben guztiya.

Erari onek gizon askori
Ematen dio biziya
au egan gabe egokia da
neretzat penitenziya.

GURE AMETSA

1984ko abenduan Bidasoan aldizkarian argitaratutako artikulua

Jatorrizko sagardotegiko kupela, gaur egungo lokalean

12.8.8.- ZORIONA ETXEA

Higerreko itsasargira doan bidean, Akartegi auzoan, Zoriona izeneko landetxe bat dago, 1935ean sustatu zuen Melchor Olaso Apezetxeak. Familia bakarreko etxea da, Ignacio Trecu arkitektoak proiektatua. Etxearen gibelaldean dolare txiki bat dago eta han sagardoa egiten du Lorenzo Olasok, arrazoi osoz etxeko sagardo izendatu daitekeena.

YouTuben Sagardoa *(Sidra en la comarca)* izenburuko dokumental bat dago, Julen Goikoetxeak bikain landua. Zoriona etxean sagardoa nola egiten duten ikus daiteke dokumentalean, eta era guztietako xehetasunak ematen ditu.

Zoriona etxeko fatxada nagusia Hondarribiko Akartegi auzoan

12.8.9.- HIGERALDE SAGARLEKUA

Liburu honen argitalpenak bat egiten du Hondarribian sagardotegi berri bat martxan jartzearekin: HIGERALDE SAGARLEKUA. Bixen Magan da sustatzaile nagusia, eta haren kargu dago, era berean, 2002an sortutako Higeralde landetxea, Jaizkibel mendia Higer lurmuturrarekin batera "itsasoratzen" den parajean.

Leku estrategiko horren toponimia, pikuei lotua, gaur egun Hondarribiko fruitu "nagusiarekin" dago aberastuta, hots, sagarrarekin.

HIGERALDE SAGARLEKUA sagardotegi berriak Hondarribiko sagardo tradizio historikoa eta orainaldia uztartzen ditu, non sagardoak, modu magikoan baina aldi berean modu errealean, lortu duen euskal sagardoa Euskal Herri osoaren nortasun marka izatea.

Higeralde Sagarlekua sagardotegia argazkian nabarmendua



Higeralde sagardotegia

12.8.10.- SAGAR MINTEGIA HONDARRIBIAN

Liburuaren kapitulu honetan argi geratu den gai bat da sagardoak Hondarribian duen presentzia eta arrasto handia. Horregatik, ezin dugu kapitulua itxi Hondarribiko lurrek sagardoa egiteko sagarren errekuperazioan jokatutako rola. Izan ere, Gipuzkoako Aldundiak, 1980ko hamarkadan, «Gipuzkoako pizkunde pomologikorako» oinarriak jarri zituen mintegi bat abiarazi zuen.

Esperientzia horri buruzko ezinbesteko informazioa, garrantzitsua baita sagardoaren kulturarako, Juana Ochotecoren ekarpenetik jaso dugu (*El Diario Vasco,* 2019ko maiatzak 11).

Iragan mendeko 70. hamarkadan, sagardotegiek ez zuten zerikusi handirik gaur egungoekin alderatuta. Gutxi ziren, ez ziren errentagarriak eta Gipuzkoako sagastiak urritzen ari ziren. Orduan sortu zen Euskal Sagarraren Ikerle Taldea sagardoa egiteko sagarra ikertzeko xedearekin. 80. hamarkadaren hasieran, Gipuzkoako Foru Aldundia sagardoa egiteko sagarrari eta sagarrondoen landaketari buruzko ikerketak bultzatzen hasi zen. Baina sagargintza birsortzeko apustua XX. mendearen hasieran egin zen: izan ere, 1916an, Aldundiak Pomologia Batzordea sortu zuen, azaldu du Lourdes Odriozola historialariak eta *Cien años de la Comisión Especial de Pomología de Gipuzkoa* izenburuko monografiaren egileak. 80. hamarkadara itzulita, batzorde horren lan garrantzitsuenetako bat izan zen «Programa Pomologikoa abian jartzea». Eta, hor, berebiziko rola jokatu zuen Bidasoaldeak.

Programa Pomologiko horren abiapuntua izan zen «herrialdeko sagar barietateen mintegi baten sorrera, sagar barietateak hainbat patroitan txertatuz, haien landaketa sustatzeko Hondarribiko Zubieta finkan. Hau da, Zubietan abiarazi eta jarri ziren Gipuzkoako pizkunde pomologikorako oinarriak», adierazi digu Lourdes Odriozolak.

SAGARDOA EGITEKO ONENAK

Han, Zubietan, «bertako 36 sagar barietateen 383 sagarrondo landatu zituzten, hain zuzen ere sagardogileen aburuz sagardoa egiteko onenak ziren horiek. Sagarrondo espezie horiek Gipuzkoako baserrietatik erreskatatu ziren landareok kontserbatzeko edo baliabide genetikoak gordailutzeko». Horrela, historialariak azaltzen duenez, Zubietako mintegi esperimentaleko sagarrondoak pertsona interesdun guztien eskuragarri jarri ziren, eta, gainera, dirulaguntzen programa bat izan zuten lagungarri 1982an abiarazitako landaketa burura eramateko».

Zubieta finka (1984). Sagardoa egiteko sagarrondoen landaketa (pomologia)

Amaitzeko, hauxe diosku Odriozolak: urte gutxi batzuk geroago,

> *comenzaron a tomarse sistemáticamente datos en el manzanal, se realizaron ensayos en patrones, se adecuaron sus locales para el establecimiento de un laboratorio de campaña y una pequeña bodega, se comenzó a elaborar sidras de diferente composición, se impartieron cursos sobre poda, se organizaron catas de sidra experimental con el fin de obtener un producto de calidad... Por todo ello, Zubieta fue en Gipuzkoa un centro pionero en la moderna pomología, jugó un papel fundamental en la recuperación y conservación de las especies autóctonas, y apostó por la investigación para obtener una sidra de calidad con las manzanas autóctonas.*

OROITZAPENAK, TESTIGANTZAK, BITXIKERIAK ETA ANEKDOTAK

13.1.- LUIS MARIANO: ABESLARI SAGARDOTEGIETAN

Liburu honetan bildu ahal izan ditugun bitxikeria guztien artean bada bat guztien gainetik inola ere nabarmentzen dena: Luis Mariano artista paregabeak sagardotegien munduarekin izan zuen lotura estua. Izan ere, Hondarribiko arrantzale askoren gogoan, gurasoengandik seme-alabengana gaur egun arte transmititu den gaia da artista gaztearen presentzia, Hondarribian sagardotegiz sagardotegi abesten zuenarena.

Portua auzoko tabernak eta jatetxeak (asko eta asko lehendik sagardotegi izandakoak) ireki aurreko garaian, normala zen herri osoan barreiatzen ziren sagardotegietara joatea, haietan baserritar, kaletar eta portuar asko biltzen ziren. Portua auzokoei dagokienez, arrantzaleak beren arrainekin joaten ziren sagardotegira, eta han prestatzen zituzten eskura zuten sagardoaz lagundurik jateko, «Gaizki ala ondo jan, hiru bider edan» esaera zahar jakintsua aplikatuz.

Arrantzale kuadrilla bakoitzak bere sagardotegia zuen, eta han, gastronomiaz gain, era guztietako gai herrikoiak ontzen ziren, musikak leku nabarmena hartzen zuen kuadrilla horietan, berriz ere errealitate bihurtuz «Euskaldun on, jan ta hots» euskal esaera zaharra. Giro horretan abesten zuen gure Luis Marianok, eta jada lehen abesti horietan lortu zuen bertaratuak hunkitzea, geroago, era guztietako ikus-entzuleen aurrean, bere bizitza artistikoa izango zenaren lehen urratsak egiteaz gain. Luis Marianoren biografia ugarietan jasota ez badago ere, guk dakigunaren arabera, azpimarratu behar da Marianoren lehen miresle sutsuak arrantzale haiek izan zirela, beren ontzietako motorren soinura eta itsasoaren orroetara ohituta egonik, 1914ko abuztuaren 13an Irunen jaiotako tenor gaztearen abesti haien letrak entzuteko zortea izan baitzuten.

Hondarribiko sagardotegietan ibiltzen zenez, Luis Marianok luzaroan iraun zuten lagun minak izan zituen herrian, bertako alardean desfilatu zuen eskopeta sorbaldan hartuta Gerra Zibila hasi aurretik, Gora Arrantzale Gazteak *(Shangay)* konpainian, Jose Oronoz kapitainak gidatutako arrantzale kuadrillarekin batera.

Luis Mariano txikitan

Luis Mariano Hondarribiko lagun batzuekin

Luis Mariano, txapelarekin Javier Lazkanoteguirekin batera

Javier Lazkanotegi Ugarte, Luis Mariano, Josemari Zamora Enparan

Luis Marianok Hondarribiko lagunari bidalitako gutunetako baten azala

Bere lagun min Mariano jaio baino bost egun lehenago Hondarribian sortu zen Javier Lazkanotegi Ugartek konpainiako kapitainaren aurrean aurkeztu zuen Mariano, eta kapitainak konpainian desfilatzeko baimena eman zion. Javier Lazkanotegiren arabera, bere laguna, haurra zelarik, hainbat urtez desfilatu zuen «hondarribiar sutsuenaren pare herriko Alardean». Baina, beti baitago baina bat, Irungo 1936ko Alardeko tiro jasa egin ondoren iritsi ziren 1936ko uztailaren 18ko matxinatuen tiro lazgarriak. Luis Marianoren familiak muga igarota salbatu zuen bere burua. Musikarekin lotuta dagoenez, Saran Erensoika abesbatzan parte hartu zuela nabarmendu behar da. Abesbatza hori Eusko Jaurlaritzak sortu zuen, 1937. urtearen amaieratik 1939ra arte Euskal Herriaren presentzia mantentzeko eta beste nazio batzuetan ezagutarazteko.

Marianoren ama Gregoriaren ekimen burutsu bati esker, semearen jaiotegunaren data 1920. urtera atzeratu baitzuen, ez zuen parte hartu behar izan II. Mundu Gerran, baina, dirudienez, urte horietan, nazien aurkako erresistentziaren ekintzaren batean parte hartu zuen eta, 1944an eta 1945ean zaurituta zeuden soldadu frantsesei abesten zien hainbat ospitaletan. Kontua da Luis Marianok musika ibilbide oparoa egin zuela nazioartean, eta beti izan zuela gogoan Euskal Herriarekiko maitasuna 1970eko uztailaren 14an zendu zen arte.

Hil eta urte batzuk geroago, Hondarribiko arrantzaleek gozatu egiten zuten irratiz abesten entzuten zutenean, gaztetan herrian bizitakoak gogorarazten zizkien. Gauzak horrela, Hondarribian omenaldi bat egin zioten Luis Marianori, *Artezblai, el Periódico de las Artes* Escénicas aldizkarian jasota dagoenez (2010eko abuztuak 9):

> *El viernes 13 de agosto, fecha en la que Luis Mariano hubiera cumplido 96 años, en colaboración con Hondarribiko Udala se organizarán una serie de actividades para recordar el cuarenta aniversario de su fallecimiento. Los actos comenzarán a las 19 h en el Parador Carlos V con una Mesa Redonda en la que participarán Patchi Lacan (amigo, secretario y heredero de Luis Mariano) y José Luis Azcue (pianista del artista irunés) que llevará el título de «Luis Mariano, la persona», y en la cual nos contarán detalles hasta ahora desconocidos o inéditos para el gran público de la vida del «Príncipe de la Opereta». Durante esta charla se podrán ver fotografías e imágenes inéditas del cantante irunés. A continuación en Gipuzkoa Plaza se celebrará un concierto íntegramente marianista de la mano del propio José Luís Azcue y de Ángel Pazos, en el cual repasarán toda la vida artística de Luís Mariano interpretando una amplia selección de sus temas más destacados.*

13.2.- APURU GALDUA

Sagardoaren kulturari dagokionez, gogoraraztekoa da José Uriaren ekarpen hau *(La sidra)*:

> *Antiguamente, a las primeras catas que se hacían en las sidrerías se les llamaba en vasco apuru, palabra que no hemos podido averiguar de dónde procede.*

Sin embargo, todavía hoy hay personas que conocen perfectamente el significado de apurua egitea ('catar las primeras sidras'). Se trataba de la reunión de algunos compradores de sidra y de amigos y clientes del sidrero, que, a media mañana del día anterior al de la apertura oficial de la sidrería, se acercaban con algunas viandas para celebrar el comienzo de las cubas.

Según otra versión, hasta comienzos de este siglo, ir al apuru significaba acudir a la primera invitación de vasos de sidra que tradicionalmente se hacía antes de abrir las cubas y ponerlas a la venta. Pero también se ha llamado apurua egitea al acto de asistir en reducida cuadrilla a las catas de sidra de las distintas cubas de la sidrería. Algo parecido a lo que en nuestros días se llama txotxetik edatea o 'beber del espiche', que luego explicaremos.

Estas primeras degustaciones siempre se han considerado en el mundillo sidrero como semisagradas, pues, aparte de que a ellas no podían acudir las mujeres, la entrada estaba reservada exclusivamente a los clientes entendidos y muchas veces tan solo a aquellas personas que se habían granjeado la confianza del dueño de la sidrería. Eran reuniones serias, todo un rito que se celebraba a puerta cerrada.

La sardina vieja (llamada el besugo de la sidrería) y, como mucho, algunos trozos de bacalao eran los alimentos que se servían para hacer de otordu ('tentempié') al probar las nuevas sidras. No se conocían las parrillas ni las barbacoas que actualmente se utilizan.

En general, los sidreros eran poco amigos de hacer el apuru, pues decían que la sidra de las kupelas se revolvía mucho. A principios de siglo, en muchas sidrerías de Gipuzkoa no se daba la costumbre de degustar la sidra nueva hasta que se abrían las cubas al público.

Hemos removido infructuosamente papeles y documentos que pudieran acreditar el significado de la palabra apurua, pero reproducimos a continuación algunas opiniones recogidas por vía oral entre sidreros de cierta edad.

En los libros de los fueros y también en actas y disposiciones de diversos municipios vascos, se habla de la «sidra pura» y la «sidra aguada» y se hace la distinción entre la sidra natural y la pitarra. Los términos de sagardo soila ('sidra sola') o sagardo purua ('sidra pura') han sido utilizados muchas veces para definir la sidra buena, la sidra sin agua, y todavía es frecuente oírlos en muchos caseríos y sidrerías donde se elabora sidra natural.

En opinión de algunos sidreros consultados, la palabra apurua bien podría derivar de catar la sidra pura, sobre todo, teniendo en cuenta que hasta fines del siglo pasado los Ayuntamientos de los pueblos tenían la costumbre de enviar algún catador o alguacil a comprar las sidras: sellaban las cubas de sidras puras y denunciaban las aguadas.

El término vasco aburu significa 'opinión' y se dice aburua eman o aburua egin, equivalente a 'dar un parecer'. Existe, pues, la posibilidad, muy normal en euskera, del cambio fónico de abur en apuru.

Una tercera opinión, quizá la más simple, pero no por eso desechable, es la de que el término apuru está tomado del castellano apurar o vaciar el contenido de un vaso o recipiente. Recordemos que antaño en las sidrerías vascas se bebía en jarras hasta que se llegó al uso de los vasos de vidrio. Estas jarras —primero de madera y luego de barro cocido— las pasaban de boca en boca los pequeños grupos, cuadrillas y asiduos a la sidrerías hasta vaciarlas o apurarlas del todo.

